


EUSKADIKO HEZKUNTZA SISTEMAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA.

2017-18/2018-19



AURKIBIDEA

1. EUSKAL HEZKUNTZA NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN (ET 2020 estrategia eta 2030eko GJHak).

- 1.1. Europar Batasunaren 2020rako xede estrategikoak eta erreferentziazko puntuak.
- 1.2. Euskadiko hezkuntzak ET 2020 estrategian duen egoera.
- 1.3. ET 2020 estrategiaren bost adierazleen analisi espezifikoak.
 - 1.3.1. Haur Hezkuntza eta haurrentzako arreta.
 - 1.3.2. Oinarrizko konpetentziak (15 urterekin errendimendu baxua duten ikasleak).
 - 1.3.3. Hezkuntza- eta prestakuntza-uztea (18 eta 24 urte artean)
 - 1.3.4. Hezkuntza tertziarioko titulazioa (30 eta 34 urte artean)
 - 1.3.5. Bizitzan zeharreko prestakuntza (25 eta 64 urte artean)
- 1.4. 2030eko GJHak eta horiek Eusko Jaurlaritzaren estrategian ET 2020 esparru estrategikoarekin duten harremana.
- 1.5. Ondorio orokorrak eta proposamenak.

2. EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN GERUZAK: EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMA NOLA ALDATU DA? ETA NORANTZ DOA?

- 2.1. Hezkuntza-sistemaren antolaketaren geruzak.
 - 2.1.1. A eredu publikoa
 - 2.1.2. B eredu publikoa
 - 2.1.3. D eredu publikoa
 - 2.1.4. Itunpeko A eredua
 - 2.1.5. Itunpeko B eredua
 - 2.1.6. Itunpeko D eredua
- 2.2. Ondorioak eta etorkizunera begirako ikuspegia.

3. EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN KONTU GILTZARRI BATZUK

3.1. EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAN IKASTEAREN EMAITZAK

- 3.1.1. Ikasleen errendimenduaren bilakaeraren azterketa eta beste hezkuntza-sistema batzuekiko konparaketa.
- 3.1.2. Euskal sistema elebidunean euskaldiuntzea.
- 3.1.3. Ondorio orokorrak eta proposamenak.

3.2. IRAKASKUNTZAREN ARLOKO BERRIKUNTZA ETA EKINTZA

- 3.2.1. Irakaskuntza-ekintza eta horrek eskola-erredimenduan duen eragina neurtzea.
- 3.2.3. Irakasleen prestakuntza eta laguntza aztertzea.
- 3.2.4. Zuzendaritza-taldeak prestatzeko euskal eredua.

3.2.5. [Ondorio orokorrak eta proposamenak](#)

[ERANSKINAK](#)

1. Eranskina. [HEZKUNTZA-SISTEMAREN PLANIFIKAZIOA](#)

1.1. [Jaiotza-tasaren bilakaera Euskadin.](#)

1.2. [Ikasleak eta haien eskolatzea, etapen arabera](#)

- 1.2.1. [Hezkuntza etapa guztiak](#)
- 1.2.2. [Haur Hezkuntza](#)
- 1.2.3. [Lehen Hezkuntza](#)
- 1.2.4. [Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza](#)
- 1.2.5. [Batxilergoa](#)
- 1.2.6. [Lanbide Heziketa](#)
- 1.2.7. [Helduen Hezkuntza](#)

1.3. [Araubide bereziko irakaskuntzak](#)

1.4 [Hezkuntza laguntzarekin lotutako premia bereziak dituzten ikasleak](#)

1.5. [Atzerriko ikasleak](#)

1.6. [Ikasle bekadunak](#)

2. Eranskina [HEZKUNTZA SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK](#)

2.1. [Hezkuntzaren adierazle ekonomiko nagusiak](#)

- 2.1.1. [Gastu publikoa, bpgaren ehuneko gisa](#)
- 2.1.2. [Hezkuntzako gastu publikoa, gastu publiko osoaren ehuneko gisa](#)
- 2.1.3. [Hezkuntzako gastu pribatua](#)
- 2.1.4. [Ikasle bakoitzeko gastua](#)

2.2. [Hezkuntza sailaren aurrekontuen analisia](#)

- 2.2.1. [Hasierako aurrekontua eta gauzatutako aurrekontua](#)
- 2.2.2. [Aurrekontuaren banaketa, kapituluaren arabera](#)
- 2.2.3. [Aurrekontuaren banaketa, programen arabera](#)
- 2.2.4. [Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzen programak eta azpiprogramak](#)
- 2.2.5. [“1. Pertsonal-gastuak” eta “6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak” kapituluaren analisia](#)
- 2.3.6. [Ikastetxeen itunak](#)

2.3 Irakasleen plantillen analisia

2.3.1. Irakasleak Euskadiko Ikastetxeetan

2.3.2. Ikastetxe publikoen plantillen bilakaera, eta irakasle/ikasgela, ikasle/ikasgela eta irakasle/irakasle ratioak

2.3.3. Irakaskuntza publikoko irakasleen tipologiaren arabera.

BOTO PARTIKULARRA

1. EUSKAL HEZKUNTZA NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN (ET 2020 estrategia eta 2030eko GJHak).

Gizartean gertatzen ari diren aldaketa bizien ondorioz, gero eta handiagoa den aniztasun kultural eta sozialaren ondorioz eta bitarteko nahiz baliabide teknologikoen ugaritze geldiezinaren ondorioz, hezkuntza-sistemak gero eta konplexuagoak dira, eta hezkuntza-sistemak mundu-mailan izugarri eraldatzea eta aldatzea eragin du horrek. Globalizazioaren fenomenoak eremu guztiak blaitu dituzenez, horren eragina erabakigarria da eta gero eta erabakigarriagoa izango da hezkuntza-eremuan ere.

Gaur egun, hezkuntza-sistema baten hobekuntzak baloratzeko, dagoeneko ez da nahikoa barrura begiratzea eta emaitza akademikoen luzetarako konparazio-analisi bat edota eskolatzeko-prozesuen barne-mailako balorazio bat egitera mugatzea. Alderdi horiek ezinbestean zaintzen jarraitu behar dugun arren, oraintxe bertan nahitaezkoa da hezkuntza-prozesuen, ikasketen emaitzen eta jarduketaren kalitatea baloratzeko eta kalitate hori nazioarteko mailan arrakasta duten beste hezkuntza-sistema batzuen kalitatearekin alderatzea, ikasteko eta elkarlanean aritzeko jarrerarekin beti (eta ez lehiatzeko asmoz). Gaur egun, hezkuntzak ezin du eta ez du mugarik eduki behar.

Testuinguru horretan, nazioarteko antolakunde publiko nahiz pribatu esanguratsuenek urte batzuk daramatzate hezkuntza-eremuan elkarrekin aritzeko lan-ildoak bultzatzen, eta, are, hezkuntza-sistemen hobekuntza neurtzeko puntu komunak finkatu dituzte.

Bada, horixe da txosten honen lehenengo kapitulua euskal hezkuntzak nazioartean zein egoera duen aztertzea eta baloratzeko bideratzeko arrazoiak, eta Euskadi partaide duten bi proposamen garrantzitsuenak hartu ditugu erreferentziatzat: Europar Batasunak sustatzen duen *Hezkuntza eta Prestakuntzarako 2020ko Estrategia* (ET 2020), 2009an martxan jarri zenetik hamargarren urteurrena bete duen honetan, eta UNESCOren programa, *2030eko Garapen Jasangarriarako Helburuetan* (2030eko GJHak) zehazten dena eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsi zuena. Bi estrategia ezberdin dira, lurralde-eremu eta dimentsio ezberdinekoak, baina, ikusiko dugunez, xedeetan eta proposamenetan lotune garrantzitsuak daukate, hezkuntza nazioarteko mailan hobetzeari dagokionez.

Gaur, hezkuntza-sistemak erreferentziatzeko puntu komun bidez alderatzen dira, eta, halaber, puntu horien bidez aritzen dira lankidetzan, nazioarteko mailan.

Lehenik, Europar Batasunaren ET 2020 strategiaren indarreko xede estrategikoak eta erreferentziako puntuak aurkeztuko ditugu, eta horietako bakoitzaren zentzuari eta egokitasunari buruzko azalpen laburra emango ditugu; bigarrenik, Euskadiren egoera azalduko dugu, oro har hartuta eta puntuz puntu, Espainiako eta EB-28ko batezbestekoekin alderatzeko, eta, azkenik, 2020ko erreferentziako puntu guzti-guztien azterketa sakon eta espezifikagoa egingo da, Euskadiren egoerari heltzeko. Kapitulu honen azken atala 2030eko GJHei buruzkoa izango da, eta Europar Batasunaren ET 2020 estrategian planteatzen diren xedeen eta Unescok sustatu duen Agendaren arteko lehenengo lotura ezarriko da.

Azterketa honetan, iturria hainbat dokumentutan duten datuak eta informazioak hartuko ditugu erreferentziatzat, etorkizuneko txostenetan ibilbidearen segimendua egin ahal izateko abiapuntua izan dadin.

- a) Europako Batzordeak *Education and Training Monitor*¹ (Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren Monitoreak²) izeneko urteko txostenaren bidez emandako datuak (Europako Batzordeak argitaratu zuen txostena, eta, bertan, Europako, eskualdeetako eta autonomia-erkidegoetako datuak jasotzen dira).
- b) *Eurydice*³ Europako Batzordearen hezkuntzari buruzko informazio-sareak emandako datuak. Izan ere, sare horrek 2015etik argitaratzen du Europako Batzordeak *Education and Training Monitor* txostenean urtero egiten duen analisiari testuingurua ematen laguntzeko egiturazko adierazleen hautapena (*Structural Indicators for Monitoring Education and Training Systems in Europe*⁴). Egiturazko adierazleei buruzko 2018ko txostenak sei kapitulu eta 29 adierazle dauzka, eta, horien bidez, Europako erreferentziatzko sei puntuak aztertzen dira.
- c) Hainbat estatistika-zerbitzu: Eurostat⁵, INE-Hezkuntza⁶ (Estatistikako Institutu Nazionala), Eustat-Hezkuntza⁷ (Euskal Estatistika Erakundea) eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioaren Hezkuntza Estatistika⁸; bereziki, Educabase datu-basea⁹.
- d) INEEren (Hezkuntza Ebaluatze Institutu Nazionala) hezkuntza-arloko adierazleen sistema estatala¹⁰
- e) *Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa*¹¹ agirian jasotako informazioa (Hezkuntza Saila).

Honako grafiko, taula edo irudi hauetan guztietan erabilitako datuen iturria adierazten da, eta, askotan, zenbakiak hartzeko datu-baseetarako edo dokumenturako esteka jarri da.

¹ https://ec.europa.eu/education/policy/strategic-framework/et-monitor_en

² https://ec.europa.eu/education/resources-and-tools/document-library/education-and-training-monitor-2019-eu-infographics_es

³ https://eacea.ec.europa.eu/national-policies/eurydice/index_en.php_en

⁴ https://eacea.ec.europa.eu/national-policies/eurydice/content/structural-indicators-monitoring-education-and-training-systems-europe-%E2%80%93-2018_en

⁵ <https://ec.europa.eu/eurostat/data/database>. Bereziki interesgarriak dira Europako eskualdeekin zerikusia daukaten datuen

taulak: [https://ec.europa.eu/eurostat/fr/web/regions/data/main-](https://ec.europa.eu/eurostat/fr/web/regions/data/main-tables?p_p_id=NavTreeportletprod_WAR_NavTreeportletprod_INSTANCE_ssqJzHaaMwj&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-2&p_p_col_count=1)

[tables?p_p_id=NavTreeportletprod_WAR_NavTreeportletprod_INSTANCE_ssqJzHaaMwj&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-2&p_p_col_count=1](https://ec.europa.eu/eurostat/fr/web/regions/data/main-tables?p_p_id=NavTreeportletprod_WAR_NavTreeportletprod_INSTANCE_ssqJzHaaMwj&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-2&p_p_col_count=1)

⁶ <https://www.ine.es/dynt3/inebase/index.htm?padre=2402&capsel=2402>

⁷ https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_279/opt_0/tipo_1/temas.html

⁸ <http://www.educacionyfp.gob.es/eu/servicios-al-ciudadano/estadisticas.html>

⁹

<http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaDynPx/educabase/index.htm?type=pcaxis&path=/Formacionym/EPA2018/Aban&file=pcaxis&l=s0>

¹⁰ <http://www.educacionyfp.gob.es/inee/indicadores/sistema-estatal.html>

¹¹ <https://www.euskadi.eus/euskal-hezkuntza-sistemaren-diagnostikoa/web01-s2hhome/eu/>

1.1. EUOPAR BATASUNAREN 2020RAKO XEDE ESTRATEGIKOAK ETA ERREFERENTZIAZKO PUNTUAK.

Hezkuntza eta prestakuntza beti izan dira Europar Batasunaren funtsezko kezkak, herrialde europarren hazkundea adimentsua, jasangarria eta integratzailea izateko estrategian eginkizun giltzarria baitute. 2000n, *Lisboako Estrategia* deiturikoan, ekimen komunak abiatzeko eta lankidetzat politikoa bultzatzeko prozesu bat abiatu zen, hezkuntza-arloko emaitzak hobetze aldera, eta hezkuntzaren nahiz prestakuntzaren arloko 2010erako xedeak zehaztu ziren. Une hartan, honela formulatu zen Lisboako xede estrategikoa: «Europa ezagutzen oinarrituriko ekonomia bihurtzea, munduko lehiakorrena eta dinamikoena, ekonomikoki modu jasangarrian haz dadin, enplegu gehiago eta hobeekin eta gizarte-kohesio handiagoarekin» (Europako Batzordea, Lisboa, 2000).

Bruselako 2003ko Europako Batzordean, erreferentziazko bost puntu (*benchmarks*) ezarri ziren 2010erako, hezkuntza-sistemek proposatu ziren xedeak lortzeko bidean zuten bilakaera zehatz-mehatz baloratzeko helburuz. Erreferentziazko puntu horiek Europar Batasunaren beraren datuak eta, besteak beste, UNESCOk, Ekonomia Lankidetzat eta Garapenerako Erakundeak eta IEAk sustatutako nazioarteko ikerketa batzuen datuak baliatzen zituzten.

2003an, *Lisboako Estrategiaren* bidez, xede europarrak finkatu ziren lehen aldiz. 2009an, berrikusi egin ziren, eta lau xederi eta erreferentziako sei punturi buruzko erabakia hartu zen, 2020a gogoan.

Ondoren, 2009ko maiatzean, Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluak *Hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan Europako mailako lankidetzat sustatzeko esparru estrategikoa* zehaztu zuen Hezkuntza eta Prestakuntzarako 2020ko Estrategia (*ET 2020*¹²) berriaren barruan, eta, horrekin, aurreko ET 2010 estrategian zehaztutako xede batzuk eguneratu ziren, eta berri batzuk sartu. Pertsona guztien errealizazio profesional, sozial eta pertsonala nahiz enplegarritasuna eta oparotasun ekonomiko jasangarria ziurtatzea zen xede nagusia, bai eta balio demokratikoak, gizarte-kohesioa, herritartasun aktiboa eta kulturarteko elkarrikitasuna ere.

Unean uneko egoeraren eta Europaren 2020ko Estrategian jasotzen diren xede nagusietarantzko bilakaeren panorama irudikatzeko, Europako Batzordeak bilakaerari buruzko txosten bat argitaratu zuen 2011n, eta, gero, 2012ko azaroan, baina *Education and Training Monitor* (Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren Monitoreak) izenburuarekin, bilakaerari buruzko aurreko txostenak ordezkatuz. Txosten horiek urtero egiten dira, eta argitaratu den azkena 2019koa da (ingelesez¹³ eta gaztelaniaz dago)¹⁴. Dokumentu nagusiarekin batera, *Rethinking Education Strategy* izeneko beste dokumentu batzuk datoz, eta, horietan, estatu kideek hezkuntzaren arloan egindako ekimen eta jarduerak onei buruzko datuak aztertzen dira¹⁵.

ET 2020 esparruak lau xede estrategiko ezarri zituen:

1. Bizitzan zeharreko ikaskuntza eta mugikortasuna egia bihurtzea.
2. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea zein eraginkortasuna hobetzea.
3. Parekidetasuna, gizarte-kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzea.

¹² <https://www.educacionyfp.gob.es/educacion/mc/redie-eurydice/prioridades-europeas/et2020.html>

¹³ <http://www.educacionyfp.gob.es/inee/dam/jcr:8f7f499f-cd6e-4661-89b3-00b539ac6cab/volume%201%20education%20and%20training%20monitor%202019.pdf>

¹⁴ https://ec.europa.eu/education/sites/education/files/document-library-docs/et-monitor-report-2019-spain_es.pdf

¹⁵ Horietako batean, *Rethinking Education - Country analysis* deiturikoan, herrialde europar bakoitzaren erronka nagusiak eta erronka horiei erantzuteko hartutako neurriak identifikatzen dituen laburpena jasotzen da. Laburpenek *Monitorean* aurkeztutako analisia osatzen dute, eta Batzordearen gomendio espezifikoek ezarpena gainbegiratzeko funtsezko elementuak ematen dituzte. Honako helbide honetan kontsultatu daitezke dokumentu guztiak: http://ec.europa.eu/education/news/rethinking_en.htm

4. Sormena eta berrikuntza sustatzea, ekintzailatza barne hartuta, hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan.

Xedeak neurgarriak eta alderagarriak izan daitezten, xedeok 2020an lortzeko bilakaera kontrolatzea helburu duten adierazleak eta erreferentziazko puntuak daude. Honako hauek dira gaur egungo erreferentziazko puntuak, Europar Batasuneko herrialde eta eskualde guztietarako berberak:

1.1.a) taula. EB-20KO 2020RAKO ERREFERENTZIAZKO PUNTUAK	
Lau urteetatik Lehen Hezkuntza hasi arteko adinean dauden haurren % 95ek gutxienez Haur Hezkuntzan parte hartu beharko lukete. Haur Hezkuntzako parte-hartzea areagotzea da asmoa, ondorengo arrakastarako oinarria izan dadin; bereziki, behar gehien dauzkaten inguruneetatik datozen haurren kasuan.	
0 eta 3 urte arteko haurren % 33k gutxienez Haur Hezkuntzan parte hartu beharko lukete. Europako Batzordeak «Bartzelonako xedea» izeneko auzari zuen 2002an, hiru urtetik beherako haurren zaintzari buruzkoa, eta adin horretako biztanleen % 33 gutxienez artatzea proposatzen zen bertan, erreferentzia modura. Erreferentziazko aurreko puntua osatzen du xede honek.	
Irakurmeneko, matematikako eta zientzietako oinarritzko konpetentzietan errendimendu baxua duten 15 urteko ikasleak guztizkoaren % 15 baino gutxiago izan beharko lirateke. 2010eko estrategiaren erreferentziazko puntuak irakurmena aipatzen zuen, eta errendimendu baxuko ikasleek ehunekoak % 20a ez gainditzea proposatzen zuen. 2020rako estrategia berrian, erreferentziazko puntuak zabaldu zen, matematiketan eta zientzietan errendimendu baxua duten ikasleak ere sartzeko. Erreferentziazko puntuak % 15eko ehuneko absolutuan finkatzeak, zalantzarik gabe, aurretik baino anbizio handiagoa edukitzea dakar. Ekonomia Lankidetzako eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) sustatzen duen PISA nazioarteko probaren emaitzetatik dator datu hau.	
Hezkuntza eta prestakuntza goiz (18 eta 24 urte artean) uzten dutenen ehunekoak % 10 baino txikiagoa izan beharko litzateke. 18 eta 24 urte arteko gazteen artean eskola-uzte goiztiarra % 10 baino txikiagoa izatea da xedea.	
Hezkuntza tertziarioko maila arrakastaz amaitu duten 30 eta 34 urte arteko ehunekoak % 40koa izan beharko litzateke gutxienez. Erreferentziazko puntu berriak kontuan hartzen du goi-mailako hezkuntzan titulua lortu dutenen eskaria igo izana, eta, aldi berean, garrantzi bera ematen die maila horretan sartzen diren ikasle guztiei.	
25 eta 64 urte arteko helduen % 15ek gutxienez ikaskuntza etengabean parte hartu beharko lukete. Erreferentziazko puntu hau 2010erako ere bazegoen (xedea % 12,5ekoa zen), baina 2020rako xedea asmo handiagokoa da, eta kualifikazio baxuko helduen parte-hartzeari buruzko ikuspegi erantsia dauka. Izan ere, adierazle honetan aintzat hartzen diren hezkuntza-mailak HNSN Otik 8rakoak dira (HNSN-Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua). Estatu kideek xede nazionalak ezartzeko konpromisoa har zezatela zen asmoa, kualifikazio baxuko eta altuko helduen arteko parte-hartzean zegoen desoreka murrizte aldera.	
Erreferentziazko urtea baino urtebete edo hiru urte lehenago Bigarren Hezkuntzako bigarren etapen, tertziarioa ez den bigarren hezkuntza-ostean edo hezkuntza tertziarioan (HNSN 3-6¹⁶)	

¹⁶ Hezkuntza-sistemen arteko bateragarritasuna bermatzeko, UNESCOk Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (HNSN) sortu zuen, nazioartean konpara daitezkeen hezkuntza-arloko kategoriak sortzeko eta estatistikak emateko erabiltzen den erreferentziazko esparru estandarra http://www.eustat.eus/document/datos/codigos/codigo_estudios_CINE_2011_c.pdf.

graduatu diren eta enplegatuta dauden 20 eta 34 urte artekoen ehunekoa % 82koa izan beharko litzateke.

Oso garrantzitsua da enplegarritasuna hezkuntzaren eta prestakuntzaren bidez finkatzea, gaur egungo eta etorkizuneko lan-merkatuaren premiei erantzun nahi bazaie. Beraz, 2020aren amaieran Kontseiluari arlo honetako erreferentziatzko puntu posible baten proposamena bidal diezaiola eskatzen diogu Batzordeari.

Indarreko erreferentziatzko puntua da dagoeneko, baina estatuetako datuak bakarrik dauzkagu (eskualdeetakoak eta autonomia-erkidegoetakoak ez), informazio hori jasotzen duten inkestetan fidagarritasun nahikoa bermatzeko moduko erantzun nahikorik ez dagoelako eskualde-mailan.

1.2. EUSKAL HEZKUNTZAK ET 2020 ESTRATEGIAN DUEN EGOERA.

Estatu kideek (Espainiar Estatuaren kasuan, baita autonomia-erkidego guztiek ere, Euskadi barne hartuta) haien jomugak erreferentziatzko puntu horietan finkatzeko konpromisoa hartu zuten ET 2020 estrategia garatzen hasi zenean, hezkuntza-sistema bakoitzaren abiapuntu erlatiboak eta inguruabarrak kontuan hartuta. Bada, *Objetivos Educativos europeos y españoles. Informe español 2010-2011* dokumentuaren bidez jarri ziren jendaurrean konpromiso horien 2015era eta 2020ra begirako zehaztapenak¹⁷.

Ondoren, xede nagusiak aztertzen dira, bai eta 1etik 5erako erreferentziatzko puntuak (1.1.a) *taulakoak*) dauzkaten xedeak ere. Bestelako xede eta puntuak txosten honen beste kapitulu batzuetan komentatuko dira; adibidez, derrigorrezko hezkuntzako tituludunak 3.2. *puntuan* garatzen dira, hezkuntza-sistema elebidunaren emaitzei buruzkoan.

Honako taula honetan, Euskadiri, Espainiako batezbestekoari eta EB-28ri dagozkien erreferentziatzko bost puntuen ehunekoak jasotzen dira, eskualdeetako eta autonomia-erkidegoetako urteko datuak baitaude. Hiru kasuetan, ET 2020 strategiaren lehenengo neurketaren ehunekoa (2009) eta *Eurostat*-ek eta INEk emandako azken datua (2018) jasotzen dira. Euskadiren kasuan, gainera, 2009ko ehunekoaz gain, 2017ko eta 2018ko ehunekoak ere ematen dira, txosten honek biltzen duen aldia baita horixe. Azkenik, Hezkuntza eta Prestakuntzarako Estrategia garatzen hasi zenean finkatutako aurreikuspena hiru lurralde-eremuetarako adierazten da; hau da, Hezkuntza Sailak erreferentziatzko puntu bakoitzean – hasierako ehunekoa aintzat hartuta – lortu nahi zuen kota. 1.2.a) *taulan*, adierazle horien finkapen politikoaren arabera ikuspegi orokorra jasotzen da.

¹⁷ <http://www.mecd.gob.es/dctm/evaluacion/indicadores-educativos/objetivos-et2020-informe-2011.pdf?documentId=0901e72b80faaff5> Ikusi 133. orrialdetik 138. enera.

1.2.a) *taula.* Hezkuntza eta Prestakuntzarako 2020ko Estrategia (ET 2020) europarrak Euskadin, Espainian eta Europar Batasunean dauzkan xedeen, adierazleen eta erreferentziakko puntuen laburpena.

ET 2020 ESTRATEGIAREN HEZKUNTZA- ETA PRESTAKUNTZA-ARLOKO ADIERAZLEAK

ERREFERENTZIAZKO PUNTUAK %		2009-2018KO EGOERA							2020ko aurre-ikuspena		Erreferen- tziako puntua
		Euskadi			Espainia		UE-28		Euskadi	Espainia	Europar Batasuna
		2009	2017	2018	2009	2018	2009	2018			
1. HAUR HEZKUNTZA ETA HAURRENTZAKO ARRETA. 4 urteetatik nahitaez eskolatu arteko adinera (6 urteetara).		100	100	100	98,4	97,4	90,8	95,4	100	85,3	95
2. OINARRIZKO KONPETENTZIAK Errendimendu baxuko 15 urteko ikasleak: konpetentzien 1 edo <1 maila, PISAren eskaletan.	Irakurmena	15,1	17,4 ¹⁸	-- ¹⁹	19,6	--	19,5	XX	13	14,6	15
	Matematika	14,9	19,5	18,1	23,8	24,7	22,3	22,1	13	16,0	15
	Zientziak	13,8	20	18,6	18,2	21,3	17,7	21,3	12	14,6	15
3. ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA Gehienez ere Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapa amaitu duten eta ikasten jarraitu ez duten 18 eta 24 urte artekoen ehunekoa.		16	7	6,9	30,9	17,9	14,2	10,6	8,6	15	10
4. HEZKUNTZA TERTZIARIOKO TITULUDUNAK Unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko goi-mailako hezkuntzan (HNSN 5-8) titulua duten 30 eta 34 urte artekoen ehunekoa.		62,7	55,1	57,1	40,7	42,4	32,3	40,7	68	44.0	40
5. 25 ETA 64 URTE ARTEKOEK IKASKUNTZA ETENGABEAN DUTEN PARTE-HARTZEA Hezkuntza- edo prestakuntza-ekintza batean parte hartzen duten 25 eta 64 urte artekoen ehunekoa (HNSN 0-8 mailak)		13,3	13,2	12,7	10,8	10,5	9,5	11,1	17	15,2	15

Iturriak: Guk geuk egina, Eurostatetik, INEtik, ELGetik (PISA), Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministeriorik eta Eustatetik abiatuta.

Ikus daitekeenez, erreferentziakko bost puntuetatik hirutan, Euskadik 2017an nahiz 2018an sobera gairitu zuen Europar Batasunak finkatutako kota: estrategia 2009an abiatu zenean gairitu zen Haur Hezkuntzarako eta haurren arretarako kota, eta ezin zitekeen hobetu, gehieneko puntuatzea eskuratu baitzen; eskola-uzte goiztiarrak 2018an Europako erreferentziakko kotak baino ehuneko hiru puntu gutxiago zituen, eta goi-mailako hezkuntza edo hezkuntza tertziarioa amaitu dutenen tasa Europako 2020rako erreferentzia baino askoz ere altuagoa da, nahiz eta 2018koa 2009koa baino txikiagoa izan. Hortaz, Euskadik egoera bikaina du bai eskolatzearen hasieran, bai derrigorrezko eskolatzearen amaieran eta titulazio tertziarioaren tasan (unibertsitatea, Lanbide Heziketa eta goi-mailako beste ikasketa batzuk), eta, oro har, sistema nahikoa orekatua dela

Euskadik egoera bikaina dauka erreferentziakko bost puntuetatik hirutan: Haur Hezkuntzan, eskola-uztean eta goi-mailako hezkuntzan. Alabaina, bi puntutan ez du Europako xedea betetzen: konpetentzien mailan eta ikaskuntza etengabeen.

¹⁸ Oinarrizko hiru konpetentzietan errendimendu baxua duten euskal ikasleen 2017ko ehunekoak 2015ean egindako PISA ebaluazioaren emaitzak jasotzen ditu.


¹⁹ 2018ko edizioko irakurmen-probei dagokienez, autonomia-erkidegoen arabera emaitzak eta Espainiako batezbestekoa jasotzen duen emaitza ez dira jendaurrean jarri, ELGEren esanetan, «bizkortasuna neurtzeko proban hautemandako anomaliengatik, ikasleen % 5i eragiten baitiete».

erakusten du horrek, hiru hezkuntza-aldi giltzarriei dagokienez (Haur Hezkuntza, derrigorrezko etapak eta goi-mailako ikasketak).

Hala ere, erreferentziazko bi puntutan egoera ez da hain bikaina: alde batetik, oinarritzko hiru konpetentzietan errendimendu baxua duten ikasleen ehunekoak Europar Batasunak 2020rako finkatutako erreferentziazko ehunekoa (% 15) gainditu zuen 2018an: 3,1 puntutan *Matematikarako konpetentzia* eta 3,6 puntutan *Zientziarako konpetentzia*. Ondoko analisi espezifikoan ikusiko dugunez, ez Europar Batasunak, ez Europako herrialde gehienek, ez, zehazki, Espainiako batezbestekoak ez dute lortzen errendimendu baxuko ikasleen kopurua jaitsi eta 2020rako xedera hurbiltzea.

Helduen ikaskuntza etengabeari dagokionez ere, Euskadi ez da iristen 2020rako finkatutako % 15 horretara, 2018an Europar Batasuneko batezbestekoa baino handiagoa izan arren. Baliteke 2020rako kotak asmo handiegia edukitzea adierazle horretan, adierazlearen analisi espezifikoan ikusiko den moduan (ikusi 1.3.5. *puntu*).

1.2.a) *grafikoan*, Euskadik eta Europar Batasunaren batezbestekoak ET 2020 estrategiaren bost adierazleetan duten tokia ikus daiteke, eskualdeko edo autonomia-erkidegoko mailetan eskuratu diren datuei dagokienez (gogoratu irakurmeneko errendimendu baxua 2015eko PISAr dagokiola).



1.3. ET 2020 ESTRATEGIAREN BOST ADIERAZLEEN ANALISI ESPEZIFIKOA.

Hezkuntza eta Prestakuntzarako 2020ko Esparru Estrategikoan giltzarriak diren bost adierazleak aztertzen dira hemen, sakonago aztertu ere, Euskadiko mailan eskuragarri dauden datuekin egin ahal izan diren bereizketak eginda, eta gure autonomia-erkidegoak adierazle bakoitzean duen egoerari buruzko balorazio eta proposamen batzuk ematen dira.

1.3.1. HAUR HEZKUNTZA ETA HAURRENTZAKO ARRETA.

HAUR HEZKUNTZA ETA HAURRENTZAKO ARRETA.	2009/2018KO EGOERA							2020ko aurreikuspena		Erreferentziako puntua
	Euskadi			Espainia		UE-28		Euskadi	Espainia	Europar Batasuna
	2009	2017	2018	2009	2018	2009	2018			
4 urteetatik nahitaez eskolatu arteko adinera (6 urteetara). Datuak ehunekotan.	100	100	100	98,4	97,4	90,8	95,4	100	85,3	% 95

Haurrak txiki-txikitatik gizarteratu daitezela sustatzeak Europar Batasunaren xede giltzarrietarako bat izaten jarraitzen du, desabantailak berdintzeari begira²⁰. Hori dela-eta, EBk goreneko lehenetasunen artean dauka Haur Hezkuntzako parte-hartzeari buruzko adierazlea, ikerketa askok erakutsi dutelako kalitate handiko Haur Hezkuntzak ikaskuntza-emitza hobeak ematen dituela, beste hezkuntza-etapa batzuetako arrakastan eragiten duela, bizitzan mugikortasun sozial handiagoa edukitzea ahalbidetzen duela eta familia-kontziliazioa errazten duela. Gainera, bizitzan zeharreko ikaskuntzaren kontzeptuarekin koherentea da. Arrazoi horiek direla medio, Europar Batasunaren ustez oso garrantzitsua da herrialde eta eskualde guztietan lehenengo urteetako hezkuntzaren sarbidea eta kalitatea hobetzeko ahaleginean jarraitzea²¹.

ET 2020 estrategian, erreferentziako puntu hori kalkulatzeko adin-tartea 4 urteetatik nahitaez eskolatu arteko adinera da; normalean, 6 urteak bete arte (28 herrialdeetatik 15etan halaxe da). Adierazi den moduan, 2009an, EBko herrialdeek xedetzat hartu zuten hezkuntzaren etapa goiztiar horretan dagoen parte-hartzearen tasa %95era igotzea 4 urtetik gorako haurren artean²².

EB-28k haurren % 95,4 eskolatzen ditu 4 urte dituztenetik aurrera (2016an gainditu zen 2020rako xedea). Bada, adin horietan erabateko eskolatzeari dagoen herrialdeen artean dago Euskadi.

4 urteko haurren % 95,4 eta 3 urteko haurren % 93,3 Haur Hezkuntza goiztiarrean matrikulatuta daudenez, lehenengo hezkuntza-maila formal honetan dagoen parte-hartzea ia erabatekoa da Europan. Are gehiago, EBk 2016an lortu zuen xede hori. 1.3.1.a) grafikoan ikus daitekeenez, EBko hamabost herrialdek % 95etik gorako parte-hartzearen


²⁰ Honako hau esaten du Eskubide Sozialen Europako Zutabearen 11. printzipioak: «Haurrek lehen haurtzaroko hezkuntza eskuragarria eta kalitate oneko arreta jasotzeko eskubidea daukate. Haurrek pobrezia-aren aurrean babesteko eskubidea dute. Behar gehien dauzkaten inguruneetako haurrek aukera-berdintasuna hobetzeko neurri espezifikoetarako eskubidea daukate».

²¹ Ikusi Europako Batzordearen azterlan hau: *Benefits of early childhood education and care and the conditions for obtaining them* (Lehen haurtzaroko hezkuntzaren eta zaintzen onurak eta horiek aprobetxatzeko baldintzak).

<https://publications.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/14194adc-fc04-11e7-b8f5-01aa75ed71a1/language-en>

²² UNESCO-ELGE-Eurostaten datuetan, lehen haurtzaroko hezkuntzan dagoen parte-hartzearen tasan, HNSN 0 kategorian dauden programetan izandako parte-hartzea jasotzen da, HNSN 010 (lehen haurtzaroko hezkuntza) eta HNSN 020 (Lehen Hezkuntzaren aurretiko hezkuntza) kategoriak ere barne hartuta. HNSN 010 kategoriak haur txikienentzat diseinatutako nahitako eduki hezitzailea dauka (oro har, 0 eta 2 urte artekoentzat); HNSN 020 kategoria, berriz, 3 urtetik Lehen Hezkuntza (HNSN 1 maila) hasi arteko haurrentzat diseinatuta dago.

tasa garbiak²³ dauzkate (goitik beherako ordenan: Frantzia, Irlanda, Erresuma Batua, Belgika, Danimarka, Herbehereak, Espainia, Luxenburgoko, Malta, Alemania, Letonia, Suedia, Austria, Hungaria eta Italia). Adin-tarte horretan erabateko eskolatzetasa duten lurraldeen artean dago Euskadi.



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuetatik abiatuta [educ uoe enra10].

1.3.1.1. 3 urtetik beherako haurren zaintzaren inguruko xede europarra

Europako Batzordeak «Bartzelonako xedea» izenekoa ezarri zuen 2002an²⁴, zaintzari buruzkoa, eta adin horretako biztanleen % 33 gutxienez artatzea proposatzen zen bertan, erreferentzia modura. 2004an, haurren zaintzaren inguruko xede hori egiaztatzeko adierazle espezifikoak hitzartu ziren Enplegu Batzordean, eta diru-sarrerei eta bizi-baldintzei buruzko EBren inkesta (EU-SILC inkesta) hautatu zuten horiek neurtzeko estatistika-iturri europar gisara²⁵.

Eustaten datuen arabera, adin-tarte gazteenaren (0-2) parte-hartzearen tasak % 17ra jaisten dira EBko batezbestekoan. 2 urtetik beherako haurren % 10 baino gutxiago joaten dira Haur Hezkuntzara EBko 14 herrialdetan. Are, herrialde horietako gehienetan, ez dago 0 eta 2 urte arteko haurrentzako programarik, «lehen haurtzaroko hezkuntzatzat» edo «HNSN 010 kategoriatzat» har daitekeenik²⁶.

²³ Eskolatzetasa garbiak maila eta adin-tarte bakoitzeko ikasleen eta adin-tarte horren guztizko biztanleriaren arteko portzentaje-erlazioa adierazten du (Haur Hezkuntzan, 0 eta 5 urte artekoa da adin-tarte).

²⁴ https://ec.europa.eu/invest-in-research/pdf/download_en/barcelona_european_council.pdf

²⁵ Honela deskribatu zen adierazlea: «Astean 30 orduz edo gehiagoz familiatik kanpo egoera formalean artatu ohi diren haurrak, adin-tarte bereko haur guztien proportzio gisa». Arreta formalak egitura publiko edo pribatu batek antolatutako edota kontrolatutako arreta mota oro hartzen du (eskolaurrekoa edo baliokidea, derrigorrezko hezkuntza, eskola-ordutegitik kanpoko zerbitzuak zentroan, haur-eskola kolektibo edo familiarra...).

²⁶ EBk berak adierazten duenez, datuok, seguru asko, ez dute errealitate osoa jasotzen; izan ere, HNSN sailkapenetik kanpo dauden baina sailkapen horretan sar litezkeen zerbitzuak ematen dituzten programak daude EBko herrialde batzuetan. Adibidez, Frantzian haurrak etxean zaintzako programa dago. Hori publikoki erregulatzen da eta 3 urtetik beherako haurrentzat zabal-zabal erabiltzen da,

3 urtetik gorako ikasleei dagokienez, horixe izaki zikloka antolatutako sistema duten herrialdeetan hasierako hezkuntzaren bigarren zatian hasteko ohiko adina, EBko zazpi herrialdek bakarrik daukate % 95etik gorako parte-hartze tasak (Frantziak, Erresuma Batuak, Belgikak, Irlandak, Danimarkak, Espainiak eta Suediak). EBko batezbestekoa % 93,3koa da.


Euskadik bilakaera hobea egin du 0 eta 3 urte artean eskolatutako haurren tasa garbian. 1.3.1.1.a) grafikoa ikus daitekeen bezala, 2017-2018 ikasturtean, urtebetetik beherako haurren eskolatzetasa % 18,9koa zen, baina nabarmen egiten zuen gora urtebetetik gorako aurren artean, adin horretako biztanleen ia erdia baitzegoen eskolatuta: % 45,9. 2 urtetik gorako artean, tasa % 94ra iristen zen, estatuko batezbestekoa 35 puntutan gaindituz; funtsean, gure autonomia-erkidegoan hezkuntza-maila hori orokortzeko egin den sustapen espezifikoari esker da hori horrela, beste autonomia-erkidego batzuetan eta Europako beste herrialde batzuetan ez baita horrelakorik egin.

EB-28k 0 eta 2 urte arteko haurren % 17 bakarrik eskolatzen ditu. Euskadin, urtebetetik beherakoen % 18,9, urtebete dutenen erdia eta 2 urteko haurren % 94 artatzen dira, estatuko batezbestekotik 35 puntu gorago.

Eskuragarri dugun lehenengo datuari begiratuz gero, 1994-1995 ikasturtekoa hori, une hartan ia ez zen eskolatzen urtebetetik beherako haurrik (grafikoa sartu dugu). Antzeko zerbait gertatzen zen urtebete baino gehiago zuten haurren eskolatzearekin ere, 1994an % 0,3koa baitzen. 0-2 tartean, 2003an eman zen jauzi kualitatiboa, lehenengo zikloko zentroak eta haien finantzazio-eredua erregularizatu zirenean: 2003tik 2004ra, eskolatzeehunekoak bikoiztu egin ziren, urtebetetik beherakoen artean % 5,7tik % 11,2ra eta urtebeteko ikasleen artean % 13,7tik % 25,4ra igaro baitziren. Une hartatik aurrera, igoera etengabea izan da. 3 urteko haurren eskolatzetasa oso altua zen 1994an, ia-ia % 96ra iristen baitzen.

Azken ikasturteetan, eskolatzetasa motelago ari da hazten. Bestalde, aurreikuspenen arabera, Haur Hezkuntzaren lehenengo mailetan eskolatutako haurren kopuru absolutuak behera egiten jarraituko du, arrazoi demografikoengatik batik bat.

1.3.1.1.a. grafikoa. Euskadin 0-3 urtekoen eskolatzetasa garbiaren bilakaera.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

eta, Luxenburgon, etxeko arreta-sistema erregulatua dago. Hori dela-eta, HNSN sailkapenetik kanpo erregistratuta dauden bestelako zaintza-zerbitzuei buruzko datuak biltzen hasi da ELGE.

1.3.1.2. Euskadin 0-2 urtekoen Haur Hezkuntzara sartzeko dagoen ekitatea

Haur Hezkuntzarekin eta haurrentzako arretarekin zerikusia daukaten funtsezko datuek berretsi egiten dute Euskadi oso egoera onean dagoela hala estatuan, nola nazioartean, bai 0-4 adin-tartetik derrigorrezko hezkuntzara sartu arteko aldian, bai lehen urteetako (0-3) eskolatzean.

Alabaina, datuak oso onak izan arren, agerikoa da eskolatzeak berak bakarrik ez duela bermatzen adin horietako ikasleen ezaugarrietara eta premietara egokitutako kalitateko hezkuntza eskaintzen denik.

Gogoratu lehen haurtzaroko hezkuntzaren eta zaintzaren inguruko erreferentziazko puntu europarrak ez diola adin horien eskolatzeari bakarrik begiratzen: berariaz aipatzen du arreta goiztiarrak geroko hezkuntza-arloko arrakasta bermatzen duela (batez ere, premia gehien dauzkaten inguruneetako pertsonengan). Zentzu horretan, ikerketak erakusten duenez, kalitate handiko hezkuntzak eta Lehen Hezkuntzaren aurretiko arretak haurren garapen sozioemozionala eta konpetentzia kognitiboak hobetu ditzakete, eta, gainera, ikerketan baieztatu denaren arabera, egoera sozioekonomiko kaskarra duten inguruneetatik datozen adingabeek onura handiagoa ateratzen diote arreta horri.

Lehen haurtzaroan kalitateko arreta eta zaintza emateak haurren garapen emozionalari eta hobekuntza kognitiboari laguntzen die. Bereziki onuragarria da premia asko dituzten inguruneetatik datozenentzat.


Eurostaten definizio ofizialen arabera, pobreziarako arriskua duten edo gabetze material zorrotza duten edo lan-intentsitate oso baxuko etxean bizi diren pertsonak dute pobrezian edo gizarte-bazterketan egoteko arriskua (AROE indizea deiturikoa²⁷). Gizartean dauden askotariko taldeek hezkuntzara eta arretara iristeko aukera-berdintasunik ez edukitzeak ondorio sakonak edukitzen ditu ikasle horien geroko garapenean.

1.3.1.2.a) *grafikoan*, EBko herrialdeek eta Euskadik²⁸ 2018an zuten pobreziaren eta gizarte-bazterketaren tasa jasotzen da. Bada, bertan ikus daitekeenez, Euskadi da tasa baxuena duen lurraldea.

²⁷ Europako 2020rako Estrategiaren arabera, PGBA (pobrezian eta/edo gizarte-bazterketan egoteko arriskua duten pertsonak) esaten zaie pobrezian edo gizarte-bazterketan egoteko arriskuan dauden pertsona-taldee; gaztelaniaz, ERPE (*personas En Riesgo de Pobreza y/o Exclusión*), eta, ingelesez, AROPE (*At Risk of Poverty and/or Exclusion*).
https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259941637944&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios/PYSLayout

²⁸ Eurostaten datu-basetik hartu da informazioa, bai EBko herrialdeei buruzkoa:
<https://ec.europa.eu/eurostat/databrowser/view/tips10/default/table?lang=fr>), bai EBko eskualdeei eta autonomia-erkidegoei buruzkoa: <https://ec.europa.eu/eurostat/databrowser/view/tgs00107/default/table?lang=fr>


1.3.1.2.a.grafikoa. Txirotasun-arriskuaren edo gizarte-bazterkeria tasa (AROEpe adierazlea) EBko herrialdeen arabera eta Euskadin. 2018.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.


INERen datuen arabera, pobrezian edo gizarte-bazterketan egoteko arriskuaren tasa (AROEpe adierazlea) jasotzen da 1.3.1.2.b) grafikoa, autonomia-erkidegoen arabera banatuta. Autonomia-erkidego guztien artean, Euskadik dauka tasa txikiena (% 12,1koa), Espainiako batezbestekoak baino 14 portzentaje-puntu gutxiagorekin eta Extremadurak baino 32,5 puntu gutxiagorekin (Extremadura da pobrezian edo gizarte-bazterketan egoteko arrisku-tasa handiena duen komunitatea).

1.3.1.2.b. grafikoa. Txirotasun-arriskuaren edo gizarte-bazterkeria tasa (AROEpe adierazlea) autonomia-erkidegoen arabera. 2017-2018.



Iturria: Guk geuk egina, INERen datuetatik abiatuta.


1.3.1.2.a) irudian, autonomia-erkidegoen araberrako mapa jasotzen da, eta lau tartetan bereizi da pobrezian edo gizarte-bazterketan egoteko arriskua duten pertsonen tasa.



Iturria: INE. Bizi-baldintzei buruzko inkesta (ECV).

Azkenik, 1.3.1.2.c) grafikoan, pobreziarako arriskuaren tasak Euskadin, UE-28n eta Espainiako batezbestekoan izandako bilakaera jasotzen da (Europako AROPE adierazlea), eta, bertan ikus daitekeenez, 2018an Euskadik lortu zuen tasarik txikiena eta distantziarik handienetako bat, Espainiako batezbestekoari (14 puntu) eta EB-28ri (9,6 puntu) dagokienez²⁹.

1.3.1.2.c. grafikoa. Txirotasun-arriskuaren edo gizarte-bazterkeria tasa (AROE adierazlea) 2018. Euskadi, EB-28, Espainia.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten eta INEren datuetatik abiatuta.

AROE indizearen azterketak adierazten duenez, Euskadik gizarte-baldintza aski onak dauzka, familiek nahi izanez gero ikasle adingabe guztiei eskolatzeko egokia bermatu ahal izateko. Dena dela, adierazi den moduan, agerikoa da eskolatzeko-tasek bakarrik edo, are, pobrezia-erretan datuak ere ez digutela adierazten Haur Hezkuntzako eskaintzak haurren premiak behar beste estaltzen ote dituen, gizarte-bazterkeriarako arriskuan bizi diren familiei dagokienez. Horregatik

²⁹ Pobrezia-arriskua eta diru-sarreraren ongizaterik eza txostenak honako hau esaten du 83. orrialdean, Euskadik Europaren hegoaldeko herrialdeen testuinguruan duen tokiari buruz: «EAEen desberdinkeriek askoz ere inpaktu txikiagoa edukitzearekin daude lotuta desberdintasun horiek. Adibidez, Euskadiko aberatsenen % 20k pobreenen % 20k baino 4,1 aldiz diru-sarrera gehiago dauzkate, eta zifra hori 5,7ra iristen da Portugalen, 5,9ra Italian, 6,1era Grezian eta 6,6ra Espainian. Herritar pobreenen % 10ek EAEko guztizko diru-sarreretan duten parte hartzea % 3,4koa da, eta Portugalen % 2,6koa, Italian % 2koa eta Espainian % 1,9koa».

da egokia premia gehien dituzten inguruneetatik datozen ikasleen eskolatzea aztertzea, lehenengo urteetako eskolatzeak Euskadin ekitate-irizpideei erantzuten dien edo bereizketa-ezaugarriak hautematen diren ikusteko.

Europako mailan datuek adierazten dutenaren arabera, pobreziarako edo gizarte-bazterketarako arriskuan dagoen familia duten 3 urtetik beherako haurrek eta ingurune onetan bizi diren berdinek hezkuntzan eta zaintzan duten parte-hartzearen tasak alderatzen baditugu, EB-28n 15 puntuko arrakala dago batez beste³⁰ (bazterketa-inguruneetan bizi diren haurren parte-hartzearen tasa % 20koa baino zertxobait handiagoa da). 3 urteko edo hortik gorako haurren kasuan, Europako mailan, premia gehiago dauzkaten familietako haurren parte-hartzea 11 puntu txikiagoa da.

Europako mailan, 15 puntuko arrakala dago pobrezia- eta bazterketa-inguruneetatik datozen edo premia gehiago dauzkaten familietan bizi diren haurren eskolatzean.

Alderdi hori Euskadin aztertu ahal izateko, bi erreferentzia erabiliko ditugu³¹:

- a) Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gizarte-premiei buruz 2018an egindako inkestan (GZEE-GPI, 2018) oinarritutako Pobrezia-arriskuaren eta diru-sarreraren ongizaterik ezaren adierazleei buruzko txostena³². Txosten horrek, beste adierazle batzuen artean, jada aztertutako AROPE indizea erabiltzen du.
- b) Bigarrenik, ISEI-IVEIk egindako azken txostenak (*Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa Euskadin. Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeak 2016*³³) emandako informazioa bilduko dugu; bereziki, haurrak Hezkuntza Sailaren eta udalen arteko partzuergo horretan eskolatzeko dituzten familien deskribapen soziologikoari buruzko atala.

2018ko Gizarte Premiei buruzko Inkestak (GZEE-GPI, 2018) emandako datuen artean, testuinguru honetan oso interesgarria den atala dago, «Eskolatzeko arazo sozialak» izeneko³⁴. Bertan, 0 eta 5 urte arteko biztanleek 2006tik 2018ra izandako arazoak jasotzen dira, zenbait aldagaitik abiatuta: haur-eskolan sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta etxeko egoeraren arabera (gabezia-egoerak, arazo demografikoak...) izandako arreta edota haur-eskolan edo hezkuntza-zentroan artatu ez diren biztanleak. Datu horiek aztertuta, hainbat ondorio atera daitezke:

- Euskadiko 0 eta 5 urte arteko haurren % 26,6 ez dira haur-eskolan edo hezkuntza-zentroan artatzen, horien % 19,5 familiaren lehentasunengatik, eta gainerako % 7,1 beste arrazoi batzuegatik.

³⁰ http://publications.jrc.ec.europa.eu/repository/bitstream/JRC102774/jrc102774_ecec%20briefing_crell_revision_04102016.pdf

³¹ Analisi honetan, Save the Children erakundeak egindako ikerketa hau ere aintzat hartuko da: *Donde todo empieza. Educación infantil de 0 a 3 años para igualar oportunidades. Anexo Euskadi*.
<https://www.savethechildren.es/publicaciones/informe-donde-todo-empieza-educacion-infantil-de-0-3-anos-para-igualar-oportunidades>

³² PGEI 2018 txostena eta inkestaren estatistika-etaulak, hemen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/dokumentazioa/2019/2018ko-behar-sozialei-buruzko-inkestaren-pgdipobrezia-moduluaren-txostena/>


³³ http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/eu/detalle-informe-educacion-infantil?p_p_id=KAI0AContenido_WAR_w24mContenidoWARportlet&_KAI0AContenido_WAR_w24mContenidoWARportlet_idArticulo=1444321&_KAI0AContenido_WAR_w24mContenidoWARportlet_idPlantilla=2226984

³⁴ <https://www.euskadi.eus/estadistika/2018ko-gizarte-premiei-buruzko-inkestaren-taula-estadistikoak-eae/web01-s2enple/eu/>


- Azken talde horretan, arrazoia ez datza 2018an toki nahikorik ez egotean, inkestan azaldu ez diren bestelako arrazoiengan baizik. Are, datu hori nabarmen aldatu da aurreko inkestetatik hona: 2006an, familien lehentasun-arrazoiak kenduta, seme-alabak eskolatzen ez zituzten familien % 45,5ek toki nahikorik ez egoteagatik ez zituzten haien haurrak eskolatzen; 2014an, ehuneko hori % 11,6ra jaitsi zen, eta, 2018an, inkesta bete zuen familia batek ere ez zuen arrazoi hori aipatu. Bestetik, bilakaera aztertuz gero (1.3.1.2.e. *grafikoa*), haurrentzako arreta jasotzen duten haurren ehunekoa 2014tik 2018ra 3,2 puntu jaitsi dela ikusiko dugu; hots, 2010eko ehunekoetara itzuli dela kontua.

Euskadin, 0 eta 5 urte arteko haurren % 26,6 ez dituzte haur-eskolan edo eskolan artatzen; batez ere, familien lehentasunengatik.

1.3.1.2.d. *grafikoa*. 0-5 urte arteko herritarrek, haur-eskolako edo eskolako arretaren arabera. Euskadi. 2018.



1.3.1.2.e. *grafikoa*. 0-5 urte arteko herritarren bilakaera, haur-eskolako edo eskolako arretaren arabera. Euskadi. 2006-2018.




- Urtebete baino gutxiagoko haurren % 72 eta urtebeteko haurren % 40,5 familien lehentasunengatik ez daude eskolatuta, eta, hurrenez hurren, haurren % 21,5 eta % 11,8 beste arrazoi batzuenengatik ez daude eskolatuta. Bada, egoera horren arrazoiak zein diren jakin behar da. Lehen ikusi dugunez, 3 urtetik gorako eskolatzeari ia erabatekoa da, eta % 94ra iristen da 2 urteko haurren artean (1.3.1.1.a) *grafikoa*)³⁵. Jatorriaren araberrako eskolatzeari dagokionez, jatorria atzerrian duten haurrak estatuan jaiotako haurrak baino 13 portzentaje-puntu azpirago daude eskolatzeari, eta ez eskolatzeko arrazoia familien lehentasunean dago batez ere.


Euskadin, jatorri atzerritarra duten 0 eta 5 urte arteko haurren eskolatzeari estatuan jaiotako haurren eskolatzeari baino 13 puntu beherago dago.

³⁵ Bi inkesta ezberdin direnez (Eustat eta Gizarte Premien Inkesta), datuek ez dute guztiz bat egiten.

1.3.1.2.f. grafikoa. 0- 2 urte arteko herritarrak, haur eskolaren edo eskolaren arabera, adina kontuan hartuta. Euskadi. 2018




1.3.1.2.g. grafikoa. 0-5 urte arteko herritarrak, haur-eskolaren arabera, jatorria kontuan hartuta. Euskadi. 2018




- Lehetasun-arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuegatik 0 eta 5 urteko seme-alabak eskolatzen ez dituzten familien artean, oinarritzko gabezia-egoeran daude % 32, eta oinarritzko gabezia-egoeran ez dauden familiak baino 7 puntu beherago daude. Gainera, haurrentzako arretarik jasotzen ez duten haurren familien % 30,8k lan-arloko zailtasunak dauzkate (norbaitek lan egonkorrik ez duelako edo familiako inork lanik ez duelako). Are, familian inork lanik ez duenean, Haur Hezkuntzako eskolatzeak 10 puntu egiten ditu behera.

Euskadin, seme-alabak Haur Hezkuntzan eskolatzen ez dituzten familien % 32 oinarritzko gabezia-egoeran daude, eta % 30,8k lan-arloko zailtasunak dauzkate.

1.3.1.2.h. grafikoa. 0-5 urte arteko herritarrak haur-eskoan edo eskolan izandako arretaren arabera, familiako gabezia kontuan hartuta.. Euskadi. 2018



1.3.1.2.i. grafikoa. 0-5 urte arteko herritarrak haur-eskolan izandako arretaren arabera, laneko okupazioa kontuan hartuta. Euskadi. 2018



- Datuok, nolabait, bat egiten dute ISEI-IVEIk 2016an seme-alabak *Haurreskolak* Partzuergoaren mendeko eskoletan eskolatzen dituzten familiei buruz egin zuen txostenarekin: % 85 baino gehiago euskal familiak ziren, derrigorrezko ikasketen ondorengo ikasketak zeuzkaten (% 1ek baino gutxiagok zituen oinarritzko ikasketak amaitu gabe), baldintza material onak zeuzkaten, eta kapital kultural eta sozial ona zuten.

Datu guztietatik ondoriozta daitekeenez, lan-arloko arazoak dauzkaten, jatorri atzerritarra duten eta oinarritzko gabezia-egoeran dauden familiek gutxiago eskolatzen dituzten seme-alabak, bai familien lehentasunengatik, bai, 2018an gutxienez, toki nahikorik ez egotearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Hortaz, argi dago familia mota horiek seme-alabak Haur Hezkuntzan goiz eskolatzearabaki dezaten konbentzitzen saiatu beharra dagoela, ondorengo arazoak saihesteko eta ekitate-gabeziak nahiz bereizketa-egoerak goiz deuseztatzeko. Era berean, familien lehentasunez gain bestelako arrazoiak daudenez, komenigarria litzateke arrazoi horien berri edukitzea, eskolatzeko aukera irisgarriagoa izan dadin. Ildo berean, hezkuntza-zerbitzuaren baldintza ekonomikoak ere berrikusi beharko lirateke.

1.3.1.3. Haur Hezkuntzaren kalitateari buruzko egiturazko adierazle europarrak

Europako adierazle honen analisian, hainbat aldiz aipatu da hezkuntzan eta haurrentzako arretan kalitatea egoteko ideia. Kalitateaz ari garenean zer esan nahi dugun argitzeko, EBko Kontseiluak *Lehen haurtzaroko kalitate handiko hezkuntzari eta zaintzari buruzko gomendioa* (ECEC³⁶) eman zuen 2019ko maiatzean, eta, bertan, *Haur Hezkuntzarako eta Arretarako Europako Esparrua*³⁷ (2014) jasotzen zen. *Gomendio* horrek, bada, estatu kideei Haur Hezkuntzako sistemak kalitateko esparru baten bidez hobetzen laguntzeko asmoa dauka.

Prozesu horren barruan, Eurydice sareak (Europako Batzordearen hezkuntzari buruzko informazio-sareak) egiturazko adierazleen hautaketa bat argitaratzen du 2015etik, Batzordeak Europako hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen egoerari eta bilakaerari buruz urtero egiten duen analisiari testuingurua emate aldera, ET 2020 estrategiaren adierazleekin lotuta. *Structural Indicators for Monitoring Education and Training Systems in Europe 2018* txostenak egiturazko bost adierazle ezartzen ditu:

- Lehen haurtzaroko kalitate handiko hezkuntzara eta zaintzara sartzeko toki bat egotea bermatzea. Horren arabera, agintariak haur guztientzako tokia egotea bermatu behar dute, gurasoen estatus sozioekonomikoa edo laneko egoera edozein izanik ere. Sarbideak ez du zertan guztiz doakoa izan, baina arrazoizko prezioa eduki behar du.
- Etapa horretaz arduratzen diren langileen profesionalizazioa, gaikuntza eta lan-baldintzak bermatzea. Profesionalek oso gaituta egon behar dute, eta gutxienez batek goi-mailako titulazioa edo titulazio tertziarioa eduki behar du. Halaber, profesionalizazioaren ideia prestakuntza-prozesu etengabeekin (pedagogikoak nahiz berdinen arteko behaketari buruzkoak), ikastaroekin, laguntza-sareekin eta bestelako prestakuntza-prozesuekin lotzen da.
- Ikasketa-ildo, ikasketa-plan eta gobernamentu egokiak ezartzea. Etapa oso honetan curriculumaren erregulaziorik ba ote dagoen eta curriculum horretan nahiz hezkuntza-ildo ofizialetan zein alderdi erregulatzen diren behatzen du adierazle honek.

³⁶ [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32019H0605\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32019H0605(01)&from=ES)

³⁷ <https://ec.europa.eu/eurostat/documents/3217494/5785249/EC-01-14-484-EN.PDF/cbdf1804-a139-43a9-b8f1-ca5223eea2a1>

- Hizkuntzarekin laguntzeko neurriak ezartzea, bai eskolako hizkuntzan laguntza linguistikoa edo komunikatiboa behar duten haurrentzat, bai ama-hizkuntzan gaitu behar duten haurrentzat (ama-hizkuntza eta eskolakoa berbera ez direnean eta familiako hizkuntzaren konpetentziak hobetu behar direnean).
- Familiei laguntzeko neurriak hartzea, etxean ikasteko gomendioen nahiz gurasoentzako eskolaren bidez, seme-alaben heziketa eta garapena ideiekin eta gidekin aberasteko xedez.

Gure autonomia-erkidegoan, oraintxe bertan, ez dago Haur Hezkuntzaren eta, zehazki, 0 eta 2 urte arteko haurrentzako arretaren egoera aztertzen duen analisirik edo ebaluaziorik, lehen urteetarako eskaintzen diren hezkuntzaren eta arretaren kalitatea neurtu ahal izateko asmoz adierazle hauek edo beste batzuk aintzat hartzen dituenik. Orain arte, ISEI-IVEIk egindako bi ikerlanak baino ez dauzkagu, zeinek seme-alabak *Haurreskolak* Partzuergoan eskolatzen dituzten familien balorazioari eta iritziari bakarrik begiratzen dieten. Azken ikerlana 2016koa da, eta, orduetik, ez dago hezkuntza-atal honi buruzko informazio gehiagorik.

1.3.2. OINARRIZKO KONPETENTZIAK (15 URTEREkin ERRENDIMENDU BAXUA DUTEN IKASLEAK).

2009/2018KO EGOERA									2020ko aurreikuspena		Erreferentziako puntua
OINARRIZKO KONPETENTZIAK		Euskadi			Espainia		UE-28		Euskadi	Espainia	Europar Batasuna
		2009	2017	2018	2009	2018	2009	2018			
Errendimendu baxuko 15 urteko ikasleak: konpetentzien 1 edo <1 maila, PISAren eskalean.	Irakurmena	15,1	17,4 ³⁸	-- ³⁹	19,6	--	19,5	XX	13	14,6	15
	Matematika	14,9	19,5	18,1	23,8	24,7	22,3	22,1	13	16,0	15
	Zientziak	13,8	20	18,6	18,2	21,3	17,7	21,3	12	14,6	15

Europako Kontseiluak 2009ko maiatzean *Hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan Europa mailako lankidetzak sustatzeko esparru estrategikoaren* gainean ateratako ondorioek xede estrategikotzat jo zuten «hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea». Ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntza amaitzean oinarrizko konpetentziak lortzeko asmoarekin zehaztu zen xedea.

Helburua hori izanik, EBko estatu kide guztiek erabaki zuten errendimendu baxuko 15 urtetik beherako ikasleen ehunekoa murrizteko orduan dagoen bilakaera alderatzea (errendimendu baxua PISA eskalako 1 maila edo txikiagoa da), ehuneko hori 2020rako % 15etik behera jaisteko xedearekin⁴⁰.

³⁸ Oinarrizko hiru konpetentzietan errendimendu baxua duten euskal ikasleen 2017ko ehunekoak 2015ean egindako PISA ebaluazioaren emaitzak jasotzen ditu.

³⁹ 2018ko edizioko irakurmen-probei dagokienez, autonomia-erkidegoen arabera emaitzak eta Espainiako batezbestekoa jasotzen duen emaitza ez dira jendaurrean jarri, ELGERen esanetan, «azkartasuna neurtzeko proban hautemandako anomaliengatik, ikasleen % 5i eragiten baitiete».

⁴⁰ PISA probaren datuak eta emaitzak behar bezala baloratzeko, ezinbestekoa da konpetentzia bakoitza ebaluatu den urteak kontuan hartzea: irakurmena (2000, 2009 eta 2018), matematika (2003 eta 2012) eta zientziak (2006 eta 2015). Konpetentzia bakoitzaren bilakaera zentzu hertsian ikusteko, aipaturiko urteei begiratu behar zaie, konpetentziok urte horietan izan baitziren ikasgai nagusia eta, beraz, urte horietan lortu baitzen antzeko fidagarritasun-maila zuen informazioa, probaren ezaugarriak direla-eta. Konpetentzia bakoitza ikasgai nagusia izan ez zen edizioetan, nolabaiteko sendotasunik eza sor liteke bilakaera konparatzean, probaren ezaugarriak eta neurria nabarmen aldatzen baitira ikasgai nagusia edo bigarren mailako ikasgaia izan.

ELGEren PISA ikerketak, errendimendu-mailak (normalean, sei) zehazteko orduan, probetan planteatutako item bakoitzaren zailtasuna eta estatistika-planteamendu bat konbinatzen ditu (estatistika-planteamendu horren bidez, emaitzen batez bestekoa 500 punturen baliokide bihurtzen da, eta desbideratze tipikoa 100 punturen baliokide egiten den). Errendimendu-maila bakoitzak 80 puntu inguruko tartea dauka. Maila bakoitzak atazak behar bezala egin ahal izateko eskatzen diren ezagutzen eta trebetasunen azalpena jasotzen du.

Ikasle batek zientzietan «errendimendu baxua» duela balioesten da, 2. errendimendu-mailara iristen ez denean eta zientziarekin zerikusia daukaten kontuak jorratzeko laguntza behar duenean, baita testuinguru ezagunetan ere. Matematikan, maila baxuko ikasleek hurbileko ingurunearekin zerikusia daukaten lanak bakarrik egin ditzakete, informazio garrantzitsu guztia argi eta garbi eman bazaie bakarrik.

1.3.2.1. 2018ko PISAren emaitzak

EB osoan, oinarritzko lanak egiteko gai ez diren ikasleen ehunekoa % 20koa baino handiagoa da (% 19,7koa irakurmenean, % 22,1koa matematikan eta % 21,3koa zientzietan). PISAren aurreko edizioarekin alderatuta (2015), EBko mailan errendimendu baxua duten ikasleen proportzioak 2018an 1,9 puntu egin zituen gora irakurmenean, eta 3,6 puntu zientzietan; matematikan, berriz, egonkor mantendu zen. Hortaz, EB 2020rako hitzartutako xedetik urrun dago.

Batez beste, EBko estatu kideek ez dute lortu errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa % 15etik jaistea, baina egoera izugarri aldatzen da estatu kideen artean. Lau herrialdek bakarrik lortu dute irakurmenerako erreferentziazko maila (Estoniak, Finlandiak, Poloniak eta Esloveniak), lauk matematiketan (Estoniak, Danimarkak, Poloniak eta Finlandiak) eta lauk zientzietan (Estoniak, Finlandiak, Poloniak eta Esloveniak). Beste estatu kide batzuek, ordea, errendimendu baxuko ehuneko altuagoak daukate, % 40 inguruko mailekin (Bulgariak, Errumaniak...).

EB-28ko estatu eta autonomia-erkidego gehienek ez dute errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa % 15etik behera jaistea lortu. Euskadi, 2018an hobera egin bazuen ere, Europako xedetik 3 portzentaje-puntura dago.

Autonomia-erkidegoen artean, batek ere ez du lortu matematikan errendimendu baxua duten ikasleak % 15 baino gutxiago izatea, eta Galiziak bakarrik lortu du 2020rako xedea zientzietan (% 13,7).


Euskadik % 18 inguruko ehunekoa dauka, eta matematikan ehuneko txikiena dutenen artean laugarrena da; kompetentzia zientifikoan, ordea, erdian dago (ehunekoetan, zazpigarrena), 2018an parte hartu zuten autonomia-erkidego guztien artean. Datu positibo modura, bi kompetentzia horietan errendimendu baxua duten ikasleen kopurua 2018an 1,4 portzentaje-puntu jaitsi zela esan dezakegu.

1.3.2.2. Oinarritzko kompetentzietan hobetzeko adierazle europarrak

Irakurmenean, matematikan eta zientzietan oinarritzko kompetentzietara iristen ez diren 15 urteko gazteen ehunekoa % 15era jaisteko xedea ezarri zen ET 2020 estrategian, eta sekulako erronka da hori Europako herrialde gehienentzat eta autonomia-erkidego guztientzat, 2018ko PISA txostenaren emaitzei (aztertu berri ditugunei) begiratuz gero⁴¹.

⁴¹ Estatuko Eskola Kontseiluak 2019an hezkuntza-sistemaren egoerari buruz argitaratu zuen txostenaren 484. orrialdean esaten den moduan: «Errendimendu baxuko 15 urteko gazteen ehunekoa kokatzeko xedeari dagokionez (PISAk ezarritako 1. maila edo hortik

Europako Batzordearen *Structural Indicators for Monitoring Education and Training Systems in Europe 2019*⁴² dokumentuan, hainbat adierazle jasotzen dira, neurri eta balorazio-proposamen modura adieraziak, eta oinarritzko konpetentzien lorpena hobetzeari begirako erabaki politikoak hartzen lagun dezakete. Honako bost hauek dira:



Eurydicek Europako herrialdeen artean konparaziozko azterketa egiteko adierazle bihurtu ditu neurri horien zentzua eta edukia, honela:

<i>Nazioarteko proba estandarizatueta parte hartzea</i>	Oinarritzko hiru trebetasunak derrigorrezko hezkuntzako proba estandarizatueta zein punturaino ebaluatzen diren aztertzen du adierazle honek, ebaluazioak xede sumatiboa edo formatiboa eduki gorabehera. Kontuan hartzen dira nahitaezko nahiz hautazko probak; adibidez, laginetan oinarritutako kanpo-probak.
<i>Oinarritzko trebetasunen errendimenduari buruzko txosten berriak edukitzea</i>	Ikasteko joerei, errendimendu baxuari laguntzen dioten alderdiei eta oinarritzko trebetasunetan errendimendua hobetzeko ikuspegi eraginkorrei buruzko txosten nazionalak ba ote dauden begiratzen du adierazle honek. Txosten horiek ebaluazio propioen datuetan zein nazioarteko ikerketen emaitzetan (hala nola, PISA, TIMSS eta PIRLS) oinarritzen dira.
<i>Zentroen kanpo-ebaluazioan hezkuntza-arloko emaitzak erabiltzea</i>	Adierazle honen bidez, batetik, ikasleen errendimenduari buruzko datuak eskola-zentroen kanpo-ebaluazioarako erabiltzen ote diren aztertzen da, eta, bestetik, goragoko hezkuntza-agintaritzak bati informazioa bidaltzen dioten kanpo-ebaluatzaileek ebaluazio hori egiten ote duten baloratzen da, berariaz. Modu espezifikoan, bi alderdi hartzen dira aintzat: ○ Zentroen ebaluazio mota horrek eskolako jardueren sorta handi bat (irakaskuntza eta ikaskuntza barne hartuta) eta eskolako kudeaketaren inguruko alderdiak estaltzen ote dituen. ○ Eskolaren kanpo-ebaluazioan erabiltzen diren ikasleen errendimenduari buruzko datuek ikasleen emaitza akademikoak eta nazioko edo nazioarteko mailan estandarizatueta ebaluazioetatik datozen emaitzak jasotzen ote dituzten.
<i>Eskolako errendimendu baxuaren gaia irakasleen hasierako prestakuntzan egotea</i>	Hezkuntza-administrazioak irakasleen hasierako prestakuntza-programetarako proposatzen dituen erregulazioek, gomendioek edo ildoek ikasleen oinarritzko trebetasunetan dagoen errendimendu baxua jorratzeko behar diren ezagutzeekin eta trebetasunekin zerikusia daukaten konpetentziak identifikatzen ote dituzten edo goi-mailako hezkuntzako erakundeek programa horien edukiaren inguruan erabateko autonomia duten behatzen da adierazle honekin.

behera dauden ikasleen ehunekoa), adierazi beharra dago PISAk honako elementu hauek konbinatzen dituela errendimendu-mailak ezartzeko orduan: batetik, proba bakoitzaren zailtasuna, eskatzen diren konpetentzia-mailen arabera, eta, bestetik, estatistika-planteamendua bera, zeinaren bidez emaitzen batez bestekoa 500 punturen balioak egiten den eta desbideratze tipikoa 100 punturen balioak egiten den. Hau da, seguru asko, herrialde-multz handietan, Europar Batasunarekin edo ELGEkin gertatzen den moduan, 1. errendimendu-mailan dauden ikasleen ehunekoa beti egongo da desbideratze tipiko horren balioak hurbil (erlatiboki), EBn eta ELGEN batezbesteko horiekin praktikan gertatzen den moduan: % 20ren inguruan daude. Errendimendu hobeak daukan edo batezbestekoan dagoen herrialde bat gehiago hurbil daiteke % 15era, baina nekez gertatuko da EBren edo ELGEren batezbestekoak % 15etik hurbil edo hortik behera egotea: gainerako herrialde parte-hartzaile gehien-gehienek argi eta garbi emaitza baxuagoak baldin badauzkate eta, ondorioz, 1. errendimendu-mailan dauden ikasleen ehunekoa handiak badauzkate bakarrik gerta liteke hori».

⁴² European Commission/Eurydice/EACEA (forthcoming). Structural Indicators for Monitoring Education and Training Systems in Europe 2019: https://eacea.ec.europa.eu/national-policies/eurydice/content/structural-indicators-monitoring-education-and-training-systems-europe-%E2%80%93-2018_en

*Desabantailan dauden
ikasleak dauzkaten
zentroei laguntza
gehigarria ematea*

Adierazle honen bidez, hezkuntza-agintaritzek desabantailan dauden ikasle asko eskolatzen dituzten eskolei baliabide gehigarriak esleitzen ote dizkieten begiratzeko da. Funtse gehiago behar dituzten baliabide finantzarioak edota beste baliabide batzuk biltzen dituzten laguntza gehigarri horrek (hezkuntza-arloko langile gehiago, esleipen bereziak, lan-arloan garatzeko aukerak, irakaskuntza-denbora murriztua, bekak, lan-arloko aholkularitza-zerbitzuak eta abar). Ikasleek estatus sozioekonomikoaren, jatorri etnikoaren, aurrekari migratzaileen eta abarren ondorioz izan ditzaketen desabantailak (arriskuan dauden taldeak edo talde zaurgarriak dira).

PISA txostenaren datuetatik abiatuta, honako hau da dokumentuaren ondorioa: azken urteotan, oso aldaketa politiko eta erreforma gutxi egin dira oinarritzko trebetasunen lorpenari buruzko egiturazko adierazleetan, kanpoko proba estandarizatuak sartu izana kenduta. Herrialde gehienek nazio-mailako proba estandarizatuak antolatzen dituzten eta lorpenari buruzko txosten nazionalak argitaratzen dituzten arren, oinarritzko hiru trebetasunei ez zaie tratu bera ematen, eta, oro har, zientziek arreta gutxiago jasotzen dute. Herrialde askok erabiltzen dituzte ikasleen errendimenduari buruzko datuak eskolaren kanpo-ebaluazioetan, baina erdiek bakarrik igorri dituzte ikasleen errendimendu baxuaren kontrako borroka irakasleen hasierako prestakuntzan gai gisa txertatzeko ildo nazionalak. Azkenik, nahiz eta herrialde gehienek desabantailan dauden ikasle ugari eskolei nolabaiteko laguntza ematen dieten, laguntzaren antolaketaren, xede-taldearen eta ekintza finantzatuaren inguruko ikuspegi asko daude.

Europako herrialde gehienetan, aldaketa gutxi egin dira ikasleen konpetentziak hobetzeari begirako hezkuntza-politiketan, baina kanpo-proba estandarizatuak sartu dituzte. Euskadiren egoera zertxobait hobea da.

Euskadik honako egoera hau dauka:

1. **Kanpo-probak:** gure hezkuntza-sistemak kanpo-proba propioak egiteko gailu indartsua dauka; horren bidez derrigorrezko etapen erdia (errola) eta amaiera (lagina) ebaluatzen dira. Bi ebaluazioetan, *Euskarazko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak*, *Matematikarako konpetentzia* eta *Zientziarako konpetentzia* neurtzen dira, baita oinarritzko beste konpetentzia batzuk neurtu ere, indarreko curriculumarekin erreferentziatzen hartuta. Era berean, lagin zabalarekin hartzen du parte nazioarteko ebaluazioetan: PISA 2003tik, hiru urtez behin, eta IEAren PIRLS ebaluazioan 2017tik (Lehen Hezkuntzako 4. mailako irakurmenari heltzen dio). Horrenbestez, euskal hezkuntza-sistemak informazio ugaria eta aberatsa daukala esan daiteke, eta ikasleen errendimenduari dagokionez duen egoera oso-oso aztertzeke ahalmena daukala baieztatu.

Heziberri proiektua garatzearen ondorioz, “*EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Plana. Bikaintasunerantz ekitatean oinarrituta*” izeneko txostena aurkeztu zen 2016ko martxoan. Ebaluazioari eta ikerketari buruzko 2.5. kapituluaren adierazten denez, «Azken hamarkadan EAEko hezkuntza-sistemak oso modu esanguratsuan egin du aurrera ebaluazioaren kulturaren arian ariko ezarpenean oro har, eta konpetentzien arabera ikasleen ebaluazioaren ezarpenean, bereziki». Halaber, egoeraren analisi laburra egiten da dokumentuan, sistemaren nahiz irakaskuntzaren ebaluazioari buruzkoa, eta hobetzeko zenbait alor planteatzen dira, bai eta lorpenaren inguruko zenbait xede eta adierazle ematen ere (2015-2020 aldirako). Dokumentua ez da eguneratu, eta, orain arte, ez da bere garapena eta jarraitutasuna baloratzeko analisirik egin.

Dena dela, Hezkuntza Sailak ahalegin handia egin du kanpo-proben helburuen eta garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko eta horien segimendua egiteko garaian, irakasleei laguntzeko zerbitzuaren eta ikuskapen-zerbitzuaren bidez, eta nabarmentzekoa da hori. Hezkuntza-ikuskaritzaren datuen arabera, ekintza hori 354 zentrotara iritsi zen (117 zentro LHko 6. mailako diagnostikoaren ebaluazioan; 112 zentro DBHko 4. mailakoetan, eta 125 zentro 2018ko PISA ebaluazioan). Gainera, eskuragarri dauden datuen arabera, zentroen % 95,4 joan ziren aurretiko sentsibilizazio-bileretara; ikasleen % 93,7k proben mekanikari eta edukiei buruzko ezagutzak jaso zituzten probak egin aurretik, eta zentroen % 86,2k ISEI-IVEIk eskainitako materialak erabili zituzten.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta kanpo-ebaluazioen eremuan, komenigarria litzateke gure ikastetxeek egiten dituzten askotariko proben zentzuari, helburuari eta egokitasunari buruz sakon hausnartzea, benetan elkar osatzen duten eta, hortaz, euskal hezkuntzaren analisi orokorra aberasten duen informazio berezia ematen duten jakiteko edo, bestela, kanpo-proben askotariko ondorioek nekez argitu daitezkeen kontraesanetara edo antzeko ondorio eta hobekuntza-proposamenak errepikatzen eramaten ote gaituzten baloratzeko asmoz (azken kasu horretan, ez litzateke beharrezkoa izango ebaluazio ugari egitea).

2. ***Oinarrizko trebetasunetan dagoen errendimenduari buruzko emaitzen txostenak:*** kanpo-proba estandarizatueta parte hartzen duten zentro guztiek jasotzen dute txosten oso bat, aldagai ugari bereizitako emaitzekin. Zentro guzti-guztiek eman behar diete emaitza horien berri haien hezkuntza-komunitateari eta, berariaz, zentroaren eskola-kontseiluari edo ordezkaritza-organo gorenari. Era berean, emaitzak aztertze prozesuak abiatu behar dituzte, zentroa hobetzeko proposamenak egiten lagundu dezaten.

Ikuspegi orokor batetik begiratuta, eskuragarri dauden emaitzetan eragiten duten datu eta aldagaien analisi guztiak aintzat hartuko dituen diagnostiko orokor bat egiteko hainbat saiakera egin dira, euskal hezkuntza-sistemaren egoera zein den ikusteko.

- 2016ko martxoan, jada aipatu dugun *EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren* bidez, EAEko hezkuntza-sistemaren diagnostikoa eta ildo estrategiko guztien egoerari buruzko azterketa egin ziren.
- 2019ko ekainean, etorkizunera begirako Hezkuntzaren Legea prestatze aldera, orain arte egin den azken diagnostikoaren txostena aurkeztu zuen Hezkuntza Sailak, *Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa* deiturikoa. Aurrekoa baino osoagoa eta zabalagoa da, baina, ikasleen errendimenduari buruzko datuen analisiari dagokionez, ez da nahikoa.

Sistemaren egoera zein den jakiteko, diagnostikoaren analisi sakon eta osoa egin beharko litzateke, berariaz errendimenduari buruzko datuetan eta kanpo-ebaluazio estandarizatuak emandako informazioetan zentratuta, eskuragarri dauden datu guztiak kontrastatu eta erabiltzeko. Era berean, egokia litzateke ikastetxeetan inkesta zabal bat egitea, zentroen txostenetan kanpo-ebaluazioen ondorioz ematen diren datuak egokiak eta baliagarriak ote diren baloratze aldera, hezkuntza-komunitateei ematen zaizkien informazioak aberatsagoak eta baliagarriagoak izan daitezen.

3. ***Emaitzen erabilera:*** adierazle honek eskolen kanpo-ebaluazioari begiratzen dio. Euskal hezkuntza-sisteman, hezkuntza-ikuskaritzak egiten dituen lanaz eta ekintzez gain, ez dago atal hau baloratzen duen programa espezifikorik.

Hezkuntza-ikuskaritzak 2017-2018ko memorian zentroen ikuskapenari buruz emandako informazioaren arabera, ikasturte hartan zentroen % 100ek aurkeztu zuten urteko memoria. Hala ere, zentroen % 45ek bakarrik aztertu zituzten ikasleen emaitza akademikoak, eta diagnostikoaren ebaluazioaren emaitzak ez zituzten zentroen % 35ek baino gehiagok aztertu. Ikuskaritzak berak azaldu duenez, memorietan ez zaie aipamen nahikoa egiten hasierako eta amaierako barne-proben emaitzei, curriculumeko askotariko konpetentziei buruzko lorpen-mailaren ebaluazioari, egokitasun-tasei, promozioen eta titulazioen ehunekoei eta arloen, ikasgaien eta ikasturteen araberrako emaitzen historiari.

Ikuskaritzaren proposamenen artean, berariaz adierazten da zerbitzu horrek zentroetan egiten duen esku-hartzean «irakasle-taldeei datuak eta hobekuntza-proposamenak elkarlotzen laguntzeko prozedurak ezarri behar direla, kausa-efektua binomioari erantzute aldera eta emaitzekiko (bereziki, emaitza akademikoekiko), konpetentzien lorpenarekiko (batez ere, hizkuntza-arloko konpetentzien lorpenarekiko) eta zentroaren funtzionamenduari erlazioa bila dadin».

4. ***Errendimendu baxua, hasierako prestakuntzako gai:*** ez dago atal honi buruzko informazio espezifikorik, eta ez dirudi Hezkuntza Sailak irakasleen hasierako prestakuntzaren entitate arduradunei ohar edo gomendio espezifikorik ematen dienik ere.

Irakasleen hasierako prestakuntzaren egoerari buruzko diagnostikoa egin beharko litzateke, errendimendu baxuaren gaiari dagokionez.

5. ***Desabantailan dauden ikasleak dauzkaten zentroein ematen zaaien laguntza:*** euskal hezkuntza-sistemak aspalditik dauka ildo estrategiko modura ikuspegi inklusiboa garatzea eta sistemaren barruan ekitatea sustatzea. Hori dela-eta, Hezkuntza Sailak ildo estrategiko horrekin zerikusia daukaten plan asko sustatu ditu. Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa da nagusia, eta, hortik, hainbat plan, ekintza eta deialdi espezifiko egiten dira (Ikasle Migratzaileei Arreta emateko Plana, Ikasle Ijitoen Eskolatzea Hobetzeko Plana, Hezkidetzat Bultzatzeko eta Genero Indarkeria Prebenitzeko Plana, kulturartekotasuna sustatzeko programak, *Bidelaguna* programa, *Hamaika esku* programa, haurren garapenaren segimendua egiteko protokoloa, hezkuntza indartzeko laguntzen askotariko deialdiak, ikasketa-dibertsifikazioa...).

Programa eta deialdi horietako askoren bidez, finantzen eta giza baliabideen arloko laguntza gehigarria ematen zaie ikastetxeei, baina ikasleen emaitza akademikoak hobetzen laguntzeko xede espezifikoak dauka batek: 2014an hasi zen, 2020ra arte jarraituko du (bigarren aldi batean), eta 63 zentrotan aplikatzen da: *Hamaika esku* programa da.

Hortaz, euskal hezkuntza-sistemak desabantailan, egoera zaurgarrian edo arrisku-egoeran dauden ikasleen egoerak hobetzeko programen eta ekintzen sorta zabala dauka. Alabaina, ekintza eta programa horietako askok abian denbora bat daramaten arren, neurri guztien eraginkortasuna ebaluatu eta aztertzeko prozesu esplizitua egin beharko litzateke, zentroein kontsulta eginez, ondorioetatik abiatuta beharrezko aldaketak egin daitezken.

Hots, ikusi dugunaren arabera, Europako Batzordeak oinarritzko konpetentziak hobetzeko proposatu dituen adierazleen analisisian egoera konparatibo onean gaude oro har. Beraz,

ikasleen emaitzak hobetzeko hausnarketarekin eta errendimendua hobetzeko prestakuntza-programen sustapenarekin zerikusia daukaten neurriak abiatu beharko lirateke, baina, batez ere, indarrean dauden neurri eta deialdi ugariak ebaluatzeko jarduketak sustatu beharko lirateke. Horretarako, zentroen errealitatea eta eguneroko lana aintzat hartuta jorratu beharko litzateke lan hori, proposamenak, plangintzak eta baliabideak eremu eta jarduketa eraginkorrenetara moldatzeko xedez.

1.3.3. HEZKUNTZA- ETA PRESTAKUNTZA-UZTE GOIZTIARRA (18 ETA 24 URTE ARTEAN)

ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA	2009/2018KO EGOERA							2020ko aurreikuspena		Erreferentziako puntua
	Euskadi			Espainia		UE-28		Euskadi	Espainia	Europar Batasuna
	2009	2017	2018	2009	2018	2009	2018			
Gehienez ere Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapa amaitu duten eta ikasten jarraitu ez duten 18 eta 24 urte artekoen ehunekoa. Datuak ehunekotan.	16	7	6,9	30,9	17,9	14,2	10,6	8,6	15	10

2003tik erabiltzen da *eskola uzte goiztiarraren* kontzeptua, erreferentziako puntua hartu zenetik, eta gehienez ere Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapa (derrigorrezkoa) amaitu duten eta XXI. mendean desiragarritzat jotzen den maila lortze aldera ikasten edo prestatzen jarraitu ez duten 18 eta 24 urte arteko gazteen ehunekoa jasotzen du; hots, Bigarren Hezkuntzako bigarren etapara (derrigorrezkoaren ostekora) iritsi ez direnena.

Ikasketek aho batez baieztatzen dute hezkuntza-maila baxuko pertsonak bereziki zaurgarriak direla, pobrezian erortzeko, osasun-arazoak edukitzeko eta ezkontzari, aitaltasunari eta erretiroari eragiten dieten erabaki ez hain informatuak hartzeko aukera handiagoa baitute. Gainera, diru-sarrera fiskalen arloan ekarpen txikiagoa egiten dute, eta pertsona gaituagoak baino gehiagotan egoten dira gizarte-laguntzen mende. Hortaz, ikasle ia guztiak goi-mailako Bigarren Hezkuntza osatu arte hezkuntza-sisteman edukitzea EBren hazkunde jasangarrirako eta enplegurako estrategiaren (ET 2020) xede nagusietako bat da.

Hezkuntza-maila baxuko pertsonen pobrezia, osasun-arazoak eta gizarte-laguntzarekiko mendekotasuna izateko aukera handiagoa daukate.

Erreferentziako puntu honen datuak egiteko, *Eustatek* koordinatzen duen *European Labour Force Survey* delakoa erabiltzen da. Estatu-mailako datuak, berriz, Estatistikaren Institutu Nazionalak (INE) 1968tik egiten duen Biztanleria Aktiboaren Inkestatik (BAI) datoz⁴³. Emandako definizioarekin bat eginez, ikasketa altuenak HNSN 0, 1, 2 edo 3 mailetan dauzkaten eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasten edo prestatzen egon ez diren 18 eta 24 urte bitarteko herritarren ehunekoa hartzen du kontuan BAI inkesta. Kontuan hartzekoa da gazte horiek DBH

⁴³ *Eustatek* (Euskal Estatistika Erakundeak) ere Euskadin hezkuntza goiz uzten duten 18 eta 24 urte arteko herritarren ehunekoa kalkulatu du, *Eurostaten* metodologiari jarraikiz, baina autonomia-erkidegoan hiru hilez behin egiten den Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestaren bidez egiten du, *Eurostatek* ematen dituen datuekin bat egiten ez duten datuak ematen baititu horrek, Euskadiri dagokionez. Horrenbestez, *Eustaten* lagina Eurostatena eta INErena baino nabarmen handiagoa eta, are, zehatzagoa den arren, zuzenean alderatu daitezkeen datuak bakarrik erabili dira txostenean, nahasmendurik ez eragite aldera. Ikusi *Eustaten* datuak hemen: https://eu.eustat.eus/indicadores/ambito_99/temaseleccionado_50/indicadoresEstruc.html

amaitu eta hurrengo urteetan utzi zutela hezkuntza eta, beraz, zortzi urte egon daitezkeela une horren eta inkesta egiteko unearen artean.


2010erako, % 10ean kokatu zen eskola-uztearen tasaren murrizketa; hala ere, herrialde askok xede hori lortzeko zailtasuna zuten, 2020rako ere kota bera mantendu da, baldintza beretan. Adin horietan dauden gazteek prestakuntzarekin jarrai dezaten sustatzea da xedea (sistema arautuan –derrigorrezkoaren ostekoan– nahiz hezkuntza-sistematik kanpoko beste prestakuntza mota batean), gazteen ehuneko handi bat ezagutzaren gizartetik kanpo eta gizarte-bazterketarako arriskuan gera ez dadin.

1.3.3.a) *grafikoak* erakusten duenez, 2018an hezkuntza- eta prestakuntza-uzte goiztiarra % 10,6koa izan zen EB-28n, xede europarretik 0,6 puntura bakarrik, eta herrialde askotan abiarazi diren neurriak egokiak direla esan nahi du horrek. Are, Europako 28 herrialdeetatik 17k xedea lortu dute dagoeneko. Tasa altuenak dauzkaten hiru herrialdeak Espainia (% 17,9), Malta (% 17,5) eta Errumania (% 16,4) dira. Hala ere, nabarmendu egin behar da lehenengo biek aurrerapauso handia egin dutela eskola-uzte goiztiarra murrizteko orduan (Espainiak % 28,2ko tasa zuen 2010ean, eta % 17,9koa zuen 2018an; beraz, zortzi urtetan % 37 inguru murriztu du eskola-uztearen tasa). Halaber, uzte goiztiarraren tasa altuak ikus daitezke Italian (% 14,5), Bulgarian (%12,7) eta Hungarian (% 12,5).

EB-28k, funtsean, eskola-uzte goiztiarraren 2020rako xedea lortu du dagoeneko. Euskadi eskola-uzte baxuena duten lurraldeen artean dago, 2018an % 6,9ko tasa baitzuen.

Euskadi eskola-uzte baxuena duten lurraldeen artean dago, % 7tik behera murriztea lortu dutenen artean baitago (Kroaziak % 3,3, Esloveniak % 4,2, Lituaniak % 4,6 eta Greziak % 4,7). Europako mailan, herrialde horietako gehienak txikiak dira (Polonia eta Grezia kenduta). Euskadik badu, halere, azpimarratzeko moduko alderdi bat: adierazle honetan bikainak diren lurraldeen artean, 2009tik 2018ra bitartean eskola-uztearen ehunekoa gehien murriztu duena da, ia 10 portzentaje-puntu jaitsi ditu-eta (% 16,6tik % 6,9ra).


1.3.3.a. grafikoa. Eskola-uzte goitiarra. 2009-2017-2018




Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.

Autonomia-erkidegoen arabera ikus daitekeenez (1.3.3.b) grafikoa), 2018ko datuaren arabera ordenatuta, autonomia-erkidego guztiek asko murriztu dute eskola-uztearen ehunekoa: Espainiak, batez beste, 13 puntu jaitsi ditu, Balear Irlek 16, eta Andaluziak, Errioxak edo Kataluniak 15. Urte hauetan guztietan, Euskadik eduki du eskola-uzte txikiena, eta, gainera, 9,7 puntutan jaitsi du tasa adierazle honetan.

1.3.3.b.grafikoa. Eskola-uzte goiztiarren ehunekoak, autonomia-erkidegoen arabera. 2009-2017-2018.



Iturria: Guk geuk egina, INEren datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.



Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikatik hartu da.


Eskola-uztea inkesta bete dutenen sexuaren arabera begiratz gero, ehunekoak argigarriak dira. Europar Batasuneko herrialde guztietan eta autonomia-erkidego guztietan gertatzen den moduan, Euskadin ere emakumeek baino gizon gehiagok uzten dute prestakuntza goiz. 2018an, Europa mailan⁴⁴, Estoniak (9,7 puntu), Espainiak (7,7 puntu) eta Letoniak (6,6 puntu) izan zuten desberdintasun handiena bi sexuen artean. Autonomia-erkidegoetan, aldiz, sexuaren araberrako puntu-desberdintasuna oso aldakorra izan zen 2018an, Nafarroak 2,1 puntu izan baitzituen eta Murtziak 14,1. Kantabrian, berriz, alderantzizkoa gertatu zen: gizonak baino emakume gehiagok utzi zuten eskola (1,8 puntu).

Europako herrialde eta autonomia-erkidego ia guztietan, gizonak baino emakume gutxiagok uzten dute eskola. Euskadik nabarmen murriztu du bi sexuen arteko distantzia, 5 puntu baino gutxiago baitaude bien artean.

Euskadin, 1.3.3.c) *grafikoan* ikus daitekeenez, sexuaren araberrako eskola-uztearen ehunekoak bilakaera argia eta ona eduki du ET 2020 estrategiaren hamar urte hauetan. 2009an, 10,2 puntuko aldea zegoen bi sexuen artean, eta, 2018an, ia erdia: 4,9 puntukoa. Horretaz gain, bada beste datu interesgarriarik ere: hamar urte hauetan, 12,3 puntutan murriztu da eskola uzten duten gizonen ehunekoa, eta 7 puntutan emakumeena.

⁴⁴ Ikusi datuak hemen:

<http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaJaxiPx/Tabla.htm?path=/Formacionym/EPA2018/Indi//10/&file=Indi02.px&type=pcaxis&L=0>



Iturria: Guk geuk egina, INEren datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.

Eskola-uzte goiztiarraren bilakaera zehatzago egiaztatu ahal izateko, Europar Batasunaren Ministroen Kontseiluak, 2011ko maiatzean, presidentetza hungariarraren pean eta Espainiako Hezkuntza Ministerioak hala eskatuta, hezkuntza-arloko beste adierazle batzuk aintzat hartzea erabaki zuen (hala nola, Bigarren Hezkuntzaren bigarren etapan dauden matrikulen eta graduatuen tasak), hezkuntza-politikek hezkuntzaren eta prestakuntzaren uzte goiztiarra murrizteko orduan dauzkaten ondorioak zehaztasun handiagoz baloratu ahal izateko. Hala ere, kapitulu hau gehiegi ez luzatzearen, txosten honen beste kapitulu batzuetan emango da informazio hori.

1.3.3.1. Euskadin hezkuntza-uzte goiztiarraren tasak hobetzeko aukera

Eskola-uzte goiztiarrari buruzko ikerketa eta azterlan guztiekin bat eginez, badakigu fenomeno horrek kausa anitzeko jatorria duela eta banakako faktoreek eta ikasketekin pozik ez egoteari edo ikasketak arbuizatzeari loturiko hezkuntza-arloko arrazoiek eragiten dutela, baina baita Espainiako hezkuntza-sistema zorrotzak, osagai sozial eta familiarrek, elementu sozioekonomikoek eta lan-merkatuaren beraren ezaugarriek ere. Are, genero-dimentsioa dauka, gizonak emakumeek baino askoz ere proportzio handiagoan uzten baitute eskola. Hortaz, arazoari heltzeko, erantzun serio eta sakona eman behar da eremu sozial, politiko eta hezkuntzakoetatik.

Zalantzarik gabe, Euskadik adierazle honetan daukan datuak oso onak dira, baina, hezkuntza-arloko adierazle oro bezala, gure sisteman duen eragina murriztu liteke, baldin eta, batetik, xede honetan dugun egoera bikaina ahalbidetzen duten jarduketara-ildo batzuk hobetzen eta indartzen badira eta, bestetik, beste herrialde batzuetan arrakasta izaten ari diren eta Europako Batzordea bera sustatzen ari den neurri batzuk martxan ipintzen badira.

Euskadiko eskola-uztea baxua izateko arrazoiei buruzko analisiek eta azterketek, besteak beste, indartzen jarraitu behar diren gako hauek adierazten dituzte:

- *Irakaskuntza inklusiboaren aldeko hezkuntza-politika adostua eta kontinuista*: aurreko mendeko 90eko hamarkadaren amaieran, aniztasunari erantzuteko neurriak eta baliabideak abiatu ziren, eta, Hezkuntza Sailaren kudeaketan

Euskadiko eskola-uzte goiztiarraren tasa hobetzen jarrai daiteke, indarreko estrategiak mantentzen eta hobetzen badira eta Europa mailan arrakasta izan duten bestelako proposamenak abiatzen badira.

aldaketa politikoak egin badira ere, nahiko egonkor eutsi zaie. Eskola inklusiboa euskal hezkuntzaren oinarritzko ildo estrategikotzat hartzeko orduan adostasun politiko eta sozial nahikoa dagoela pentsa daiteke.

- *Euskadiko Lanbide Heziketaren indarra eta gizartean nahiz hezkuntza-arloan duen prestigioa*: duen nortasun indartsuari esker, ekonomiaren eta enpresaren ingurunean errotze sakona edukitzeari esker eta aldizkako planen bidez xedeak, proiektuak eta baliabideak etengabe berritzeari eta eguneratzeari esker (lehenengo plana 1997an jarri zen martxan), Euskadiko Lanbide Heziketa erreferentziazko prestakuntza eta etapa erakargarria da gazte askorentzat. Hala, eskariak eta ikasketa hauek egiten dituztenen arrakastak estatuan baino proportzio handiagoan egin dute gora.
- *Hezkuntzaren balio sozialaren kontzientzia eta familiek garapenean duten inplikazioa*: baliabide natural eskasak eta lan-merkatu zorrotza dituen herrialde honetan, euskal familiek balio handia ematen diete hezkuntzari eta prestakuntzari, inkesta soziologiko guztien arabera. Gainera, euskal hezkuntza-sistemaren konplexutasunak berak konpromiso handiagoa eskatzen die familiei, zentroa eta hizkuntza-eredua hautatzeko orduan.
- *Bilakaera akademikorako eskakizun-mailaren eta benetan eskuratutako prestakuntza-mailaren arteko oreka hobe, beste sistema batzuetan baino*: hainbat analisiren datuek diotenez, koherentzia handiagoa dago titulua lortzeko eta gora egiteko eskakizun-mailaren eta kanpo-proba estandarizatuen bidez neurturiko oinarritzko prestakuntzaren artean.

Europako Batzordearen *egiturazko adierazleei* buruzko dokumentuak, zeina hainbat aldiz aipatu den dagoeneko, eskola-uzte goiztiarraren segimendu osoa egiten du, eta, beraz, intzidentzia murrizten laguntzeko bost neurri adierazten ditu:

- *Eskola-uzteari buruzko datuak ikasleen erregistroetatik biltzea*. Hezkuntza-zentroetan ikasleen erregistro automatiko eta sistematiko bat egotea da proposamena, zentro baten datuak urtez urte alderatzeko, abiatutako politiken eraginkortasuna baloratzeko eta ikasle absentisten eskola-uztea nahiz eskola-porrotak iragartzeko xedez.
 - Euskal hezkuntza-sistemak duela urte batzuetatik dauka erregistro hori, baina xede horietarako ez da gehiegi erabiltzen, eta, gainera, ez diote jarraitutasunik ematen, luzetarako ikerketak egin eta bazterketarako arriskuan dauden ikasleei arreta espezifiko eskaini ahal izateko moduan.

Bestalde, ezinbestekoa litzateke Euskadiko eskola-uzteari buruzko azterlan sakona egitea, eta ez genero-arrakalari dagokionez bakarrik (oinarritzko datuak baino ez dauzkagu), baita eskola uzten dutenen jatorriari, lorturiko gehieneko prestakuntza-mailari, lan- eta enplegarritasun-egoerari, ezaugarri sozial eta familiarrei, jarraitutako ibilbide akademikoei edo, beste aldagai batzuen artean, intzidentzia handiagoa daukaten lurralde-nukleoei eta eremuei dagokienez ere.
- *Prestakuntza-ibilbideen malgutasuna eta iragazkortasuna areagotzea*. Adierazle honek, batetik, eskola-uzte goiztiarrerako arriskua gutxitzeko ekimenak sustatzeko asmoa dauka, eta, horri begira, programa-sorta zabalagoa edo ordezkotako prestakuntza-bideak (akademikoak, teknikoak edo bokaziozkoak) bultzatzen ditu, eta, bestetik, ikasleen premiak eta espektatibak betetzen ez dituzten ibilbideak edo prestakuntza-programak

aldatzeko aukera emateko xedea dauka. Halaber, hezkuntza-mailen artean arazorik gabe mugitu ahal izatea eta trebetasunak edo lanbide-prestakuntzak aitortzea bermatu nahi du.

- Horri dagokionez, esan den moduan, euskal hezkuntza-sistemak zailtasunak dauzkaten edo abandonu-inguruneetan nahiz abandonu-arriskua duten inguruneetan bizi diren ikasleei arreta emateko gailu bat dauka.
 - Zalantzarik gabe, oso alderdi ona da hori, baina badu arazorik ere: martxan jarri zenetik, ez da egokia eta eraginkorra den egiaztatze behar besteko sakontasunez ebaluatu eta aztertu, behar izatekotan aldaketa-proposamen saihestezinak planteatzeari begira.
- *Ama-hizkuntza eta eskolako hizkuntza berbera ez duten ikasleei hizkuntza-arloan laguntzea.* Adierazle honek, funtsean, jatorri migratzailea duten ikasleei egiten die erreferentzia, ikasle mota horiek gehiegizko ordezkaritza izaten baitute ikasketak goiz uzten dituztenen artean. Eskolako hizkuntzan dituzten konpetentziak indartzea da xedea, ikasteko aukerak baliatze eta atzean ez geratze aldera ezinbestekoak direlako.
- Euskal hezkuntza-sistemak duela urte batzuetatik dauzka ikasle migratzaileei arreta emateko plan espezifikoak eta programa hezitzaile estrategikoak, baliabide teknikoak eta giza baliabideak dauzkatenak, eta deialdi nahiko argiak egiten dira zentroetarako. Aurreko puntuan adierazi den moduan, programa horiek ez dira ez aztertu, ez ebaluatu, edo eskas eta behar besteko sakontasunik gabe analizatu dira, eta, beraz, ezin dira haien eraginkortasuna eta egokitasuna baloratu, eremu honetan geroz eta gehiago agertzen diren premiei dagokienez.
- *Eskola-uzte goiztiarra irakasleen hasierako prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko gaia izatea.* Irakasleek hasierako prestakuntzan eta garapen profesional etengabearen eskola-uzteak dakarren desafioa hobeto ulertu ahal izateko neurriak hartzen die adierazle honek. Irakasleek eskola-uztearen azpiko kausen, eragile nagusien eta hasierako abisuzantzuen gainean duten kontzientzia areagotzea da xedea, bai eta irakasleek eskola-uztea prebenitzeko eta arriskuan dauden ikasleei laguntzeko neurriak hartzeko orduan duten gaitasuna indartzea ere.
- Bada, neurri honi dagokionez, ez dago datu espezifikorik neurria irakasleen hasierako prestakuntza-prozesuetan modu hautemangarrian dagoela baieztatzen duenik; beraz, egokia litzateke informazioa biltzeko neurriak abiaraztea. Prestakuntza etengabearen berriz, egon badagoen arren, ez dirudi Hezkuntza Sailaren prestakuntza-proposamenetan askotan agertzen den gaia denik, eta, guk dakigula, azken urteetan ez da eskola-uzte goiztiarrari buruzko kanpainarik egin.
- *Eskoletan hezkuntza- eta lan-arloko orientazioa ematea.* Neurri honekin, ikasketa-planean lanbide-orientazioa nahitaez egotea sustatu nahi da; bereziki, Bigarren Hezkuntzan.
- Euskadin, orientazioaren inguruko giza baliabideen eta baliabide teknikoen sare ona dago zentro guztietan, hala Lehen Hezkuntzan, aholkulariaren irudiaren bidez, nola Bigarren Hezkuntzan, oro har derrigorrezko eskolatzeko aldien osteko

informazio akademikoa eta lan-arloko informazioa ematen duten zerbitzuekin oso lotuta egoten diren orientatzaileen bidez.

- *Eskola goiz utzi zutenak hezkuntza-sistemara itzul daitezela sustatzea.* Hezkuntza eta prestakuntza utzi zituzten gazteei sistemara itzultzen laguntzeko politikak eta neurriak sustatzea da adierazle honen helburua. Besteak beste, bigarren aukera emateko zentroak, hezkuntza- eta prestakuntza-bide formal alternatiboak eta lanbide-orientazioa sustatzeko asmoa dauka, trebetasun praktikoetan gaitzearekin, banakako nahiz taldeko aholkularitzarekin eta gazte-bermearen⁴⁵ testuinguruko ekimenekin konbinatuta. Gazte-bermearen bidez, 25 urtetik beherako gazte guztiek hezkuntza formala amaitu edo langabezia amaitu eta hurrengo lau hilabeteetan kalitate oneko behin betiko eskaintza bat jasotzea bilatzen da; hots, gazte horiek haien premiekin eta egoerarekin bat egiten duen lan baterako, praktiketarako edo hezkuntza jarraiturako eskaintza jaso dezatela.
 - Euskal hezkuntza-sistemak eskola utzi duten ikasleei zuzendutako programa batzuk ezarri ditu; bereziki, hasierako lanbide-heziketaren eskaintzen, bigarren aukera emateko zentroen eta Helduen Hezkuntzari loturiko ikasketa malguagoen bitartez. Era berean, udal- eta lurralde-zerbitzuek horrelako pertsonen laguntzeko eta orientazioa emateko xedez eskaintzen dituzten programak daude.

1.3.4. HEZKUNTZA TERTZIARIOKO TITULAZIOA (30 ETA 34 URTE ARTEAN).

HEZKUNTZA TERTZIARIOKO TITULUDUNAK	2009/2018KO EGOERA							2020ko aurreikuspena		Erreferentziako puntua
	Euskadi			Espainia		UE-28		Euskadi	Espainia	Europar Batasuna
	2009	2017	2018	2009	2018	2009	2018			
Unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko goi-mailako hezkuntzan (HNSN 5-8) titulua duten 30 eta 34 urte artekoen ehunekoa. Datuak ehunekotan.	62,7	55,1	57,1	40,7	42,4	32,3	40,7	68	44.0	40

Bilakaera teknologikoak oso erritmo azkarra duenez eta mundu-mailako lehiakortasuna areagotzen ari denez, lan-merkatuak (bereziki, ezagutzan intentsiboak diren sektore ekonomikoetan) gero eta zorrotzagoak dira trebetasunei eta abileziei dagokienez. Hori dela-eta, gizartea modernoa izan dadin, biztanleriak hezkuntza-maila altua edukitzea eskatzen da oro har, horrek produktibitatea, berrikuntza eta lehiakortasuna areagotuko dituelakoan. Aldi berean, ordea, pertsonak ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen erronkak jorratzeko gai izatea eskatzen da. Testuinguru horretan, EBrentzat gero eta garrantzitsuagoa da goi-mailako hezkuntza amaitzen dutenen kopurua handitzea eta goi-mailako hezkuntza horren kalitatea hobetzea.

⁴⁵ Kontseiluaren gomendioa, gazte-bermea ezartzeari buruzkoa. [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32013H0426\(01\)&from=EN](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32013H0426(01)&from=EN)


EBk hezkuntza-maila tertziarioaren inguruko xedea 30 eta 34 urte arteko adin-tartearekin lotzea erabaki zuen, EBko batezbesteko ikasleak 26 urterekin graduatzen direlako goi-mailako hezkuntzan. Alabaina, nazio- eta eskualde-mailako batezbestekoak oso aldakorrak dira, eta hainbat faktoreren mende daude; hala nola, matrikulatzeko ohiko adina, ikasketa-programen batez besteko iraupena eta denbora partzalean ikasteko nahiz lana ikasteko xedez eteteko aukerak.

Euskadin, 30 eta 34 urte artekoen % 57,1ek titulazio tertziarioa daukate, eta, beraz, 17 puntutan gainditzen dira hala 2020rako erreferentziatzko puntua, nola EBko herrialdeen batezbestekoa.

Lehen esan den bezala, 2009an, hezkuntza tertziariodun 30 eta 34 urte arteko gazteen kopurua gutxienez % 40 areagotzeko xede estrategikoa ezarri zuten EBko herrialdeek. Une hartan, kategoria horretako lagunen herenak baino gutxiagok zuen titulu tertziario bat. Gaur egun, % 40,7k daukate. Euskadik 2009an gainditu zuen 2020rako erreferentziatzko puntua (estrategia hasi zenean), eta, gaur, % 57,1eko tasa dauka. Beraz, adierazle honetan, buruen artean dago Europan, 17 portzentaje-puntu baino gehiago ateratzen baitizkio 2020rako finkatu den kotari.

EBko hemeretzi herrialdek 2020rako xede gisa ezarritako % 40ko ehunekoa gainditua zuten 2018an. Gainera, herrialde horietako hamahiruk % 40ren eta % 50en arteko tasak zeuzkaten hezkuntza tertziarioaren lorpenean. Suitzan, Luxenburgon, Irlandan, Txipren eta Lituanian (goitik beherako ordenan), herritarren % 50ek baino gehiagok daukate titulu tertziario bat. Bikaintasuneko talde horretan, Euskadi dago.


1.3.4.a. grafikoa. Goi-mailako hezkuntza duten (HNSN 5-8) 30-34 urte arteko herritarren ehunekoa EBko herrialdeen 2018.



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuetatik abiatuta[[edat_ifse_03](#)].

1.3.4.b) grafikoa, adierazle honek 2012tik 2018ra bitartean Euskadin izandako bilakaera eta sexuaren arabera bilakaera jasotzen dira. Adierazle honi buruzko datuak dauzkagunetik, goi-mailako hezkuntzan gizonek baino emakume gehiagok eskuratu izan dituzte tituluak. 2018an, 10,4 puntuko aldea zegoen bi sexuen artean, baina, 2016tik, alde hori pixkanaka murrizten ari da, bi sexuen artean egon den distantziarik handiena egon baitzen urte hartan (16,2 puntukoa).


1.3.4.b. grafikoa. Euskadin ikasketa tertziariak dituzten 30 eta 34 urte arteko herritarren ehunekoa. Guztizkoa eta sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, INEren datuetatik abiatuta.

Hezkuntza tertziarioan gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasun hori EBko herrialde guztiek partekatzen dute, intentsitate-maila ezberdinean izan arren. Hala, Euskadiko 10 puntuko aldea EBko batezbestekoaren antzekoa da (emakumeak % 45,8, gizonak % 35,7); hala ere, European arrakala horrek urteekin gora egin duen arren, Euskadin alderantzizkoa gertatu da: behera egin du.

Autonomia-erkidegoen arabera, 1.3.4.c) grafikoa ikus daitekeenez, Euskadik dauka ehunekorik handiena: ia 25 puntu ateratzen dizkio portzentaje txikiena duen autonomia-erkidegoari (Andaluziak % 32,5ekoa dauka). Hezkuntza tertziarioa duten gizon-emakume euskaldunen ehunekoa ere gainerako autonomia-erkidegoetakoa baino handiagoa da. Bi autonomia-erkidegok bakarrik daukate Euskadik baino alde txikiagoa emakumeen eta gizonen artean: Asturiasek eta Kanariak. Euskadi eta Asturias dira 2018an gizonen % 50ek goi-mailako hezkuntzan titulua edukitzea lortu duten autonomia-erkidego bakarrik.



Iturria: Guk geuk egin, INEren datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.

Europako Batzordeak xede bikoitza duten egiturazko adierazleen sorta bat garatu du *Supporting Growth and Jobs: an Agenda for the Modernisation of Europe's Higher Education Systems (Hazkundera eta enpleguari laguntzea: European goi-mailako hezkuntza-sistemak modernizatzeko agenda)*⁴⁶ izeneko komunikazioan: batetik, goi-mailako hezkuntzan dagoen parte-hartzea areagotzea eta zabaltzea da asmoa, eta, bestetik, ikasketa horien kalitatea eta garrantzia hobetzea. Egiturazko adierazle horien artean, ikasleen ezaugarrien gaineko segimenduetarekin eta ikasketa ez-formalen edo informalen aitortzarekin zerikusia daukan ahalegina nabarmentzen da. Halaber, xede sozialen inguruan errendimendu-maila espezifiko bat betetzen duten goi-mailako hezkuntza-erakundeak finantzatzeko mekanismoak sustatzen dituzte (adibidez, ezaugarri sozioekonomiko jakin batzuegatik, sexuagatik, familiaren jatorriagatik edo desgaitasuna edukitzeagatik desabantailan dauden ikasleei arreta ematen dieten erakundeak)⁴⁷.

⁴⁶ Communication from the European Commission, 2011. *Supporting Growth and Jobs: an Agenda for the Modernisation of Europe's Higher Education Systems* https://ec.europa.eu/assets/eac/education/library/policy/modernisation_en.pdf

⁴⁷ Ikusi Structural Indicators 2018 dokumentuaren 4. kapitulua.

1.3.5. BIZITZAN ZECHARREKO PRESTAKUNTZA (25 ETA 64 URTE ARTEAN)

25 ETA 64 URTE ARTEKOEK IKASKUNTZA ETENGABEAN DUTEN PARTE-HARTZEA.	2009/2018KO EGOERA							2020ko aurreikuspena		Erreferenztiazko puntua
	Euskadi			Espainia		UE-28		Euskadi	Espainia	Europar Batasuna
	2009	2017	2018	2009	2018	2009	2018			
Hezkuntza- edo prestakuntza-ekintza batean parte hartzen duten 25 eta 64 urte artekoen ehunekoa (HNSN 0-8 mailak) Datuak ehunekotan.	13,3	13,2	12,7	10,8	10,5	9,5	11,1	17	15,2	15

Azken urteetan, helduen ikaskuntzarako politiken garrantziak gora egin du lanaren izaera aldakorrari eta abian den eraldaketa teknologikoari buruzko eztabaidaren barruan. Bizitzaren aldi jakin bati (gaztaroari) loturiko prestakuntzaren kontzeptua aldatu egin da, eta bizitzan zehar garatzen den kontzeptu zabalagoa hedatu da. Europako herritarrek gero eta gehiagotan egin behar izaten diote aurre haien ezagutzak, konpetentziak eta gaitasunak etengabe eguneratu eta osatzeko erronkari.

Trebetasunei eta Enpleguari buruzko Europako Inkestaren arabera⁴⁸, zeina Europar Batasunean Lanbide Heziketa Garatzeko Agentziak (*Cedefop*) egiten duen, Europako enplegatu helduen % 43k dagoeneko aldaketak sumatzen dituzte lanean erabiltzen duten teknologian. Gainera, ELGEren balioespenek iradokitzen dutenez, langileen % 46 lana galtzeko edo aldaketa handiren bat ikusteko arriskuan daude, datozen bi hamarkadetan biziko den automatizazioaren ondorioz⁴⁹.

Europar Batasunak 2000n hartu zuen xedetzat ikaskuntza etengabe dagoen parte-hartzea areagotzea, eta honela definitu zuen: «*Bizitzan zehar egiten den ikaskuntza-jarduera oro, norberaren ezagutzak, konpetentziak eta gaitasunak ikuspegi pertsonal, zibiko edo sozial batetik edo enplegutik begiratuta hobetzeko xedea duena*». Gaur egun, inkesta bete aurreko lau asteetan egindako edozein ikastaro edo tailer jotzen da prestakuntzat, prestakuntza arautua, ez-arautua edo informala izan gorabehera.

2003an, lan egiteko adinean zeuden 25 eta 64 urte arteko helduen % 12,5ek inkesta egin aurreko lau asteetan hezkuntza- eta prestakuntza-jardueretan parte hartzea lortzeko xedea ezarri zuen Europar Batasunaren Kontseiluak, 2010ari begira⁵⁰. Xede hori % 15era igo zen 2009an, 2020a erreferentziatzat hartuta.

EBko oso herrialde gutxi lortu dute helduen % 15ek prestakuntza-jardueretan parte hartzea. Euskadik % 12,7ko tasa dauka, baina 2020rako finkatutako kotatik urrun dago oraindik.

Egia izan arren urteekin batera EBn ikaskuntzan parte hartzen duten helduen ehunekoak nolabaiteko hazkundea izan duela (2002an % 7,1ekoa zen, 2008an % 9,5ekoa zen, eta 2018an

⁴⁸ Cedefop (2018). [Insights into skill shortages and skill mismatch: Learning from Cedefop's European skills and jobs survey.](#)

⁴⁹ Nedelkoska, L. eta G. Quintini (2018). [Automation, skills use and training](#), OECD Social, Employment and Migration, Working Papers, No. 202


⁵⁰ Adierazle honek helduen ikaskuntzan eragiten duten faktoreak identifikatzeko asmoa dauka, «ikaskuntzan dagoen abantailaren edo desabantailaren» maila zein den kalkulatu ote daitekeen ikusteko xedez. Talde soziodemografiko jakin batek ikaskuntzan duen parte-hartzearen tasa neurtzen du kontzeptu honek, eta herrialde bakoitzeko 25 eta 64 urte arteko herritarrek ikaskuntzan duten parte-hartzearen batez besteko tasarekin alderatzen du hori. Emaizak, bada, hautatutako talde soziodemografikoaren parte-hartzearen tasek herritar orokorrekin alderatuz gero dituzten desberdintasunak adierazten ditu.

% 11,1koa), adierazle honen bilakaera orokorra oso motela izan da, eta ez dago batere argi 2020rako finkatu den kotara iritsi ahalko ote garen.

Helduek hezkuntzan eta prestakuntzan duten parte-hartzea, hein handi batean, jarduera ez-formalen bidez gauzatzen da, hezkuntza formaleko parte-hartzeak baxua izaten jarraitzen baitu (Europako mailan, % 3 baino zertxobait handiagoa da).

Adierazi den moduan, adierazle hau % 11,1koa izan zen 2018an EB-28n. EBko herrialde hauek lortzen dituzte baliorik altuenak, ezarrita dagoen erreferentziazko mailaren gainetik: Suediak (% 29,2), Finlandiak (% 28,5) eta Danimarkak (% 23,5). Euskadik % 12,7ko tasa dauka; beraz, EB-28ko batezbestekotik gora dago, Erresuma Batuko, Irlandako edo Esloveniako mailetan, baina, Europako herrialde gehienek bezala, ez du lortzen % 15eko erreferentziazko puntua gainditzea.


Grafiko 1.3.5.a. Prestakuntza-jardueretan parte hartu duten 25-64 urte arteko helduen ehunekoa. 2018.



Iturria: Guk geuk egina, *Eustaten* datuetatik abiatuta.


1.3.5.b) grafikoan islatzen denez, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase⁵¹ estatistikaren datuetatik abiatuta, bederatzi autonomia-erkidego Espainiako batezbestekotik (% 10,5) behera daude, eta Euskadi da datu onena eman duen autonomia-erkidegoa, bi puntutan baino gehiagoan gainditzen baitu Espainiako batezbestekoa eta lau puntutan baino gehiagoan gainditzen baitu ehuneko txikiena duen autonomia-erkidegoaren datua (Asturias, % 8,6). Sexuaren arabera emaitzetan, emakumeek zenbaki altuagoak ematen dituzte gizonen baino, nahiz eta alde handiak egon: Andaluzian 0,9 puntuko distantzia dago; Nafarroan, 4,3koa, eta Euskadin 2,4koa.

⁵¹ <http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaJaxiPx/Tabla.htm?path=/Formacionym/EPA2018/Indi//IO/&file=Indi05.px&type=pcaxis&L=0>



Iturria: Guk geuk egina, INEren datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.

Grafiko honetan, Euskadiko helduen prestakuntza etengabearen inguruko adierazleak 2009tik 2018ra bitartean zer-nolako bilakaera izan duen ikus daiteke. 2004tik 2005era egon zen igoeratik (% 6,6tik % 12ra igaro baitzen) hona, datuari nahiko egonkor eutsi zaio. Urte gehienetan, % 13ko tasa dago, % 15eko xede europarrera hurbiltzen ez diren aldakuntza etengabeekin. Autonomia-erkidegoetan eta Europako herrialdeetan antzekoa gertatzen da; hortaz, neurri espezifikoak hartu ezean, 2020rako xedea ez lortzea da ziurrena, 2010ean xede berberarekin gertatu zen moduan.



Iturria: Guk geuk egina, INEren datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.

Ikus daitekeenez, adierazleak dituen hamar urte hauetan, Euskadiko emakumeek gizonak baino ehuneko handiagoa lortu dute, hamarkadaren hasieran bien artean zeuden lau puntuak 2018an

erdira jaitsi ziren arren. Gizonen ehunekoa nahiko egonkor mantendu da (% 11,5 inguruan), baina Euskadiko emakumeen artean ezegonkortasun handiagoa dago; izan ere, 2009tik 2012ra gertatu zenaren kontrara (2020rako xede europarra gainditu zuten), azken datuen arabera, puntu bat baino gehiago egin du behera ehunekoak, 2017ko datuarekin alderatuta.


1.3.5.1. 25 eta 64 urte arteko helduen prestakuntza-maila.

Europako adierazleak neurtutako adin-tartean (25-64) dagoen prestakuntza-mailari begiratzea da prestakuntza etengabea aztertzeke beste modu bat. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren datuen arabera, 2018an Euskadiko 25 eta 64 urte arteko herritarren % 71,2k derrigorrezkoen osteko ikasketak amaitu zituzten gutxienez. Horietatik % 51,5ek goi-mailako ikasketak zituzten; % 27,3k Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa egin zuten, eta % 21,3 Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik behera zeuden.

1.3.5.1.a) *grafikoan*, helduen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke, prestakuntza-mailaren arabera. Bada, bilakaeraren oso irudi positiboa ematen digu: goi-mailako ikasketak dauzkaten helduen ehunekoak 6,6 portzentaje-puntutan egin du gora 2009tik 2018ra, eta Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherako ikasketak bakarrik dauzkaten herritarren ehunekoak 8 puntu egin ditu behera. Hau da, goreneko prestakuntza duten herritarrak gehiago dira, eta nabarmen murriztu da oinarriko maila dutenen kopurua.

2009tik 2018ra, Euskadin 6,6 puntutan egin du gora goi-mailako ikasketak dauzkaten 25 eta 64 urte arteko helduen ehunekoak, eta Bigarren Hezkuntzatik beherako ikasketak dauzkatenen ehunekoak 8 puntu jaitsi ditu.

1.3.5.1.a. grafiko. 25-64urte arteko helduen ehunekoak izandako bilakaera prestakuntza mailaren arabera. Euskadi.




Iturria: Guk geuk egin, INEren datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.⁵²

Ikasketa tertziarioak edo goi-mailako ikasketak dauzkaten helduei bakarrik begiratz gero, 2.3.5.1.b) *grafikoan* ikus daitekeenez, Euskadi buru da Europan, EB-28ko batezbestekoa baino 19,2 puntu eta Espainiako batezbestekoa baino 14 puntu gehiago baitaizkza.

⁵² Ikusi Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistika:

<http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaJaxiPx/Tabla.htm?path=/Formacionym/EPA2018/NivFor//I/O/&file=NivFor102.px&type=pcaxis&L=0>


1.3.5.1.b. Ikasketa tertziarioak dituzten 25-64 urte arteko helduen ehunekoa. 2018.EBko herrialdeak.



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.

1.3.5.1.c) *grafikoan*, goi-mailako ikasketak dauzkaten 25 eta 64 urte arteko herritarrek 2009tik 2018ra Euskadin izandako bilakaera ikus daiteke. Urte horietan, Euskadik joera oso ona dauka gizonen nahiz emakumeen artean. Azkenik, bi alderdi nabarmendu daitezke: batetik, 2018an bi sexuen arteko aldea handitu zen, 2009ko datuekin alderatuz gero (1 puntutik 3,5 puntura igo zen), eta, bestetik, grafikoan islatzen diren hamar urteetan, emakumeek 8,8 puntutan igo dute haien ehunekoa, eta gizonak 4,4 puntutan. Ondorioz, 2009an eta ondorengo urteetan gertatutakoaren kontrara, gaur egun emakumeek dute datu hobea adierazle honetan.

1.3.5.1.c. grafikoa. Euskadin ikasketa tertziarioak dituzten 25-64 urte arteko herritarren ehunekoak izandako bilakaera. Guztizko eta sexuaren arabera.



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuetatik abiatuta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Educabase estatistikaren bidez.

1.4. 2030EKO GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH) ETA HORIEK ET 2020 ESPARRU ESTRATEGIKOAREKIN DUTEN HARREMANA EUSKO JAURLARITZAREN ESTRATEGIAN.

NBEren Batzar Nagusiak *Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda*⁵³ finkatu zuen 2015eko irailean. Pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzailea da, eta, era berean, mundu-mailan bakea nahiz justiziarako sarbidea indartzeko asmoa dauka. Nazio Batuen estatu kideek aho batez onetsi zuten ebazpen bat, eta, bertan, gaur egungo erronkarik handiena pobrezia deuseztatzea dela aitortu zuten. Era berean, erronka hori lortu ezean garapen jasangarririk ezin daitekeela egon baieztatu zuten. 2030eko Agendak 2000-2015 aldirako ezarrita dauden «milurteko xedeak» berrartu ditu, eta beste bultzada bat eman dio konpromiso horri. Bada, estrategia berriak gidatuko ditu mundu-mailako garapen-programak datozen 15 urteetan.

Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda erdiesteko orduan, hezkuntza erdigunean dago, 17 helburuetako bat izateraino. Zehazki, 4. helburua⁵⁴ da, eta **Kalitatezko hezkuntzan** zentratuta dago. Hala, «hezkuntza inklusibo, bidezko eta kalitatekoa bermatu nahi du, eta bizitza osoan zehar ikasteko aukerak sustatu, guztiontzat». Alabaina, hezkuntza ez zaio 4. GJHari mugatzen, beste xede askoren jomugetan berariaz aipatzen baita; hala nola, 3-Osasuna eta ongizatean, 5-Genero-berdintasunean, 8-Lan egokia eta ekonomiaren hazkundean eta 13-Klimaren aldeko ekintzan.

⁵³ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/>

⁵⁴ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/education/>

4. GJHa zazpi jomuga eta hiru ezarpen-bide hauen bidez garatzen da⁵⁵:

1.4.a) taula. GJHen 4. helburuaren jomugak eta adierazleak

EREMUA	JOMUGAK	ADIERAZLEAK
4.1 LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAREN KALITATEA	➤ Hemendik 2030era, neska-mutil guztiek Lehen eta Bigarren Hezkuntza amaitzen dutela ziurtatu behar da, eta hezkuntza horrek doakoa, bidezkoa eta kalitatekoa izan behar du. Bestalde, ikaskuntza-emaizta egoki eta eraginkorrak sortu behar ditu.	▪ 4.1.1 adierazlea Haur eta gazteen ehunekoa: a) 2/3 mailetan, b) Lehen Hezkuntzaren amaieran eta c) Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloaren amaieran i) irakurmenaren eta ii) matematikaren arloan gutxienezko konpetentzia-maila lortu dutenena, sexuaren arabera.
4.2 ESKOLAURREKO HEZKUNTZAREN KALITATEA	➤ Hemendik 2030era, neska-mutil guztiek lehen haurtzaroan eta eskolaurreko hezkuntzan arreta-zerbitzuak jasotzen dituztela eta horietan garatzeko aukera dutela ziurtatu behar da, Lehen Hezkuntzarako prest egon daitezen.	▪ 4.2.1 adierazlea Osasunari, ikaskuntzari eta ongizate psikosozialari dagokienez ondo bideratutako garapena duten 5 urtetik beherako haurren ehunekoa, sexuaren arabera. ▪ 4.2.2 adierazlea Ikaskuntza antolatuan dagoen parte-hartzearen tasa (Lehen Hezkuntzan eskolatzeak adin ofiziala baino urtebete lehenagokoa), sexuaren arabera.
4.3 GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZARAKO BERDINTASUNEN SARBIDEA	➤ Hemendik 2030era, pertsona guztiek goi-mailako prestakuntza tekniko, profesional eta kalitatekorako sarbidea baldintza beretan edukitzea ziurtatu behar da, unibertsitateko ikasketak barne hartuta.	▪ 4.3.1 adierazlea Gazteek eta helduek azkenengo 12 hilabeteetan hezkuntza eta prestakuntza formal nahiz ez-formalean duten parte-hartzearen tasa, sexuaren arabera.
4.4 ENPLEGURA SARTZEKO KONPETENTZIAK	➤ Hemendik 2030era, enplegura, lan duinera eta ekintzailtzara iristeko behar diren konpetentziak dauzkaten gazte eta helduen kopurua nabarmen handitu behar da; bereziki, gaitasun tekniko eta profesionalei dagokienez.	▪ 4.4.1 adierazlea Informazioaren eta komunikazioen teknologian (IKT) ezagutzak dauzkaten gazteen eta helduen ehunekoa, ezagutza teknikoaren arabera.
4.5. GENERO-BERDINTASUNA HEZKUNTZAN	➤ Hemendik 2030era, hezkuntza-arloko genero-desberdintasunak deuseztatu behar dira, eta pertsona zaurgarriak hezkuntzara baldintza beretan sartzen direla bermatu, desgaitasunen bat duten pertsonak, herri indigenetakoak eta zaurgarritasun-egoeran dauden haurrak barne hartuta, ikaskuntzaren eta Lanbide Heziketaren maila guztiei dagokienez.	▪ 4.5.1. adierazlea Zerrenda honetako hezkuntza-arloko adierazle guztietan dauden eta banakatu daitezkeen parekidetasun-indizeak (emakumeak/gizonak, landa-eremuak/hiri-eremuak, goragoko/beheragoko aberastasun-kintila eta beste batzuk; adibidez, desgaitasuna, herri indigenak eta gatazken ondorioak).
4.6 ALFABETATZEA ETA IRAKURMENAREN NAHIZ ARITMETIKAREN ARLOKO EZAGUTZAK	➤ Hemendik 2030era, gazte guztiak eta helduen ehuneko handi bat, gizonak zein emakumeak, alfabetizatuta egotea eta irakurmeneko, idazmeneko eta aritmetikako konpetentziak edukitzea ziurtatu behar da.	▪ 4.6.1 adierazlea a) Alfabetatzean eta b) aritmetikan gutxienez konpetentzia funtzionaleko maila finko bat duten adin-tarte jakin bateko biztanleen ehunekoa, sexuaren arabera.

⁵⁵ https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000246300_spa

4.7 GARAPEN JASANGARRIRAKO HEZKUNTZA OROKORRA	➤ Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko behar diren ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatu behar da; besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako heziketa, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bakearen aldeko eta indarkeriarik gabeko kultura, munduko herritartasunen eta aniztasun kulturalaren balorazioa eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena sustatuz.	▪ 4.7.1 adierazlea i) Munduko herritartasunen inguruko heziketaren eta ii) garapen jasangarrirako heziketaren txertatze-maila, genero-berdintasuna eta giza eskubideak aintzat hartuz, maila guztietan: a) hezkuntza-politika nazionaletan, b) ikasketa-plan eta -programetan, c) irakasleen prestakuntzan eta d) ikasleen ebaluazioan.
EZARPEN-BIDEAK		
4.A HEZKUNTZA-INSTALAZIO INKLUSIBO ETA SEGURUAK	➤ Haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen premiak eta genero-desberdinkeriak aintzat hartzen dituzten hezkuntza-instalazioak eraiki eta egokitu behar dira, ikaskuntza-inguruneak seguruak, ez-bortitzak, inklusiboak eta guztiontzat eraginkorrak izan daitezen.	▪ 4.a.1 adierazlea Honako hauetarako sarbidea duten eskolen ehunekoa: a) elektrizitatea; b) Internet, xede pedagogikoekin; c) ordenagailuak, xede pedagogikoekin; d) desgaitasuna duten ikasleei egokitutako azpiegitura eta materialak; e) oinarritzko edateko ura; f) saneamendu-instalazioak, gizonentzat eta emakumeentzat bereiziak; g) eskuak garbitzeko oinarritzko instalazioak (Guztiontzako Ur, Saneamendu eta Higienearen (WASH) definizioen arabera).
4.B GOI-MAILAKO IKASKETAK EGITEKO BEKAK	➤ Hemendik 2030era, mundu-mailan nabarmen areagotu behar da garapen-bidean diren herrialdeetarako beken kopurua (bereziki, aurrerapen-maila txikiena duten herrialdeetarako, garapen-bidean diren estatu irlatar txikietarako eta Afrikako herrialdeetarako), bertako ikasleak herrialde garatuetako eta garapen-bidean diren beste herrialde batzuetako goi-mailako ikasketa-programetan matrikulatu ahal izan daitezen, Lanbide Heziketako programak eta programa teknikoak, zientifikoak, ingeniarietakoak eta informazioaren eta komunikazioen teknologiararen arlokoak barne hartuta.	▪ 4.b.1 adierazlea Beketara bideratutako laguntza ofizialaren bolumena, sektorearen eta ikasketa motaren arabera.
4.C IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA	➤ Hemendik 2030era, nabarmen handitu behar da irakasle gaituen eskaintza, baita garapen-bidean diren herrialdeetan irakasleak prestatzeko nazioarteko lankidetzaren bidez ere; batez ere, aurrerapen-maila txikiena duten herrialdeetan eta garapen-bidean diren estatu irlatar txikietan.	▪ 4.c.1 adierazlea a) Eskolaurreko irakaskuntzan, b) Lehen Hezkuntzan, c) Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloan eta d) Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan dauden eta herrialde jakin batean eskolak emateko behar den gutxienezko irakaskuntza-prestakuntza antolatua (adibidez, prestakuntza pedago-gikoa) jaso duten irakasleen ehunekoa, prestakuntza hori hasieran edo lan egin bitartean jaso gorabehera.

ET 2020 estrategiaren erreferentziazko puntuak xede nagusi batzuetan bat egiten dute UNESCOren 2030eko Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) 4. helburuaren jomugekin, taula honetan jasotzen den moduan.

1.4.b) taula. GJHen 4. helburuaren jomugen eta adierazleen eta EBren 2020 ET strategiaren erreferentziazko puntuen arteko erlazioa.

4. GJHaren JOMUGAK	GJH ADIERAZLEAK	2020 ET ERREFERENTZIAZKO PUNTUAK ⁵⁶
4.1. Hemendik 2030era, neska-mutil guztiek Lehen eta Bigarren Hezkuntza amaitzen dutela ziurtatu behar da, eta hezkuntza horrek doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du. Bestalde, ikaskuntza-emaizta egoki eta eraginkorrak sortu behar ditu.	4.1.1. adierazlea Haur eta gazteen ehunekoa: a) 2/3 mailetan, b) Lehen Hezkuntzaren amaieran eta c) Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloaren amaieran i) irakurmenean eta ii) matematikan gutxieneko kompetentzia-maila lortu dutenena, sexuaren arabera.	- Errendimendu baxuko 15 urteko ikasleen ehunekoa: - Irakurmena. - Kompetentzia matematikoa. - Kompetentzia zientifikoa.
4.2. Hemendik 2030era, neska-mutil guztiek lehen haurtzaroan eta eskolaurreko hezkuntzan arretaz-erbitzuak jasotzen dituztela eta horietan garatzeko aukera dutela ziurtatu behar da, Lehen Hezkuntzarako prest egon daitezen.	4.2.1. adierazlea Osasunari, ikaskuntzari eta ongizate psikosoziolari dagokienez ondo bideratutako garapena duten 5 urtetik beherako haurren ehunekoa, sexuaren arabera. 4.2.2. adierazlea Ikaskuntza antolatuan dagoen parte-hartzearen tasa (Lehen Hezkuntzan eskolatzeko adin ofiziala baino urtebete lehenagokoa), sexuaren arabera.	Haur Hezkuntza eta haurrentzako arreta (4 urteetatik derrigorrez eskolatu arteko adinera bitartean).
4.3. Hemendik 2030era, pertsona guztiek goi-mailako prestakuntza tekniko, profesional eta kalitatekorako sarbidea baldintza beretan edukitzea ziurtatu behar da, unibertsitateko ikasketak barne hartuta.	4.3.1. adierazlea Gazteek eta helduek azkenengo 12 hilabeteetan hezkuntza eta prestakuntza formal nahiz ez-formalean duten parte-hartzearen tasa, sexuaren arabera.	Hezkuntza eta prestakuntza goiz uzten duten pertsonak (18 eta 24 urte artean).
4.4. Hemendik 2030era, enplegura, lan duinera eta ekintzailatzara iristeko behar diren kompetentziak dauzkaten gazte eta helduen kopurua nabarmen handitu behar da; bereziki, gaitasun tekniko eta profesionalei dagokienez.	4.4.1 adierazlea Informazioaren eta komunikazioen teknologian (IKT) ezagutzak dauzkaten gazteen eta helduen ehunekoa, ezagutza teknikoaren arabera.	Hezkuntza tertziarioan titulua dutenak (30 eta 34 urte artean).
4.5. Hemendik 2030era, hezkuntza-arloko genero-desberdintasunak deuseztatu behar dira, eta pertsona zaurgarriak hezkuntzara baldintza beretan sartzen direla bermatu, desgaitasunen bat duten pertsonak, herri indigenetakoak eta zaurgarritasun-egoeran	4.5.1. Adierazlea Zerrenda honetako hezkuntza-arloko adierazle guztietan dauden eta banakatu daitezkeen parekidetasun-indizeak (emakumeak/gizonak, landa-eremuak/hiri-eremuak, goragoko/beheragoko	

⁵⁶ INEK GJHei buruz egindako proposamenean jasotzen dira 4. GJHaren jomugak betetzen ote diren egiaztatzeko beste adierazle posible batzuk <https://www.ine.es/dynt3/ODS/es/index.htm>

dauden haurrak barne hartuta, ikaskuntzaren eta Lanbide Heziketaren maila guztiei dagokienez.	aberastasun-kintila eta beste batzuk; adibidez, desgaitasuna, herri indigenak eta gatazken ondorioak).	
4.6. Hemendik 2030era, gazte guztiak eta helduen ehuneko handi bat, gizonak zein emakumeak, alfabetizatuta egotea eta irakurmeneko, idazmeneko eta aritmetikako konpetentziak edukitzea ziurtatu behar da.	▪ 4.6.1 adierazlea a) Alfabetatzean eta b) aritmetikan gutxienez konpetentzia funtzionaleko maila finko bat duten adin-tarte jakin bateko biztanleen ehuneko, sexuaren arabera.	▪ Errendimendu baxuko 15 urteko ikasleen ehunekoak: – Irakurmena. – Konpetentzia matematikoa. – Konpetentzia zientifikoa.
4.7. Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko behar diren ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatu behar da; besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako heziketa, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bakearen aldeko eta indarkeriarik gabeko kultura, munduko herritartasunen eta aniztasun kulturalaren balorazioa eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena sustatuz.	▪ 4.7.1 adierazlea i) Munduko herritartasunen inguruko heziketaren eta ii) garapen jasangarrirako heziketaren txertatze-maila, genero-berdintasuna eta giza eskubideak kontuan hartuta, maila guztietan: a) hezkuntza-politika nazionaletan, b) ikasketa-plan eta -programetan, c) irakasleen prestakuntzan eta d) ikasleen ebaluazioan.	

Eusko Jaurlaritzak **Euskadi Basque Country 2030 Agendaren**⁵⁷ bidez egin zuen bat konpromiso horrekin; beraz, gobernu-programak jasotzen dituen politika sektorial guztiak lerrokatu behar dira Nazio Batuen Agendaren 17 helburuekin, eta horiek garatzen lagundu behar dute.

Hezkuntzari buruzko 4. helburua garatzeko, Eusko Jaurlaritzak zazpi jomuga garatuko ditu, zortzi plangintza-tresnaren eta lege-arloko bi ekimenen bidez. Halaber, GJHei eta Europar Batasunaren 2020ko Estrategiari loturiko hiru adierazledun aginte-mahaia dauka:

57

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/agenda2030/eu_def/adjuntos/Agenda_Euskadi_Basque_Country_2030_garapen_jasangarria.pdf Dokumentuan ikus daitekeenez, 2016-2020ko legegintzaldiko gobernu-programak, besteak beste, herrialderako 15 xede, 15 plan estrategiko, 54 plan sektorial, lege-arloko 28 ekimen, 100 jomuga, 650 ekimen eta 50 adierazle proposatzen ditu, eta, horien artean, giza garapenaren adierazlea dago, nazioarteko mailako erreferentziazko adierazle sintetiko gisa.


1.4.c) taula. Eusko Jaurlaritzaren aginte-mahaia: GJHen, ET 2020ren eta Eusko Jaurlaritzaren adierazleen arteko lotura.

4. helburua		
Kalitateko hezkuntza inklusibo eta parekidea bermatzea eta pertsona guztiak ikaskuntza etengabea aritzeko aukerak sustatzea.		
NBE-GJH adierazleak	EB-ET 2020 adierazleak	Eusko Jaurlaritza
4.1.1. Irakurmenean eta matematikan gutxieneko konpetentzia-maila lortu duten haurren eta nerabeen ehunekoa.	4.20. Hezkuntza- eta prestakuntza-uzte goiztiarrak.	Eskola-uztearen tasa % 8tik behera.
	4.30. Goi-mailako ikasketen inguruko ondorioak	Ikasketa tertziarioak amaitu dituzten 30 eta 34 urte arteko herritarren ehunekoa
4.3.1. Gazteek eta helduek azken 12 hilabeteetan irakaskuntza eta prestakuntza akademikoan nahiz ez-akademikoan izan duten parte-hartzearen tasa.	4.40. Helduek irakaskuntza akademikoan izandako parte-hartzea.	Bizitzan zehar ikasketetan parte hartzen duten helduen ehunekoa

1.5. ONDORIO OROKORRAK ETA PROPOSAMENAK.

Euskal hezkuntza-sistemaren egoera ona da nazioarteko testuinguruan, Europaren 2020rako Estrategiaren adierazleei dagokienez. Europako hiru adierazletan (Haur Hezkuntza, eskola-uztea eta hezkuntza tertziarioa), Euskadik datu bikainak dauzka; hala ere, Europako herrialde gehienekin bat eginez, bi adierazletan (konpetentzien errendimendu-maila baxuan eta helduentzako hezkuntza etengabea) ez da iristen Europako Batzordearen estrategiak finkatutako mailara.

1.5.a. ET 2020.erreferentziazko puntuak. Euskadik duen posizioa EB-28rekiko Espainiaren eta 2020rako erreferentziazko puntuekiko..



- Haur Hezkuntzarekin eta haurrentzako arretarekin zerikusia daukan adierazlea:** Euskadik estrategia 2009an hasi zenetik zuen gaitasuna erreferentziazko puntua (4-6 urte), eta, hortaz, ezin zezakeen hobera egin, gehieneko puntuazio lortu baitzuen. 0-2 aldiko eskolatze-tasak kuantitatiboki hobetzeko tarte txikia dauka (% 18,9koa da urtebetetik beherakoen artean, eta % 45,9koa urtebetekoen artean), eta, adierazle honen analisi espezifikoan erakutsi denez, behar gehien dauzkaten edo bazterketarako arriskuan dauden inguruneetatik datozen haurren premiei egokitutako eskaintza baloratu behar da.

Euskadik dauka pobreziarako eta gizarte-bazterketarako arriskuaren tasarik txikiena hala Europa mailan, nola gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Premiei buruzko Inkestaren datuen arabera, 0 eta 5 urte arteko haurren laurdena baino gehiago ez da haur-eskolara edo eskolara joaten, eta jatorri atzerritarra duten haurrak estatuan jaiotako haurrak baino gutxiago eskolatzen dituzte (13 portzentaje-puntu

gutxiago). Alabaina, honako hau da datu giltzarria: seme-alabak adin horietan eskolatzen ez dituzten familien herena baino gehiago oinarritzko gabezia-egoeran daude, eta lan-arloko zailtasunak dauzkate. Dirudienez, behar gehiago dauzkaten familia horiek seme-alabak ez eskolatzeko arrazoiak ez da izaten toki nahikorik ez egotea, eta, beraz, ez da hautu neutroa edo ausazkoa: asko-askotan, beste kontu batzuk dauden atzean.

Ez daukagu Haur Hezkuntzari buruzko informazio gehiegirik, eskolatzearekin eta hezkuntza mota horretarako sarbidearekin zerikusia daukaten datuetatik edo lehen adinetan dauden ikasleak artatzen dituzten langileei buruzko informaziotik harago.

Aurrekoa kontuan hartuta, Kontseiluak honako hau proposatzen du:

- Batetik, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloaren egoerari buruzko txostena egin dezala agintzea ISEI-IVEIri, eta, besteak beste, Europaren egiturazko adierazleetan oinarritu dadila lana egitean. Bestetik, 2016ra arte egindako ikerketekin jarrai dezala proposatzea (ikerketa horietan, familiak *Haurreskolak* Partzuergoak ematen duen zerbitzuari buruz duten iritzia jasotzen da).
 - Familia askok seme-alabak ez eskolatzeko arrazoiak argituko dituen ikerketa sakona egitea, jarduteko ildoak topatze aldera.
 - Hezkuntza Sailaren eta udalen, foru-aldundien eta abarren gizarte-zerbitzuen artean lankidetzaz-egiturak ezartzea, behar gehien daukaten familia mota horiek seme-alabak goiz eskolatzera animatzeko jarduketak sustatu eta garatzeko xedez.
 - Haur eskolak doakoak izan daitezen urratz eraginkorrak lehenbailehen ematea.
2. **Hiru konpetentzietan errendimendu baxua duten ikasleei buruzko adierazlea:** euskal hezkuntza-sistemaren datuak 2020rako xedetik 3 portzentaje-puntura daude. 2012tik, prozesuak gorabehera handiak izan ditu: Europako xedera hurbildu eta, are, 2012an xedearen azpitik egon ondoren, errendimenduaren jaitiera egon zen 2015ean. 2018an, berriz, gorakada egon da, baina ez da Europaren 2020ko xedea lortzeko nahikoa izan.

Eurydicek emandako adierazleetatik abiatuta egindako analisisien arabera (oinarritzko konpetentzien lorpena hobetzeari buruzko adierazleak dira), indartzen jarraitu behar diren alderdi onak dauzka Euskadik: nazioarteko proba estandarizatueta parte hartzen du, diagnostikoa ebaluatzeko sistema dauka, oinarritzko konpetentzien inguruko errendimenduari buruzko txosten zabalak daude (informazioan aberatsak direnak), zentroak ebaluatzeko eta hobetzeko ebaluazioen emaitzak erabiltzen dira, eta desabantailan dauden ikasleak dauzkaten zentroei laguntza gehigarria emateko programak eta ekintzak daude.

Alabaina, konpondu beharreko zenbait hutsune hauteman dira: ebaluazio estandarizatuak ugariak dira, emaitzei buruzko informazio horiek ez dira zentroko proiektuetan asko erabiltzen, eta ez dago eskolako errendimendu baxuari buruzko prestakuntzarekin lotutako jarraibiderik.

Hori dela-eta, Kontseiluak honako hau proposatzen du:

- Errendimenduari buruzko kanpo-proben (propioen nahiz nazioartekoen) zentzuari, xedeari eta egokitasunari buruzko hausnarketa sakona eta ebaluazioa egitea, zentroak

neka ez daitezen, informazioak koherenteak izan daitezen eta ebaluazio-sistema jasangarria izan dadin.

- Sistemaren egoera zein den jakiteko diagnostikoaren analisi sakon eta osoa egitea, berariaz errendimenduari buruzko datuetan eta kanpo-ebaluazio estandarizatuak emandako informazioetan zentratua, eskuragarri dauden datu guztiak kontrastatu eta erabiltzeko.
- ISEI-IVEIk ikastetxeetan inkesta zabal bat egitea, zentroen txostenetan kanpo-ebaluazioen ondorioz ematen diren datuak egokiak eta baliagarriak ote diren baloratze aldera, hezkuntza-komunitateei ematen zaizkien informazioak aberatsagoak eta baliagarriagoak izan daitezen.
- Ikastetxeen artean ikerketa bat egitea, haien egoera kualitatiboa eta eskola-porroterako arriskuan dauden ikasleen tratamenduan dauzkaten premia garrantzitsuenak zein diren jakiteko xedez. Horrez gain, haien proposamenak eta esperientziak ezagutzea komeniko litzateke, kontu honetan hartuko diren erabakiak aberatsagoak eta probetxugarriagoak izan daitezen.
- Ikastetxeak haien datu akademikoak nahiz kanpo-ebaluazioen emaitzak hobekuntza-proposamenekin lotzeko gai izateko neurriak eta prozedurak bultzatzea, zerbitzu lagungarrien eta hezkuntza-ikuskaritzaren laguntzarekin.
- Gizonezkoen eskola-uztean eta eskola-porrotean eragiten duten faktore espezifikoak aztertzea, jorratu ahal izan daitezen. Lehenasunez aztertu beharko litzateke arazo hori, gaia hobetzeko eta hartuko diren erabakiak aztertzeko.

3. **Eskola-uzte goiztiarrari buruzko adierazlea:** Euskadik, 2018an, inoizko ehunekorik txikiena lortu zuen (% 6,9koa), eta, beraz, Europako erreferentziazko jomuga baino 3 portzentaje-puntu beherago dago. Horrenbestez, eskola-uztearen tasa txikiena duten lurraldeen (herrialdeen, eskualdeen eta komunitateen) artean dago European.

Adierazle honetan dugun egoera bikaina oraindik ere hobetu daiteke, Euskadikoa baino ehuneko are txikiagoa duten herrialdeak eta eskualdeak baitaude. Hortaz, toki horietako hezkuntza-sistemek eskola goiz uzteko arriskua murrizten duten ezaugarriak daukate, edo eskola-uztearen inpaktua arintzeko neurriak abiatzen dituzte. Badakigu eskola-uzte goiztiarraren zati handi batek eskola-porrot errepikatuarekin, espektatiba eta interes pertsonalen eta hezkuntzaren errealitatearen arteko kontziliazio-faltarekin eta hezkuntza-sistemaren barruan jarraitzeko prestakuntza-bide alternatibo eta malguagorik ez egotearekin daukala zerikusia.

Horrenbestez, adierazle hau hobetzeko, lehenik eta behin, datuak eduki behar ditugu, eta dauzkagunak erabili. Bigarrenik, gure hezkuntza-sisteman ikasleen askotariko zailtasunei erantzuteko garatzen diren neurri giltzarri batzuen eraginkortasuna egiaztatu beharko genuke.

Aurrekoa kontuan hartuta, Kontseiluak honako hau proposatzen du:

- Euskadiko eskola-uzteari buruzko azterlan sakona egitea, eta ez genero-arrakalari dagokionez bakarrik (oinarrizko datuak baino ez dauzkagu), baita eskola uzten dutenen jatorriari, lorturiko gehieneko prestakuntza-mailari, lan- eta enplegarritasun-egoerari, ezaugarri sozial eta familiarrei, jarraitutako ibilbide akademikoei edo, beste aldagai batzuen artean, intzidentzia handiagoa duten lurralde-nukleoei eta eremuei dagokienez ere.
 - Eskoletako erregistroen datuak erabili ahal izateko neurriak sustatzea, ikasle mota horiei buruzko luzetarako ikerketak egiteko.
 - Aniztasunari eta zailtasunak dauzkaten ikasleei arreta emateko programa eta neurri batzuk (adibidez, eskolatze-programa osagarria eta hezkuntza indartzeko baliabideak) ebaluatu eta aztertze prozesuak sustatzea.
4. **Goi-mailako hezkuntza edo hezkuntza tertziarioa amaitu dutenen tasa:** urtero-urtero, Europaren 2020rako erreferentzia baino handiagoa izan da, argi eta garbi. Euskadin, 30 eta 34 urte artekoen % 57,1ek titulazio tertziarioa daukate, eta, beraz, 17 puntutan gainditzen dira 2020rako erreferentziazko puntua eta EBko herrialdeen batezbestekoa. Beraz, goi-mailako ikasketen tasa handiena duten herrialdeen eta eskualdeen/autonomia-erkidegoen artean dago. 2018an, 10,4 puntuko aldea zegoen bi sexuen artean, baina 2016tik alde hori pixkanaka murrizten ari da, Europa mailan bezala.

Adierazle honetan ez da proposamenik egin, ezarpen- eta garapen-eremua (goi-mailako ikasketak) Euskadiko Eskola Kontseiluaren eskumenetatik kanpo dagoelako.

5. **Helduen etengabeko ikaskuntza:** Euskadik adierazle honetan % 12,7ko tasa daukanez, ez da iristen 2020rako finkatu den % 15 horretara, 2018an Europar Batasuneko batezbestekoa baino handiagoa izan arren. Are, EBko oso herrialde gutxik lortu dute helduen % 15ek prestakuntza-jardueretan parte hartzea. Europako Batzordeak badaki balitekeela adierazle honen 2020rako kotak asmo handiegia edukitzea eta nekez lortu ahal izatea.

Bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzaren liburu zuria. Euskadi, ikaskuntza herria izeneko dokumentuaren ondoren, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legea argitaratu zen (2013ko urriaren 17ko EHAA), bai bide malguagoak dituen ikaskuntza-sistema bultzatzeko xedez, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta lanaren arteko trantsizioak hobetuz, bai ikaskuntza testuinguru formal arautuetara mugatzen delako ideia gainditzeko helburuz, testuinguru ez-formaletan eta, are, informaletan eskuratutako ikaskuntzak baloratuz eta aitortuz.

Lege horretan, euskal herritarren eskubidetzat hartzen da bizitzan zeharreko ikaskuntza, eta, horren arabera, ahalbidetu egin behar da, euskarazko nahiz gaztelaniazko prestakuntza-eskaintza zabala emanez, urrutiko irakaskuntza sustatuz eta ikaskuntzak aitortzeko mekanismoak ezarritik. Halaber, Euskadiko Lanbide Heziketan 90eko hamarkadatik egin diren aldaketak sustatu nahi ditu, ekoizpen-ingurunearekin lankidetzan aritzeko eredu berri bat sortuz eta eginkizun berrien zerbitzura egongo diren organismoak sortuz (Lanbide Heziketaren Euskal Kontseilua, Hobetuz, Lanbide Heziketaren Behatokia, Prestakuntzen

Erakundea, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia...), Azkenik, Legean oso garrantzitsuak dira bai ikaskuntzan ematen den orientazioa, bai arlo honetan eskumenak dauzkaten erakundeen arteko lankidetzak.

Beraz, Euskadik herritarren bizitzan zeharreko ikaskuntza sustatzeko lege- eta antolaketa-tresnak dauzkala esan dezakegu. Dena dela, azken urteetan, Lanbide Heziketa arautua hobetzeko eta eguneratzeko egin den ahalegin izugarri eta etengabea kenduta, Legeak helduen ikaskuntza etengabearen eremuan sustatu nahi dituen gainerako eremuek indarra, presentzia eta garrantzi administratiboa galdu dituztelako sentsazioa dago.

Hezkuntza Sailaren web-orrialdean, ikaskuntza etengabeari buruzko atalean, honako hauek bakarrik topa daitezke: www.Hiru.eus ikaskuntza etengabearen ataria (nork bere kabuz ikasteko baliabidea da, doakoa, lineakoa nahiz aurrez aurrekoa) eta prestakuntza- edo esperimentazio-jarduerak garatzeko proiektuen eta ikaskuntzan laguntzeko zerbitzuen urteko deialdiak. 2019ko uztailaren 30eko Aginduak bizitzan zeharreko ikaskuntza-jardueretarako laguntzak erregulatzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretua betetzen du, 930.000 euroko guztizko zenbatekoarekin, baina ez dago Euskadiko prestakuntza-eskaintzei buruzko informazio guztia biltzen duen dokumenturik edo organismoik. Gainera, Hezkuntza Sailak bere webean ikaskuntza etengabeari eskaintzen dion tokian, ez dago Helduen Hezkuntzarako zentroei eta Hezkuntza Sailak eremu horrekin duen ustezko loturari buruzko informaziorik.

Legean bertan, lurralde-, eskualde- edo toki-eremuan sor daitezkeenez gain, Bizitzan Zeharreko Ikaskuntzarako Euskal Kontseilua sor daitekeela adierazten da, ikasketa-planak eta -programak koordinatzeko, ebaluatzeko eta horietan parte hartzeko organo gorena izan dadin. Eginkizun garrantzitsuak esleitzen zaizkion arren, oraindik ez da sortu.

Hortaz, euskal herritarrentzat giltzarria den eremu honetan, ez dago premien eta eskarien diagnostikorik, ez eta askotariko ekimenak koordinatzen dituen urte anitzeko planik ere, edota eskaintzen kalitateari buruzko ebaluaziorik eta hobera egiteko nahiz bikoiztasunak deuseztatzeko proposamenik.

Hori dela-eta, Kontseiluak honako hau proposatzen du:

- 1/2013 Legeak finkatu dituen eta ikaskuntza etengabearen eremuarekin zerikusia daukaten baliabide, programa eta proposamen guztiak modu koherente eta osoan hedatzeko xedez oinarritzat jotzen diren eta oraindik garatu ez diren oinarritzko alderdiak abiatzen laguntzea; zehazki, Bizitzan Zeharreko Ikaskuntzarako Euskal Kontseilua sortzea (hainbat urteko planak koordinatzeko eta sustatzeko erakundea izan dadin), Euskadiko ikaskuntza etengabearen egoerari buruzko diagnostiko orokorra egitea eta Europaren adierazle hau hobetzen eta betetzen lagunduko duten xedeak eta programak finkatzea, Euskadi oraindik ez baita adierazlea betetzera iritsi.

2. ESTRATUAK⁵⁸ EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAN: NOLA ALDATU DA EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMA ETA NORANTZ DOA?

Hezkuntzaren alorreko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitu ondoren, 1982ko azaroaren 24an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea argitaratu zen. Lege horren hitzaurrean honako hau ezartzen da: *“Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea eta aukeratu ez duen hizkuntza ofizialaren derrigortasuna arautzen da. Irakatsi beharreko hizkuntza-ereduak finkatzeko ardura Jaurlaritzari ematen zaio, eta baita ikasleek bi hizkuntza ofizialak benetan menperatzera bideratutako neurriak hartzea ere eta ikasketa-planen egokitzapena”*.

Agindu horren ondorioz, 1983ko uztailaren 19an, EHAAn agertu zen 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, Hezkuntza eta Kultura Sailarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen zuena. Hirugarren artikuluan honako hau ezartzen zen: *“Hizkuntza ofizialek irakaskuntza ez unibertsitariar izango duten erabilera Dekretu honen I eta II Eraskinetan deskribatzen diren irakaskuntza elebiduneko A, B eta D ereduaren arabera izango dira”*.

Eranskin horietan, Lehen Hezkuntzako (I. eranskina) eta Bigarren Hezkuntzako (II. eranskina) maila guztietan euskara eta gaztelania derrigorrezko irakasgaiak izateko jarraibideak eta irizpideak ezartzen dira. Hona hemen eredu bakoitzerako zehaztu ziren ezaugarriak:

- **A eredu:** Irakaskuntza osorik gaztelaniaz egiten da. Euskara beste irakasgai bat da.
- **B eredu:** Bi hizkuntzak ikasteko bitartekotzat erabiltzen dira, % 50ean gutxi gorabehera.
- **D eredu:** Irakaskuntza osorik euskaraz egiten da. Gaztelania beste irakasgai bat da.

Adituen iritzia eta beste herrialde batzuetan hizkuntza gutxituak berreskuratzeko irakaskuntza elebiduneko esperientziak kontuan hartuta, une hartan zegoen egoeratik abiatuta, A, B eta D ereduak ezartzearen aldeko apustu garbia egiten zen. Hala, irakasleak euskaldundu ziren, eskola-populazioaren hainbat sektoretara zuzenduta beren hizkuntza-ezaugarrien arabera eta, zehazkiago, ikasle bakoitzak euskararekin zuen harremanaren arabera⁵⁹: A eredu, familia- eta gizarte-ingurunean euskararen presentzia egiaztatuta ez duten ikasleentzat; B eredu, euskararen presentziaren bat baieztatzen denean; eta D eredu, familia- eta gizarte-ingurunean euskararen presentzia indartsua edo esanguratsua duten ikasleentzat.

Hala ere, familien lehentasunen bilakaerak, familia-hizkuntza edozein dela ere, D ereduaren alde egin du gehienbat, eta gaur egun gaztelaniaz hitz egiten duten familia gehienak eskolatzen ditu.

⁵⁸ Estratutzat ulertzen da gure hezkuntza-sistema eta bi hezkuntza-sareak konfiguratzen dituzten hiru hizkuntza-ereduen konbinazioa. Konbinazio horretatik sortzen dira euskal hezkuntza-sistema antolatuta dagoen sei estratuak: A eredu publikoa, B eredu publikoa, D eredu publikoa, itunpeko A eredu, itunpeko B eredu eta itunpeko D eredu.

⁵⁹ Ikus erreferentzia hauek: Zalbide, M. et al (1990): *10 años de enseñanza bilingüe*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Sierra, J (1991): “La inmersión y la enseñanza bilingüe en el País Vasco”, *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 9, 47.-55. or. Sierra, J (1993) Revisando algunos aspectos de la educación bilingüe, *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 17, 29-40. ISEI-IVEI (2004): *Las lenguas y su aprendizaje en el sistema educativo vasco. E. Primaria* (<http://www.isei-ivei.net/eusk/sakon/indexsak4.htm>). Fernández-Ulloa, T: *La Educación bilingüe en el País Vasco: Problemas y retos* (http://www.csub.edu/%7Etfernandez_ulloa/EDUCACION/educacion%20bil.pdf).

Bestalde, jatorri euskalduneko ikasleen ehunekoa, aldaketa txikiak salbuetsita, egonkor mantentzen da eta seme-alabak D ereduari matrikulatzen jarraitzen du. Era berean, itunpeko sarearen aldeko hautua egiten jarraitzen du, ziur asko ikastolek arlo horretan egindako ibilbide historikoaren eraginez.

Hizkuntza-ereduak aldatzeko eta hezkuntzaren errealitate eta premia berrietara egokitzeko balizko beharraren inguruan hezkuntzaren, gizartearen eta politikaren arloan dagoen eztabaidak iraun du denboran zehar. Prozesu horretan, intentsitate txikiagoko edo handiagoko aldiak izan dira. Izan ere, Hezkuntza Sailak berak, Eusko Legebiltzarrak 2005eko abenduaren 2an egindako bilkuran hala eskatuta, lan-taldeak eratu zituen 2006an, eredu bakoitzaren egoera analizatzeko eta eredu horiek aldatzeko aukera aztertzeko. Hori islatu egin zen, hain zuzen ere, *EAEko hizkuntzak ikasteko eta irakasteko esparru berri baterako proposamena* izenekoan. 2008-09 ikasturtean hasi zen proposamen hori aplikatzen, baina ez zen gauzatu, arazo politiko-instituzionalak zirela medio.

Euskadiko Eskola Kontseilua eztabaida horretan egon da denboran zehar. Hala, EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko haren txostenean (2002-2004), honako hau adierazten zuen: *“Hiru hizkuntza-eredu bereizitan eskolatzeak aukera eman du irakaskuntza euskalduntzeko prozesuan aurrera egiteko, gizartearen eskariak galdatzen zuen eta beharrezko giza baliabideak eskuratzen ziren heinean. Garapen horri esker, familiek nahiago duten ereduaren alde egin dute, erabakiak hartzean erritmo desberdinei jarraituz”*.

Illo beretik, 2007ko otsailaren 1ean, hizkuntza-ereduei buruzko akordio bat lortu zen, hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko aldizkako txostenetan jasotako beste akordio eta proposamen batzuetan berretsia. Akordio horretan, eskuratutako lorpenak positiboki baloratu ziren, eta honako hau adierazi zen: *“garapenean eta aplikazioan tirabirak egon arren, egungo sistemaren oinarri izan zen adostasun sozial eta politiko zabalak zerikusia izan du euskal gizartearen euskalduntzean izandako aurrerapenekin. Gure biztanle elebidunak % 10 hazi dira azken 20 urteetan, eta, gaur egun, 16-24 urte bitarteko bi gaztetik bat elebiduna da, eta hezkuntza-sistema da aurrerapen horren eragile nagusia”*.

Dokumentu berean, honako hau adierazten zen: *“Ereduen egungo sistemak, familien aukeraketan oinarritua, ikasleak hizkuntza bati edo besteari lotutako faktore identitario edo ideologikoen arabera multzokatzeko joera du, mugape geografiko bereko ikastetxeen eta ikastetxe bereko ereduaren artean bereizita. Azken batean, ikasleak ereduaren arabera banatzeak sailkapen sozioekonomiko eta kultural bat eragiten du, ekitate-politikek saihestu nahi dutena. Euskal ikasle guztientzat aukera berdintasuna bermatzea da kontua”*. Ondorio gisa, Kontseiluak, gero eta handiagoa den eskaeraren berri emanda, *“egungo hizkuntza-ereduen esparrua gaitzetzeko”* beharra bere egin zuen.

Hizkuntza-ereduen sistema 35 urtez garatu ondoren, une honetan beste egoera batean gaude. Egoera hori, berria ez izan arren, eta sakon aztertu behar da. Hizkuntza-ereduen bilakaera, eta, zehazki, euskal hezkuntza-sistemak antolatzen dituen sei estratuen (hezkuntza-sarea + hizkuntza-eredua), hasieran aurreikusitakoez bestelako ibilbideetatik igaro da.

Nolabait, euskal hezkuntzaren egungo errealitateak, estratuen egoera aztertuta ikusiko dugunak, behartu egiten gaitu eztabaida bideratzera ez hainbeste hizkuntza-ereduak gaitzetzera —izan ere, ikusi ahal izango denez, gizartearen eta hezkuntzaren joeraren beraren ondorioz, ia

errealitate osoa izango da hori, epe ertainean baino gehiago epe laburrean—, baizik eta hizkuntzen ikaskuntzan didaktika hobetzearekin lotutako arazoetara, zehazki euskarari dagokionez. Horiek ikaskuntza ia bere osotasunean sistema elebidun batera bideratzen dute.

2.1. Estratuak hezkuntza-sistemaren antolamenduan

Euskal hezkuntza-sistema egituratzen duten sei geruzetako bakoitza aztertzean, iturri hauetatik hartutako informazioa erabiltzen da:

- *a) atala. Eskolatutako ikasleen, eskola-taldeen eta ordezkartzearen bilakaera: estratu bakoitzaren lehen ataleko datu ebolutibo guztiak Eustatetik datoz*⁶⁰. 1983-84 ikasturtetik (une horretan dute legezko abiapuntua hizkuntza-ereduek) 2017-18 ikasturtera arte (behin betiko datuak dauden azken ikasturtea). Azken bi ikasturteetako datuak (2018-19⁶¹ eta 2019-20⁶²) Hezkuntza Sailetik datoz (ikuskapenen bidez) eta behin-behinekoak dira oraindik. Beraz, ez dira grafikoetan sartzen. Lehen atal honetako grafikoen irakurketa egokia egiteko, zenbait alderdi hartu behar dira kontuan:
 - 1992-93 ikasturtean, gutxi gorabehera ikastolen erdiak publiko egiteko prozesua amaitu zen, eta horrek ikasle horien herenak inguru ekarri zituen sare publikora. Gainerako bi herenak itunpeko sare pribatuan geratu ziren.
 - Oinarritzko Hezkuntza Orokorra (OHO) 1997-98 ikasturtean utzi zitzaion erabat emateari, eta LOGSEren Lehen Hezkuntzako etapa 1995-96 ikasturtean amaitu zen erabat ezartzen. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) 1999-00 ikasturtean bukatu zen garatzen. 2001-02 ikasturtean erregimen orokorreko irakaskuntzen etapa guztien ezarpen osoa amaitu zen, LOGSEren garapenaren ondorioz.
- *b) atala. Gizarte-, ekonomia- eta hizkuntza-ezaugarriak.* Datu guztiak ISEI-IVEIk garatutako Ebaluazio Diagnostikoaren edizioetan jasotako informaziotik lortu dira. Erabaki hori bi arrazoiengatik hartu da: batetik, nahitaezko bi etapetako bakoitzean errolda-ebaluazio bat delako, eta, bestetik, eskuragarri dagoen azterlan bakarra delako, ISEK mailei buruzko informazio fidagarria eta alderagarria duena, baita ikasle etorkinen eta ikasle familiak euskaldunen ehunekoari buruzkoa ere, estratuka.
 - ISEKen batez besteko balioari, ISEKen batez besteko mailari eta ISEKen maila baxua duten ikasleen ehunekoari buruzko datuak erlatiboak dira beti, Ebaluazio Diagnostikoaren edizio bakoitzean indize horrekin lotutako datu guztiak berriro kalkulatzeko baitira.
 - ISEI-IVEIk ikasle euskalduntzat hartzen du aita/edo ama euskaraz hitz egiten duena eta etxean beti edo ia beti euskaraz hitz egiten dutena. Definizio hori irizpide laxoari dagokio.
 - Ikasle etorkintzat jotzen da bai aita, bai ama, bai ikaslea bera atzerrian jaioak direnean. Baina hemen jaioa bada baina aita eta ama atzeritarrek badira, bigarren belaunaldiko etorkintzat hartzen da.

⁶⁰ https://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish/-/PX_2320_mun01.px/?rxid=099b17a0-d466-41e4-b2e5-56cf8c82d0b8

⁶¹ <http://www.euskadi.eus/2018-2019-matrikula-taulak/web01-a2hestat/eu/>

⁶² <http://www.euskadi.eus/matrikula-2019-2020/web01-a2hestat/eu/>

- C) *atala. Emaidza akademikoak eta kanpo-ebaluazioak.* Atal hau lantzeko, alde batetik, Hezkuntza Ikuskaritzak sistemaren etapa bakoitzeko emaitza akademikoei buruz emandako datuetara jo da. Jarraian aurkezten den analisirako, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetako eta DBHko 2. eta 4. mailetako datuak bakarrik hartu dira kontuan, derrigorrezko bi etapak baitira.


Bestalde, kanpo-ebaluazioen emaitzak Ebaluazio Diagnostikotik datoz, eta bi hizkuntza-gaitasunen —euskarakoa eta gaztelaniakoa— eta *matematikarako gaitasunaren* datuak baino ez dira hautatu, horiek baitira Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan emaitzak dituzten gaitasun bakarrak. Nazioarteko PISA ebaluazioaren edizioen emaitzak ez jasotzea erabaki da, lagin-ebaluazioa delako eta Ebaluazio Diagnostikoak baino maiztasun handiagoa duelako.

2.1.1. A eredu publikoa

a) Matrikulatutako ikasleen, eskola-taldeen eta ordezkariaren bilakaera

Unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleen eta sare publikoko A ereduko eskola-taldeen bilakaera, 2.1.1.a *grafikoa*n ikus daitekeenez, argia eta eztaba daezina da: ikasleen eta taldeen galera zorrotza eta etengabea. 1983tik 2018ra bitarteko 35 urteetan, estratu honek 154.000 ikasle eta 5.000 talde inguru galdu ditu. Hau da, ikasleen % 82tik eta eskola-taldeen % 76tik gorako jaitsiera izan du.

2.1.1.a. grafikoa. A eredu publikoan matrikulatutako ikasleen eta taldeen bilakaera, 1983-2018. Araubide orokorreko irakaskuntzak




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Galera etengabe eta iraunkor hori islatzen da, halaber, geruza horrek euskal hezkuntza-sisteman eta bere hezkuntza-sarean bertan duen ehuneko-ordezkaritza ikusita. 1983an, A eredu publikoa euskal hezkuntza-sistemaren ia % 41 zen, eta sare publikoaren % 85. 2018an, ehunekoa bostekin zatitzen da, eta sarearen % 16,2 eta sistemaren % 8,5 baino ez da. Jarraian ikusiko dugunez, beherazko egoera hori are gehiago nabarmentzen da Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapen bilakaeraren analisian, zenbait lurralde eta eremutan erabat desagertzera iritsi arte.

2017-18 ikasturtean, 11 herrik soilik (Bizkaiko 8: Balmaseda, Barakaldo, Bilbo, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao; eta Arabako 3: Guardia, Oion eta Gasteiz) zituzten estratu honetako ikasleak, eta guztira 3.449 ikasle zeuden Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn banatuta. Ikasle horien ia erdiak (1.816) DBHn eskolatuta zeuden, eta soilik 400 baino zertxobait gehiago ari ziren Haur Hezkuntzan ikasten. Izan ere, zenbait herrik etapa bakar batean bakarrik zuten A eredu publiko (DBHn Balmasedan, Leioan eta Santurtzin, eta Oionen Lehen Hezkuntzan bakarrik).⁶³

2.1.1.b. grafikoa. Hezkuntza-sisteman eta sare publikoan A estratu publikoak duen ehunekoaren bilakaera, 1983-2018. Araubide orokorreko irakaskuntzak




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Hurrengo grafikoa ikus daitekeen estratu honen egoerak Haur Hezkuntzan agerian uzten du ia erabat desagertu dela: 35 urte hauetan, etapa horretan ikasleen % 98 galdu ditu, eta 1983an (hizkuntza-ereduak ezartzen hasi zirenean) zeuden taldeen % 97. Izan ere, Hezkuntza Sailaren 2018-19 ikasturteko behin-behineko datuen arabera, estratuak behera egiten jarraitzen du, bai ikasleen artean (403), bai taldeen artean (29), eta batez besteko ratioa talde bakoitzeko 14 ikasletik beherakoa da. Joera bera erakusten dute 2019-20 ikasturteko behin-behineko matrikulazio-datuek (373 ikasle).


⁶³ Hezkuntza Sailak 2019-20 ikasturteari buruz emandako datuen arabera, A eredu publikoa Bilboko 3 ikastetxe publikotan (Otxarkoaga HLHI, Artatse HLHI, Cervantes HLHI), Gasteizko 3 ikastetxetan (Sta. María HLHI, Judimendi HLHI, Divino Maestro HLHI), Barakaldoko 1ean (Larrea HLHI) eta Getxoko 2tan (Larrañazubi HLHI eta San Ignacio HLHI) eta Portugaleteko 1ean (Eimu Txikitxu UHE) baino ez da ematen.

Sisteman oso ordezkari txikia eta ia sinbolikoa du, 1983an sare publikoaren % 60,6 eta sistema osoaren % 29,1 izatetik, sare publikoaren % 0,9 soilik izatera eta sistema osoaren % 0,5 ez gainditzera igaro da.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.


Derrigorrezko lehen etapan, egoera aurreko etaparako deskribatutakoaren antzekoa da: aztertutako aldiaren hasieran zeuden ikasleen eta taldeen % 99 galtzea. 2018-19 ikasturteko behin-behineko datuen arabera, ikasleak (1.130) eta taldeak (61) murrizten jarraitu du.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (2.1.1.e grafikoa ageri dira datuak), LOGSEren garapenaren ondorioz 2000. urtean erabat ezarri zenetik, estratuko ikasleen eta taldeen % 80 galdu dira. 2018-19 ikasturteko behin-behineko datuen arabera, estratu honetan matrikulatutako taldeen kopuruak (88) eta ikasleen kopuruak (1.555) murrizten jarraitzen dute, eta oraingo ikasturtean joera berari eusten zaio (1.420 ikasle baino ez ditu eskolatzen).


Etap horretan, sisteman eta bere sarean duen presentziak ere murrizketa nabarmena izan du: 2000. urtean sare publikoaren % 25,6 zen, eta sistema osoaren % 10,8; 2018an, berriz, ikastetxe publikoetako ikasleen % 4,6 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako euskal ikasle guztien % 2,2 baino ez ditu eskolatzen.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.


b) Gizarte-, ekonomia- eta hizkuntza-ezaugarriak

Estratu honetan eskolatzen diren ikasleen ezaugarri batzuk aztertuz gero, ikusten da estratuaren batez besteko maila sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK) indize horretan ezarritako lau mailen behekoenean dagoela beti, eta hori gertatzen da bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn. Izan ere, ISEK maila baxuko ikasleen portzentajea % 80 baino handiagoa edo hor ingurukoa da Ebaluazio Diagnostikoaren ia edizio guztietan.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.


2.1.1.g. grafikoa. A eredu publikoaren ezaugarri sozioekonomikoen (ISEK) bilakaera. DBH 2.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Ikasleen familia-jatorriari dagokionez, 2.1.1.h grafikoa ikusten denez, bilakaera-datu hori duten bi etapetan, ikasle etorkinen ehunekoak goranzko joera du. Izan ere, Lehen Hezkuntzan, 2017ko edizioaz geroztik, eta DBHn, 2013koaz geroztik, ikasle etorkinen kopuru handiagoa da bertakoena baino.

2.1.1.h. grafikoa. A eredu publikoan dauden ikasle etorkinen ehunekoaren bilakaera.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Estratu honetan ikasle familiak euskaldunak oso-oso gutxi dira, eta une batzuetan ez dago halakorik. Ebaluazio Diagnostikoaren edizio gehienetan ia ez dago ikasleen hizkuntza-tipologia hori, hurrengo taulan ikus daitekeenez.

Ikasle familiak euskaldunen ehunekoaren bilakaera A eredu publikoa (<i>Iturria:</i> Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)							
		ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4		0	1,3	0	0,4	0	0,2
DBH 2		0	0,7	0,1	0,2	0,2	0,1


c) Eraitza akademikoak eta kanpo-ebaluazioetakoak

Jarraian aurkezten diren datuak bi ebaluaziotatik datoz, bakoitza bere berezitasunekin. Ikuskaritzaren sustapen-datuak ez daude gaitasunen arabera banakatuta, eta irakasleek ikastetxeetan egiten duten ebaluaziotik datoz. Bestalde, ebaluazio diagnostikoko datuak kanpo-ebaluazio batetik datoz, eta gaitasunen arabera ematen dira. Hortaz, ezin dira konparazioak egin, errealitate beraren ikuspegi desberdinak erakusten baitituzte.


Maila honetako Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen eraitza akademikoari dagokienez, hainbat datu egiaztatu dira:

- Lehen Hezkuntzan, bai 4. mailan, bai 6. mailan, hurrengo grafikoetan ikus daitekeenez, ikasleen % 90 baino gehiago hurrengo mailara edo etapara igarotzen dira, baina datu horrek okerrera egin du bi mailetan 2018-19 ikasturtean.
- Datu deigarriak da Lehen Hezkuntzako bi mailetako ikasleen erdiek soilik gaintitzen dituztela irakasgai guztiak, eta datu horrek okerrera egiten duela 2018-19 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 6. mailan, ehuneko 6 puntuko murrizketarekin.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, maila-igoera nabarmen txikiagoa da: DBHko 2. mailan % 65 ingurukoa eta etaparen amaieran % 73 ingurukoa.
- Datu deigarriak da DBHko 2. mailako ikasleen % 30 baino gutxiago gai direla irakasgai guztiak gaintitzeko, eta DBH amaitzean % 40tik gora baino zertxobait gehiagok ez duela hori lortzen⁶⁴.

2.1.1.i. grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuan LHko 4. eta 6. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gaintitzen dituztenen ehunekoa.



2.1.1.j. grafikoa. A eredu publikoan DBHko 2. eta 4. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gaintitzen dituztenen ehunekoa.





■ Hurrengo ikasmailara igaro dira ■ Arlo guztiak gaintitzen dituzte ■ Hurrengo ikasmailara igaro dira ■ Arlo guztiak gaintitzen dituzte

Iturria: geuk egina, Ikuskaritzaren datuetan oinarrituta.

Ebaluazio Diagnostikoaren gaitasun-proben eraitzei dagokienez (horien bilakaera grafiko hauetan ikus daiteke), halaber, zenbait ondorio atera daitezke:

⁶⁴ Datu horiek atera diren Hezkuntza Ikuskaritzak aurkeztutako txostenean ez da adierazten kasu bakoitzean zenbat ikasgai gaintitu ez diren. Datu deigarri horiek bi arrazoiengatik izan daitezke: alde batetik, estratu honetan eskolatzen diren ikasleen kopurua txikia delako (horrela, talde txiki batek datu globalak nabarmen aldatzen ditu); edo, bestela, irakasleek, mailaz igarotzeko prozesuan, irizpide globalagoak hartzen direlako kontuan, eta ez gaintitu gabeko ikasgaien kopurua bakarrik.

- Estratu honetako ikasleen *euskarazko gaitasuna* izugarri urria da bi etapetan. Batez beste, ikasleen % 95 baino gehiago errendimendu-maila baxuan daude. Ebaluazio Diagnostikoaren azken edizioetan Lehen Hezkuntzako ehunekoetan ikusten den hobekuntza txikia ez da batere esanguratsua, geruza horretako populazioaren tamainak baldintzatuta.
- Beste hizkuntza koofizialean, egoera ez da euskararen ikusitakoa bezain muturrekoa, nahiz eta Lehen Hezkuntzako ikasleen % 25ek eta DBHko ikasleen % 37k, gutxi gorabehera, ez duten hasierako errendimendu-maila gaitasun horretan.
- *Matematikarako gaitasunari* dagokionez, egoera ere argia da. Izan ere, Lehen Hezkuntzako emaitzen bilakaerak okerrera egin du etengabe: 2017ko edizioan, % 47 hasierako mailan; eta DBHko ikasleen erdiak errendimendu-maila berean.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Ebaluazio Diagnostikoak emandako datuen arabera, batez beste, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 32 eta DBHko 2. mailako ikasleen % 65 baino gehiago ez daude egokitasun-egoeran.

Egokitasun-egoeran ez dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera A eredu publikoa (<i>Iturria: Ebaluazio Diagnostikoa ISEI-IVEI</i>)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	31,6	33,5	37,1	36,4	33,0	23,0
DBH 2	58,4	65,5	68,1	67,5	68,4	69,2

d) Ondorioak

A eredu publikoa gainbehera doan estratua da ikasleen ehunekoari dagokionez (are gehiago, ia ez da existitzen), eta haren ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak gero eta muturrekoagoak dira: hamar ikasletik zortzi baino gehiago ISEken maila baxuetan daude bi etapetan, eta jatorri immigranteak dira gehienak, desegokitasun-egoeran dauden ikasleen oso ehuneko altuarekin eta ikasle familiaz euskaldunik gabe. Hau da, errendimendu baxuan eragin handiena duten aldagai guztiak biltzen ditu.

Kontuan hartzen dugun edozein ebaluaziotan geruza honetan berariaz lortzen diren emaitzak oso eskasak dira. Bereziki *euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean*, egoera zeharo ahula da, baina, gainera, ebaluatutako gainerako gaitasunetan ere ez du emaitza oso onik lortzen.


Beraz, ikasle eta familien kolektibo hori salbuespenezko hezkuntza-erantzun gisa tratatu beharko litzateke (posible den neurrian, aldi baterako), berariazko beharrei erantzun pedagogikoa eman ahal izateko.

B eredu publikoa

a) Matrikulatutako ikasleen, eskola-taldeen eta ordezkartzaren bilakaera


B eredu publikoak, zazpi ikasturte iraun zuen eta bere matrikula bikoiztea ekarri zuen igoera bizi baten ondoren, 1983an 20.330 ikasle izatetik 1989an 41.261 izatera pasatuta, harrezkero, 30.000 ikasle inguruko matrikula-galeraren ildoari ekiten zion 2017-18 arte. Azken bi ikasturteetan, matrikularen gorakada txiki bat hauteman da, baina garrantzi txikikoa. 1989-90ean matrikula kopuru handiena izan zuenetik gaur egun arte, ikasle eta taldeen % 70 baino gehiago galdu ditu.

2.1.2.a. grafikoa. B eredu publikoan matrikulatutako ikasleen eta taldeen bilakaera, 1983-2018. Araubide orokorreko irakaskuntzak.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.


Eredu hau ez da inoiz nagusi izan sare honetan, A ereduarekin ikusi dugun bezala. Izan ere, hezkuntza-sisteman presentzia handieneko ikasturtean (1992-93) % 9ra eta % 19ra baino ez da iritsi bere sarean. *Eustaten* datuen arabera, eskuragarri dagoen azken ikasturtean, eredu honetako ikasleak EAEko ikasle guztien % 3,1 eta sare publikoan eskolatutakoen % 5,9 dira.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Haur Hezkuntzako etapan, estratu honek matrikulan egonkortasun handiko lehen fasea erakutsi zuen, 10.000 ikasle ingururekin, baina 1992tik aurrera pixkanaka-pixkanaka galera-prozesu bat hasi zuen, bere ikasle eta talde kopurua sei aldiz txikiagoa izatera eramanez duena. 2017-18an, 1.600 ikasle inguruk ikasi dute sare publikoko eredu honetan 105 taldetan guztira. 2018-19an, beheranzko joera horrek bere horretan jarraitu du 1.186 ikaslerekin, eta, 2019-20an, 974 ikaslerekin.

Estratu hau haurren eskola-populazioaren % 13,4 eskolatzetik 2018an % 1,8 eskolatzera igaro da, eta sare publikoaren % 3,4ra soilik iristera etapa horretan⁶⁵.




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Lehen Hezkuntzan, LOGSEren laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik (une horretan iritsi zen bere eskola-matrikularen kotara), beherakada handia izan zuen 2000. urtera arte, tarte horretan ikasleen ia bi heren galdu baitzituen. Urte horretatik aurrera, jaitsiera etengabea izaten

⁶⁵ 2019-20 ikasturte honetan, Hezkuntza Sailaren Estatistikako datuen arabera, estratu hau 21 ikastetxe publikotan baino ez dago Haur Hezkuntzan: Arabako 13 ikastetxetan, Bizkaiko 7 ikastetxetan eta Gipuzkoako 1 ikastetxetan.


jarraitu zuen, baina ez hain zorrotza. 2017an, 4.400 ikasletik gora zeuden; 2018an, kopurua 4.055 ikaslera jaitsi zen, eta, 2019an, 3.496ra.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 2000. urtean ezarri zenetik, joerak erakusten du hamarkada bakoitzean ikasleen erdira murriztu dela. Ikuskaritzaren behin-behineko datuen arabera, 2018an ikasle kopurua 2.268ra jaitsi zen, eta 2019an, berriz, 1.992ra.

Uzkurtze-prozesu horretan, B ereduko ikasleak, derrigorrezko azken etapa horretan, sistemaren % 10,3 ziren 2000. urtean, eta % 3,1, berriz, 2017an.




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

b) Gizarte-, ekonomia- eta hizkuntza-ezaugarriak


B eredu publikoko ikasleen % 50 inguruk maila sozioekonomiko baxua du, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn. Hortaz, estratu honetako batez besteko ISEK maila Ebaluazio Diagnostikoaren edizio gehienetan maila baxuan kokatu da, gorabehera batzuekin, beheko bi ISEK mailen arteko muga egoteagatik (baxua eta ertain baxua).

2.1.2.f. grafikoa. B eredu publikoaren ezaugarri sozioekonomioen (ISEK) bilakaera. Lehen Hezkuntza



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.


2.1.2.g. grafikoa. B eredu publikoaren ezaugarri sozioekonomioen (ISEK) bilakaera. DBH



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

2.1.2.h grafikoa ikus daitekeenez, estratu honetan eskolatzen diren ikasle etorkinen ehunekoak etengabeko hazkunde-joera izan du bi etapetan, eta 2009an Ebaluazio Diagnostikoaren lehen ediziotik 2017ko azken datu eskuragarri arte atzerriko jatorriko ikasleen kopurua bikoiztu du. Une honetan, B eredu publikoko ikasle guztien % 30 inguru atzerriarrak dira, eta 2013tik 2017ra bitartean hazkunde nabarmena izan da bi etapetan: Lehen Hezkuntzan ehuneko 14 puntu eta DBHn 7 puntu.

2.1.2.h. grafikoa. B eredu publikoan dauden ikasle etorkinen ehunekoaren bilakaera.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Ikasle familiaz euskaldunak oso gutxi dira estratu honetan, nahiz eta ehunekoetan gorabehera batzuk ikusten diren hizkuntza tipologia horrek estratu honetan dakarren unibertso txikiaren ondorioz.


Ikasle familiaz euskaldunen ehunekoaren bilakaera B eredu publikoa (<i>Iturria: Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI</i>)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	1,2	5,4	2,4	2,9	4,5	3,2
DBH 2	1,9	2,7	2,3	1,1	0,5	0,4

c) Eraitza akademikoak eta kanpo-ebaluazioetakoak


Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailako ia ikasle guztiak hurrengo ikasturtera igarotzen dira (% 96-97), baina estratu honetako ikasleen % 40 inguruk ez dituzte maila horietako curriculumeko irakasgai guztiak gainditzen.

2.1.2.j grafikoa ageri diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eraitza akademikoek adierazten dute lau ikasletik hiru baino gehiago hurrengo mailara edo etapara igarotzen direla. Datu bereziki deigarria da azken bi ikasturteetan B eredu publikoko DBHko 2. mailako ikasleen % 37 bakarrik direla gai irakasgai guztiak gainditzeko. Etaparen azken ikasturtearen kasuan, portzentaje hori estratuko ikasle guztien % 50 ingurukoa da.

2.1.2.i. grafikoa. B eredu publikoan Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gaingaitzen dituztenen ehunekoa.



2.1.2.j. grafikoa. B eredu publikoan DBHko 2. eta 4. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gaingaitzen dituztenen ehunekoa.




■ Hurrengo ikasmailara igaro dira ■ Arlo guztiak gaingaitzen dituzte ■ Hurrengo ikasmailara igaro dira ■ Arlo guztiak gaingaitzen dituzte

Iturria: geuk egin, Ikuskaritzaren datuetan oinarrituta.


Ikasle horiek ebaluazio diagnostikoetan lortutako gaitasun-mailari dagokionez (hurrengo grafikoetan ikus daiteke), zenbait datu nabarmentzen dira:

- Maila honetan eskolatutako ikasleek, bi etapetan, gero eta gaitasun gutxiago dute euskaraz: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ia % 60 eta DBHko 2. mailako hamarretik 8 ez dira gai hizkuntza horretako hasierako errendimendu-maila gaingaitzeko.
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*, nahiz eta denboran zehar gorabehera handiak egon emaitzetan (beste estratu batzuetan gertatzen den bezala), azken edizioan eredu honetako lau ikasletik bat ez da gai errendimendu-mailarik baxuena gaingaitzeko.
- *Matematikarako gaitasunean*, nolabaiteko egonkortasuna ikusten da hasierako maila gaingaitzen ez duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoetan. Azken edizioan % 20 dira. Aitzitik, DBHko 2. mailan, errendimendu txikiko ikasleen ehunekoak etengabe egin du gora, 2009an % 20 izatetik 2017an % 37 izatera igaro baita, 17 puntuko igoerarekin.

2.1.2.k. grafikoa. B eredu publikoko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. LH 4.



2.1.2.l. grafikoa. B eredu publikoko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. DBH 2.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Ebaluazio Diagnostikoak azken edizioetan emandako datuen arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 20 inguru eta DBHko 2. mailako ikasleen % 50 inguru desegokitasun-egoeran daude.

Desegokitasun-egoeran dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera B eredu publikoa (Iturria Ebaluazio: Diagnostiko. ISEI-IVEI)						
	ED9	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	15,1	16,0	19,1	19,3	20,2	20,4
DBH 2	32,9	40,9	40,2	46,4	47,7	51,8

d) Ondorioak

Estratu honek, une honetan sistemaren % 2 baino gutxiago izateaz gain, beheranzko joera erakusten du matrikulazioan. Eredu hau A eredu publikoaren ezaugarri berberak bereganatzen joan da: ikasleen erdiak baino gehiagok ISEK maila baxua du, jatorri immigrante ikasleen kopuruak biziki gora egin du (% 30 baino gehiago dira dagoeneko), familia euskaldunak dituzten ikasleen presentzia oso txikia da, eta desegokitasun-egoeran dauden ikasleak % 20 baino gehiago dira Lehen Hezkuntzan eta DBHn.

Ezaugarri horiek guztiek azaltzen dute ikasle horiek euskaraz duten errendimendu txikia: Lehen Hezkuntzako ikasleen % 60 inguruk eta Bigarren Hezkuntzako hamar ikasletik zortzik ez dute hasierako maila gaitasun horretan.


Erkidego osoko Haur Hezkuntzako 21 eskolatan baino ez egoteak, taldeen tamaina txikiak eta ikasleen etengabeko galera-joerak, azken hiru ikasturteetan ikasleen heren bat inguru murriztu baita, eredu honek ziur aski amaiera hurbil duela adierazten dute.

2.1.3. D eredu publikoa

a) Matrikulatutako ikasleen, eskola-taldeen eta ordezkariaren bilakaera

D eredua da 35 urteko aldi honetan ikasleak biziki areagotzen dituen sare publikoko estratu bakarra. 1983tik 2017ra arte, 158.547 ikasleko igoera izan ziren, eta 1.500 bat taldeko hazkundera, A eredu publikoan ikusitakoaren aurkako prozesuan. Gogoratuko dugunez, aldi horretan 150.000 ikasle galdu ziren eredu horretan.


2003. urtera arteko ikasturte gehienetan, hazkundera 2.000-3.000 matrikula ingurukoa izan zen, 1993-94an izan ezik, ikastolen publikotasunaren ondorioz 23.000 ikasle gehiago izan baitziren. 2004ko ikasturtetik aurrera, gehikuntza 5.000-6.000 ikasle artekoa izan da. Hala ere, 2016 ezkerro, nolabaiteko moteltzea nabari da.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Etengabeko igoera iraunkor horren ondorioz, estratu hau sare publikoan hegemoniko bihurtu da, sare horretan duen presentziaren ehunekoa 12 aldiz handiagoa baita (1983ko % 6,3tik 2017ko % 77,9ra). Une honetan, D eredu publikoak euskal ikasle guztien % 41 eskolatzen ditu, erregimen orokorreko irakaskuntza guztiak kontuan hartzen badira.


2.1.3.b.grafikoa. D eredu publikoan matrikulatutako ikasleen eta taldeen bilakaera, 1983-2018. Araubide orokorreko irakaskuntzak.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.


Sare publikoan estratu honen nagusitasun ia erabatekoa ulertzeko daturik argiena da —are gehiago, etorkizun hurbila erreferentziatzen hartzen badugu— sare horretako D ereduan ikasten duten Haur Hezkuntzako ikasleen ehunekoa: 2017an % 95,7ra iritsi zen 1983ko % 11,6tik. Haur Hezkuntzan eskolatutako euskal ikasle guztiak kontuan hartuz gero, estratu honek % 50 baino gehiago hartzen ditu, 1984ko % 5,6 apaletik. Behin-behineko datuen arabera, 2018an ikasle-galera handia gertatu zen estratu honetan, eta 42.964 ikaslerekin geratu zen. 2019an, berriz, jaitsiera askoz txikiagoa izan zen, eta 42.836 ikasle eskolatu zituen.

2.1.3.c. grafikoa. D eredu publikoan matrikulatutako ikasleen eta taldeen bilakaera 1983-2018. Haur Hezkuntza.




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Lehen Hezkuntzan ere, jakina, hazkunde azkarreko joera bera ikusten da, eta 1983an estratu honetan eskolatzen ziren ikasleen kopurua eta taldeen kopurua 9 aldiz handiagoa da. Etapa horretan, oraindik ere, ikasle kopuruak gora egiteko joerari eutsi zaio 2018an (62.784) eta 2019an (62.895).



Azkenik, 2000 ezkerro, bikoiztu egin da estratu honetan ikasten duten DBHko ikasleen kopurua, 2017an 34.000 ikasle baino gehiago eskolatzeraino. 2018an (35.488) eta 2019an (36.812) estratu honetan matrikulatutako ikasleen behin-behineko datuek adierazten dute D eredu publikoan eskolatutako ikasleen kopuruak gora egiten jarraitzen duela.

Sare publikoko ikasleen % 50 eskolatzen zituen 2000. urtetik, ia % 89ra igaro da 2017an. Azken ikasturte horretan, D eredu publikoa euskal hezkuntza-sistema osoaren % 41,3 zen DBHn.




b) Gizarte-, ekonomia- eta hizkuntza-ezaugarriak

Estratu honetan dago, sareko ikasle ia guztiak eskolatzen baititu, ISEKen beheko mailan dauden ikasleen gorakada portzentual handiena, eta ikasle tipologia horren presentzia bikoiztu egin da ikasgeletan 2009tik datuak eskuragarri dauden azken ediziora arte. Ebaluazio Diagnostikoaren 2017ko edizioan, D eredu publikoko Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen ia herenak maila baxuenean zeuden ikuspegi sozioekonomiko eta kulturaletik.


Estratu honek eskolatzen dituen ikasleen hazkunde izugarriak, arestian ikusitakoak, ISEK baxua duten ikasleen ugartzea azaltzen du, zalantzarik gabe; une honetan sare publikoaren gehiengoa hartzen baitu. Ebaluazio Diagnostikoaren edizio gehienetan, ISEKen batez besteko maila ertain baxua da, eta ISEKen batez besteko balioa EAEko batezbestekotik oso hurbil.

2.1.3.f. grafikoa. D eredu publikoaren ezaugarri sozioekonomioen (ISEK) bilakaera. Lehen Hezkuntza



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.


2.1.3.g. grafikoa. D eredu publikoaren ezaugarri sozioekonomioen (ISEK) bilakaera. DBH.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Estratu honetan eskolatutako ikasleen familia-jatorriari dagokionez (2.1.3.h grafikoa agertzen da), goranzko joera erakusten du bi etapetan: 2009tik 2017ra ikasle etorkinen ehunekoa bikoiztu egin da Lehen Hezkuntzan, eta 2,5 aldiz handiagoa da DBHn.

2.1.3.h. grafikoa. D eredu publikoan dauden ikasle etorkinen ehunekoaren bilakaera.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Estratu honetan ikasle familiaz euskaldunen presentzia nahiko egonkorra da, Lehen Hezkuntzan % 29 ingurukoa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan % 22 eta % 29 artekoa. Argi dago ehuneko horiek nabarmen handiagoak direla beste bi maila publikoetan ikusitakoak baino, baina ehunekoa txikiagoa da kontuan hartuz gero bi maila horietako ikasle familiaz euskaldunen osotasuna. Horrek esan nahi du mota horretako ikasle gehienak ez direla D eredu publikoan eskolatzen, nahiz eta ikasle gehien euskalduntzen duen estratua izan, baizik eta, ikusiko dugunez, itunpeko D eredu.


Ikasle familiaz euskaldunen ehunekoaren bilakaera D eredu publikoa (<i>Iturria:</i> Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	24,5	34,6	29,8	30,2	28,8	28,7
DBH 2	22,5	29,8	28,3	29,6	27,0	23,2

c) Eraitza akademikoak eta kanpo-ebaluazioak


Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailako ikasle ia guztiak hurrengo mailara edo etapara igarotzen dira, eta hamar ikasletik ia 8 gai dira curriculumeko irakasgai guztiak gaitzitzeko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 2019an, 8 puntu portzentualeko aldea dago mailaz igotzen diren 2. eta 4. mailako ikasleen artean, eta distantzia hori 10 puntura zabaltzen da curriculumeko irakasgai guztiak gaitzitzen dituzten ikasleak kontuan hartzen badira. Derrigorrezko eskolatzearen amaieran, D eredu publikoko ikasleen % 94 hurrengo hezkuntza-etapara pasatzen dira, eta lau ikasletik hiruk gaitzitzen dituzte curriculumeko irakasgai guztiak.

2.1.3.i. grafikoa. D eredu publikoan Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa



2.1.3.j. grafikoa. D eredu publikoan Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa.




Iturria: geuk egina, Ikuskaritzaren datuetan oinarrituta.

Estratu honek kanpo-ebaluazioetan ateratzen dituen emaitzei dagokienez, daturik kezkarriena da *euskarazko hizkuntza-gaitasunean* hasierako errendimendu-maila gainditzeko gai ez diren ikasleen etengabeko hazkundera. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 36k eta DBHko 2. mailako ikasleen % 41ek defizit handia dute euskarazko hizkuntza-trebetasunetan. Benetan kezkarria da 2009tik 2017ra bitartean gaitasun horretan hasierako maila soilik erakusten duten Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek izandako 10 puntu portzental baino gehiagoko igoera.


Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan, aldiz, emaitzak positiboagoak dira beste hizkuntzan baino, eta 2017an ikasleen % 13-14 inguru zeuden hasierako mailan.

Matematikarako gaitasunean, ehunekoetan egonkortasun ukaezina ikusten da. Hala, ikasleen % 17-18 daude errendimendu-maila baxuenean.

2.1.3.k. grafikoa. D eredu publikoko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. LH 4.



2.1.3.l. grafikoa. D eredu publikoko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. DBH 2.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Ebaluazio Diagnostikoak emandako datuen arabera, ED17an, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 11 eta DBHko 2. mailako ikasleen % 22,4 eskolatuta dauden ikasturtean desegokitasun-egoeran daude.

Desegokitasun-egoeran dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera D eredu publikoa (Iturria: Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	8,2	10,1	10,6	10,8	11,4	11,0
DBH 2	19,5	20,6	21,8	22,8	21,0	22,4

e) Ondorioak

Datuek diote oso denbora gutxian ziurrenik hau izango dela sare publikoan geratuko den eredu mota bakarra. Bere hazkunde geldiezin eta iraunkorrak eta bere presentziak euskal hezkuntza-sistemaren ardatz bihurtzen dute. Lurralde-banaketa handiena duen estratua da, eta, horregatik, ikastetxe mota gehien dituen, proiektuen tamainari, ezaugarriei eta motei dagokienez. Azken batean, sektore publikoko ikasle ia guztiak biltzen ditu estratu honek. Hori dela eta, ezinbestekoa da, edozein analisi egiteko, berori ezaugarriren baten arabera (tamaina, testuinguru soziolinguistikoa...) identifikatutako estratu txikiagoetan zatitzea.

Sare publiko osoa ordezkatzearen azken inguruabar horrek esan nahi du barruan hartzen duela, baita ere, orain dela gutxira arte modu desorekatuan beste bi estratu publikoetan banatuta zeuden egoeren eta ikasle tipologiaren aniztasun izugarria. Hala, D eredu publikoak ikasle etorkin gehiago hartzen ditu, baina, era berean, beste edozein estratuk baino gehiago eskolatzen ditu ikasle mota guztiak, bai hezkuntza-zailtasunekoak, bai bikaintasunekoak.


2009tik 2017ra bikoiztu egin da estratu honetan eskolatzen diren atzerriko ikasleen kopurua, bikoiztu egin da maila sozioekonomiko eta kultural baxuko familietatik etorritako ikasleen kopurua eta % 50 igo da desegokitasun-egoeran dauden ikasleen kopurua Lehen Hezkuntzan, eta mota horretako ikasleak Bigarren Hezkuntzako ikasleen % 20 baino gehiago dira dagoeneko.

Hori guztia ikusita, premiazkoa da sare publikoan elkarrekin dauden D ereduko errealitateen emaitzen bilakaerari buruzko analisi zehatzagoa egitea (adibidez, eremu gutxi-asko euskaldunetan), honako hauek barne hartuta: denboran zehar izan duten bilakaera, familien jarrera eta itxaropenak, irakasleen hizkuntza-prestakuntza, aniztasuna tratatzeko duten prestakuntza, estrategia didaktikoak eta hezkuntza-estrategiak, ikasle familiaz euskaldunen dentsitatea ikasgeletan, ikasleen euskararen erabilera irakasleekin ikasgeletan eta ikasgeletatik kanpo, baita planteatutako hizkuntza-helburuak ere, besteak beste.

2.1.4 Itunpeko A eredu pribatua ⁶⁶

a) Matrikulatutako ikasleen, eskola-taldeen eta ordezkaritzaren bilakaera

Itunpeko sareko A ereduak, sare publikoko bere parearekin gertatu den bezala, sisteman presentzia galtzeko prozesu bizia jasaten ari da, matrikula-jaiatsiera 123.000 ikasle eta 2.803 talde ingurukoa izan baitu 2017-18 ikasturtera arte. Galera hori areagotu egin da 1986-87 ikasturtetik, batez beste 9.000 ikasletik gorako jaiatsiera izan baita 2000-2001 ikasturtera arte. Une horretatik aurrera, ikasleen galerak bere horretan jarraitzen du, baina motelago, batez ere 2012-13 ikasturtetik aurrera.




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Estratu hau itunpeko sare pribatu osoaren % 65,3 izan zen 1983an, eta hezkuntza-sistema osoaren % 34 inguru. 2017-18 ikasturtean, haren presentzia zortzi aldiz txikiagoa da: % 17,7 bere sarean eta % 8,4 sisteman. Azken ikasturteetan egonkortasun argia izan du. Egonkortasun horrek adieraziko luke, Haur Hezkuntzan ikusiko ditugun datuen arabera estratu honek presentzia murrizten jarraituko duela gauza segurua izan arren, litekeena dela % 2 edo % 3 inguruko portzentajeetan mantenduko dela.

⁶⁶ Itunpeko A eredu pribatuaren barruan, dauden lau ikastetxe pribatuak sartzen dira. Horietako hiru atzerriko ikastetxeak dira, geruza honetako ikasle guztien % 7 baino ez direnak. Hortaz, aurrerantzean itunpeko ikastetxe pribatuak soilik aipatuko ditugu.

2.1.4.b. grafikoa. Hezkuntza-sisteman eta itunpeko sare pribatuan, itunpeko A estratu pribatuak duen ehunekoaren bilakaera, 1983-2018. Arabide orokorreko irakaskuntzak.




turria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Haur Hezkuntzako matrikulazioaren datuak (hurrengo grafikoan aurkezten dira) berretsi egiten du ikasleen (-11.513 ikasle) eta taldeen galera handia. Galera hori etorkizunean hurrengo etapetara igaroko da. 2017-18 ikasturteko 2.173 ikasleak 1.864ra murriztu dira 2018-19 ikasturtean, eta 2.076ra igo dira 2019-20 ikasturteko behin-behineko datuen arabera.

1983-84 ikasturteko hasierako etapa honetan matrikularen % 18,4 % 2,5era murriztu da 2017-18 ikasturtean. Azken ehuneko hori nahiko egonkor mantendu da 2014-2015 ikasturtetik, eta litekeena da, sendotasun gutxi-asko handiarekin, A eredu pribatuko hezkuntza-sistemako presentzia-datu gisa mantentzea Haur Hezkuntzan⁶⁷.

2.1.4.c. grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuan matrikulatutako ikasleen eta taldeen bilakaera 1983-2018. Haur Hezkuntza.




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Lehen Hezkuntzan, 1983 ezkeror, estratu honek 98.000 ikasle eta 2.650 talde baino gehiago galdu ditu. Horrek esan nahi du 1983an eskolatuta zeuden ikasleen % 4k baino ez dutela jarraitzen,

⁶⁷ 2019-20 ikasturte honetan, Hezkuntza Sailaren estatistikako datuen arabera, Haur Hezkuntzako eredu hau EAEko 9 herritan kokatutako 18 ikastetxe pribatutan baino ez da ematen: 2 ikastetxe Gasteizen, 4 Donostian, 1 Irunen, 3 Getxon, 3 Leioan, 2 Bilbon eta 1 Ermuan, Loiu eta Barakaldon.


eta taldeen % 5ek baino zertxobait gehiagok. 2017ko 4.000 ikasle inguruko matrikula 3.741 ikaslara murriztu da 2018ko behin-behineko datuetan, eta 3.481 ikaslara 2019koetan. Gainera, 300 bat ikasle gutxiago daude urtero



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

DBHn, 2012-13 ikasturtera arte iritsi den urteko 1.000 ikasletik gorako jaitsieren aldiaren ondoren, joera pixka bat moteldu egin dela hauteman da. Joera horrek berekin dakar eta azken ikasturteetan batez beste 200 bat ikasle galtzea. 2018an 4.858 ikasle eskolatu ditu, eta 2019an 4.316 ikaslara jaitsi da.

1983an eskolatzen ziren euskal ikasleen % 25,2etatik % 5,9 soilik matrikulatzera igaro da. Ehuneko horrek, Haur Hezkuntzan ikusitakoaren arabera, murrizten jarraituko du, baina ez hain modu bizian. 35 urte hauetan, sare pribatuaren % 46,3 izatetik 2017-18an % 10,9 soilik izatera igaro da.




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

a) Gizarte-, ekonomia- eta hizkuntza-ezaugarriak

Estratu honek erakusten du ISEKen batez besteko baliorik handiena Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan, 0,50etik gorakoa. Horren ondorioz, maila sozioekonomiko eta kultural altua du beti (indize honetan ezarritako lau mailetatik altuena). ISEK maila baxua duten ikasleen ehunekoa nahiko aldakorra da edizioen artean. Izan ere, Ebaluazio Diagnostikoaren datuen arabera, 2013an eta 2015ean maila hori zuten familietatik etorritako ikasleak ez ziren eskolatzen Lehen Hezkuntzako 4. mailan.


2.1.4.f. grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuaren ezaugarri sozioekonomioen (ISEK) bilakaera. Lehen Hezkuntza 4.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

DBHko 2. mailan egoera desberdina da Lehen Hezkuntzan ikusitakoarekin alderatuta: ISEK batez besteko balio altuena izaten jarraitzen du estratu guztien artean eta Ebaluazio Diagnostikoaren ia edizio guztietan, ED10ean izan ezik, estratuko ISEKarekin batez besteko maila altua da. Hala ere, ISEK maila baxuko ikasleen ehunekoa nabarmen altuagoa da Bigarren Hezkuntzan, nahiz eta 2013 ezker mota horretako ikasleen etengabeko murrizketa ikusten den, 2013. eta 2017. urteen artean 10 bat puntu portzentualeko aldearekin.

2.1.4.g. grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuaren ezaugarri sozioekonomikoen (ISEK) bilakaera. DBH 2.




Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

ISEKari dagokionez ikusitako derrigorrezko bi etapen arteko aldea agertu egiten da, era berean, estratu honetan eskolatutako ikasleen familia-jatorria aztertzean: DBHko 2. mailan dauden ikasle etorkinen ehunekoa Lehen Hezkuntzako 4. mailan dauden hirukoitza edo lauukoitza ere da.

ISEKari dagokionez adierazi den bezala, ikasle etorkinei dagokienez ere ehunekoak murriztu dira, batez ere Bigarren Hezkuntzaren kasuan.

2.1.4.h. grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuan dauden ikasle etorkinen ehunekoaren bilakaera.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Estratu honetan dauden ikasle familiak euskaldunen ehunekoa hautemanezina da, eta inoiz ez da izan % 3tik gorakoa Lehen Hezkuntzan, ezta % 1etik gorakoa ere DBHn.

Ikasle familiak euskaldunen ehunekoaren bilakaera Itunpeko A ereduak (Iturria: Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	0,5	2,4	1,4	2,6	2,7	1,5
DBH 2	0,2	0,7	0,4	0,8	0,8	0,7

b) Eraitza akademikoak eta kanpo-ebaluazioetakoak

Estratu honetan eskolatutako ikasleak ia modu unibertsalean igotzen dira mailaz. 2019an, 4. mailakoen % 0,2k eta etaparen amaieran % 0,6k soilik ez dute helburu hori lortu. Era berean, irakasgai guztiak gaitzeari buruzko datua ere nahiko positiboa da, maila guztien artean altuena: ia % 92 Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta % 87 Lehen Hezkuntzako 6. mailan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, hamar ikasle bederatzi hurrengo mailara edo etapara igarotzen dira, eta, datu hori positiboa izan arren, ez da estratu guztien artean altuena (ikusiko dugunez, itunpeko D ereduak gaitzen du). Hala ere, daturik deigarriena da aztertutako DBHko bi ikasturteetako ikasleen % 30 inguru ez direla gai ikasgai guztiak gaitzeari.

2.1.4.i. grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuan, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa.





Gráfico 2.1.4.j. grafikoa. Itunpeko A eredu publikoan DBHko 2. eta 4. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa.



Hurrengo ikasmailara igaro dira ■ Arlo guztiak gainditzen dituzte

■ Hurrengo ikasmailara igaro dira ■ Arlo guztiak gainditzen dituzte


Iturria: geuk egina, Ikuskaritzaren datuetan oinarrituta.

2.1.4.k eta 2.1.4.l grafikoetan aurkezten diren Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzek erakusten dute, hizkuntza-ereduaren logikari jarraituz, bi etapetan euskararen gaitasun-maila txikia duen ikasleen oso talde handia dagoela, azken edizioan % 67 ingurukoa Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta ia % 80koa DBHko 2. mailan. Datu positiboa da, 2009ko lehen edizioarekin alderatuta, derrigorrezko bi etapetan lortu dela gaitasun horren gutxieneko maila gainditzeko gai ez diren ikasleen ehunekoa murriztea.


Gaztelaniazko konpetentzian, Lehen Hezkuntzako hasierako mailako ikasleen ehunekoak oso baxuak dira, % 3 eta % 4 artekoak azken edizioetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bikoiztu egiten da ehunekoa, eta 2017an % 8ra iristen da, murrizketa nabarmenaz 2015arekiko. Gaitasun honetan, hasierako mailaren ehunekoak dira estratu guztien artean baxuenak.

Estratu honetako ikasleek erakutsitako matematikarako gaitasuna, oro har, sare honetako B ereduan ikusiko dugunetik oso hurbil dago. Errendimendu txikia duten ikasleen batez bestekoa % 9koa izango litzateke Lehen Hezkuntzan, eta % 16koa DBHn.

2.1.4.k. grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. LH 4.



2.1.4.l. grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. DBH 2.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Azkenik, 2015eko Ebaluazio Diagnostikoaren jasotako datuen arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 3,5 eta DBHko 2. mailako ikasleen % 22 bakarrik daude desegokitasun-egoeran. Bilakaerari erreparatuz gero, bi etapetan murriztu egin da adinaren arabera dagokien ikasturtean ez dauden ikasleen kopurua.

Desegokitasun-egoeran dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera						
Itunpeko A eredu (Iturria: Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	6,0	6,5	6,0	4,7	3,6	3,5
DBH 2	25,1	28,2	28,4	28,4	21,0	22,1

c) Ondorioak

Estratu hau sare pribatuaren oinarri izatetik (joan den mendeko 90eko hamarkadaren amaierara arte, sare honetako ikasleen % 40 baino gehiago eskolatzen zituenean), matrikulazio txikiena duen estratua izatera igaro da, eta itunpeko ikastetxeen artean erregimen orokorreko irakaskuntzen % 17 baino ez da. Haur Hezkuntzako eskolatzeko datuak islatzen du estratu honek printzipioz duen etorkizun hauskorra. Izan ere, azken datuen arabera, sare pribatuko matrikula osoaren % 5 inguru da.


Hala ere, indarrean dagoen araudia aldatzen ez bada, badirudi estratu honek sendotasun eta jarraitzeko ahalmen handiagoa duela euskal hezkuntza-sisteman sare publikoko A eta B ereduak baino. Izan ere, bi etapetan batez besteko ISEK maila altueneko estratua da, eta, gainera, igarotze akademikoko oso maila altuak lortzen ditu.

Estratu honetan, Lehen Hezkuntza oso “selektiboa” da, eta estratu guztien artean ISEK altuena du. Ikasle etorkinen presentzia oso txikia da, igarotze akademikoa ia erabatekoa da, desegokitasun-egoeran dauden ikasleen mailarik baxuena du eta gaitasunetan emaitza onak ditu (euskaran izan ezik). Aldiz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, % 12 inguru ikasle etorkinak dira, % 16 ISEK maila baxuko ikasleak dira, eta desegokitasun-egoeran dauden ikasleen ehuneko handia dago (% 22ra artekoa 2015ean). Argi dago estratu honetan, Bigarren Hezkuntzan bereziki, bi ikastetxe mota daudela: batzuk aniztasun txikikoak eta maila sozioekonomiko onekoak, eta beste batzuk A eta B eredu publikoen ezaugarrietara hurbiltzen diren ikasleak dituztenak.

2.1.5 Itunpeko B eredu pribatua


a) Matrikulatutako ikasleen, eskola-taldeen eta ordezkaritza bilakaera

Estratu honek 36.000 ikaslelik gorako gehikuntza izan du 35 urte hauetan, eta talde kopurua hirukoiztu egin du. Salbuetsita 1993a (orduan 4.000 ikasle inguru galdu ziren), eta 2012 eta 2014 artean ere (orduan ere beherakada txiki bat izan zen), joera orokorra etengabeko igoera da ikasturte guztietan, bereziki bizia 1998tik aurrera, urteko 2.000 ikasle inguruko gehikuntza izan baita. 2010-11 ikasturteaz geroztik, ikasleen gorakada hori nabarmen moteldu da.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

2017-18 ikasturtean, itunpeko sare pribatuko ikasle guztien herenak inguru (% 31,9) biltzen ditu estratu honek. 2010-11 ikasturteari dagokiona baino ehuneko txikiagoa da. Hain zuzen, ikasturte horretan lortu bere presentzia handiena sare pribatuan. Egoera bera ikusten da hezkuntza-sistema osoan duen ordezkaritza aztertuz gero: % 4,8 1983an eta % 15,1 2018an.




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Estratu honen ikasle kopurua handitu egin da Haur Hezkuntzan, 1983an 7.800 ikasle izatetik 2010-2011 ikasturtean 17.150 izateraino. Une horretatik aurrera, estratua ikasleak galtzen joan da, eta 2017ko ikasturtean 13.600 zeuden. Sailaren datuen arabera, 2018an matrikula kopuruak behera egiten jarraitu du (13.005), eta gauza bera gertatu da 2019ko behin-behineko datuen arabera (12.456).

1983an, sisteman % 10,5eko ordezkaritza zuen, eta harrezkero gora egin zuen, 2002an % 20ko presentzia lortu arte, ikasturte batzuetan mantendu zuena. Aldi horretatik aurrera, ikusten da matrikulak behera egin zuela pixkanaka, 5 puntu portzentualen galerarekin, % 15,4an kokatu arte.


2.1.5.c. grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuen matrikulatutako ikasleen eta taldeen bilakaera 1983-2018. Haur Hezkuntza.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.


Lehen Hezkuntzako egoera, 2.1.5.d grafikoa ikus daitekeenez, aldakorragoa da, LOGSE garatu ondoren sistema eraldatu delako, lehen adierazi bezala. 1983 ezkerreko bikoiztu egin ditu bere ikasleak eta bere taldeak, eta 2017-18 ikasturtean 23.000 ikasle baino gehixeago eskolatu ditu derrigorrezko lehen etapa honetan. Azken bi ikasturteetako behin-behineko datuen arabera, joera beheranzkoa da: 22.843 2018an eta 22.414 2019an.

2.1.5.d. grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuen matrikulatutako ikasleen eta taldeen bilakaera, 1983-2018. OHO+ Lehen Hezkuntza.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza da estratu honek gaur egun presentzia handiena duen etapa. Bigarren Hezkuntzako 17.607 ikasleak sistema osoaren % 21,3 dira, eta sare pribatuaren ia % 40 hezkuntza-tarte horretan. Sare honetako A ereduan adierazitako matrikulazio-jaitziera konpentsatu egiten da estratu honetan ia 6.000 ikasle irabazteari eta, ikusiko dugunez, D ereduan dagoen gorakada nabarmenari esker. Oso litekeena da, aurreko etapetan ikusitako datuen eta hezkuntza-sistemaren aldaketa orokorren arabera, geruza honek Bigarren Hezkuntzan ikasle kopurua murriztea. 2018ko (17.760) eta 2019ko (17.706) behin-behineko datuek erakusten duten joera oraindik ere nabarmen egonkorra da.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.


b) Gizarte-, ekonomia- eta hizkuntza-ezaugarriak

Geruza honen ISEKaren batez besteko maila ertain altua da Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan eta bi etapetan, eta duen ISEKaren batez besteko balioa Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik dago kasu guztietan. ISEK maila baxuko familietatik etorritako ikasleen portzentajea nahiko txikia da Lehen Hezkuntzan, % 9-10 artekoa. Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, ehunekoa nabarmen igotzen da eta % 20tik gorakoa da.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.


2.1.4.g. grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuaren ezaugarri sozioekonomikoen (ISEK) bilakaera.DBH



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Estratu honetan eskolatutako ikasleen familia-jatorriari dagokionez, 2.1.5.h grafikoa ikus daitekeenez, datuetan bilakaera ezagutzen bi ikasturteetan, ikasle etorkinen ehunekoa nahiko egonkor mantendu da Ebaluazio Diagnostikokoaren azken edizioetara arte (horietan gora egin du). Zifra horiek ez dute inola ere Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa gainditzen.

2.1.5.h grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuaren ezaugarri sozioekonomikoen (ISEK) bilakaera. DE. Lehen Hezkuntza 4.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.


Eskura ditugun datuen arabera, ikasle familiak euskaldunek gero eta presentzia txikiagoa dute estratu honetan: 2010etik hona, 2 puntu portzentual baino gehiago galdu dute Lehen Hezkuntzan eta DBHn. 2017an eskuragarri zeuden azken datuen arabera, % 7 ziren euskaldunak, eta DBHn % 2,9.

Ikasle familiak euskaldunen ehunekoen bilakaera						
Itunpeko B eredu (Iturria: Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	4,8	9,2	6,8	7,4	6,9	7,0
DBH 2	4,5	6,0	5,2	4,1	3,4	2,9


c) Emaiza akademikoak eta kanpo-ebaluazioetakoak

Estratu honetako Lehen Hezkuntzako ikasle ia guztiak mailaz igotzen dira (% 85 eta % 90 bitartean), eta % 90ek bi mailatan gainditzen dituzte irakasgai guztiak. DBHn, 2. eta 4. mailako ikasleen % 90 mailaz igarotzen dira, eta hamar ikasletik zazpi gainditzen dituzte curriculumeko irakasgai guztiak.

2.1.5.i. grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuan Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailatan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa



2.1.5.j grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuan DBHko 2. eta 4. mailatan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa.




Iturria: geuk egina, Ikuskaritzaren datuetan oinarrituta.


Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzei dagokienez, bi etapetan bi egoera gertatzen dira: batetik, *gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunean* eta *matematikarako gaitasunean* onargarri baino gehiagotzat jo daitezkeen emaitzak, eta, bestetik, *euskarazko hizkuntza-komunikazioan* asko hobetu daitezkeenak. Gainera, nabarmen okerrera egin dute azterlan honen azken edizioetan.

Une honetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 47k eta DBHko 2. mailako ikasleen % 58k ez dute gainditzen euskarazko errendimenduaren hasierako maila, eta Lehen Hezkuntzan 18 puntuko igoera eta DBHko 2. mailan ia 24 puntukoa egon da 2010etik 2017ra.

2.1.5.k. grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. LH 4.



2.1.5.l. grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. DBH 2.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Ebaluazio Diagnostikoaren datuen arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 7 inguru adinagatik dagokiona baino maila apalagoan eskolatuta daude, eta portzentaje hori % 20raino igotzen da DBHko 2. mailan.

Desegokitasun-egoeran dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera Itunpeko B eredua (Iturria: Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	6,5	8,1	7,7	7,6	7,2	6,9
DBH 2	17,8	20,9	20,9	21,2	18,6	19,7

d) Ondorioak

Estratu hau itunpeko sare pribatuaren heren bat inguru da aspaldidanik, nahiz eta Haur Hezkuntzan azken ikasturteetan ikusitako joera matrikulan pixka bat atzera egitea den. Estratu hau osatzen duten ikastetxeetako asko A eredukoak ziren lehen, eta, irakasleen euskalduntze mailakatuaren ondorioz, euskararen presentzia handiagoa duen eredu baterantz igarotzen joan dira, hots, B eredurantz.


Estratu honek, sare publikoko B ereduko mailetara iritsi gabe, ezaugarri sozioekonomiko eta hezitzaile arazotsuenak ditu sare pribatuko estratuen artean: ISEK maila baxuenekoa, maila sozioekonomiko baxuko ikasleen ehuneko handiena duena (% 20 baino gehiago DBHn), ikasle etorkin gehien dituen eta desegokitasun-egoeran dauden ikasle gehien dituen.

Ikasleen euskarazko gaitasuna nahiko defizitarioa da, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 36k eta DBHn hasierako errendimendu-mailan eskolatuta dauden ia % 60k baitute gaitasun hori.

2.1.6. Itunpeko D eredu pribatua


a) Matrikulatutako ikasleen, eskola-taldeen eta ordezkaritza bilakaera

Itunpeko D eredu pribatuak % 34 egin du gora 35 urte hauetan, ia 32.000 ikasle eta 2.000 talde gehiagorekin. Grafikoan ikusten denez, 1993-94 ikasturtean 18.000 ikasle baino gehiago galdu ziren, ikastolak publiko bihurtzeko prozesua burutu zelako, 1988ko Bateratze Legearen ondorioz. Izan ere, ordura arte sare berezia osatzen zuten ikastetxe horien erdiak baino gehiago ikastetxe publiko bihurtzea erraztu zuen lege horrek. Ikasturte horretatik aurrera, eta urte batzuetan matrikula geldituta egon ondoren, mende hasieratik aurrera etengabeko hazkundera izan da eta, horren ondorioz, itunpeko ikasleen eta taldeen kopurua bikoiztu da.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

1983an, eredu hau sare pribatuko eskola-populazio osoaren laurdena zen, baina, denbora horretan, haren portzentajea bikoiztu egin da, 2018an sare horren erdia bihurtzeraino, eta hezkuntza-sistemako eskola-biztanleria osoaren % 24 izateraino. Mende hasieratik, estratu honek hamarkada bakoitzean ia hamar puntu portzental handitu du bere hezkuntza-sarean duen presentzia.




Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Haur Hezkuntzan, 1996-97 ikasturtera arteko matrikula-galerako aldiaren ondoren, dagoeneko azaldutako arrazoiagatik 1993an izandako ikasleen murrizketa handiaz (-4.153), 2000. urtetik aurrera, 1.000 ikasle inguruko hazkundera hasi zen ikasturte bakoitzeko, mendearen lehen hamarkadaren amaierara arte. Harrezkero, kopuruan hazkundera biziki moteldu da azken bi ikasturteetara iritsi arte. Horietan, ikasleen beherakada txiki bat izan da, eta beherakada horrek


jarraitu egiten du 2018ko (25.904) eta 2019ko (25.408) behin-behineko datuei erreparatzen badiegu.

Eredu honen presentzia-portzentajea ez da inoiz % 40aren azpitik egon sare pribatuan (1993. urtean eta hurrengoetan izan ezik). Une honetan, itunpeko sareko Haur Hezkuntzako ikasle guztien % 62,4 da, eta % 29,6 etapa horretako ikasleen osotasuna kontuan hartzen badugu.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.


Lehen Hezkuntzan, 2000 ezkerro, aurreko etapetan ikusi dugun matrikulazio-igoera izan da, eta eredu honetan eskolatzen diren ikasleen kopurua ia bikoiztu egin da. 2018ko (35.291) eta 2019ko (35.534) behin-behineko datuek adierazten dute hazkunde leunaren joerak bere horretan jarraitzen duela.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, lehen hamarkadan, ikasleen egonkortasuna handia izan zen, igoera eta jaitsiera txikiekin. 2010 ezkerro, joera aldatu egin da, eta ikasturteko 1.000 ikasle inguru gehitu dira. Etapa honetan, aurreko bietan ez bezala, mantendu egin da igoera hori: 2018an 22.954 ikasle hartzen ditu eta matrikula 23.640 ikaslekoa izatera iristen da 2019ko behin-behineko datuen arabera.


Estratu hau sare pribatuaren % 31,4koa zen 2000. urtean, eta gora egin du Bigarren Hezkuntzako sarearen ia erdia (% 49,2) eta hezkuntza-sistema osoaren laurdena baino gehiago (% 26,3) hartzeraino.



Iturria: geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

b) Gizarte-, ekonomia- eta hizkuntza-ezaugarriak

Lehen Hezkuntzan, estratu honetako batez besteko ISEK maila goian mantendu da Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan, ISEK mailaren arabera bigarren estratu gisa kokatzen duen batez besteko balioaz, itunpeko A ereduaren atzetik. Maila sozioekonomiko baxuko familietatik datozen ikasleen ehunekoa oso txikia da etapa honetan (ikasleen % 3 baino ez dira).




Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, batez besteko ISEK maila lehenengo edizioetako ertain altutik azken lau datu-bilketetako altura igaro da. ISEKen balioa oso poliki hazi da, eta etengabe mantentzen da EAEko batez besteko mailaren eta gainerako estratuen gainetik, itunpeko A ereduaren salbuetsita.

Ebaluazio Diagnostikoan jasotako datuek adierazten dute ISEK baxuko ikasleen ehunekoan aldakortasun handia dagoela. Eskuragarri dagoen azken datuan, 2017an, ehuneko hori DBHko 2. mailako ikasleen % 15era iristen zen.


2.1.6.g. grafikoa. Itunpeko D eredu pribatuaren ezaugarri sozioekonomioen (ISEK) bilakaera. DBH.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Estratu honetako ikasle etorkinen ehunekoa da maila guztien artean baxuena (% 3 inguru bi etapetan), oso gorabehera leunekin eta igoera gutxirekin denboran zehar.

2.1.6.h. grafikoa. Itunpeko D eredu pribatuaren dauden ikasle etorkinen ehunekoaren bilakaera.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Estratu honetan da handiena ikasle familiaz euskaldunen presentzia: Lehen Hezkuntzan % 40 baino gehiago dira, eta DBHn % 30etik gora. Datu hori aldagai erabakigarria da euskarazko emaitzetan.

Ikasle familiaz euskaldunen ehunekoaren bilakaera						
Itunpeko D eredu pribatua (<i>Iturria:</i> Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	34,5	48,6	42,2	42,8	45,0	42,6
DBH 2	22,5	39,7	62,9	39,7	37,3	32,5

c) Emaidza akademikoak eta kanpo-ebaluazioetakoak

Emaidza akademikoekin lotutako datuak oso positiboak dira: Lehen Hezkuntzan % 99 eta DBHn % 96 inguru maila-igoera. Gainera, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailako ikasleen % 90ek eta DBHko 2. eta 4. mailakoen % 82k (gutxi gorabehera) gainditu dituzte irakasgai guztiak.

2.1.6.i. grafikoa. Itunpeko D eredu pribatuan Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa





Gráfico 2.1.6.j. grafikoa. Itunpeko D eredu pribatuan, DBH 2. eta 4. mailetan hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen eta irakasgai guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa.



Iturria: geuk egina, Ikuskaritzaren datuetan oinarrituta.


Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzei dagokienez, gainerako estratuetan ikusi ez den egoera bat gertatzen da: ikasleen ehunekoen hurbiltasuna hasierako mailan, bi etapetan.

Euskarazko hizkuntza-komunikazioan, 2010 ezkerro, hasierako errendimendu-maila gainditzeko gai ez diren ikasleen joera gero eta handiagoa da: 2017an, Lehen Hezkuntzako 4. mailan % 25etik eta DBHko 2. mailan % 30etik gora ziren. Bi ehuneko dakarte 2010etik ia bikoiztu egin dela D ereduan ikasteko oinarritzko hizkuntzan gaitasun txikia duten ikasleen kopurua.


Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunean, joera aurkakoa da: gutxieneko gaitasun-atalasea gainditzea lortzen ez duten ikasleen kopurua murriztu da. Eskuragarri dagoen azken datuan, 2017koan, % 11ra hurbiltzen da.

Azkenik, *matematikarako gaitasunean* egonkortasuna da nagusi DBHn, eta zertxobait txikiagoa Lehen Hezkuntzan. Edonola ere, hasierako maila duten ikasleen portzentaje txikia du, % 10 eta % 11 artekoa hain zuzen.

2.1.6.k.grafikoa. Itunpeko D eredu pribatuko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. LH 4.



2.1.6.l.grafikoa. Itunpeko D eredu pribatuko ikasleen bilakaeraren ehunekoa EDaren hasierako mailan. DBH 4.



Iturria: geuk egina, ISEI-IVEIren datuetan oinarrituta.

Estratu honetan desagokitasun-egoeran dauden ikasleen ehunekoa, Ebaluazio Diagnostikoan jasotako informazioaren arabera, murriztu egin da Lehen Hezkuntzako 4. mailan (% 4,4 2015ean) eta zertxobait handiagoa da DBHko 2. mailan (% 9,3).

Desagokitasun-egoeran dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera Itunpeko D eredu pribatua (<i>Iturria:</i> Ebaluazio Diagnostikoa. ISEI-IVEI)						
	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
LH 4	3,8	5,1	4,4	4,3	4,7	4,4
DBH 2	11,7	11,2	10,6	11,9	9,9	9,3

d) Ondorioak

1994tik aurrera estratu honek izandako etengabeko hazkundeak (bereziki handia mende hasieratik) sare pribatuan nagusi den eredu gisa kokatzen du orain eta etorkizunean. Une honetan, sarearen erdia baino gehiago da erregimen orokorreko irakaskuntzetan eta, zehazki, Haur Hezkuntzan, bere sarearen % 60 gaitzen du. Hazteko eta sisteman duen presentzia indartzeko joera argia du.

80ko hamarkadan bezala, geruza honek eskolatzen ditu gehienbat gure erkidegoko familia euskaldunak. Izan ere, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 40k baino gehiagok eta DBHko ikasleen % 30ek baino gehiagok du hizkuntza-ezaugarri hori.

Estratu hau ISEK maila altuan kokatzen da, baina maila sozioekonomiko baxuko ikasleen ehuneko txikiagoarekin (% 2 inguru Lehen Hezkuntzan). Ikasgeletan ikasle etorkinak % 3 inguru dira bi etapetan, eta desagokitasun-egoeran dauden ikasleen oso ehuneko txikia du, eta oso alde esanguratsua: emaitza hobeak ikasleen euskara-ikaskuntzan, azken urteetan behera egin arren.

D eredu publikoaz hitz egitean ez bezala, estratu honek ez du nabarmen aldatu ikasleen tipologia 2009tik 2017ra. Hala ere, ikusten da nabarmen okerrera egin duela euskarazko gaitasunak, ia 7 puntu portzentual hazi baitira Lehen Hezkuntzako eta DBHko errendimendu txikiko ikasleak, eta hori ez da gertatu ebaluatutako gainerako gaitasunetan.


2.2 Azken ondorioak eta etorkizunerako perspektibak

Estratu bakoitzean, dagokion etapan eskolatutako ikasleekin lotutako datuez gain, gizarte-, ekonomia-, hizkuntza- eta hezkuntza-ezaugarri batzuen bilakaera aztertu da, eta horiek, ikerketa gehienetan, azalpen-gaitasun handiagoa dute emaitzetan (ISEK, familia-jatorria, egokitasuna, familia-hizkuntza...). Halaber, errendimendu txikia duten ikasleen bilakaera erakutsi da Ebaluazio Diagnostikoan, baita azken bi ikasturteetan mailaz igo diren eta ikasgai guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoa ere. Azkenik, estratu bakoitzaren deskribapenaren amaieran jasotako ondorioetan, haien ezaugarrien analisi orokor labur bat egin da.

Atal honetan, estratu guztiak batera hartzen dira kontuan, hezkuntza-sistema osatzen duten estratuek etorkizunean izan dezaketen bilakaera ikusteko. Horretarako, lehenik eta behin, eskolatutako ikasleen bilakaera estratuka aurkezten da, bai kopuruari, bai ehunekoari dagokienez, hezkuntza-sistema osoaren bilakaera modu grafikoagoan eta globalagoan ikusteko. Jarraian, prozedura estatistiko bat aplikatzen da, 2024ko ikasturtera arte datu horietan izango den joeraren aurreikuspena eskaintzen duena. Kasu guztietan, azterketa Haur Hezkuntzan zentratzen da, etorkizuneko joerak ondoen aztertzeke aukera ematen digun etapa delako.

a) Estratu guztien bilakaera: eskolatutako ikasleak eta sisteman duten ordezkartza

Hurrengo bi grafikoetan, hezkuntza-sistemako sei estratuetan Haur Hezkuntzan eskolatutako ikasleen bilakaera aurkezten da; *2.2.a grafikoan*, 1984tik, eta, *2.2.b grafikoan*, 2000tik. Bi kasuetan, eskuragarri dauden datu guztiak sartu dira, baita Hezkuntza Sailaren 2018-19 eta 2019-20 ikasturteetako behin-behineko datuak ere, *Eustatek* oraindik ez baititu bere behin betiko datu-basean sartu.




Iturria: geuk egina, Eustaten eta Hezkuntza Sailaren datuetan oinarrituta.

Argi eta garbi ikusten denez, hiru estratu gainbeheran daude (A eta B eredu publikoak eta itunpeko A eredua), beste estratu batek sisteman presentzia esanguratsua izaten jarraitzen du baina beheranzko joera darama (itunpeko B eredua) eta bi estratu dira nagusi sisteman (D eredu publikoa, bere sareko ia ikasle guztiak biltzen dituena, eta itunpeko D eredua). Azken bi estratu horietan, era berean, ikusten da duela zenbait ikasturtetatik hona ikasle kopuruak behera egin duela jaiotza-tasa jaistearen ondorioz (jaiotsiera hori dagoeneko eraginkorra da adin hauetan), baina inguruabar horrek ez ditu nabarmen aldarazten bi estratu horien arteko aldea.

Hurrengo grafikoa, aurreko datu berberak aurkezten dira, baina estratu bakoitzak hezkuntza-sisteman duen ordezkartza-ehunekoan eraldatuta, 2000. urtetik 2019. urtera arte. 2000-01 ikasturtean, sare publikoko estratuek ikasleen % 52,6 eskolatzen zuten (2019-20 ikasturte honetako ehuneko bera), baina hiru estratuen arteko banaketan eraldaketa sakonarekin, eta hori sare pribatuan ere nabari da.


2.2.b. grafikoa. Haur Hezkuntzako estratu bakoitzak eskolatzen dituen ikasleen ehunekoaren bilakaera 2000-2017




b) Joera-aurreikuspena estratuka

Jarraian agertzen diren sei grafikoetan, estratu bakoitzak eskolatuko dituen ikasleen aurreikuspen estatistikoa jasotzen da, kontuan hartuta 2000-2001 ikasturtetik 2017-18 ikasturtera bitarteko matrikula ofizialaren joera eta azken bi ikasturteetako behin-behineko datuak. Agerian denez, aurreikuspen hori estatistika-ariketa hutsa da, eta, hortaz, malgutasun osoz eta zuhurtzia handiz hartu behar da. Izan ere, ezinezkoa da kontuan hartzea etorkizun hurbilean abian jar litezkeen lege-aldaketak edo bestelako aldaketak, horiek, zalantzarik gabe, estratuetako bakoitzeko etorkizuneko matrikulen bilakaeran eragin gutxi-asko handia izango bailukete.


2.2.c. grafikoa. A eredu publikoak hezkuntza-sisteman duen ordezkartzan izango duen etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspena.




2.2.d. grafikoa. B eredu publikoak hezkuntza-sisteman duen ordezkartzan izango duen etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspena.




2.2.e.grafikoa. D eredu publikoak hezkuntza-sisteman duen ordezkartzan izango duen etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspena.




2.2.f.grafikoa. Itunpeko A eredu pribatuak hezkuntza-sisteman duen ordezkartzan izango duen etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspena.



2.2.g. grafikoa. Itunpeko B eredu pribatuak hezkuntza-sisteman duen ordezkartzan izango duen etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspena.



2.2.h grafikoa. Itunpeko D eredu pribatuak hezkuntza-sisteman duen ordezkartzan izango duen etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspena.



Aurreko sei grafikoek, joeraren aurreikuspena betez gero, hainbat ondorio adierazten dizkigute:

Sare publikoan:

- A ereduak presentzia urria du, %0,3 ingurukoa, oso ikastetxe gutxitan dago eta, funtsean, Bilbon eta Gasteizen kontzentratuta dago.
- B eredu bi eta lau urte bitartean desagertuko da.
- D ereduak hazten jarraitzen du, funtsean B eredu publikoko ikasle-ekarpenagatik, eta sare publikoko eredu bakarra bihurtuko da.

Itunpeko sarean:

- A ereduak, nahiz eta oraindik ere bere presentzia zertxobait bat murrizten jarraituko duen, sistemaren % 2 inguruan egonkortuko da, ziur aski hizkuntza-proiektu espezifikoak dituzten ikastetxeekin lotuta gehienbat.
- B ereduak ere beheranzko joerari eutsiko dio, eta hamarren batzuk galduko ditu ikasturte bakoitzean, baina % 13 inguruan mantenduko da hurrengo ikasturteetan.
- D ereduak ehuneko puntu erdi inguru hazten jarraituko du hurrengo ikasturteetan, B ereduko ikastetxeak hizkuntza-eredu horretan sartzeagatik. Estratu honek sistema osoaren herena eskolatuko du hurrengo ikasturteetan.

Onartu beharra dago orain arte aurreratutakoa eta eskuratutako lorpenak oso garrantzitsuak izan direla: hori baliarazi behar dira, eta nabarmendu behar da, egungo EAEren egoera hizkuntza-ereduak ezarri ziren EAEkoarekin alderatzen badugu, aurrerapena oso nabaria dela.

Hala ere, esan bezala, oso denbora gutxian sare publiko guztia D eredukoa izango da, eta itunpeko sarea nagusiki D izango da, B presentzia esanguratsuarekin eta A eredu izaten jarraituko luketen proiektu espezifikoek multzo txiki bati eutsiz.

Horrek guztiak agerian uzten du Euskararen Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legean jasotako aurreikuspena —derrigorrezko irakaskuntzako ikasketak amaitzean ikasleei bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izateko benetako aukera baldintza berdinetan bermatzekoa (17. artikulua)— sakon aztertu beharra dagoela, helburu horretan aurrera egiteko aukeretan hizkuntza-ereduak baino modu erabakigarriagoan eragiten duten aldagai-baldintzatzaile batzuk daudelako.

Analisi horretan, honako gai hauek jorratu beharko lirateke, besteak beste:

- Aldeak euskararen hizkuntza-tratamenduan eta ikaskuntzaren emaitzak eredu bakoitzaren barruko errealitateetan.
- Hizkuntzaren, gizarte eta ekonomiaren eta kulturaren testuinguru bereizgarriek ikasleen ikaskuntza-erritmoetan eta -emaitzetan duten eragina, bai euskarari dagokionez, bai hizkuntza horretako gainerako curriculumaren ikaskuntzei dagokienez.
- Estratuen analisiak erakusten ditu horietako bakoitzean biltzen diren ikasleen desberdintasun sozioekonomikoak eta linguistikoak. Beharrezkoa litzateke ikastetxeen osaerari buruzko azterketa bat egitea, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatzeko behar diren neurriak hartzeko.
- Ikastetxeen hizkuntza-proposamenei erantzun egokia emateko irakasleak zer neurritaraino trebatuta dauden aztertu beharko litzateke (irakasleak euskararen erabilera arinean trebatzea, baita metodologia didaktiko espezifikoetan ere).

Gure sistemaren etorkizunari buruzko eztabaidan eta gogoetan, arreta jarri behar da ikasle guztien ikaskuntzan arrakasta lortzean, betiere gizarte-kohesioa bermatuta.

3.- EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN KONTU GILTZARRI BATZUK

3.1 EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN EMAITZAK

Txosten honen lehenengo kapitulan (euskal hezkuntzak nazioartean duen egoerari buruzkoan) adierazi denez, PISA ikerlanak neurtutako konpetentzietan errendimendu baxua duten ikasleen ehunekoa erreferentziatzat hartzea proposatu zuen Hezkuntza eta Prestakuntzarako 2020ko Estrategiak (ET 2020), Europar Batasuneko herrialdeen hezkuntza-errendimendua baloratzeko. Kapitulu horren 1.3.2. atalean, batetik, Euskadik adierazle horretan duen egoera zein den azaltzen da; bestetik, adierazle europarretatik abiatutako analisia egiten da, konpetentzietan hobetzeari begira, eta, azkenik, gure hezkuntza-sistemarako zenbait jarduketa-proposamen zehazten dira.

Bada, horretarako, bi kontu giltzarriri erantzungo zaie kapitulu honetan:

- Euskal ikasleek hurbileko hezkuntza-sistemen aldean duten errendimenduaren bilakaera
- Ikasleek euskaran duten konpetentzia-maila.
-


Euskal hezkuntza-sistemaren emaitzen eta errendimenduaren azterketa orokorra bakarrik egingo da, eta, horretarako, emaitza orokorrak ez ezik, banakapen batzuk ere aurkeztuko dira, emaitzen aldakortasunean eragin egiaztatua duten aldagai batzuen emaitza zehatzak ezagutzeko (sexua, hezkuntza-sarea, hizkuntza-eredua, errepikapena...).

3.1.1. Euskal ikasleen errendimenduaren bilakaeraren azterketa eta beste hezkuntza-sistema batzuekiko konparaketa.

Gaur egun, hezkuntza-sistema baten errendimendua baloratzeko, elkar osatzen duten bi eremu hartu behar dira erreferentziatzat: batetik, ikasleek hezkuntza-sistema osatzen duten etapetan (bereziki, oinarrizko derrigorrezko irakaskuntzan) eskuratzen dituzten emaitza akademikoen datuak, eta, bestetik, ikasleek kanpo-ebaluazio estandarizatueta eskuratzen dituzten puntuazioak ebaluaziook sistema ezberdinak konparatzea ahalbidetzen baitute (ebaluazioak propioak –ebaluazio diagnostikoa– nahiz nazioarteko erakundeek sustatutakoak –ELGEren PISA edo IEAren PIRLS– izan daitezke).

Gure hezkuntza-sistemaren emaitzen bilakaeraren gaineko ikuspegi zabalagoa edukitzeko eta joerak argi eta garbi hautemateko, bilakaera islatzen duten grafiko gehienek 2000/01 ikasturtetik datuak eskuragarri dauzkan azken ikasturterainoko datuak jasotzen dituzte (Eustatetik hartutako datuetan, 2016/17 ikasturtea izaten da azkena; Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren *DataBasetik* jasotako informazioak, aldiz, 2017/18 ikasturterainokoak izaten dira).


Honako irudi honetan islatzen dira lehen ataleko alderdiak.



3.1.1.1. Ikasleen emaitza akademikoekin zerikusia daukaten adierazleak

Emaitza akademikoak, legez, ikastetxe bakoitzeko irakasleen eta irakasle-taldearen erantzukizun zuzena dira, eta ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazio jarraitu eta formatiboaren ondorio izan behar dute. Prozesu horretan, ikasle bakoitzak egindako aurrerapenak jasotzen dira, eta kalifikazio batekin amaitzen da prozesua; maila-igoeran eta titulazioan ondorioak dauzkan kalifikazio batekin, alegia.

Honako irudi honetan ikus daitekeenez, atal honetan bi datu mota aurkeztu eta aztertuko dira: lehenik eta behin, ikasleek hezkuntza-sisteman egindako bideari buruzkoak (mailaz igotzen diren, egokitasun-egoeran dauden eta errepikatzen duten ikasleen ehunekoak), eta, bestetik, derrigorrezko eskolatzearen amaieran eta Batxilergoko etapan izandako graduazio-tasa. Adierazi den moduan, datuok modu orokorrean nahiz zenbait aldagairen arabera banakatuta jasotzen dira, autonomia-erkidegoen arteko konparazioekin eta, are, Europaren edo ELGEren mailako konparaketekin batera, ahal izan denean.



3.1.1.1.1. Gaitutuen eta mailaz igotakoen ehunekoak oinarritzko irakaskuntzan eta Batxilergoan.


Hezkuntza-une bakoitzean curriculum osatzen duten ikasgaiak edo diziplinak lege finkatutako baldintzetan gaitutzearen ondorioa da maila-igoera edo promozioa. Txosten honen 2. kapituluko estratuen araberrako analisisian ikusi denez, maila-igoeren ehunekoak eta ikasgai guztiak gaitutu dituztenen ehunekoak erlazioatuta daude, baina inoiz ez dute bat egiten; izan ere, promozioa ez dago ikasleek ikasgai guztiak gaitutzearen mende bakarrik: curriculumari buruzko dekretuek, ebaluazioei buruzko aginduek eta irakasle-taldearen erabakiek finkatutakoak baino ikasgai gehiago ez kateatzearen araberrakoa da.

a) Ikasgai guztiak gaitutu dituztenen ehunekoak

Eustaten datuekin egindako grafiko honetan, 2000/01 ikasturtetik 2016/17 ikasturtera bitartean Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan ikasgai guztiak gaitutu zituztenen batez besteko ehunekoak⁶⁸ jasotzen da. Ehuneko horretan, ikasgai guztiak gaitutu zituztenen eta etapa bakoitzean matrikulatuta zeuden arteko erlazioa adierazten da.

⁶⁸ https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_2321_in05.px

3.1.1.1.1.a) grafikoa. Ikasgai guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoaren bilakaera, etapan arabera, 2000/01etik 2016/17ra



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

Mendearen hasieratik hona, Lehen Hezkuntzan ikasgai guztiak gainditu dituzten ikasleen batez besteko ehunekoa nahiko egonkorra izan da, % 82ren eta % 83ren artekoa. Grafikoa jaso diren azken ikasturteetan, % 83a gainditu da.

DBHko ehunekoak Lehen Hezkuntzakoak baino zertxobait baxuagoak dira, ordea. Bien arteko aldea 20 portzentaje-puntuak gainditzera iritsi zen, baina 2007/08 ikasturtetik aurrera ikasgai guztiak gainditu zituzten ikasleen hazkundea gorakorra izan zela ikus daiteke. Grafikoa islatzen diren 17 ikasturteetan, ehunekoa 10 portzentaje-puntutan hazi da.


Batzilergoan ere, joera oso ona da, grafikoa jasotzen den aldia 15 portzentaje-puntu egin baititu gora; are, Lehen Hezkuntzako batez besteko datua urratzera iritsi da, datu horixe izanik kontuan hartutako etapan artean altuena.

b) Promozioen ehunekoak, etapaka

Hiru etapetan ikasgai guztiak gainditzeko gai diren ikasleen ehunekoan izandako hobekuntzaren ondorioz, mailaz igotzen diren ikasleen ehunekoak ere hobera egin dute; batzuetan, hobekuntza handia izan da oso⁶⁹. Eustatek datu bidez jasotako azken ikasturtean (2016/17 ikasturtean), Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen % 98,2, DBHko ikasleen % 90 eta Batxilergoko ikasleen % 91 hurrengo maila, ziklo edo etapara igaro dira. 17 ikasturteetan, 3 portzentaje-puntuko igoera egon da Lehen Hezkuntzan, 8,2 puntukoa DBHn eta ia 13 puntukoa Batxilergoan, eta sakon aztertu beharko da hori.

⁶⁹ https://eu.eustat.eus/bankup/pxweb/eu/euskara/-/PX_2321_in06.px

3.1.1.1.b) grafikoa. Mailaz igotzen diren ikasleen ehunekoaren bilakaera, etapaka, 2000tik 2016ra




Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

Lehen Hezkuntzako hobekuntza orokorra da; izan ere, *Eustatek* jasotako datuen arabera, promozioen ehunekoen igoera nahiko homogeneoa da bi sareetan eta hiru hizkuntza-ereduetan. Sexuaren arabera bakarrik ikus daiteke igoera zertxobait handiagoa dela mutikoen artean (+3,7 puntu), nesken artean baino (+2,8 puntu).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere, hobekuntza orokorra da, baina, grafiko honetan ikus daitekeen moduan, alde handiak daude: sare publikoak ehunekoak hobetu ditu, 10 puntutan egin baitu gora, mutilek bezalaxe. Itunpeko sareak eta neskek ere igoera izan dute.

3.1.1.1.c) grafikoa. DBHn mailaz igotzen diren ikasleen ehunekoen konparaketa, zenbait aldagairen arabera.




Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

3.1.1.1.1.d) grafikoa, zenbait informazio interesgarri jasotzen dira: batetik, DBHko maila bakoitzeko eta etapa bakoitzeko azken mailako bi modalitateetako promozioen ehunekoak, eta,

bestetik, lurralde historiko bakoitzak etaparen maila bakoitzean izandako ehunekoak. Hainbat kontu ondoriozta daitezke:

3.1.1.1.1.d. grafikoa. DBHko mailetan mailaz igotzen diren ikasleen ehunekoa, lurraldeka. 2017-18 ikasturtea.




Iturria: Guk geuk egina, EducaBaseren datuetatik abiatuta. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.

- Ikuspegi orokor batetik begiratuta, etaparen erdialdean daude promozioen ehuneko baxuenak, DBHko 2. eta 3. mailan, hain zuzen ere, hiru lurralde historikoetan.
- Lurraldeen arabera egindako analisian, Gipuzkoa da maila guztietan ehuneko onenak dituen probintzia; ondoren, Bizkaia dator, eta, azkenik, Araba, etaparen maila guztietan azpitik baitago (kasu batzuetan, aldeak handiak dira: DBHko 3. mailan, adibidez, Gipuzkoan baino ia 6 puntu gutxiago dauzka Arabak).


Batxilergoari dagokionez, ehunekoen hobekuntza DBHn atzemandakoa baino hobea dela adierazi da dagoeneko. Hobekuntza orokor hori, halaber, aztertutako aldagaietan ere gertatu da, baina intentsitate ezberdinez: batetik, sare publikoak 17 puntutan hobetu du promozioen ehunekoa, eta pribatuak 8 puntutan; bestetik, A ereduak gainerako hizkuntza-ereduek baino hobekuntza handiagoa izan du

3.1.1.1.1.e) grafikoa. Batxilergoan mailaz igotzen diren ikasleen ehunekoen konparaketa, zenbait aldagairen arabera.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

Autonomia-erkidegoen konparaketan, Lehen Hezkuntzako 6. mailari dagokionez, aldeak urriak dira: ehuneko handiena duen autonomia-erkidegoaren (Valentzia) eta ehuneko txikiena duen autonomia-erkidegoaren (Murtzia) artean, ez daude 2 portzentaje-puntu ere. Euskadi % 98ko promozioa gainditzen duten bederatzia autonomia-erkidegoen artean dago. Autonomia-erkidego batzuetatik besteetara, sexuaren edo hezkuntza-sarearen arabera distantziak ere oso txikiak dira, eta gauza bera gertatzen da lurralde historikoen arabera analisiaren ere, aldeak ez baitu portzentaje-puntua gainditzen.




Iturria: Guk geuk egina, EducaBaseren datuetatik abiatuta. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan, autonomia-erkidegoei dagokienez, alde handiak ikus daitezke promozioen ehunekoetan. Euskadi da derrigorrezko eskolatzeari amaitzean maila-igoera edo promozio altuena duen erkidegoa (2017/18 ikasturtean, % 93,2koa), eta ehuneko txikiena duen erkidegoak baino 12,1 puntu gehiago ditu (Gaztela-Mantxa da azken erkidego hori). Euskadik mailaz igotzen diren ikasleen 7,4 puntu gehiago dauzka, estatuko batezbestekoak baino.

Sexuaren arabera, euskal neska-mutilek dute promozioaren ehuneko handiena derrigorrezko eskolatzeari amaieran, eta estatuko batezbestekoarekin alde nabarmenak dauzkate. Maila horretan, euskal neskak mutilak baino gehiago igotzen dira mailaz, 4 portzentaje-puntu gehiagorekin.

3.1.1.1.1.g) grafikoa. DBHko 4. mailan mailaz igotzen diren ikasleen ehunekoa, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2017-18 ikasturtea



Iturria: Guk geuk egin, EducaBaseren datuetatik abiatuta. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

3.1.1.1.2. Egokitasun-tasa eta errepikatzen duten ikasleen ehunekoa

Egokitasun-tasa eta errepikapenaren ehunekoa ez dira datu berdin-berdinak, nahiz eta biek duten zerikusia eskolako errendimenduari eta porrotarekin. Egokitasun-tasa neurri giltzarria da hezkuntza-sistema baten emaitzetan, adinaren arabera dagokien mailan eskolatuta dauden eta, hortaz, derrigorrezko eskolatzeari behar bezalako bilakaera duten ikasleen ehunekoa adierazten baitu. Hau da, egokitasun-tasa espero den bilakaera da. Errepikapenaren ehunekoak, aldiz, indarreko hezkuntzako maila bakoitzari dagozkion xedeak lortzen ez dituzten ikasleak islatzen ditu. Egokitasun-tasak biztanleriarekin du zerikusia, eta, beraz, adinarekin; errepikapenaren ehunekoak, berriz, ikasleak urte akademiko bakoitzean zein mailatan matrikulatuta dauden jasotzen du.


Ikasle bat egoera ezegokian egon daiteke, mailarik errepikatu gabe ere, baina errepikatu duten ikasle guztiak daude egoera ezegokian. Egoera ezegokiak hainbat arrazoi izan ditzake atzean: maila bat edo gehiago errepikatzea, gaixotasun baten ondorioz berandu eskolatzeari edo sartzei, etorkina izateagatik eskolako hizkuntza ez jakitea edota jatorrizko herrialdeko sistema oso ezberdina izatea. Hala ere, ikusiko dugunez, gure sisteman errepikapena da egoera ezegokiak sortzeko arrazoi nagusia.

a) Egokitasun-tasak

*Eustaten*⁷⁰ datuak jasotzen dituen egokitasun-adierazlean, lau adin teoriko hautatu dira: 9 eta 11 urteak, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailekin bat egiten dutenak, eta 13 eta 15 urteak, DBHko 2. eta 4. mailekin bat egiten dutenak (halaber, 15 urteak Oinarritzko Lanbide Heziketaren hasierarekin erlazionatuta daude).

⁷⁰ https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_2321_in10.px Adin horiek hautatu dira, etapa bakoitzaren erdialdeko eta amaierako Ebaluazio diagnostikoan egiten diren mailekin bat egiten dutelako. Ikus dezakegunez, *Eustatek* argitaratutako egokitasun-datuak ez dute guztiz bat egiten Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak argitaratutako datuekin; hala ere, joerak berberak dira.

3.1.1.1.2.a) grafikoa. 9, 11, 13 eta 15 urterekin dauden egokitasun-tasen bilakaera.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

Islatzen denez, 9 eta 11 urterekin dagoen egokitasun-tasak okerrera egin du 2000/01 ikasturtetik 2017/18 ikasturtera, 5 portzentaje-puntu egin baititu behera.

13 urterekin, berriz, tasa % 90 inguruan mantendu da 2000/01 ikasturtetik 2003/04 ikasturtera bitartean, baina, 2004/05 ikasturtetik aurrera, beherakada handia egon da, egokitasun-tasa % 82,1era jaitsi baita (10 puntu beherago).


Alabaina, 15 urteko ikasleek dauzkate ehuneko txikiak (haien erreferentziazko maila 4. DBH da), % 73 ingurukoak izan baitira azken ikasturteetan.

Hortaz, egokitasun-tasak ez digu gure sistemaren oso irudi ona ematen: egokitasunaren ehunekoek behera egin dute lehen urteetan (9 eta 11 urte); 13 urterekin, beherakada handi baten ondoren, ehuneko horrek nolabaiteko egonkortasuna lortu du 2005etik aurrera, egoera ezegokiaren tasa % 15 baino zertxobait handiagoa izaki, baina, batez ere, honako hau da nabarmentzekoa: 2017/18 ikasturtean, DBHko 4. mailako ikasleen % 27 ez daude dagokien mailan.

Zalantzarik gabe, ordea, honako hau izan liteke daturik kezagarriena eta, beraz, halabeharrez arreta berezia behar duena, goranzko joera erakusten baitu: 9 urteko ikasleen % 8 haien adinkideak baino atzerago daude, eta Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 4. mailara bitarteko mailaren bat errepikatu dute. Ikusiko dugun moduan Lehen Hezkuntzan behin bakarrik errepika daitekeenez, 4. mailan aurreko berehalako adin-taldera sartzen den % 8 hori hortxe geratzen da etapa amaitu arte (*promozio automatiko* esan ohi zaio). Gure ikasleak Bigarren Hezkuntzara iristen direnean, adin-talde bakoitzaren % 11 edo 12 inguru ez dira egokitasun-egoeran egoten. Gero baieztatuko den moduan, badakigu Bigarren Hezkuntzan errepikatzeko iragarle handiena Lehen Hezkuntzan errepikatu izana dela; horrenbestez, Lehen Hezkuntzan errepikatzen duten ikasleen zati handi batek DBHn ere errepikatuko du, etapa horretako edozein mailatan berriro errepika daiteke-eta. Bada, ibilbide osoan lehen aldiz DBHn errepikatzen dutenak gaineratu behar zaizkie ikasle horiei.

3.1.1.1.2.b) grafikoa, sexuaren arabera banatuta jaso dira egokitasun-tasak. Lehen Hezkuntzari dagozkion bi adinetan (9 eta 11 urte), nesken tasa mutilena baino bi puntu handiagoa da, eta, azken mailan, ia hiru puntu handiagoa da.

3.1.1.1.2.b) grafikoa. 9, 11, 13 eta 15 urterekin dauden egokitasun-tasen bilakaera, sexuaren arabera.




Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

Bi urte beranduago, 13 urterekin, guztizko egokitasun-tasek 6 puntu egin dute behera, eta neskenak mutilenak baino 6 puntu altuago daude. Hau da, biurteko batetik beste batera igarotzean, neskek mutilen aldean duten abantaila 1,5 portzentaje-puntutan hazten da. 15 urterekin, nesken eta mutilen egokitasun-tasetan dagoen ezberdintasuna 11 puntura iristen da. Laburbilduz: nesken eta mutilen arteko aldeek modu mailakatu eta nabarmenean gora egiten dute nerabezaro bete-betean daudenean.

Autonomia-erkidegoen araberrako alderaketan ondorioztatzen denez, erreferentziazko adin guztietan egokitasun-tasa altuenak dauzkaten erkidegoen artean dago Euskadi.

Gráfico 3.1.1.1.2.c. 3.1.1.1.2.c) grafikoa. 8, 10, 12, 14 eta 15 urterekin dauden egokitasun-tasak, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016-17 ikasturtea.



Iturria: Adierazleen sistema estatala. INEE. Erkidegoak 15 urteko tasaren arabera ordenatuta daude.


b) Maila errepikatzea

Egokitasun-tasarekin batera, ikasleek eskolatzeko-prozesuan egiten duten ibilbidea karakterizatzea ahalbidetzen du errepikapenaren ehunekoak⁷¹. Adierazle horrekin, eskola-porrota handiena duten mailak zein diren jakiteko informazio espezifikoak erakuts daitezke. Atal honetan, gure sisteman Lehen Hezkuntzak, DBHk eta Batxilergoak duten bilakaera aztertzen da, eta Europako herrialde batzuekin eta autonomia-erkidegoekin alderatzen.

○ Lehen Hezkuntza

*Eustaten*⁷² datuak jasotzen dituen 3.1.1.1.2.d) grafikoan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako errepikatzaileen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke, 2000/01 ikasturteetik 2017/18 ikasturtera bitartekoa. Errepikatzaileen ehunekoak ia hiru puntu behera egin dituela ikus daiteke: jaitsiera argi eta ona da. Ikastetxe publikoek nahiz itunpeko pribatuak antzeko proportzioan hobetu dute adierazle hau: 3,1 puntu eta 2,8 puntu, hurrenez hurren.

3.1.1.1.2.d) grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. mailako errepikatzaileen ehunekoaren bilakaera. Guztira eta sarearen arabera.




Iturria: Guk geuk egina, *Eustaten* datuetatik abiatuta.

Sexuaren araberako aldea ere murriztuz joan da: 2000/01 ikasturtean 2,1 puntukoa izatetik 2017/18 ikasturtean 0,8koa izatera igaro da, etaparen maila horretako errepikatzaileen kopurua murrizteko joera orokorrari jarraikiz.

⁷¹ EAEko indarreko legediaren arabera, Lehen Hezkuntzan ikasleak beti igotzen dira mailaz, xedeak gainditu dituztela eta konpetentziak behar beste garatu dituztela balioesten bada. Hala izan ezean, etapa osoan behin bakarrik errepikatuko dute, errefortzu- edo errehabilitazio-plan espezifiko batekin. DBHn, egindako ikasgai guztiak gainditzen dituztenean edo gehienez ere bi ikasgaietan ebaluazio negatiboa izan dutenean igotzen dira ikasleak mailaz, eta hiru ikasgai edo gehiago kateatzen dituztenean errepikatzen dute, baita aldi berean Hizkuntza eta Literatura eta Matematika kateatzen dituztenean ere. Salbuespenez, hiru ikasgaietan ebaluazio negatiboa edukita mailaz igotzea baimenduko da, baldintza jakinetan eta irakasle-taldeak legedian ezartzen diren inguruabarrak daudela balioesten duenean.

⁷² Lehen adierazienez, *Eustaten* datuek ez dute guztiz bat egiten Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datu-basean eskuragarri daudenekin. *Eustaten* datuak erabiltzen ditugu, bilakaera osoa ikustea eta, gainera, hezkuntza-sarearen arabera egitea ahalbidetzen digutelako.


3.1.1.1.2.e) grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. mailako errepikatzailen ehunekoaren bilakaera. Guztira eta sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

Alabaina, aurreko grafikoek eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako joeretatik logikoki atera daitezkeen ondorio baikorrek errepikapenak etapa horretan duen egoera gaizki ulertzea eragin dezakete. 2017/08 ikasturtean Lehen Hezkuntzako sei mailetan izandako errepikapenaren ehunekoa aztertuz gero, zeina 3.1.1.1.2.f) grafikoa jasotzen den, hiru kontu garrantzitsu egiaztatu daitezke:

3.1.1.1.2.f) grafikoa. Lehen Hezkuntzako errepikatzailen ehunekoaren bilakaera, mailaren eta sarearen arabera. 2017-18 ikasturtea.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren⁷³ datuetatik abiatuta.

- Errepikapenaren ehunekoa baxua da maila guztietan, eta ez dago alde handirik: ikasleen % 1,5etik % 3ra bitartean dira errepikatzailak. Zalantzarik gabe, deigarria da ehuneko handienak etaparen lehenengo bi mailetan egotea (Lehen Hezkuntzako 2. mailan, batez ere), ikasleen % 3 baitira errepikatzailak (beste mailetakoko ehunekoa bikoizten da).

⁷³ <http://www.educacionyfp.gob.es/educacion/mc/cee/publicaciones/informes-del-sistema-educativo/informe-2019.html>

- Sareen arabera azterketan ikus daitekeenez, ikastetxe pribatuetakoa ehunekoak oso egonkorak dira, eta maila bakoitzean matrikulatutako ikasleen % 1 inguru dira errepikatzaileak. Sektore publikoan, ordea, aldakortasun handiagoa dago, eta, maila batzuetan, hirukoiztu egiten da ikastetxe pribatuetakoa errepikatzaileen ehunekoak; bereziki, etaparen 2. mailan, sare publikoko ikasleen % 4,5ek errepikatzen baitute eta sare pribatuarekin 3,1 puntuko aldea baitago.
- Eta, azkenik, kontuan hartzekoa da aurreko grafikoan jasotzen diren ehunekoak etaparen sei mailetakoa bakoitzean errepikatzen duten ikasleen kopurua baino ez digutela adierazten; izan ere, datu horrekin, arazoaren dimentsioaren gaineko balorazio okerra egin dezakegu. Errepikapenaren fenomenoak etapa honetan zer esan nahi duen irudikatzeko, ezinbestekoa da maila bakoitzeko errepikapenaren ehunekoak batzea: Lehen Hezkuntzan matrikulatutako ikasleen % 12,3k mailaren bat errepikatu dute (ikastetxe publikoetako ikasleen % 17,8k eta ikastetxe pribatuetakoa ikasleen % 6,6k). Laburbilduz, ikasle horiek guztiek atzerapen akademikoarekin hasten dute Bigarren Hezkuntza, eta hezkuntza-sisteman egingo duten ibilbide osoa baldintzatzen du horrek.
- Ondoren, Euskadik Lehen Hezkuntzako 6. mailan gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta duen egoera jasotzen da: Kataluniak bakarrik dauka errepikatzaileen ehuneko txikiagoa. Ehunekoak baxuak izan arren, distantzia handia da, ia hirukoiztu egiten baitugu Kataluniakoa. Errepikatzaileen ehuneko handiena duen erkidegotik (Murtziatik) 2,7 portzentaje-puntura dago Euskadi.

3.1.1.1.2.g) grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. mailako errepikatzaileen ehunekoak, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017/18 ikasturtea



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuetatik abiatuta.

○ **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**


DBHko errepikapena aztertzen hasi aurretik, gogorarazi beharra dago etapa honetara igarotzen diren ikasleen % 12 inguru mailaren bat atzeratuta datozela, Lehen Hezkuntzan mailaren bat errepikatu izanagatik. Errepikatzaileen ehuneko horri, ondoren, Bigarren Hezkuntzan maila bat edo gehiago errepikatuko dituztenak gaineratuko zaizkio. Bi datuak batuta, derrigorrezko hezkuntzako errepikatzaileen ehunekoa aterako da. J. Carabañak *Repetición de curso* y

*puntuaciones PISA ¿Cuál causa cuál?*⁷⁴ lanean adierazten duen moduan, «Bigarren Hezkuntzan errepikatzeko iragarle handiena Lehen Hezkuntzan errepikatu izana da».

Errepikapenaren ehunekoaren bilakaera ikusten denez, Lehen Hezkuntzan gertatzen denaren antzera, beherakada handia dago derrigorrezko eskolatzearen amaieran. Joeran, bada, bi fase bereiz ditzakegu: lehenengoan, 2000/01 ikasturtetik 2010/11 ikasturtera bitartekoan, ehunekoek izugarri egiten dute behera, eta, bigarrenetik aurrera, ehunekoak egonkortu egiten dira.

Sareen arabera, bi sareek murriztu dute hiru aldiz errepikatzailen ehunekoa; DBHko ikastetxe publikoek 11 puntu jaitxi dituzte, eta itunpeko pribatuak 7.


3.1.1.1.2.h) grafikoa. DBHko 4. mailako errepikatzailen ehunekoaren bilakaera, guztira eta sarearen arabera.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.


Sexuaren araberako azterketan, ohikoa denez, neskek errepikatzen dute gutxien: 2017/18 ikasturtean, 2 puntuko aldea dago bi taldeen artean. Ehunekoaren bilakaera, mutilek 9,5 puntutan murriztu dute ehunekoa, eta neskek 7,8 puntutan

3.1.1.1.2.i grafikoa. DBHko 4. mailako errepikatzailen ehunekoaren bilakaera, guztira eta sexuaren arabera.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

3.1.1.1.2.j) grafikoan, DBHko maila guztietako errepikatzaileen ehunekoa jasotzen da: lehenengo mailako ikasleen % 7,3 errepikatzailea da; tarteko bi mailetan, errepikatzaileen ehunekoa % 6 baino handiagoa da, eta ehuneko hori % 4,4ra jaisten da etaparen amaieran. 2017/18 ikasturtean, derrigorrezko etapetan pilatutako errepikapenaren ehunekoa % 24,2koa da.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Hona hemen datu on bat: bi sareen arteko distantzia 6,5 puntukoa da DBHko 1. mailan, baina 2,7ra jaisten da etaparen amaieran.

Datuak autonomia-erkidegoen arabera ematen dituen 3.1.1.1.2.k) grafikoan jasotzen denez, 2016/17 ikasturtean DBHko 4. mailan matrikulatutako euskal ikasleen % 76,2k 15 urte zituzten; hortaz, adinaren arabera zegokien mailan zeuden. Gainerako % 23,8k 15 urte baino gehiago zeuzkaten, eta maila bateko edo gehiagoko atzerapena zuten: % 13,2k Lehen Hezkuntzan pilatu zuten atzerapena, eta % 10,6k DBHn.


Euskadi da 15 urterekin egokitasunaren ehuneko handiena duen bigarren autonomia-erkidegoa; Kataluniatik 3 puntura dago, horixe izaki adierazle honetan buru. Estatuko batezbestekoa % 30etik gora dago, eta, erkidego batzuetan, ikasleen % 40k dute atzerapen akademikoa.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Azkenik, hona hemen 2018ko PISA txostenetik ateratako datuak, eskolatzeko-prozesuan gutxienez behin errepikatu duten 15 urteko ikasleen ehunekoa. ELGEko herrialdeen batezbestekoa % 11,4koa da: oso urrun dago Euskadiko datutik (% 20) eta estatuko batezbestekotik (% 28,7). Grafikoan jasotzen diren herrialdeek, oro har, Belgika eta herrialde iberiarrak (Portugal eta Espainia) kenduta, errepikapenaren askoz ere ehuneko baxuagoak daukate adin horretan. Euskadiko datua Erresuma Batukoa baino zortzi aldiz handiagoa da, eta ELGEren batezbestekoaren bikoitza ia⁷⁵.

3.1.1.1.2.l) grafikoa. EBko herrialdeetan eta Euskadin noizbait errepikatu duten 15 urteko ikasleen ehunekoa. 2018. PISA txostena



Iturria: Guk geuk egina, PISA-ELGEren datuetatik abiatuta.


○ **Batxilergoa**

○

Batxilergoa derrigorrezko etapen ondorengoa da, eta, *Eustaten* datuen arabera, errepikapen-tasaren bilakaera ona ikus daiteke bertan, aurreko etapen antzekoa. Grafikoan jasotzen diren 18 ikasturteetan, errepikapenaren batezbesteko orokorra % 13,5etik % 4,9ra jaitsi da etapa honetan; hots, 8,6 portzentaje-puntu egin ditu behera. Azken hiru ikasturteetan, ehunekoa % 5 ingurukoa izan da.


⁷⁵ Errepikatzaileen emaitzen azterketa espezifikoa goa topa daiteke 2018ko PISA txostenaren 3.1.1.2.2. atalean.

3.1.1.1.2.m) grafikoa. Errepikatzaileen ehunekoa, Batxilergoan matrikulatutako ikasleei dagokienez, mailaren arabera. Euskadi. 2017/18 ikasturtea.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

3.1.1.1.2.n) grafikoa. Ikasleek Batxilergoko 2. mailan duten adinaren arabera ehunekoen banaketa. Euskadi. 2017/18 ikasturtea.




Datuak eskuragarri dauzkan azken ikasturtean (2017/18), ikasleen % 83 inguruk 17 urte dauzkate; Batxilergoko 2. mailari dagokion adina, hain zuzen ere. Mutilen % 80,5ek eta nesken % 84,7k 17 urte dauzkate, eta, hortaz, adinaren arabera dagokien mailan daude.

Gainerako % 17aren barruan, % 12,7k 18 urte dauzkate (erreferentziarako adinari dagokienez, ikasturte bateko atzerapena dute); % 3,3k bi urteko atzerapena dute, eta % 1,2k hiru urteko edo gehiagoko atzerapena dute.

Bilakaera ona hezkuntza-sareen arteko konparaketan ere atzeman daiteke: 18 ikasturtetan, ikastetxe publikoek 11,4 portzentaje-puntutan murriztu dute etapa honetako errepikatzaileen kopurua, eta ikastetxe pribatuak 5 bat puntutan egin dute behera. Ondorioz, 2000/01 ikasturtean bi sareen artean zeuden 8,4 puntuak nabarmen murriztu dira, 2017/18 ikasturtean 1,9 puntuko aldea baitago.


3.1.1.1.2.ñ) grafiko. Batxilergoko erreikatzailen ehunekoaren bilakaera, sarearen arabera. Euskadi. 2000-2017.



Iturria: Guk geuk egina, Eustaten datuetatik abiatuta.

Autonomia-erkidegoen araberrako konparaketan, Euskadi buru dago, ikasleen % 5,3k errepikatu baitute mailaren bat Batxilergoan (Eustatek emandako datuarekin alderatuta, 0,4 hamarrenen aldea dago); hau da, estatuko batezbestekoak baino % 4 gutxiagok.

3.1.1.1.2.o) grafiko. Ikasle errepikatzaileen ehunekoa, Batxilergoan matrikulatutako ikasleei dagokienez, mailaren eta autonomia-erkidegoaren arabera. 2017-18 ikasturtea.



Iturria: Estatuko Eskola Kontseiluaren 2019ko txostenetik hartu eta egokitu da⁷⁶.

⁷⁶ ntic.educacion.es/cee/informe2019/i19d129.xlsx


3.1.1.1.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduazio-tasa gordinak

Denbora askoan, eskola-porrotaren kontzeptua erabili izan da derrigorrezko eskolatzea aurreikusitako adinean⁷⁷ arrakastaz amaitzen ez duten eta, ondorioz, titulua lortzen ez duten gazteen ehunekoa izendatzeko. Eta, fenomeno hori neurtzeko, DBHko titulazio-tasa gordinak erabili izan da, geroko ikasketetarako betekizun akademikoa baita. DBHko graduazio-tasa gordinak, bada, DBH amaitutakoan (adina edozein izanik ere) titulua lortzen duten ikasleen eta urte horretako urtarilaren 1ean 15 urte dauzkaten gazteen arteko erlazioa da.

Grafiko honetan jasotzen den 17 urteko aldian, Bigarren Hezkuntzako batez besteko graduazio-tasa % 84,5ekoa da, eta azken ikasturteak batezbesteko horretatik gora daude. Ikus daitekeenez, bilakaeraren joera nahiko egonkorra da ehunekoetan, nahiz eta ikasturte batzuetan 4 portzentaje-puntu inguruko aldeak egon.

Sexuaren arabera, neskek dauzkate tasa altuenak, % 88,9ko batezbestekoarekin; hau da, mutilek baino ia 9 puntu gehiago dauzkate, azken horiek nekez gainditzen baitute % 80ko batezbestekoa. Beste etapa batzuetan ikusi den datu ona da, ordea, bi sexuen ehunekoen arteko distantzia murrizten joan dela 2000/01 ikasturteko 11 puntuetatik 2017/18 ikasturteko 8 puntuetaraino.

3.1.1.1.3.a) grafikoa. DBHko graduazio-tasa gordinaren bilakaera, guztira eta sexuaren arabera. 2017-18 ikasturtea.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Autonomia-erkidegoen konparaziozko analisian, Euskadi buru dela ikus daiteke: 2017/18ko ikasturtean, % 86ko graduazio-tasa dauka, estatuko batezbestekotik 8 puntu gora eta hurrengo erkidegotik (Nafarroa) 3 puntura.

⁷⁷ Europar Batasunean, ez dago adierazle homogeneorik, estatu kideetan askotarikoak baitira Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapako (HNSN 2) xedeen lorpena egiaztatzeko moduak. Are, herrialde batzuetan, maila lortzea ez dago lotuta maila hori arrakastaz amaitu izana egiaztatzen duen titulazioa eskuratzearekin: zenbait eskolatze-urte egin izanarekin dauka zerikusia.

3.1.1.1.3.b) grafikoa. DBHko graduazio-tasa gordina, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017-18 ikasturtea.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Aintzat hartu behar da lehen azaldutako tasa gordina ez dela DBHko 4. mailan matrikulatuta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua eskuratu duten ikasleen ehunekoa (lehenengoak 15 urteko biztanleekin dauka zerikusia, eta bigarrenak maila horretan matrikulatuta egotearekin). Hurrengo grafikoa jasotzen denez, maila horretan matrikulatutako euskal ikasleen % 92,3k graduatua eskuratu zuten, estatuko batezbestekoak baino % 7,5 gehiagok eta ehuneko txikiena duen erkidegoak (Gaztela-Mantxa) baino % 13 gehiagok.

Grafikoa, hezkuntza-sarearen arabera ere sartu da: erkidego guztietan handiagoa da itunpeko ikastetxe pribatuetan, publikoetan baino. Arlo honetan, Euskadik badu datu onik ere: Nafarroarekin batera, bi sareen artean alde txikiena duen erkidegoa da.

3.1.1.1.3.c) grafikoa. DBHko 4. mailan graduatuaren titulua lortu duten ikasleen ehunekoa, ebaluatutako ikasleei dagokienez, hezkuntza-sarearen eta autonomia-erkidegoaren arabera. 2016-17 ikasturtea.



Iturria: Estatuko Eskola Kontseiluaren 2019ko txostenetik hartu eta egokitu da⁷⁸.


⁷⁸ ntic.educacion.es/cee/informe2019/i19d203.xlsx

3.1.1.1.4. Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzako graduazio-tasa gordinak: Batxilergoa

2017/18 ikasturtean, Batxilergoa amaitu duten biztanleen tasa gordina % 67,8koa izan da; hau da, 17 urteko biztanleen % 32,3 ez daude etapa horretan eskolatuta (Batxilergoko 2. mailako erreferentziatzeko adina 17 da), beste ikasketa batzuetan baizik. Bada, ehuneko hori ez da Batxilergoa errepikatzen duten ikasleen ehunekotzat jo, eta ezin daiteke oso-osorik eskolaporrot gisa hartu. Gogoratu beharra dago Batxilergoko 2. mailako errepikatzaileak ez direla % 7ra iristen (ikusi 3.1.1.1.2.m) *grafikoa*) edo 17 urterekin dagoen egokitasun-tasa % 74ra iristen dela maila horretan.

Grafikoan, halaber, informazio interesgarri hau ikus dezakegu: sexu bakoitzeko 17 urteko biztanle guztiak aintzat hartuta, askoz ere neska gehiagok ikasten dute Batxilergoa mutilek baino. 2017/18 ikasturtean, adibidez, nesken kopurua mutilena baino % 17 handiagoa da, eta alde hori denboran zehar nahiko egonkor mantendu da, % 15en eta % 19ren arteko distantziarekin.


3.1.1.1.4.a) grafikoa. Batxilergoa amaitzen duten biztanleen tasa gordinaren bilakaera, guztira eta sexuaren arabera.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Honako grafiko honetan, autonomia-erkidegoen arabera konparatu da datu berbera: Euskadi da Batxilergoa amaitzen duten biztanleen tasa gordin handiena duen erkidegoa, eta 3 puntu inguru ateratzen dizkio bigarrenari (Asturias); estatuko batezbestekoari, berriz, 12 puntu baino gehiago ateratzen dizkio, eta 27 puntuko aldea ateratzen dio tasa baxuena duen erkidegoari (Balearrak).

3.1.1.1.4.b) grafikoa. Batxilergoaren amaitze-tasa gordina, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017/18 ikasturtea.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuetatik abiatuta.

2017/18 ikasturtean, Batxilergoko 2. mailan matrikulatutako ikasleen % 90,2k arrakastaz amaitu zuen Batxilergoa (mutilen % 88,3k eta nesken % 91,7k). Zientzien modalitateko batxilergoa amaitzen da gehien (% 91,8), eta, ondoren, Gizarte Zientzien modalitatea (% 89,9). Arteen batxilergoak % 79,1eko amaitze-tasa dauka. 2017/18 ikasturtean, ikasleen % 54,5 Zientzien modalitatean zegoen matrikulatuta; % 42,2 Humanitateak eta Gizarte Zientzietan zegoen, eta % 3,3 Arteetan.

3.1.1.2. Euskal ikasleek kanpo-ebaluazio estandarizatueta izandako emaitzak

Euskal ikasleen errendimendua ikuspegi akademiko batetik aztertu ondoren, gure hezkuntza-sistemak inpaktu handiena duten bi kanpo-ebaluazio estandarizatueta izandako emaitzen azterketa orokorra egingo da atal honetan; hau da, etaparen erdialdeko ebaluazio diagnostikoan eta nazioarteko PISA azterlanean (ELGE) izandako emaitzak aztertuko ditugu.

2015-2017ko txostenean, nahiko sakon aztertu ziren bi ebaluazio horien azken edizioen emaitzak (2017ko Ebaluazio Diagnostikoa eta 2015eko PISA).

Hezkuntza Sailaren txosten exekutibo berririk ez dugunez, azken ebaluazio diagnostikoei buruzkorik, ED17ko emaitza orokorrak eta 2018ko PISA txostenaren datuak erabiliko ditugu, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren mendeko Hezkuntza Ebaluatze Institutu Nazionalaren (INEE) txostenetik eta ELGEren nazioarteko txostenetik harturikoak.

3.1.1.2.1. Ebaluazio diagnostikoa


Adierazi den moduan, Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2015-2017ko txostenean sakon jorratu genituen Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako datuak (hau da, 2017ko edizioari dagozkion datuak); hortaz, ISEI-IVEIren ED17ko txosteneko bi grafiko bakarrik hartu ditugu, aipaturiko bi mailetan ebaluatutako konpetentzia guztien puntuazio orokorren bilakaera jasotzen baita horietan, eta ondorio batzuk aterako ditugu.

Oinarrizko konpetentzien puntuazio orokorrek izandako bilakaera jasotzen da bi grafiko hauetan.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, puntuazioek beheranzko joera argia dute 2013tik. Ebaluatutako bost konpetentzietatik, *konpetentzia zientifikoak* bakarrik izan du nolabaiteko susperraldia, 2013an 14 puntu galdu ostean (dena dela, susperraldia ez da puntu batera iristen).

Grafikoan nabarmentzekoa da, halaber, bost konpetentzietatik hiruk (euskara, ingelesa eta matematika) antzeko portaera dutela 2011tik, elkar gainjartzeraino, gehienez ere 2 puntuko aldea baitago haien puntuazioetan. Bada, hiru konpetentzia horietan antzeko inpaktua duen aldagairen bat egon litekeela adieraz dezake horrek.


Konpetentzia zientifikoak, ordea, portaera desberdina dauka: 2013ko galera sakonaren ostean, seguru asko emaitzari kalte egin zioten zenbait inguruabar elkartu baitziren edizio hartan (proba berean bi konpetentzia ebaluatu ziren, ordenagailu bidezko aplikazioa sartu zen...), hurrengo edizioetan puntuazioak gora egin zuen, arinki egin ere, 1 eta 2 portzentaje-punturen artean.



Iturria: ISEI-IVEIren ED17ko txostenetik hartutako grafikoa.

DBHko 2. mailan, emaitzen bilakaeraren joera ezberdina da, nahiz eta alderdi batzuek bat egiten duten Lehen Hezkuntzako 4. mailarako adierazitakoarekin.

- Azken edizioetan, konpetentzia guztien puntuazioek gora egin dutela atzeman daiteke, hazkunde horren tamaina askotarikoa den arren: *ingelesko konpetentziaren* 4 puntuetatik edo *matematikaren* 3 puntuetatik *konpetentzia zientifikoaren* mantentze-egoerara edo *euskararen nahiz gazteleraren* puntu bakarrera.
- Puntuazio baxuenak 2013an eta 2015ean izan ziren, ia konpetentzia guztietan, Lehen Hezkuntzan bezalaxe (bereziki, 2015ean).
- Euskararen eta matematikaren puntuazioek antzeko portaera dutela ikus daiteke, baita bilakaeran antzeko joera dutela ere.

3.1.1.2.1.b) grafikoa. ED17. DBHko 2. maila. Konpetentzia guztietan izandako emaitzen bilakaera.

Iturria: ISEI-IVEIren ED17ko txostenetik hartutako grafikoa.

3.1.1.2.2. 2018ko PISAren ebaluazioa.

Nazioarteko azterlan horren emaitzen azterketa bi iturritan eskuragarri dauden datuetara mugatzen da: 1) *2018ko PISA txostena. Espainiako txostena (aurretiazkoa)*⁷⁹, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren mendeko Hezkuntza Ebaluatzeko Institutu Nazionalak (INEE) argitaratua, eta 2) *PISA OECD Report*⁸⁰ delakoa edo nazioarteko PISA txostena eta horren datu-base guztiak.⁸¹

2018ko edizioan, bada nabarmentzeko alderdirik: ELGEk irakurmeneko emaitzen argitalpena atzeratzea erabaki zuen (estatuko eta autonomia-erkidegoetako emaitzena), ebaluatzen den konpetentzia nagusietako bat izan arren; izan ere, ELGEren arabera, PISAren estandar tekniko guztiak bete baziren ere eta akats teknikorik edota manipulaziorik atzeman ez bazen ere, datu batzuek ikasleen erantzun sinesgaitza islatzen zuten, eta ezin zitekeen ziurtatu Espainiako eta autonomia-erkidegoetako emaitzak nazioartean ondo alderatu ahal izango ote ziren.

2003tik 2018ra, Euskadik sei aldiz hartu du parte lagin propioekin, baina, adierazitako arrazoia dela-eta, zoritxarrez, ez dauzkagu irakurmeneko emaitzak, nahiz eta edizio horretan arlo nagusia izan: *konpetentzia matematikoko* eta *konpetentzia zientifikoko* datuak baino ez dauzkagu.

a) **Konpetentzia matematikoko emaitza orokorrak eta errendimendu-mailaren arabeko emaitzak.**

2018ko edizioan, Euskadiko emaitzek joera gorakorra erakutsi dute, 7 puntu berreskuratu ditu-eta. ELGEko eta Espainiako batezbestekoek, ordea, portzentaje-puntu bat eta bost portzentaje-puntu galdu dituzte, hurrenez hurren. Euskadiren 499 puntuek ELGEko eta Espainiako batezbestekoaren gainetik kokatzen dute gure sistema.


Euskadiko emaitza hori Europako hainbat herrialderen parekoa da; besteak beste, Suedia, Erresuma Batua, Norvegia, Alemania, Irlanda, Frantzia, Portugal edo Austriaren parekoa.

⁷⁹ <http://www.educacionyfp.gob.es/inee/evaluaciones-internacionales/pisa/pisa-2018/pisa-2018-informes-es.html>

⁸⁰ <http://www.educacionyfp.gob.es/inee/evaluaciones-internacionales/pisa/pisa-2018/pisa-2018-informes-en.html>

⁸¹ <https://www.oecd.org/pisa/publications/pisa-2018-results.htm>

3.1.1.2.2.b) *grafikoan*, ELGEko eta Espainiako batez besteko puntuazioen eta Euskadiko puntuazioen artean dagoen aldea ikus daiteke.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txostenetik abiatuta.

Hurrengo grafikoan, autonomia-erkidegoen araberrako konparaketa jasotzen da. Euskadi emaitza altuenak dauzkaten erkidegoen artean dago, baina Nafarroako, Gaztela eta Leongo, Kantabriako, Galiziako, Errioxako, Aragoiko, Asturiaseko eta Kataluniako antzeko puntuazioa dauka.

Grafiko honetan, puntuazio orokorraz gain, errendimendu altuena duten ikasleen batez besteko puntuazioa (95eko pertzentila) eta puntuaziorik baxuena duten ikasleen batez besteko puntuazioa (5eko pertzentila) jasotzen dira, baita autonomia-erkidego bakoitzean bi taldeen artean dagoen aldea jasotzen ere.

3.1.1.2.2.b) grafikoa. 2018ko PISA. Konpetentzia matematikoko emaitza orokorra eta 95 eta 5 pertzentilen emaitza, autonomia-erkidegoaren arabera.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txostenetik abiatuta.

Euskadin errendimendu onena eta txarrena duten ikasleen puntuen artean dagoen aldea (edo aldakortasuna) autonomia-erkidego guztien artean baxuenetako bat da, 280 puntukoa.

Hezkuntza-sistema bat ontzat jotzen da, batez besteko puntuazio altuak eskuratzeko ez ezik aldakortasun baxua izateko gai bada; hots, puntuazio altuena (95eko pertzentila) eta puntuazio baxuena (5eko pertzentila) duten ikasleen artean alde handirik ez badu, sistema homogeneoa dela adierazten baitu horrek.

Datorren grafikoan, autonomia-erkidego guztietan dagoen erlazioa jasotzen da, EBren, ELGEren eta Espainiaren batezbestekoekin batera. Lau koadrante bereiz daitezke, ELGEren batezbestekoa erdian dagoela:



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

- *Ezkerraldeko goiko koadrantean*, batezbestekotik gorako emaitzak eta aldakortasun baxua dauzkaten erkidegoak daude. Hezkuntza-arloan bikaintzat jo litekeen egoera dauka koadrante honek, eta, bertan, Euskadi, Nafarroa, Gaztela eta Leon, Galizia, Kantabria, Aragoi, Asturias eta Katalunia daude.
- *Eskuinaldeko goiko koadrantean*, emaitza altuak eduki arren muturreko pertzentilen artean alde handiagoa daukaten erkidegoak daude; hortaz, homogeneousun txikiagoko erkidegoak biltzen dira bertan. Bada, Errioxa eta EBren batezbestekoa bakarrik daude.
- *Ezkerraldeko beheko koadrantean*, berriz, batezbestekotik beherako aldakortasuna eta emaitzak dauzkaten herrialdeak eta erkidegoak daude. Sistema zuzenak dira, baina puntuazio eskasa dute. Bertan, zazpi autonomia-erkidego eta Espainiaren batezbestekoa daude.
- Azkenik, *eskuinaldeko beheko koadrantean*, emaitza txarrenak eta ekitate txikiak dauzkaten hezkuntza-sistemak daude.


Euskadik, autonomia-erkidegoen araberrako *konpetentzia matematikoko* emaitzei begiratuta, aldakortasun baxu samarra dauka (280), ELGEren, Espainiaren eta bederatzi autonomia-erkidegoen batezbestekotik beherakoa. Beraz, nahiko sistema zuzena da.

Errendimendu-mailak

Grafikoan, 2012an, 2015ean eta 2018an ebaluatutako ikasleen ehunekoak jasotzen dira, *konpetentzia matematikoko* zazpi errendimendu-mailei dagokienez. Azken edizioan, ikasleen % 18,1ek izan dute maila baxua konpetentzian (Europako 2020rako Estrategian finkatutako % 15ek baino gehiagok), eta ikasleen % 9,3k izan dute maila bikaina.

2015etik 2018ra, jaitsi egin da errendimendu baxua duten ikasleen ehunekoa (-% 1,4), eta bikaintasun-mailak igo egin dira (+% 1,9).


3.1.1.2.2.d) grafikoa. PISA. Konpetentzia matematikoa. Ikasleen errendimendu-mailaren arabera ehunekoen bilakaera, 2012-2015-2018.



Iturria: Guk geuk egin, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

Hurrengo orrialdeko grafikoan, ELGEko herrialde guztietan eta autonomia-erkidego guztietan errendimendu-maila baxua duten ikasleen ehunekoa jasotzen da, txikienetik handienara ordenatuta. Euskadi goiko herenean dago, Suedia eta Norvegia bezalako herrialdeetako eta Gaztela eta Leon, Nafarroa edo Galizia bezalako erkidegoetako ehunekoetatik hurbil. Sei herrialdek bakarrik lortu dute Europako 2020rako xedea; hau da, *matematikako konpetentzian* maila baxua duten ikasleak % 15 baino gehiago ez izateko xedea.

3.1.1.2.2.e grafikoa. 2018ko PISA. Konpetentzia matematikoan errendimendu baxua (<2) duten ikasleen ehunekoa.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

b) *Konpetentzia zientifikoko* emaitza orokorrak eta errendimendu-mailaren araberako emaitzak.

Ondoren, Euskadik, ELGEk eta Espainiak *konpetentzia zientifikoa* ateratako batez besteko puntuazioen bilakaera jasotzen da. Euskadik 2015ean baino 4 puntu gehiago atera ditu azken edizioan. Euskadiren 487 puntuak ELGEren, Espainiaren eta Europar Batasunaren (490 puntu) batezbestekoetatik hurbil daude, Austriaren, Txekiar Errepublikaren, Irlandaren, Suitzaren, Danimarkaren, Frantziaren, Portugalen edo Norvegiaren batezbestekoetatik bezala.

Euskadik 2015ean galdutako puntuazioaren zati txiki bat berreskuratu du. ELGEk (-4 puntu) eta Espainiak (-10 puntu), berriz, puntuazioak okertu dituzte. Ondorioz, Euskadiko emaitza ELGEren eta Espainiaren batezbestekoan kokatu da berriro.

3.1.1.2.2.f) grafikoa. PISA. *Konpetentzia zientifikoa* izandako emaitzen bilakaera: Euskadi-ELGE-Espainia.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

Konpetentzia zientifikoa autonomia-erkidegoka aztertzean, autonomia-erkidego gehieneko puntuazioen artean estatistikoki alde nabarmenik ez dagoela ikus daiteke: bi erkidegok bakarrik dauzkate puntuazio nabarmenki altuagoak (Gaztela eta Leon eta Galizia), eta beste biren emaitzak estatistikoki baxuagoak dira (Kanariar Irlak eta Andaluzia).

Hurrengo orrialdeko 3.1.1.2.2.g) grafikoa, ELGEko herrialde guztietan eta autonomia-erkidego guztietan errendimendu-maila baxua duten ikasleen ehunekoa jasotzen da, txikienetik handienara ordenatuta. Zazpi herrialdek eta Galiziak bakarrik lortu dute Europaren 2020rako xedea; hau da, *konpetentzia zientifikoa* maila baxua duten ikasleak % 15 baino gehiago ez izateko xedea.


3.1.1.2.2.g) grafikoa. 2018ko PISA. Konpetentzia zientifikoan errendimendu baxua (<2) duten ikasleen ehunekoa.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

Bestetik, errendimendu altuko euskal ikasleen batez besteko puntuazioa (624 puntu) txikiagoa da ikasle mota horrek 12 erkidegotan lorturikoa baino, baina konpetentzia maila baxuagoa duten euskal ikasleen emaitza altuenen artean dago. Gertaera hori argi eta garbi ikusiko da errendimendu-mailen arabera ehunekoen azterketan: bikaintasuneko ikasle gutxi daukagu, baina errendimendu baxuko ikasleak beste sistema batzuetan baino hobeto daude.

3.1.1.2.2.h) grafikoa. 2018ko PISA. Konpetentzia zientifikoko emaitza orokorra eta 95 eta 5 pertzentilen emaitza, autonomia-erkidegoaren arabera.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

Errendimendu-mailak

PISAk errendimendu-mailen eskala bat ezartzen du ebaluatutako konpetentzia bakoitzeko. *Konpetentzia zientifikoa*, zazpi maila daude, aurreratuenetik (6. maila) oinarritzkoenera (1etik beherako maila). Grafikoa, azkenengo hiru edizioetan (2012, 2015 eta 2018) ebaluatutako ikasleen ehunekoak islatzen dira. Azkenengo edizioan, ikasleen % 18,6k maila baxua dute, eta ikasleen % 3,9 txiki batek maila bikaina dute.

3.1.1.2.2.i) grafikoa. PISA. Konpetentzia zientifikoa. Ikasleen errendimendu-mailaren arabera ehunekoen bilakaera, 2012-2015-2018.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

Errendimendu baxuko ehunekoetan, jaitsiera egon da (-% 1,4); bikaintasun-mailan, berriz, % 0,9ko igoera egon da.

c) Errendimenduarekin zerikusia daukaten aldagaiak eta faktoreak

Hezkuntza-sistema baten errendimendua ezin daiteke ikasleen emaitzekin bakarrik neurtu, ezta emaitza horiek isolatuta eta testuingururik gabe hartuta ere. Hori dela-eta, ebaluatutako konpetentzien emaitzetan garrantzitsutzat jo diren zenbait aldagai eta faktore aztertzen dira atal honetan.

Aldagai batzuetan, *konpetentzia matematikoarekiko* erlazioa bakarrik ezarriko da, erreferentziatzat hartutako konpetentzia edozein izanik ere ondorio berberetara edo antzekoetara iritsiko baikara.


▪ **Ikasleen sexuaren arabera emaitzak**

Konpetentzia matematikoan, bilakaera oso deigarria da: lehenengo bi edizioetan, bi sexuen emaitzak berdinak izan ziren, baina hurrengo bi edizioetan elkarrengandik urrundu ziren, mutilen alde: 2012an, mutilak neskek baino 14 puntu gorago geratu ziren. Ordutik aurrera, neskek murriztu dute aldea: 2018an, nesken emaitzak hiru puntu gainetik daude.

ELGEko herrialdeetako datuen arabera, neskek zortzi herrialdetan bakarrik lortu dituzte emaitza hobeak matematikan: Maltan, Islandian, Israelen, Norvegian, Finlandian. Neskek mutilek baino emaitza baxuagoak ateratu zituzte ELGEren (-5,2 puntu) nahiz EBren batezbestekoan (-7,1 puntu). Interesgarria da, dena dela, ELGEko herrialdeen batezbestekoan nesken eta mutilen arteko aldea 2009an 11 puntukoa izatea eta 2018an 5 puntura jaitea.

Euskadin izan ezik autonomia-erkidego guztietan, mutilek neskek baino puntuazio handiagoa lortu dute; batzuetan, gainera, aldeak handiak dira (Errioxan, -15 puntu; Kantabrian, -14 puntu; Balear Irletan, -13 puntu).


3.1.1.2.2.j) grafikoa. PISA. Konpetentzia matematikoko emaitzen bilakaera, sexuaren arabera.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

Konpetentzia zientifikoan, matematikan ikusitakoaz bestelako joera dago. PISAren lehenengo bi edizioetan, neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu zituzten, baina, hurrengo hiru edizioetan, alderantziz izan zen. Alabaina, 2018an, neskek 12 puntutan hobetu dute haien emaitza, eta mutilek baino puntuazio hobeak lortu dute, 8 puntuko aldearekin.

3.1.1.2.2.k) grafikoa. PISA. Konpetentzia zientifikoko emaitzen bilakaera, sexuaren arabera.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

Konpetentzia honetan, neskek ELGEko herrialde gehiagotan lortu dituzte emaitza hobeak, Euskadin bezala (Finlandian +24, Maltan +21, Israelen +19...). ELGEren (+2,3) nahiz EBren (+0,7) batezbestekoek joera berari jarraitzen diote.

- **Hezkuntza-sareen arabera**

ELGEren datuen arabera, titulartasun publikoko ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleen proportzioa asko aldatzen da herrialde eta autonomia-erkidego batzuetatik beste batzuetara, 3.1.1.2.2.l) grafikoan ikus daitekeen bezala.

3.1.1.2.2.l) grafikoa. 2018ko PISA. Ikastetxe publikoetako ikasleen ehunekoa, ELGEko herrialdeen eta autonomia-erkidegoen arabera




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

ELGERi atxikitako 15 herrialde europarretan, ikasleen % 90 edo gehiago ikastetxe publikoetan matrikulatzen dira; alabaina, ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleen proportzioa % 40ra iristen ez den herrialdeak daude (hala nola, Erresuma Batua eta Herbehereak). ELGEko ikasleen % 84 eta EBko ikasleen % 81 ikastetxe publikoetan eskolatuta daude; hau da, estatuko batezbestekoa baino 15 eta 12 portzentaje-puntu gehiago, eta Euskadin baino 34 eta 31 puntu gehiago, hurrenez hurren. Kontuan hartu behar da gure erkidegoko ikastetxe pribatuen % 100 itunpekoak direla.

Herrialde gehienetan, ikastetxe pribatuetako ikasleek puntuazio altuagoa lortzen dute *konpetentzia matematikoa*n: ELGERen batezbestekoan, 27 puntura iristen da, eta EBkoan 24 puntura. Euskadiko aldea (26,1 puntu) nazioarteko batezbestekoetatik eta estatuko batezbestekotik (28 puntu) oso hurbil dago, eta, autonomia-erkidegoen artean, erdialdean dago.

3.1.1.2.2.m) grafikoa. PISA 2018. Konpetentzia matematikako emaitzak, ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

▪ ***Ikasleen jatorriaren arabera emaitzak***

Azken ikasturteetan, ia-ia ELGEko herrialde guztietan eta autonomia-erkidego guztietan nabarmen handitu da ikasle etorkinen ehunekoa. 2018an, ELGERen batezbestekoa % 13koa izan zen, 2015ekoaren antzekoa (% 12,5). Euskadik % 10,3ko batezbestekoa zeukan 2018an, nazioarteko batezbestekoan baino 3 puntu gutxiago eta Espainiako batezbestekoan baino 2 puntu gutxiago (% 12,2). ELGEko herrialdeen artean, Luxenburgo da (% 54,9), alde handiarekin, etorkinen proportzio handiena duen herrialdea.

Hurrengo grafikoa, batetik, ikasle etorkinen ehunekoa jasotzen da, eta, bestetik, bertako ikasleek eta ikasle etorkinek autonomia-erkidego bakoitzean eta nazioarteko nahiz estatuko batezbestekoetan lorturiko batez besteko puntuazioa.


Bertako ikasleen eta ikasle etorkinen puntuazioak asko aldatzen dira autonomia-erkidego batetik bestera, baina ez dirudi ikasle etorkinen ehunekoarekin zerikusirik duenik.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

ELGEren nazioarteko batezbestekoan, ikasle etorkinek bertakoek baino 39 puntu gutxiago lortu dituzte matematikan, estatuko batezbestekoaren antzera. Euskadik dauka bi taldeen arteko alderik handiena, 77 puntukoa. ELGEko herrialde guztien eta Europako herrialde guztien artean, Koreak (150 puntu), Mexikok (94 puntu) eta Japoniak (79 puntu) bakarrik daukate Euskadik baino alde handiagoa bertako ikasleen eta ikasle etorkinen emaitzen artean.

PISAREN edizio guztietan, herrialde gehienetan, ikasle etorkinen errendimendua bertako ikasleena baino askoz txikiagoa izan da, eta frogatuta dago funtsean haien inguruabar sozioekonomikoekin duela zerikusia. Hala ere, herrialde batzuetan etorkinen proportzio handia dago, eta ikasle etorkinek hango ikasleen errendimendu berdina (Kanada) edo handiagoa (Australia) lortzen dute.




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

▪ ***Ikasle errepikatzailen araberrako emaitzak***

Derrigorrezko hezkuntzan, errepikatzailen tasa murrizteak erronka izaten jarraitzen du, eta arazo handia da gure sisteman. Autonomia-erkidego guztiek gaintitzen dute ELGEn errepikapenaren batezbestekoa (% 11,4): Euskadin, bikoiztu egiten da ehuneko hori, eta, estatuan, hirukoiztu. Hortaz, gure hezkuntza-sisteman arrakala hori gaintitzeko desafioa izugarria da.


3.1.1.2.2.o) grafikoa. PISA. 2012, 2015 eta 2018ko errepikatzaileen ehunekoa.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

Errepikatzaileen distantzia 91 puntura iristen da ELGaren batezbestekoan; EBreanean, berriz, 88 puntura, eta estatukoan 102ra. Autonomia-erkidego guztietan gaintitzen dira 90 puntuak, eta, Euskadin, distantzia hori 106 puntukoa da, erkidegoen artean hirugarren distantzia handiena izaki hori.

3.1.1.2.2.p) grafikoa. 2018ko PISA. Errepikatzaileek eta ez-errepikatzaileek konpetentzia matematikoan izandako puntuazioen arteko aldea, autonomia-erkidegoen arabera.



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

3.1.2. Euskal sistema elebidunean euskalduntzea

Irakaskuntza elebiduna, funtsean, honako xede honetan oinarritu izan da hirurogeita hamarreko hamarkadatik hona (batez ere, hezkuntza-arloko eskumenak guztiz hartu ondorengo ezarpen ofizialetik hona): erkidegoko ikasle guztiek, derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran, haien egoera edo ezaugarri pertsonal zein familiarak edozein izanik ere, bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa lortu behar dute.

Zalantzarik gabe, egoera aldatuz joan da, eta, elebitasun-mailak hobera egin duenez, euskararen ezagutza- eta erabilera-mailek ere gora egin dute: ikasle gehienek bi hizkuntzetan aurreikusitako konpetentzia-maila lortu dute. Alabaina, hain zuzen ere testuinguru horretan egin behar dugu euskalduntzeak gure sistema elebidunean duen egoerari buruzko hausnarketa sakona; zehazki, D ereduan (sare publikoan nahiz itunpeko pribatuan) eskolatutako ikasleek euskaran duten egoeraren inguruan hausnartu behar dugu.

Sistemaren datu orokor batzuk eta beste hizkuntza-eredu batzuen datu espezifikoak emango badira ere, atal honek *euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* emaitzak aztertzeari helduko dio batez ere, D ereduari dagokionez, horixe baita euskal hezkuntza-sistemaren bizkarrezurra eta, txosten honen 2. kapitulan (estratuen analisiari buruzkoan) ikusi denez, etorkizunean hazkunde handiena izango duen hizkuntza-eredua delako.

Azterketa egin aurretik, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:

1. Euskal hezkuntza-sistema izugarri aldatu da oinarrizko ildoetan. Duela hiru hamarkada nagusi ziren ereduak eta estratuak oso eraldaketa handia jasan dute haien eraketa sozialean, hezkuntza-arloko eskakizunetan edo hizkuntza-xedeei konpromisoan. Zentzu hertsian, dagoeneko ezin dugu eta ez dugu D ereduaz hitz egin behar, hainbat D ereduz baizik, zeinak ezinbestean ulertu eta artatu behar ditugun hezkuntza- eta hizkuntza-arloko planteamendu espezifikoekin.
2. Jakitun izan behar dugu hezkuntza-sistema osorako eta, zehazki, D eredurako planteatu den hizkuntza-xedea (hots, ikasle guztiek derrigorrezko eskolatzea amaitutakoan euskaraz eta gaztelaniaz antzeko konpetentzia-maila lortzeko xedea), zalantzarik gabe, beharrezko eta ezinbesteko konpromiso linguistikoa dela, baina baita benetan zorrotza ere. Izan ere, xedea berbera da etxeko hizkuntza euskara dutenentzat edota hizkuntza hori ohikotasunez erabiltzen den testuinguruan bizi direnentzat eta familiako hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat dutenentzat edota euskararen presentzia eskasa edo ia ezdeusa duen testuinguru soziolinguistiko batean bizi direnentzat.
3. Erabateko hizkuntza-murgilketako sistema batean, horixe baita D ereduan eskolatuta dauden ikasle gehienek kasua, ezinbesteko eta halabeharrezko helburua da irakaskuntzako eta ikaskuntzako komunikazio-hizkuntzan maila ona lortzea, curriculum osatzen duten gainerako arlo eta ikasgaietako edukiak behar bezala ikasiko direla bermatu edo, behintzat, ahalbidetu ahal izateari begira. Are gehiago, ikasleen zati handi batek hizkuntzaz kanpoko konpetentziak haien familian eta ingurune sozialean erabili ohi ez den hizkuntza batean eskuratzen eta garatzen dituen. Hezkuntza-sistema elebidun baten arrakasta ez da 1. hizkuntzan eta 2. hizkuntzan hizkuntza-maila ona lortuta bakarrik neurtzen: tresna linguistikoa menderatu egin behar da, irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerak behar bezala egiteko moduan.

4. Murgilketan oinarrituriko eredu elebidun batean, ikaskuntzako hizkuntzarekiko esposizio-denbora (kasu honetan, euskararekikoa) aldagai giltzarria da. Bada, denbora hori nekez alda daiteke D ereduan, eta, hortaz, sistema hobetzeko saiakerak proposamen metodologikoen bidez gauzatu beharko dira, irakasleen prestakuntzarekin edota konpromiso pertsonal eta familiarraren intentsitatea nahiz eskolatik kanpo euskara gehiago erabiltzeko konpromisoa handitzearekin zerikusia duten proposamenekin batera.
5. Gure hezkuntza-sistema gai izan da eta gai da maila guztietara milaka hitzun elebidun berri sartzeko, baina euskararen egoera minorizatua denez eta lurraldearen zati handiengan gutxiengoa denez, eskolak berak ezin dezake ikasle guztiak elebidunak izatea bermatu, ezta Haur Hezkuntzatik D ereduan bakarrik eskolatu direnen artean ere.

Hala, hezkuntza-sistemaren euskalduntzea analizatzeko, lehenik eta behin, *euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* emaitzak aztertzen dira, puntuazioen bilakaera ikusiz eta bilakaera horren arabera oro har lorturiko hizkuntza-mailak sistema osorako zehaztu den xedea bete ahal izateari begira egokiak eta nahikoak ote diren egiaztatuz. Bigarrenik, D eredu publiko eta itunpekoan eskolatutako ikasleen errendimendua aztertzen da, eta 2009tik 2017ra bitartean ikasleen ezaugarrietan jazo diren aldaketak aurkezten. Amaitzeko, D ereduan irakurmenean lorturiko mailak aztertzen dira, ebaluazio diagnostikoaren eta PIRLS nazioarteko ebaluazioko datuak bilduz.


Analisi honetan, batez ere, etaparen erdialdeko ebaluazio diagnostikoaren datuak eta informazioak erabili dira, baina 15 urteko ikasleei egiten zaien PISA nazioarteko ebaluazioaren irakurmeneko emaitzekin eta IEAren PIRLSeko⁸² datuekin osatuko dira horiek.

3.1.2.1. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko emaitza orokorrak

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien *euskarazko hizkuntza-komunikazioko* emaitzek beheranzko joera argia dute, 2011tik 2017ra bitartean 9 puntu galdu baitira. Gainera, galera hori are nabarmenagoa da irakurmenean, 2010etik (emaitza onenak izan zituen edizioa) datuak dauzkan azken ediziora (2017) 20 puntu galdu baitira.

⁸² PIRLS azterlanean, bost urterik behin ebaluatzen dira ikasleen ikaskuntza-mailan dauden joerak, 2001etik. Euskadik lagin propioarekin hartu zuen parte 2016ko edizioan; alabaina, ez da horri buruzko txosten espezifikorik argitaratu. Horregatik erabiltzen ditugu Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEk emandako datuak. <http://www.educacionyfp.gob.es/inee/evaluaciones-internacionales/pirls/pirls-2016.html>.


3.1.2.1.a) grafikoa. LHko 4. maila. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15-ED17.
Euskarazko hizkuntza-komunikazioko dimentsioetan izandako emaitzen



Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren ED17ko txosteneko datuetatik abiatuta.

DBHko 2. mailan, 2010etik (emaitza altuenak izan zituen unea) 8 puntu galdu dira emaitza orokorrean, eta 7 puntu irakurmenean. Etapa horretan, Lehen Hezkuntzan ikusitakoaren kontrara, susperraldi arin bat atzeman da 2017ko edizioan.


3.1.2.1.b) grafikoa. DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15-ED17.
Euskarazko hizkuntza-komunikazioko dimentsioetan izandako emaitzen




Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren ED17ko txosteneko datuetatik abiatuta.

Hurrengo grafikoetan, bi etapetan ereduaren arabera izandako emaitzak jasotzen dira, eta bi egitate islatzen: batetik, espero izatekoa denez, emaitza altuenak B ereduan eta, bereziki, D ereduan daude, baina 20 puntu baino gehiagoko distantziarekin. Eta bestetik, bi eredu elebidunek bi etapetan daukate joera argi eta garbi beherakorra, 2011tik 2017ra 14 puntu galdu baitira Lehen Hezkuntzako B ereduan, eta 12 puntu D ereduan, eta 15 eta 10 puntu, hurrenez hurren, Bigarren Hezkuntzan.

3.1.2.1.c) grafikoa. LHko 4. maila. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15-ED17. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko dimentsioetan izandako emaitzen bilakaera, hizkuntza-ereduaren arabera.




3.1.2.1.d) grafikoa. DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15-ED17. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko dimentsioetan izandako emaitzen bilakaera, hizkuntza-ereduaren arabera.




Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren ED17ko txosteneko datuetatik abiatuta.

Azkenik, hurrengo bi grafikoetan, bi etapetan *euskarazko hizkuntza-komunikazioan* hasierako errendimendu-mailan eta errendimendu-maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoen bilakaera jasotzen da. Lehen Hezkuntzan, ikasle gehienek hasierako maila gaintitzen dute 2011tik: Alabaina, errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa % 30,6koa izatetik % 37,4koa izatera igaro da 2017an, eta, aldi berean, euskarazko hizkuntza-maila aurreratua dutenen ikasleen ehunekoa 7 puntutan murriztu da. DBHko 2. mailan ere, joera kezagarria da, 2011n hasierako maila gaintitzen ez zuten ikasleak % 36 izatetik % 45,6 izatera igaro baitira 2017an (10 puntu gehiago). Kontuan hartu behar da gainerako konpetentzietan ere (eta ez euskaraz bakarrik) maila baxua duten ikasleen ehunekoa. Konpetentzia-maila aurreratuaren bilakaera ere beharrezkoa da.

3.1.2.1.e) grafikoa. LHko 4. maila. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15-ED17. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko puntuazio orokorren eta hasierako mailan nahiz maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoen bilakaera.



3.1.2.1.f) grafikoa. DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15-ED17. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko puntuazio orokorren eta hasierako mailan nahiz maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoen bilakaera.



Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren ED17ko txosteneko datuetatik abiatuta.


Horrenbestez, *euskarazko hizkuntza-komunikazioko* emaitza orokorreki erreparatuta, joera ezkorra ikus daiteke Lehen Hezkuntzako irakurmenean. Bestetik, puntu askotxo galdu dira bi etapen B eta D ereduetan, eta nabarmen areagotu da konpetentziaren hasierako maila gainditzeko gai ez diren ikasleen kopurua.

3.1.2.2. D eredu publikoan eta itunpekoan izandako emaitzen azterketa

Behaketa-eremua murriztu eta D ereduko estratuen arabera emaitzei begiratzen badiegu, Lehen Hezkuntzan 2011tik puntu asko galdu direla egiazta daiteke, hala sare publikoan (13 puntu), nola itunpekoan (11 puntu).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, egoera antzekoa da, 2011tik 10 puntu galdu baitira bi estratuetan.


3.1.2.2.a) grafikoa. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko puntuazioaren bilakaera, D ereduko estratuen arabera, Lehen Hezkuntzan eta DBHn.



Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren ED17ko txosteneko datuetatik abiatuta.

Lehen Hezkuntzan, D ereduko bi estratuek erakusten dute etaparen erdialdean euskara-arloan hasierako errendimendu-maila gainditzeko gai ez diren ikasleen kopurua gora egiten ari dela.


3.1.2.2.b) grafikoa. LHko 4. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikazioan hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera, D ereduko estratuen arabera.



Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren ED17ko txosteneko datuetatik abiatuta.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, hasierako mailako ikasleen ehunekoak gora egin zuen sare publikoan (% 30etik % 41era) nahiz itunpekoan (% 22tik % 31ra). 2010etik 2013ra, ehunekoaren hazkundea puntu batekoa izan zen gutxi gorabehera, eta horregatik da deigarria hazkunde hori.

3.1.2.2.c) grafikoa. DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikazioan hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera, D ereduko estratuen arabera.



Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren ED17ko txosteneko datuetatik abiatuta.

Lehen azaldutako datu negatiboei azalpenen bat ematen lagundu lezake, agian, Lehen Hezkuntzako 4. mailan D ereduko bi estratuetan eskolatzen diren ikasleen eraketan eta ezaugarrietan aldaketa nabarmenik gertatu ote den egiaztatzeak. Honako taula honetan, ED17ko txostenetik hartutakoan⁸³, hainbat aldagaien 2009ko eta 2017ko konparazioa egiten da:

⁸³ Ikusi ED17ko txostenaren 80. orrialdea.

			D PUBLIKOA		ITUNPEKO D	
			2009	2017	2009	2017
IKASLEAK	Sistema osoan duten %a		39,3	47,3	20,6	26,3
	Ikasle-kopurua		6.919	10.084	3.626	5.604
	Sarean duten %a		79,3	90,7	41,5	54,8
EGOKITASUNA	EGOKIAK	ISEK	-0,1	-0,1	0,2	0,3
		%	91,8	89	96,2	95,6
	EZEGOKIAK	ISEK	-0,9	-1,0	-0,5	-0,7
		%	8,2	11	3,8	4,4
JATORRIA	Estratuko ETORKINEN %a		4,9	10,7	2,5	3,1
ISEK	Maila baxuaren %a		17,5	31,6	3,6	15,6
	Maila erdi baxuaren %a		36,1	26,5	11,1	24,9
	Maila erdi altuaren %a		28,7	23,4	35,7	29,0
	Maila altuaren %a		17,8	18,5	49,6	30,5
	Estratuko batez besteko ISEK		0,14	-0,19	0,20	0,23
FAMILIAREN HIZKUNTZA	Ikasle euskal hiztunen %a		24,5	28,7	34,7	42,6
	Euskal hiztunak ez direnen %a		75,5	71,3	65,3	57,4
HIZKUNTZAREN ERABILERA	Indize orokorra		3,7	3,6	4,0	4,0

Ebaluazio diagnostikoak emandako datuen arabera, bi estratu horiek asko hazi dira hezkuntza-sisteman, 2017an euskal hezkuntza-sistemako ikasleen ia % 75 ordezkatzearaino (2009an baino 15 portzentaje-puntu gehiago). Sisteman duten ehunekoa handitu izanak duela urte batzuk baino ikasle-aniztasun handiagoa hartzen dutela esan nahi du. Horrek, ordea, hezkuntza-sistema konplexuagoa izatea dakar; batez ere, ikastetxe publikoetan (adibidez, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikasle ezegokiak kopurua % 3 areagotu da, eta ikasle etorkinen nahiz ISEKen maila baxua duten ikasleen ehunekoa bikoiztu egin da). Itunpeko estratuan ere, sare publikoan baino intentsitate txikiagoz izan arren, aldaketa batzuk gertatu dira: 14 portzentaje-puntutan handitu da itunpeko sarean duten presentzia (2009an % 41,5 izatetik 2017an % 54,8 izatera igaro da), eta boskoiztu egin da ISEK baxuko ikasleen ehunekoa.

ED17ko txostenean ondorioztatzen denez: «*Dirudienez, argi dago sare publikoan aldaketa horiek handiak izan direla eta estratu horretan puntuak galtzeko orduan eragin dutela. Gogoratu beharra dago errepikapenaren aldagaiak eragiten duela arrakalarik handiena (2017an, 40 puntu baino gehiago konpetentzia honetan) eta ondoren familiaren jatorria jasotzen duen aldagaia datorrela, 24 puntuko arrakalarekin. Alabaina, itunpeko sareari buruz adierazi diren aldaketak ez dira estratu publikoari dagokionez jaso direnak bezain bizi eta giltzarriak. Hortaz, ematen duenaren arabera, estratu publikoaren eraketa sozialean izandako aldaketak azalduko luke puntu-galeren zati bat, baina ez da gauza bera gertatzen itunpeko estratuan*».

Gainera, ISEI-IVEIk 2017ko Ebaluazio Diagnostikoari buruz idatzi duen txosten horrek berak, tipologia linguistikoko eredu baten azterketatik abiatuta, honako hau adierazten du: «*Ebaluazio honen sei edizioek biltzen dituzten bederatzi ikasturteetan, ikasle erdaldun elebakarren*

kopuruak gora egin du D ereduan, hala estratu publikoan, nola itunpekoan», eta datu hauek ematen ditu: Sare publikoan, Lehen Hezkuntzan, 2009an % 11,6koa izatetik 2017an % 26koa izatera igaro da, eta, DBHn, % 16koa izatetik % 29,5koa izatera igaro da. Itunpeko sarean, Lehen Hezkuntzan, % 8,1koa izatetik % 18koa izatera igaro da, eta, DBHn, % 13,5koa izatetik % 22,2koa izatera igaro da.

Euskararen erabileraren indizea, ikastetxeari dagokionez


Ikastetxeek konpetentzia linguistikoaren emaitzak osatzeko datuak izan ditzaten, ikasleek eskola-ingurunean egiten duten euskararen erabileran eragiten duten faktoreak ikertzen ditu Hezkuntza Sailak, ISEI-IVEIren, Berrikuntza Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuaren eta Soziolinguistika Klusterraren bidez. Ikerketa hori Arrue proiektua⁸⁴ izenekoan sartuta dago, eta, 2011tik, Ebaluazio diagnostikoan egiten diren galdeketetan jasotako datuekin egiten du lan.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen erantzunetatik abiatuta, *ikasleek egiten duten euskararen erabileraren indizea* eraikitzen da, euskararen, gaztelaniaren eta beste hizkuntza batzuen erabilerak eskola-ingurunean zein egoera duen ikusteko. Indizearen bidez, bada, eskolan presentzia duten askotariko hizkuntzak testuinguru ezberdinetan (ikasgela barruan eta kanpoan) eta solaskide ezberdinekin (ikaskideak eta irakasleak) nola erabiltzen diren aztertzen da.

Arrue txostenak emandako askotariko informazio eta datuetatik, testuinguru bat nabarmentzen da: irakasleekin ikasgela barruan erabiltzen den hizkuntza. Izan ere, irakaslea autoritadedun pertsona da ikasleentzat eta, ezagutzez gain, ikastetxean eta ikasgelan jarraitu behar diren hizkuntza-irizpideak helarazten ditu.

Lehenengo grafikoan, D ereduko ikasleen portaerari buruzkoan, portaera linguistiko bakoitza hautatzen duten ikasleen ehunekoa jasotzen da. Ikus daitekeenez, eta ED 2017ko txosteneko datuen arabera, D ereduan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 69,1ek beti hitz egiten dute euskaraz irakasleekin, baina ehuneko hori % 55,4ra jaisten da DBHko 2. mailan. Hau da, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 30ek eta DBHko ikasleen % 45ek baieztatu dutenez, ikasgela barruan ez dute beti euskaraz hitz egiten irakasleekin. Are, grafikoko datuen arabera, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 6,5ek eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen % 11k baieztatu egin dute beti edo ia beti hitz egiten dutela gaztelaniaz.


⁸⁴ <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/2910>. 2011-2015eko txostena: <https://www.euskadi.eus/euskara-beste-proiektu-batzuk/web01-a2heusk/eu/>



Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren datuetatik abiatuta.

Hurrengo grafikoak informazio interesgarria ematen digu: D ereduko ikasleek irakasleekin erabiltzen duten hizkuntzari buruzko indizean 2011tik 2017ra egondako bilakaera, alegia. Ikasleek ikastetxean daudela eta irakasleekin ikasgelan hitz egiten daudela izaten duten portaera linguistikoa laburbiltzen du Indize horrek. Eskala 1etik 5era bitartekoa da: 1ak ikasgela barruko harremanetan gaztelania bakarrik erabiltzen dutela esan nahi du, eta 5ak euskara bakarrik erabiltzen dutela.

Grafikoan, D ereduko (granatea) eta B ereduko (urdina) ikasleek bi etapetan duten portaera islatzen da, eta bi datu nabarmentzen dira: batetik, euskararen erabilera handiagoa da Lehen Hezkuntzan DBHn baino, bi hizkuntza-ereduetan (D ereduan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako indizea 4,4koa da, baina DBHko 2. mailakoa 4,2koa da), eta, bestetik, lau taldeetan jaitsi da ikasgela barruan irakasleekin euskara erabiltzen dutenen kopurua.



Iturria: Guk geuk egina, ISEI-IVEIren datuetatik abiatuta.

D eredu motak

Sistema elebidunei buruzko ikerketa askok baieztatzen dutenez, 2. hizkuntzaren konpetentziak (kasu honetan, euskararenak) lotura zuzena dauka euskararen inguruko interes, jarrera, motibazio eta esposizio-denborarekin (hala irakaskuntzan, nola giro soziolinguistikoan), eta

igoera horrek ez du 1. hizkuntzaren konpetentzia galarazten. Aurretik, D eredu publikoaren eta itunpekoaren euskarazko hizkuntza-konpetentziaren emaitzak aztertu ditugu, eta hizkuntza-konpetentzia horretan joera negatiboa dagoela egiaztatu dugu. Alabaina, litekeena da D ereduaz oro har hitz egitea edo, are, estratuka hitz egitea okerra izatea, horrela oso modu mugatu eta sinplistan deskribatzen delako hizkuntza-eredu horren errealitatea.


Hurrengo bi grafikoetan, Hezkuntza Saileko zerbitzu teknikoek gaur egungo D ereduen aniztasunari buruz egindako analisi edo simulazio oso goiztiarra jasotzen da, zeina osatu eta aberastu egin behar den oraindik. Simulazio horretan, bada, lau kuartiletan banatzen dira Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiak, eskolaren ingurune soziolinguistikoan dauden euskal hiztunen ehunekoaren arabera, eta ikastetxeen ezaugarriak deskribatzen dira, zenbait aldagai sozioekonomiko, hezkuntzako eta linguistikotik abiatuta, ED17ko emaitzekin batera, bi hizkuntza ofizialei eta matematikei dagokienez.

Muturreko bi taldeek (1. taldean % 20 baino gutxiago da euskalduna, eta 4. taldean % 80 baino gehiago) biltzen dituzte ikastetxe eta ikasle gutxien (34 eta 46 eskola, hurrenez hurren), eta ez dira guztizkoaren % 20ra iristen; 2. taldean (% 20-50), aldiz, eskolen % 51 daude, eta 3. taldea (% 50-80) ikastetxeen % 30era hurbiltzen da. Aldeak egon arren, hasiera batean egindako multzokatze horrek gure hezkuntza-sisteman dauden askotariko D ereduak ulertzen lagundu diezaguke, kontuan hartuta horixe dela eredu nagusia.

Grafikoetan islatu diren muturreko bi taldeen artean (1.aren eta 4.aren artean), alde handiak daude egokitasunean (% 15-% 5), immigrazioan (% 11-% 7), ISEK indizean (-0,34 eta 0,2) eta, batez ere, familia euskal hiztunetan (% 7-% 78) eta ikastetxean egiten den euskararen erabileraren indizean (3,1 eta 4,7), bai eta konpetentzien emaitzetan ere (28 puntu euskararen eta 19 matematikan, 4. taldearen alde, eta 13 puntu gaztelanian, 1. taldearen alde).


Hala, honako hausnarketa hau egin dezakegu datuotatik abiatuta: zalantzarik gabe, aldagai horiek eta aintzat har litezkeen beste aldagai batzuek inpaktu handia daukate konpetentzien errendimenduan eta, zehazki, *euskarazko komunikaziorako konpetentzian*. Beraz, zentzuzkoa da planteatzea ea talde bakoitzeko ikasleen profil-desberdintasun horrek proposamen metodologiko ezberdinak eta hizkuntzak ikasteko irizpide ezberdinak eskatzen ote dituen.

3.1.2.2.f) grafiko. ED17. LHko 4. maila. D ereduko ikastetxeetako ikasleen ezaugarriak, eremu soziolinguistikoaren arabera.



Iturria: Guk geuk egina, ED17ko txosteneko eta Arrue proiektuko datuetatik abiatuta.

3.1.2.2.g) grafikoa. ED17. LHko 4. maila. D ereduko ikasleen emaitzak, eremu soziolinguistikoaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, ED17ko txostenaren eta ISEI-IVEIren datuetatik abiatuta.

Ikaskuntza elebiduneko programen ikuspegitik begiratuta, hizkuntza-ereduak garatzen hasi zirenetik dakigu D ereduan, egiazki, honako bi programa hauek nahasten direla: 2. hizkuntzan oinarrituriko eta funtsean testuinguru soziolinguistiko erdalduneko ikasle erdaldunei zuzenduriko irakaskuntza-programa eta ama-hizkuntza euskara duten ikasleentzako euskara hutsezko irakaskuntza eskaintzen duen programa. Hots, xede eta metodologia oso ezberdinak dauzkaten programak biltzen ditu izen berberak.

Egia da 2. hizkuntzan ikasteko programei buruzko ikerketa guztiek argi eta garbi esaten dutela esposizio-denboran gutxieneko intentsitate-maila bat bermatu behar dela, esposizio-denborarik gabe emaitzak ez direlako onak izango, baina aintzat hartu behar dugu era berean adierazten dutela denboraren aldagai hori erlatiboa dela eta ezin daitekeela baieztatu 2. hizkuntzan lorturiko maila denboraren arabera bakarrik denik. Zalantzarik gabe, eta gure sistema elebiduna horren erakusgarria da, murgiltze-programa batean hizkuntza bat ikasteak hainbat abantaila dauzka, ohiko sistemekin alderatuz gero, baina ez horrenbeste input-kopuruagatik: kalitatea da gakoa.

Ikasgaien bidez 2. hizkuntza bat ikasteko programak garatzean, arazo garrantzitsu bat sortu ohi da, irakaskuntza- eta ikasketa-prozesuak 2. hizkuntzari baino edukiari gehiago begiratzen dion une bat iristen delako; batez ere, maila jakin batzuetatik aurrera, maila horietan eduki jakin batzuk eskuratzen direla ziurtatzeko presioa eragiten baitu sistemak. Hau da, ikasgaiak ez dira hizkuntzan aurrera egiteko erabiltzen, hizkuntza bera jasotzat jotzen baita: besterik gabe, 2. hizkuntzan ematen dira ikasgaiok. Hala ere, esperientzia askok adierazten dutenez, edukian bakarrik zentratutako irakaskuntza bat ez da 2. hizkuntzaren irakaskuntza ona.


Erabateko murgiltze goiztiarreko programa batek, gainera, honako hauek bermatu behar ditu: hizkuntzarekiko gutxieneko esposizio-denbora bat, hizkuntzaren erabilerari buruzko planteamendu metodologikoen testuingurudun garapena, irakasleen papera, irakasleekiko eta berdinen arteko elkarreragin komunikatiboa, ikasleen ekoizpenaren intentsitatea, bertako hiztunekiko elkarreragina, benetako materialen erabilera..., murgiltze-programa batean ezinbestekoak baitira.

3.1.2.3. Euskarazko irakurmenaren emaitzen analisia

Lehen esan dugun moduan, euskara da D ereduan ezagutzak eskuratzeko eta hizkuntzazkoak ez diren konpetentziak garatzeko komunikazio-hizkuntza. Ikaskuntza horretan aurrera egiteko, instrumentu giltzarri eta funtsezkoa da irakurmen-kompetentzia ona eta testuak adin horietan ulertzeko estrategia kognitibo egokiak edukitzea.

3.1.2.1.a) *grafikoa*, ikasle guztien euskarazko irakurmenaren emaitzek izandako bilakaera jasotzen da, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako Ebaluazio Diagnostikoaren azken edizioetan puntu asko galdu direla egiaztatzea daiteke (2010etik 2017ra, 20 puntu galdu dira). Hurrengo grafikoa, D ereduko bi estratuek irakurmenean ateratako puntuen bilakaera jasotzen da, eta bi alderdi nabarmentzen dira: batetik, joera sistema guztirako behatu denaren antzekoa da (zentzuzkoa da, D ereduak baita sisteman nagusi), eta, bestetik, 2010-2017ko aldian oro har ikusi den puntu-galera are handiagoa da, 26 puntura iristen baita (gainera, bi estratuetan).

3.2.1.3.a) grafikoa. LHko 4. maila. Euskarazko irakurmena. Emaitzen bilakaera, D ereduko estratuen arabera



Irakurmenaren emaitzek okerrera egin dutela berresteko, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek nazioarteko PIRLS ebaluazioan lorturiko emaitzak ikus ditzakegu (IEAk egin zuen ebaluazioa, 2016an). 2017ko abenduan aurkeztu ziren ebaluazioaren emaitzak, eta IEAk⁸⁵ argitaratutako nazioarteko txostenean nahiz Hezkuntza Ebaluatze Institutu Nazionalak (INEE) argitaratutako txostenean kontsultatu daitezke (bertan, Espainiako eta lagin propioarekin parte hartu zuten zazpi autonomia-erkidegoetako emaitzak jasotzen dira, eta horien artean daude Euskadikoak⁸⁶). Txosten horietan, euskal ikasleen emaitzak jasotzen dira (euskal ikasleak familiaren hizkuntzan ebaluatu ziren).

3.2.1.1.i) *txostenean*, Europako herrialde batzuen eta zazpi autonomia-erkidego parte-hartzaileen puntuazio orokorrak jasotzen dira, baita Kanadako bi estatuko puntuazioak ere (Quebec eta Ontario). Grafikoa goitik behera ordenatu da, puntuazioen arabera. Lerro bertikal eten horiak ELGEren batez besteko balioa markatzen du: 540 puntu.


Euskadiren emaitzak (517 puntu), estatistikoki, Frantziako, Norvegiako, Portugalgo eta Espainiako antzekoak dira, baita Kataluniako eta Andaluziako emaitzen antzekoak izan ere,

⁸⁵ Nazioarteko txostena: <http://pirls2016.org/download-center/e>

⁸⁶ INEEren txostena: <http://www.mecd.gob.es/inee/evaluaciones-internacionales/pirls/pirls-2016.htm>

baina ELGEko herrialde parte-hartzaileen batezbestekotik (540 puntu) eta EBren batezbestekotik (539 puntu) oso urrun daude; are, lau erkidego 545 puntuetatik gora daude.

3.2.1.3.b) grafikoa. 2016ko PIRLS. Lehen Hezkuntzako 4. mailako irakurmeneko emaitzak.




Aurrekoa osatze aldera, ikasleak 2016ko PIRLS ebaluazioan irakurmenean erakutsitako errendimendu-mailaren arabera banatu daitezke. Hain zuzen ere, hurrengo grafikoan banaketa hori jasotzen da, parte hartu zuten herrialde batzuen eta autonomia-erkidego guztien datuekin batera. Grafikoa ordenatzeko, errendimendu-maila baxua duten ikasleak jarri dira aurrea.

Ohikoa denez, ikasle gehienak tarteko mailaren eta maila altuaren artean banatzen dira (ELGE-24n eta EBn, ikasleen % 70 daude hor). Euskadi % 71ra iristen da, baina Espainiako batezbestekoa baino beherago dago (% 74).

ELGE-24ren herrialdeak multzoan hartuta, ikasleen % 12k maila aurreratua dute, eta antzeko ehunekoa dago EB osoan (% 11). Singapurren, adibidez, ikasle bikainak % 29 dira; Frantzian, Euskadin, Katalunian eta Andaluzian, ordea, irakurtzeko kompetentzia aurreratua duten ikasleek ez dute % 5a gainditzen.

ELGE-24ko ikasleen % 18 ez dira irakurmenean errendimendu-maila baxua gainditzeko gai, eta ehuneko hori 7 portzentaje-puntu altuagoa da Euskadin, ebaluatutako ikasle guztien laurdena baitago hor. Errendimendu baxuko euskal ikasleen % 25 horretan, gainera, oso errendimendu baxuko % 4 bat dago. Ehuneko hori ELGE-24ren batezbestekoaren oso antzekoa da, baina gainerako autonomia-erkidegoetatik behera dago.

3.1.2.3.c) grafikoa. 2016ko PIRLS. Irakurmeneko errendimendu-maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa (maila baxua aurrea).



Gogoratu beharra dago emaitza baxu horiek gutxi gorabehera bat egiten dutela Euskadik 2015eko PISAn eskuratutako emaitzekin: Euskadik lagin propioarekin parte hartu duen sei edizioetan irakurmenean ateratako emaitzarik baxuenetarikoak izan ziren horiek, 7 puntu galdu baitziren aurreko ediziotik (2012) eta errendimendu-maila baxuko ikasleen kopuruak 3 portzentaje-puntu egin baitzituen gora. Edizio horretan, gainera, D ereduak jaitsi zituen puntu gehien emaitzetan (-9); bereziki, itunpeko D ereduak, 14 puntu galdu baitzituen (D publikoak 7 bakarrik).

3.1.3. Ondorio orokorrak eta hobetzeko proposamenak

Duela hamarkada batzuk, hezkuntza-sistemek askotariko hezkuntza-etapetako eskolatzeko adierazleak, inbertsio-adierazleak eta emaitza akademikoen adierazleak baino ez zeuzkaten haien kalitatea baloratzeko eta indarguneak nahiz bikaintasuna beste hezkuntza-sistema batzuekin alderatzeko. Alabaina, gaur egun ezin ditzakegu hezkuntza-sistema baten baliozkotasuna eta eraginkortasuna neurtu, ikasleen errendimendua eremu bikoitz honetan balioetsi gabe: eskolako errendimendua eta ebaluazio estandarizatu propio nahiz nazioarteko onoriozko kanpo-errendimendua, objektibotasun eta konparazio-ahalmen handiagoko tresna izaki.

Bi eremuok (eskola eta kanpo-ebaluazioa), dudarik gabe, elkarguneak dauzkate, eta elkarren osagarri dira (ikasle berberak eta irakaskuntza-ekintza berbera neurtzen dituzte, testuinguruaren arabera antzeko aldagaiak hartzen dituzte kontuan, konpetentzia eta ikaskuntza berberak hartzen dituzte erreferentziatzen...), baina, zalantzarik gabe, bi ikuspuntu bereizitak deskribatzen dute errealtate bera. Agerikoa denez, ez daude eta ez dute zertan maila berean egon, eta ez dira berdin hartu behar: ebaluazio akademikoa heziketa-prozesu konplexu eta dimentsio anitzeko baten emaitza da, eta kanpo-ebaluazioa hezkuntzaren eta ikasleen ikaskuntzen zati bat bakarrik neurtzeko gai da, nahiz eta zenbait azalpen topatzeko eta korrelazioak ezartzeko gaitasun handia duen eta, batez ere, erreferente berberarekin errealtate ezberdin eta urrunak neurtzeko gaitasuna duen.

a) Emaitza akademikoei buruz.

- Datu, txosten eta ikerketa propio nahiz nazioarteko ugarik baieztatzen dutenez, errepikatzea neurri bidegabe, garesti eta ez oso eraginkorra da hezkuntza-arloan suspertzeko neurri gisara, eta gure sisteman errepikapena erabiltzea ez dago araudia aldatzearen mende: tradizio errota batean dauka jatorria; batez ere, benetako eraginkortasuna aintzat hartu gabe onuragarritzat jotzen duen kultura profesional batean. Gauzak horrela, honako hau **eskatzen dio Euskadiko Eskola Kontseiluak** Hezkuntza Sailari: neurri hori salbuespenezkotzat eta subsidiariorat har dadin hausnarketa sakona egitea bultzatzea hezkuntza-zerbitzuen bidez, hala ikastetxeetan, nola irakasle-taldeetan, eta, horri begira, beste herrialde nahiz autonomia-erkidego batzuetan errepikapenaren ordeztatzeko diren aukera eraginkorrei buruzko informazio kontrastatua eman dezala eta errepikapena murrizteko xedeak zein errepikapenaren erabilera nabarmen murrizten lagunduko duten hezkuntza-estrategiak proposa ditzala. Zentzu horretan, hau eskatzen dio:
 - Errefortzu-programa eta -plan espezifiko eta banakatuak ezartzea.
 - Konplexutasun handiko ikastetxeetan programak indartzea eta mantentzea, beharrezko baliabideak emanez, eta arreta berezia jarritz hezkuntzako profesionalen formakuntzan eta prestakuntzan.
 - Curriculumak malgutzatzea / pertsonalizatzea, errendimendu baxuko ikasleek irteera-profilari loturiko oinarritzko eduki eta ikaskuntzak hartu ahal izan ditzaten, denbora luzeagoan eta haien ikaskuntza-eritmoarekin bat.
 - Ikasteko arazoak dauzkaten ikasleak goiz hautemateko mekanismoak erabiltzea.
 - Hezkuntza-arloko trantsizioak zailtzen dituzten oztopoak aztertzea.
 - Taldeko lana, komunikazioa eta prozedurazko jarduerak sustatzen dituzten metodologiak bidez konfiantza eta autonomia pertsonala nahiz taldekoa bultzatuko dituzten ikaskuntza-giroak sustatzea.
- Derrigorrezko oinarritzko ikasketetako errepikapenaren ia erdiak Lehen Hezkuntzan gertatzen dira: Lehen Hezkuntzako ikasleen % 12,3 errepikatzailerak dira, eta gehiago errepikatzen da etaparen lehen zikloko bi mailatan. Gainera, errepikapenarekin zerikusia daukaten ikerketa eta azterlan gehienek adierazten dutenez, kaltegarriagoa da Lehen Hezkuntzako hasierako urteetan neurri mota hori ezartzea; batez ere, gutxiengo

etnikoentzat eta maila sozioekonomiko eta kultural baxuko familietatik datozen ikasleentzat. Hori dela-eta, **Euskadiko Eskola Kontseiluak** honako hau **eskatzen dio** Hezkuntza Sailari:

- Sakon azter dezala zer geratzen den eta zein irizpide aplikatzen diren Lehen Hezkuntzan mailaz igotzeko erabakietan; bereziki, etaparen lehen mailai dagokienez.
- Lehen Hezkuntzan porrot egiteko arrisku handiagoa duten ikasleei laguntza gehiago aurreratzeko aukera azter dezala; bereziki, irakurtzeko eta idazteko prozesuetan nahiz irakurmenerako tresnen eta estrategien finkapenean laguntzeko, errefortzu gisara. Izan ere, askotan, Bigarren Hezkuntzara iristen direnean beranduegi izaten da.
- Hezkuntzako Ikuskaritzaren erronka nagusietako bat da ikasle guztiek mailak arrakastaz bukatzea, bai eta ikastetxeetan abiatzen diren neurriak gainbegiratu eta haien inguruan aholku ematea ere. Beraz, **Euskadiko Eskola Kontseiluaren proposamena** da emaitza akademikoei eta kanpo-ebaluazioetako emaitzei buruzko hausnarketa-lanarekin jarraitzea eta, ahal bada, lan hori areagotzea. Halaber, ikasleak mailaz igotzeko/errepikatze erabakien gaineko gainbegiraketa eta aholkularitza espezifikoki handitzea eskatzen dio.
- Indarreko curriculuma zabalegia eta zehatzegia da elementu guztietan, eta horrek galarazi egiten du irakasleak oinarrizko ikaskuntza eta konpetentzietan zentratzea, edo, gutxienez, ahalegin hori ez egiteko aitzakiatzat erabiltzen da. Curriculum-proposamen horren elementu giltzarrietako bat da derrigorrezko eskolatzearen amaierako irteera-profila deiturikoa, baina, tamalez, orain arte ez da irteera-profil hori zehaztu. Hori dela-eta, **Euskadiko Eskola Kontseiluak** Hezkuntza Sailari **eskatzen dio**, batetik, argi eta garbi zehaztu ditzala irteera-profilari loturiko oinarrizko eta ezinbesteko ikaskuntzak eta, bestetik, ikastetxeei ikastetxeko hezkuntza-proiektua autonomia handiagoz garatzeko tokia eman diezaiela. Bestalde, curriculuma oro har malgutu dezala eskatzen dio, eta curriculum transdiziplinarrago baten alde egin dezala.
- Euskara euskal kulturaren adierazpidea da, haren adierazpen anitzez gozatzea euskara-maila hobearekin lotzen da. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da Euskal Curriculuma garatzea eta eguneratzea.
- Beharrezkoa litzateke ikaskuntzaren ebaluazioa sakonki berrikustea, gaitasun guztiak hobetzerantz bideratuta, ikasleak inplikatzeko dituzten (autoebaluazioa, koebaluazioa,...) eta haien autonomia areagotzen duten estrategien bidez.
- **Euskadiko Eskola Kontseiluak** Hezkuntza Sailari **eskatzen dio** irakasleak konpetentzia akademikoen nahiz konpetentzia pertsonal eta sozialen ebaluazioan trebatzen lagundu dezala eta prestakuntza hori susta dezala, bai eta ikastetxeei ebaluazio-prozesuak hobetzen laguntzeko material lagungarriak eman diezazkiela ere; bereziki, oinarrizko konpetentzien ebaluazioari dagokionean.

b) Kanpo-ebaluazioei buruz

- Kanpo-ebaluazio estandarizatuak beharrezko tresna dira gure hezkuntza-sistemarako, informazio- eta datu-iturri aberatsa direlako eta, horri esker, gure hezkuntzaren egoera alderatu, xedeen egokitasuna eta euskal ikasleen errendimendua egiaztatu eta beste hezkuntza-sistema batzuetan arrakasta izan duten hobekuntza posibleak txertatzeko aukera baloratu ahal dugulako. Hori dela-eta, **Euskadiko Eskola Kontseiluak** Hezkuntza Sailari **eskatzen dio** ebaluazio horien zentzuari, helburuari eta ezaugarriei buruz informatzen jarraitu dezala, informatzeko ahalegin hori handitzearekin bat; eskolei prozesu guztian eska diezazkiela laguntza eta inplikazioa, eta hezkuntza-komunitatean nahiz gizartean prozesu mota horien ahalmenei eta mugaketei buruzko hausnarketa serioa susta dezala.
- Hainbat ikerketa eta azterlanen arabera, ikasleek proba ondo egiteko izaten duten motibazioak nabarmen eragiten die ebaluazio-proben emaitzei. Ikerketa batzuek diotenez, proba egitean jarritako ahalegin-mailak azal dezake PISAren emaitzetan herrialdetik herrialdera egoten den aldearen % 32-38; hau da, alde horiek ez dira ikasleen ezagutza-mailaren arabera bakarrik izaten. Hori dela-eta, **Euskadiko Eskola Kontseiluak** Hezkuntza Sailari **eskatzen dio** gure ikasleen trebetasun ez-kognitiboen gaineko lan espezifiko susta dezala, ikasleek ahaleginaren, horrelako probekiko motibazioaren eta pertseberantziaren inguruan urritasun orokorra erakusten baitute.

c) Sistema elebiduneko euskalduntzeari buruz

- Ebaluazio propioen nahiz nazioarteko ikerketen emaitzei erreparatuta, argi ikus daiteke irakurmenerako kompetentzia ez dela nahikoa ikasleen zati handi batean eta gaitasun hori egoera soziolinguistikoarekin lotuta dagoela. Hori dela-eta, **Euskadiko Eskola Kontseiluak** honako hau **eskatzen dio** Hezkuntza Sailari:
 - Ikasleen irakurmen-kompetentziari buruzko ikerketa areagotu dezala, haien familiaren hizkuntza, irakaskuntzako hizkuntza eta egoera soziolinguistiko aintzat hartuta.
 - Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiaren gaur egungo curriculum berrikus dezala derrigorrezko bi etapetan, bai behar besteko zehaztasunez identifika ditzan hizkuntza hori ikasteko eta hartzeko oinarriko elementuak, bai askotariko egoera eta testuinguruekin egokia izango den sekuentziazioa ezar dezan.
 - Irakurketa-planen eta irakurmenaren inguruan jada abiatutako lanarekin jarrai dezala, irakurketa hobetzen laguntzen duten estrategia kognitibo eta metakognitiboen erabileraren gaineko kontzientziarekin zerikusia daukaten alderdi guztiak azpimarratuz.
 - Irakurmena gustuz edo dibertsioz hobetzen lagunduko duten proiektuak bultzatzea (hots, PISA irakurketarekiko konpromiso pertsonala deitzen dena), frogatuta baitago konpromiso horren eta irakurmeneko errendimenduaren artean lotura estua dagoela.

- Hizkuntza-arloen eta hizkuntzazkoak ez diren gainerako arlo eta ikasgaien arteko lankidetza eta laguntza areagotu dadila, askotariko ezagutza-eremuetako testu espezifikoak ulertzeko estrategiak erabil daitezen, testu horien ulermena bera aberastu dadin eta ikastetxeetan jarduera hobeak heda daitezen.
- Hizkuntzen ebaluazio jarraitua egin dadila, aurre-ebaluazioa eta glotobiografia (hiztunek haien hizkuntzekin duten harremanean oinarrituriko narrazio biografikoak) barne hartuta. Azken horrek lehenengo hizkuntza guztien tratamendua egokia izaten lagundu behar du.
- Irakasleek prestakuntza espezifikoa jaso dezatela, curriculumeko arloetan ulermena sustatzeko modua hobetu dezaten.
- Metodologia komunikatiboa susta dezala, bai eta hizkuntzen irakaskuntzako askotariko etapetako irakasleen arteko lankidetza sustatu ere. Irakasleek hizkuntzak irakasteko metodologia aurreratuetan gaikuntza egokia jaso dezatela.
- Euskararen gaitasuna hobetzeko didaktika eta pedagogia arloan inbertsioak egiteko beharra dago. Euskara modu komunikatiboan ikasteko, beharrezkoa da ikasgelako ratioak jaistea eta euskara indartzeko irakasleak kontratatzea.
- D ereduaren aurretiko analisisian ikusi diren askotariko egoerek eta testuinguruek, muturreko kasuetan, ikasleen eta ingurune soziolinguistikoaren ezaugarrietara egokitutako heziketa- eta hizkuntza-planteamendua egitea eskatzen dute. Hori dela-eta, **Euskadiko Eskola Kontseiluak ezinbestekotzat jotzen du** Hezkuntza Sailak D ereduari buruzko ikerketa sakon bat abiaraz dezala; batetik, eredu hori osatzen duten askotariko hizkuntza- eta hezkuntza-errealitateak identifikatu eta karakterizatu ahal izan daitezen horren bidez eta, bestetik, askotariko egoera eta testuinguruetara egokitutako estrategia metodologikoak egokiak ote diren balora dadin.

3.2. IRAKASKUNTZAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA EKINTZA

Europar 6,25 milioi irakasle inguru daude, eta horien artean daude 2017-18 ikasturtean beren hezkuntza-lana euskal hezkuntza-sisteman egiten zuten 37.227 irakasleak (23.064 sare publikoan eta 14.163 itunpeko sare pribatuan).

Arazo sozialek, hegakortasun teknologikoak, ingurumen-eskakizunek, desberdinkeria- eta pobrezia-arazoek, kultura-aniztasunak eta lan-munduko aldaketetara egokitzeak eskari eta erronka berriak planteatzen dizkiote irakasle-lanbideari, eta gero eta konplexuagoa den eta, ondorioz, kualifikazio handia behar duen lanbide bihurtu dute.

Jakintzaren esparruei lotutako oinarritzko ezagutzak garatzeaz gain, gaur egun beharrezkoa da irakasleek gazteei modu autonomoan ikasten laguntzea oinarritzko gaitasunak eskuratuta. Eskatzen zaie elkarlanean gehiago oinarritutako ikaskuntza-proposamenak garatzea eta ikasgelako bitartekari eta kudeatzaile izatea. Eskatzen zaie teknologia berriek ematen dituzten aukerak aprobetxatu ditzatela eta horiek dakartzaten erronka eta arriskuei erantzun diezaietela. Are gehiago, gizarteak gero eta modu biziagoan jartzen du hezkuntzaren eskuetan arazo askoren etorkizuneko konponbidea. Horrez gain, ikasgeletan hainbat jatorritako eta ezaugarri pertsonal eta familiar desberdineko ikasle gazte gero eta heterogeneoagoak elkartzen dira, eta irakasleek erabakiak hartzeko eta ikasgela eta curriculumak kudeatzeko zeregin konplexuak hartu behar dituzte beren gain. Bizikidetzak eta hazkunde emozionala eraikitzea, norberaren erantzukizuna, askatasuna eta espiritu kritikoa garatzea ere hezkuntza-lan ororen helburu garrantzitsuak dira.

Erantzukizun, erronka eta eskakizun horien guztien ondorioz, Europako herrialde gehienak, baita Euskal Autonomia Erkidegoa ere, etengabe birplanteatzen ari dira irakasleek euskal gizartean eta Europako gizartean betetzen dituzten eginkizun garrantzitsuetarako prestatzeko baliatzen dituzten moduak, estrategiak, esparruak eta baliabideak. Irakasleen prestakuntzaren kalitatea hobetzea funtsezko helburua da hezkuntza-sistema guztientzat, besteak beste, txosten honen lehen kapituluak aztertu diren helburu komunak azkarrago betetzeko bidean aurrera egin nahi bada.

Eginkizun eta eskakizun berri horiek prestakuntza eskatzen dute gaitasun, trebetasun eta ezagutza ugarietan, horiek osatzen baitute irakaskuntza-kompetentzia, eta, gainera, etengabe garatu behar dira, testuinguru bakoitzera eta hezkuntza-komunitate bakoitzera egokituta. Horregatik da hain garrantzitsua irakasleen hasierako prestakuntza kalitate handikoa izatea, baita ikastetxearen beharrei eta proiektuari lotutako etengabeko garapen profesionaleko prozesu koherentea eta ondo planifikatua ere, irakasleak eguneratuta mantenduko dituen testuinguru berri batean, non ezinbestekoa baita ikaskuntzaren kudeaketaz arduratzen diren pertsonen rola eta irakaskuntza-estrategiak aldatzea hezkuntza-erakunde eta -esparru guztietan. 2006an jadanik, Europako Kontseiluak honako hau adierazi zuen: «*Irakasleen, prestatzaileen, beste irakasle batzuen eta orientazioko eta gizarte-laguntzako zerbitzuen motibazioa, kalifikazioak eta kompetentziak, baita ikastetxeetako zuzendaritzaren kalitatea ere, funtsezko faktoreak dira kalitate handiko ikaskuntza-emaitez lortzeko*⁸⁷».

*EAeko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana. Bikaintasunerantz ekitatean oinarrituta*⁸⁸ da kapitulu honetan landutako gaien egoera aztertzeko eta baloratzeko erreferentziatzat hartuko

⁸⁷ Batzordearen jakinarazpena Europako Kontseiluari eta Parlamentuari: “Mejorar la calidad de la formación del profesorado”. <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=LEGISSUM%3Ac11101>

⁸⁸ <https://www.euskadi.eus/heziberri-2020-plana-ikasleen-ebaluazioa/web01-a3hbhezi/eu/> 2016-2020 Hobetzeko Plana eta 2016-18 Berrikuspenera aurki daitezke. Planak 25 helburu eta 87 adierazle proposatzen zituen, nahiz eta, Eskola Kontseiluaren aurreko txostenean adierazten zen bezala, ez zen inolako hierarkiarik edo lehentasunik ezartzen haien artean.

dugun funtsezko dokumentua, baina ez bakarra. Dokumentu hori 2016ko martxoan onartu zuten eta *Heziberri 2020* planetik sortua da. Bertan, “hezkuntza-sistemaren ekitate eta kalitatean bikaintasunerantz aurrera egiteko funtsezko jardun-ildoak” zehazten dira. Lehen ildo estrategikoak “*Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza*” du ardatz.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2015-2017 txostenean jadanik egin zen haren edukiaren hasierako balorazioa. 2019ko uztailan, Hezkuntza Sailak plan horren lehen berrikuspena argitaratu zuen, 2016-2018 aldiari buruzko analisi eta ebaluazioarekin. Bertan, EAEko ikastetxeetako irakasleei buruzko datu eguneratuak argitaratzen dira.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenari buruzko kapitulu honetan, euskal irakasleekin eta irakasle gisa duten profesionaltasunaren garapenarekin lotutako funtsezko hiru gai landuko dira:

- Lehenik eta behin, jakitea noraino iristen den irakaskuntza-ekintzak ikasleen errendimenduan duen eragina eta zer informazio dugun gai horri buruz, gure hezkuntza-sistemari dagokionez.
- Bigarrenik, irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzari erreparatuko diogu, eta deskribapen bat aurkeztuko dugu gure hezkuntza-sistemaren helburuekin lotuta dauden datu eta txostenekin. Hemen, berdinaren arteko prestakuntzarekin lotutako helburua ere jasoko dugu.
- Azkenik, eskola-eraginkortasunari buruzko ikerketek hobekuntzaren erdigunean jartzen duten gai bat aipatuko dugu: zuzendaritza-taldearen lidergoa eta horien egungo prestakuntza-ereduaren moldatzea eta egokitasuna.
- Txosten honek muga batzuk ditu hasiera batetik, eta komenigarria litzateke aurrerantzean horiek ebaztea; bereziki, berritzeguneetan eta Prest Gara-n egindako prestakuntza-jardueren balorazioari dagokionez. Kontseilu honek ez ditu eskuragarri horietan parte hartu zuten irakasleek egindako ebaluazioen emaitzak. Era berean, ez dira jasotzen ikastetxeek egindako balorazioak prestakuntza-jardueren eskola-jardueraren hobekuntzan duten eraginaren inguruan.

3.2.1. Irakaskuntza-ekintza eta horrek eskola-errendimenduan duen eragina neurtzea

Gauza jakina da hezkuntzan egiten diren inbertsioen onura sozialak, eta baita ekonomikoak ere, ikasleengan kalitatezko ikaskuntza sortzeko duten eraginkortasunaren arabera direla. Nahikoa egiaztatuta dago ikaslearen familia-testuingurua dela (aitaren eta amaren hezkuntza-maila, etxe barruko egoera ekonomikoa, liburu-erakargarritasunak...), oraindik ere, ikaskuntzaren emaitzak aurreikusteko faktore nagusia. Azken urteetan egindako ikerketa-lanei esker, ebidentzia berriak bildu ahal izan dira, eta horiek adierazten dute, haurrak eskolan sartzen direnean, irakasleen kalitatea —banaka eta irakasle-talde gisa hartuta— funtsezko faktorea dela, eta eragin handiagoa duela antolaketaren, zuzendaritzaren edo baldintza finantzarioen ondorioek baino⁸⁹.

Ildo beretik, PISA nazioarteko azterketak eta beste azterlan eta ikerketa batzuek ere ondorioztatu dute hezkuntza-sistema baten kalitatea bertako irakasleen kalitatearen mende dagoela⁹⁰. Horregatik, irakaslerik onenak erakartzea, garatzea eta kontserbatzea da hezkuntza-sistemek gaur egun duten erronka handienetako bat.

⁸⁹ Ikus Batzordeak Europako Kontseiluari eta Parlamentuari egindako jakinarazpenaren erreferentziak: “*Mejorar la calidad de la formación del profesorado*”.

⁹⁰ Ikus ELGAren txostena: “*Irakaskuntza-politika eraginkorrak. PISA txostenaren ondorioak. Laburpena*”. Bertan, irakaskuntza-politiken datu konparatiboak eta adierazleak, irakasleen ezaugarriak eta lan-baldintzak aztertzen dira, PISA ebaluazioak, TALIS inkestak eta INES hezkuntza-sistemen adierazleak programak emandako informazioan oinarrituta.

Nahiz eta ez dirudien zalantzarik dagoenik irakasleek hezkuntza-errendimenduaren faktore erabakigarri gisa duten garrantziaren inguruan, hala ere, ez dago adostasunik zer alderdik eta zer jardunbidek duten eragin handiena hezigaien emaitzetan. Ikerketa horietan hainbat esparruren azterketa nabarmendu da:

- a) Joeretako bat zentratu da irakasle bat irakasle eraginkor bihurtzen duten ezaugarriak identifikatzean. PISA ebaluazioa ildo horretatik urrats batzuk ematen saiatu da, nazioartean arrakasta duten hezkuntza-sistemetako irakasleen ezaugarriak identifikatzetik abiatuta⁹¹.
- b) Beste ikerketa-joera batek irakasleek eskoletan erabiltzen dituzten irakasteko estrategien eraginkortasunean sakondu du, ikasleengan emaitza onak eragiteko jardunbide eraginkorrenak zein diren zehaztuta. Kasu horretan, funtsean, bi hauen artean bereizi izan da: estrategia tradizionalak (ezagutzak transmititzen dituzten irakasleak, ikasliburuaren erabilera...) eta ikuspegi berritzaileagoak (horietan ikasleek rol protagonistagoa eta inplikazio handiagoa hartzen dute beren ikaskuntza-prozesuan).
- c) Azkenik, bada beste ikerketa-esparru bat, ikastetxeko irakaskuntza-kulturaren eraginkortasuna aztertzeko ikuspegi alternatiboan zentratu dena, oinarri hartuta eskola bereko irakasleek antzeko irakaskuntza-estrategiak erabiltzeko joera dutela, eta materialak ere partekatzen dituztela. ELGAk txosten batzuk egin ditu ildo horretan⁹².

Euskal Autonomia Erkidegoan, irakaskuntza-ekintzak eskola-errendimenduan duen eraginarekin lotutako ikerketak eta azterlanak urriak dira. Hortaz, une honetan ez daukagu gure testuinguru espezifikoari lotutako erreferentzia nahikorik harreman horren indarra eta intentsitatea egiaztatzeko euskal irakasleen kasuan. Hala eta guztiz ere, baditugu datu batzuk:

- Dimentsio eta sakontasun handieneko lana ISEI-IVEIk EHUKo talde batekin batera *Eskolaren eraginkortasuna Euskadiko ikastetxeetan*⁹³ izeneko ikerketa izan da. Ikerketa horrek erakusten du, euskal hezkuntza-sistemaren datu kuantitatibo eta kualitatiboetatik abiatuta, ikastetxe batzuk gai direla beren ikasleengandik espero duten errendimendua gainditzeko, haien ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalak eta beste aldagai batzuk kontuan hartuta. Gaitasun horrek zerikusia du ikastetxeak ikasleen batez besteko errendimenduan egiten duen ekarpenarekin eta, beraz, irakaskuntza-jarduerak dakarren eraginkortasunarekin eta balio erantsiarekin.

Metodologiei dagokienez, ikerketan erabilitako bederatzi kategorietako batean honako ondorio hau ateratzen da: *“ikusten da emaitzak ez daudela metodologia zehatzei lotuta; izan ere, ikastetxe eraginkorretan eta eraginkorrek ez direnetan, batzuek metodologia tradizionalak erabiltzen dituzte eta beste batzuek ikuspegi berritzaileagoa dute”*. Hau da,

⁹¹ A. Schleicher-ek, bere *“Primera Clase. Cómo construir una escuela de calidad para el siglo XXI”* liburuan —ELGA – Fundación Santillana (<https://www.fundacionsantillana.com/2018/10/08/primera-clase-como-construir-una-escuela-de-calidad-para-el-siglo-xxi/>)—, 90. orrialdean, Thomas L. Good-en ikerketa honela laburtzen du: *“estos profesores (eficaces) creen que sus estudiantes pueden aprender y que ellos mismos pueden enseñar, pasan la mayor parte del tiempo de la clase enseñando, organizan sus clases y aprovechan al máximo el tiempo de aprendizaje del estudiante, siguen un ritmo curricular rápido basado en dar pequeños pasos, usan métodos de enseñanza activo y enseñan a los estudiantes hasta que estos dominan los conocimientos”*.

⁹² *How teachers teach and students learn: Successful strategies for school*, OECD Education Working Papers nº 130 (https://www.oecd-ilibrary.org/education/how-teachers-teach-and-students-learn_5jm29kpt0xxx-en) y *Teaching Strategies for Instructional Quality. Insights from the TALIS-PISA Link Data*, OECD Education Working Papers nº 148 (https://www.oecd-ilibrary.org/education/teaching-strategies-for-instructional-quality_5jln1hlsr0lr-en)

⁹³ <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/eu/centros-eficaces>

gure Erkidegoko ikastetxe eraginkorrek, ikerketa horren arabera, askotariko metodologiak, estrategia didaktikoak eta baliabideak erabiltzen dituzte. Hortaz, esan daitekeen gauza bakarra da irakaskuntza-ekintzak eragina duela eskola-eraginkortasunean, baina ez dela lotzen irakatsi eta ikasteko prozesu mota jakin batekin. Azterketa horretan, halaber, irakasleek proiektu berriei ekiteko prestakuntzarekiko erakusten duten aldeko jarrera eta kide izatearen sentimendua nabarmentzen dira.

- ELGAren PISA azterlanaren hainbat ediziotan zenbait indize konposatu erabili ohi dira, irakasleek ebaluatu beharreko konpetentzietan (irakurketa, matematika eta zientziak) klaseetan egindako jardueri buruzko informazioa laburbiltzen dutenak. Parte hartu duten ikasleek osatutako galdetegitik lortzen da informazio hori, Euskal Autonomia Erkidegoak ez baitu inoiz irakasleei zuzendutako galdetegia aplikatu. ISEI-IVEIk argitaratutako txostenetan, edizio guztietan ez bada ere, sartu izan den kapitulu batean, emaitzen eta estrategia didaktiko jakin batzuekin lotutako indize horietako batzuen arteko korrelazioak ezartzen dira (irakurketaren esparruarekin⁹⁴, irakaskuntza matematikoko irakaskuntza-praktikekin⁹⁵ edo zientzien aurreko jarrera eta portaerarekin). Izan ere, ikastetxeek diagnostiko-txostenetatik abiatuta egindako hobekuntza-plan gehienetan, hizkuntza-trebetasunak azpimarratzen dira, eta horietako askotan, zehazki, irakurketakoak.
- Azkenik, PISAn ere, zenbait datu daude irakasle-ikasle harremanei buruz eta eskolako ikasleen bizi-kalitatean duen eraginari buruz. Gogoratu behar da 15 urteko gazteek eguneko orduen herenak inguru pasatzen dituztela eskolan. Hori dela eta, ikastetxea funtsezko gizarte-ingurunea da eta, ondorioz, balorazio subjektiboak oso adierazle onak dira sistemek eta irakasleek ikasleen ongizate orokorra sustatzeko duten gaitasuna neurtzeko⁹⁶.

PISAn, 2012an, hainbat ondorio atera ziren: lehenik, ikasleen eta irakasleen arteko harreman positibo eta eraikitzaileak matematikan errendimendu hobearekin lotuta daude; bigarrenik, harreman horiek hobeak diren kasuetan, probabilitate gutxiago dago ikasleek eskolara berandu joan direla edo huts egin dutela esateko; eta, hirugarrenik, ikasleen garapen sozioafektiboa eskola-ikasgaiak menderatzea bezain garrantzitsua da⁹⁷.

Laburbilduz, adierazi denez, argi dago nazioarteko ikerketak eta azterlan garrantzitsuen ondorioek behin eta berriz eta irmoki berresten dutela irakasleen ekintzaren eta esku-hartzearen eta ikasleen errendimenduaren arteko korrelazioa, bai zentzu positiboan, bai negatiboan. Hala ere, gure hezkuntza-sistemak ez dauzka edo ez ditu aztertu informazio estrategiko horri buruz eskura dauden datuak. Informazio horrek orientabideak eman ditzake irakasleen prestakuntza-prozesuetan, adibidez, hurrengo atalean aztertzen direnetan.

⁹⁴ Ikus ISEI-IVEIren txostena: "PISA 2009 Euskadi".⁹⁴ 2. Txostena: Aldagaien azterketa eta ikasleen irakurketako emaitzan duten eragina" (<http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/eu/pisa2009>). Bertan, besteak beste, irakurketaren aldeko motibazio-faktore batzuk eta ikasteko estrategiak aztertzen dira.

⁹⁵ Kontsultatu ISEI-IVEIren "PISA 2003 Ebaluazioaren Bigarren Txostena" dokumentua. Bertan, matematikarekiko eta eskolarekiko motibazio- eta jarrera-faktore batzuk aztertzen dira, baita ikasteko estrategiak ere.

⁹⁶ Ikus PISA in focus, 50 zk.: ¿Afectan las relaciones profesor-alumno al bienestar de los estudiantes en la escuela? (<http://www.educacionyfp.gob.es/inee/publicaciones/publicaciones-periodicas/pisa-in-focus.html>)

⁹⁷ Batez beste, ELGAko herrialdeetan, ingurune sozioekonomikoetako ikasleak eta antzeko ikasgaietan dute errendimendua alderatzen direnean, litekeena da irakasleekin harreman onak dituztela diotenek (adibidez, ia guztiekin ondo moldatzen dira, irakasle gehienek beren ongizateaz interesatzen dira, benetan entzuten dute zer esan behar duten, aparteko laguntza ematen diete behar izanez gero eta behar bezala tratatzen dituzte) eskolan pozik daudela adieraztea, integratuta daudela eta beren ikastetxearekin gogobeteta daudela.

3.2.2. Irakasleen prestakuntza eta laguntza aztertzea

Irakasle bat kontratatu ondoren, eskola-sistemaren funtsezko erantzukizunetako bat da ahalik eta eraginkorrena izatea eta konpetentzia profesional handiena lortzea. Horrek esan nahi du irakasle bakoitzaren garapena bakarka babestu, bultzatu eta ebaluatu behar dela, eta behar diren baliabideak eta baldintzak eman behar zaizkiola ikastetxean komunitate koherente bat osa dezan, praktika partekatua eta interakzio profesionala ahalbidetzeko. Hainbat azterlanen arabera, esparru horretan, gutxienez, garapen profesionalerako funtsezko lau eremu daude:

- Laguntza eta babesa jardun profesionalaren hasieran.
- Irakasle taldearen etengabeko prestakuntza.
- Zuzendaritza-taldeen kudeaketa eta lidergoa.
- Irakaskuntzaren ebaluazioa.

Jarraian, lehen hiru esparruak jorratuko ditugu, baina ez irakaskuntzaren ebaluazioarekin lotutakoa. Izan ere, orain arte, ez dago gure sisteman garatutako proposamen espezifikorik, oposizioak gainditu ondorengo praktiketako irakasleen ebaluazioa izan ezik (jarraian datorren puntuan aztertzen da hori).

3.2.2.1. Laguntza eta babesa ikastetxeko jardun profesionalaren hasieran

Atal honetan ez gara arituko irakasleek beren lanbidean jardun aurretik eta irakasleak prestatzeko zentroetan egoteari lotuta duten hasierako prestakuntzaz. Aitzitik, aldi erabakigarria denez, irakasle-jardunaren lehen urteetako garapen profesionalerako laguntza izango dugu ardatz.

Ikerketa ugarik diote irakasle berriek oso ikasketa-kurba nabarmena bizi dutela karguan eman dituzten lehen hiru-bost urteetan. Ildo horretatik, John Hattie-k egindako lana nabarmentzen da. Izan ere, hezkuntzan 50.000 azterlan baino gehiago egin ondoren, irakasle baten bizitzako lehen bi urteen garrantzia nabarmentzen du, irakasle eraginkor bihurtzeko faktore erabakigarrienetako bat den aldetik. Eta azterlanek ondorioztat ateratzen dute aldi horren garrantzia dela hezkuntza-sistemek aukera baliotsua dutela irakasle berrien aurrerapena babesteko eta maximizatzeko, baita zeini beste lanbide bat iradokitzea komenigarria litzatekeen hautemateko ere. Badirudi lehen urteetan trebakuntza ona izatea aparteko inbertsioa dela, eta denbora luzean kalitatea eta konpromiso profesionala bermatzen lagun dezakeela.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2015-17 txostenak dagoeneko ohartarazten zuen sare publikoan *“datozen urteotan askok erretiroa”* har zezaketela, eta gehitzen zuen, suposatuta datozen hamar urteetan MUFACEra atxikitako langileek 60 urterekin lan egiteari utziko diotela, litekeena dela urte gutxiren buruan *“10.000 lanpostu huts baino gehiago egotea, dauden langileen % 50 baino zertxobait gutxiago”*. Izan ere, sistema horretara bildutako irakasle gehienek 60 urterekin uzten diote lan egiteari, eta Gizarte Segurantzakoek 65 urterekin (eta antzeko zerbait gertatzen ari da bitarteko irakasle askoren kasuan)⁹⁸.

Datu horiek kontuan hartuta, jakin behar dugu irakasle berriak sartuko direla gure hezkuntza-sisteman, hainbat hamarkadatan beren lanbidean jardungo dutenak, datozen urteetan joera horrek gogor jarraituko duela (duela urte batzuetatik hona gertatzen ari denez). Beraz, une hau baliatzen ez badugu irakasle gazteak sartzeko, aukera aparta galduko dugu epe ertainera

⁹⁸ Hezkuntza Sailaren beraren 2016-2020 *Hobetzeko Plan*ean, irakasleen adinari dagokionez, adierazten zen 2013ko abenduaren 31n % 40,5 50 urtetik gorakoak eta 65 urtetik beherakoak zirela (% 45,6 sare publikoan eta % 31,8 itunpekoan), eta hau ondorioztatzen zuen: “epe laburrean erretiroen kopurua handia izango da”.

etorkizuneko euskal hezkuntza-sistemaren oinarritzko enborra izango direnei laguntzeko, babesteko eta prestatzeko.

a) Praktiketako funtzionarioak ebaluatzeko prozesua

Zeregin hori, gure sisteman, Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio funtsean, bere dokumentuetan *“Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, jarduna hobetzen laguntzeko. Praktiketako funtzionarioak”* deitzen zaion prozesuaren bitartez.

2017-18 ikasturtean, Hezkuntza Ikuskaritzak praktiketako 735 irakasle ebaluatu zituen, gehienak maisu-maistren kidegoko langileak (Araba, 122; Bizkaia, 324; eta Gipuzkoa, 289). Kontuan hartzen badugu, Hezkuntza Sailaren datuen arabera, ikasturte honetan 11.483 maisu-maistra zeudela sare publikoan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, praktiketako 735 irakasle egoteak esan nahi du etapa horietako irakasle guztien % 7ren irakaskuntza-konpetentzia ebaluatzen eta ziurtatzen ari direla. Oro har, praktikaldiaren iraupena 6 hilabetetik gorakoa izan zen, kasuen % 6an izan ezik (42 irakasle), horietan 3 eta 6 hilabete bitartean egin baitzen praktikaldia. Praktiketako irakasleen horien % 100ek GAI balorazioa lortu zuten.

Ikuskaritzak praktiketako 735 irakasleen % 60 bisitatu zituen ikasgelan, besteak beste, taldearen irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza edo ikasgelaren garapena eta antolaketa behatzeko. Ikuskaritzak bisita horretan hobekien baloratu zituen alderdiek lotura zuten metodologiarekin, bizikidetza- eta ikaskuntza-giroarekin eta aniztasunaren trataerarako estrategiarekin.

Bisita horren ondorioz, praktiketako irakasleei hobetzeko proposamenak egin zitzaizkien, batez ere ikasgelaren metodologiarekin eta kudeaketarekin, irakatsi eta ikasteko prozesuarekin edo ikasleen ebaluazio eta jarraipenarekin lotuta. Hezkuntza Ikuskaritzak emandako informazioaren arabera, praktiketako funtzionarioen % 77k prozesu horren balorazio positiboa egin zuten, batez ere praktikari buruz gogoeta egiteko eta hobetzeko aukera eman zielako eta ikuskariarekin izandako elkarrikeria baliagarria izan zitzaielako.

Praktiketako irakasle bakoitzak tutore bat izan zuen aldi horretan, eta, lehen aldiz, praktiketako irakasleen ikasgela gutxienez hilean behin bisitatzea gomendatu zitzaien tutoreei. Hala ere, tutoreen erdiek baino zerbait gutxiagok besterik ez zioten gomendio horri jarraitu. Gainerako % 51k bisita gutxiago egin dituzte, ez dute batere egin edota ez dago haiei buruzko daturik.

Hezkuntza-sisteman irakasle askok egiten dute lan, urtez urte, bitarteko gisa. Irakasleentzako oposizioetan, probak gaingiduzten dituzten asko eta asko bitartekotasun-baldintzetan urtetan jarduten duten irakasleak dira. Errealitate hori kontuan hartu behar da edozein lan-jardueraren hasierarekin lotzen den praktikaldi baten funtzioa aztertzean.

b) Irakaskuntzara bultzatzeko programak

Nolanahi ere, jakitun izan behar da praktiketako irakasleen ebaluazio hori, sektore publikoko irakasleei soilik zuzenduta dagoena, irakaskuntzan sartu berri diren irakasleen harrerari, jarraipenari eta laguntzari lotutako eginkizunetako bat baino ez dela, eta ELGaren dokumentuetan eta beste proposamen askotan *irakasleentzako eragite-programa* esaten zaio horri. Horren bidez, irakasleek prestakuntza gehigarria, laguntza pertsonalizatua eta aholkularitza jasotzen dute fase egituratu eta nahitaezko baten barruan.

ELGaren arabera, TALIS 2013aren bidez, Espainian irakasleen % 60k baino gehiagok adierazi dute ez zutela laguntza formalik izan irakaskuntzako lehen urteetan, eta % 4k soilik izan zutela

aholkulari bat ikastetxean⁹⁹. Irakasle batek bere lehen urratsetan ikasgelan duen bakardade hori ez da denboran nabarmen aldatzen. Izan ere, azterlan beraren arabera, irakasleen % 40k baino gehiagok adierazi dute ez dutela inoiz beren klasea behatu duen zuzendaritza-taldearen edo beste irakasle baten aldetik haien jardunaren baloraziorik jaso.

ELGAko herrialde gehienek baldintzapeko probaldiak ezartzen dituzte, eta, kasu batzuetan, aldi horiek hainbat ikasturtez luzatzen dira, irakasleen jarduna eta hazteko ahalmena ebaluatzeko denbora gehiago izateko. Herrialde horietako ia bi herenek hastapen-fase egituratuak eta nahitaezkoak dituzte, baina antolaketa-eredu desberdin askorekin.¹⁰⁰ EBn, irakasle “hasiberri” horien % 89,6k tutoretza- edo aholkularitza-sistema bat barne hartzen duten hastapen-programak dituzte eskura¹⁰¹, eta % 88,5ek zuzendaritza-taldearekin eta beste lankide batzuekin bilerak programatuta dituzte. Gainera, EBko hastapen-programetan, irakasleen % 61ek ikastaroak eta mintegiak dituzte eskuragarri, baita talde-irakaskuntza, sare/komunitate birtualak edo lankideen berrikuspina ekar ditzaketen jarduerak ere¹⁰², baina kasu horietan proportzio txikiagoan.

Hezkuntza-sistematik onenetako batzuk egiten ari direna kontuan hartuta, irakasle-lanbidearen hasierari buruzko azterlanek zenbait gako ematen dituzte: a) irakasle onenak erakartzea; b) *irakaskuntzara bultzatzeko programak* sortzea, batez ere karrerako lehen bi urteetan; c) gogoeta-praktika erabiltzea; d) profesional egokienak ingurune sozioekonomiko ahulenetako ikastetxeetara bideratzea, eta haiek zaintzea eta laguntzea, behar handiena dutenen garapena bultzatu ahal izan dezaten. Hori bereziki garrantzitsua da testuinguru sozioekonomiko jakin batzuetan. Izan ere, testuinguru ahuletako ikasleentzat irakasle eraginkorrak izatea oinarritzkoa da.

Mota horretako prestakuntza-prozesuari dagokionez, irakaskuntzan hasteko hasierako uneetan ez dago proposamen espezifikorik. Hortaz, ez dago lorpen-adierazlerik 2016-2020 Hobekuntza Planean. Irakasle berriek informazio-gida bat jasotzen dute¹⁰³.

3.2.2.2. Irakasle taldeen etengabeko prestakuntza

Garapen Profesional Jarraitua (GPJ), Europako dokumentuetan etengabeko prestakuntzari deitzen zaion bezala, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Europako estrategiaren zutabeetako bat da. Kontseiluaren 2014ko maiatzeko ondorioek¹⁰⁴ azpimarratzen dutenez, kalitate handiko GPJ

⁹⁹ Euskadik ez zuen lagin propioarekin parte hartu TALIS 2013 izeneko ELGAren azterlanean (*Teaching and Learning International Survey*). Hortaz, ez dago euskal irakasleen datu espezifikorik eta bereizirik (<https://www.educacionyfp.ob.es/inee/evaluaciones-internacionales/talis/talis-2013.html>). 2018an, berriz aplikatu zen TALIS azterlana, eta 48 herrialdek parte hartu zuten.

¹⁰⁰ Ikus *La profesión docente en Europa: prácticas, percepciones y políticas*, zehazki, 2. kapitulua: *Formación inicial del profesorado y transición a la profesión docente*. https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f_codigo_agc=17191

¹⁰¹ European, aholkulariak irakasle esperientziadunak dira, eta ikastetxeak aukeratzen ditu edo administrazioak berak egiaztatzen ditu, aholkulariak prestatzeko iraupen jakin bateko curriculumak egin ondoren.

¹⁰² Ikus *La profesión docente en Europa: acceso, progresión y apoyo* dokumentuko 3. kapituluan Europako Batzordeak arduradun politikoei proposatutako hiru laguntza motak irakaskuntza-lanbidearen hastapenari dagokionez: pertsonala, soziala eta profesionala. <https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/435e941e-1c3b-11e8-ac73-01aa75ed71a1/language-es/format-PDF/source-113855538>

¹⁰³ Ikus *Irakasleen gida euskal hezkuntza-sisteman sartzen diren irakasleentzat*. Gida horretan aurkezten dira, besteak beste, euskal hezkuntzari buruzko oinarritzko informazioa, irakasle funtzionarioei buruzko araudia, ikastetxean sartzeko informazioa eta irakasle gisa lehen urratsetan kontuan hartu beharreko alderdiak: <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-hezk-sistema-dokumentuak/web01-a2hberri/eu/>

¹⁰⁴ *Conclusiones sobre una formación de docentes eficaz*. Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirol Kontseiluaren bilera. Brusela, 2014ko maiatzaren 20a. <https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/ed7084c8-f389-11e3-831f-01aa75ed71a1/language-es/format-PDF/source-113855452>

eskaintza funtsezkoa da irakasleek *“egungo ikasgeletan beren lana eraginkortasunez egiteko behar dituzten konpetentziak eskuratu eta mantendu ditzaten”*. Dokumentuak nabarmentzen du garrantzitsua dela garapen profesionala irakasuntzaren eta ikasuntzaren arloko aldaketetara eguneratzea eta diziplina arteko eta lankidetzako ikuspegiak sustatzea.

Ikastetxe eraginkorren edo balio erantsi handiko ikastetxeen inguruan Hezkuntza Sailak argitaratutako ikerketan (dagoeneko aipatutakoan), lehen kategoriak prestakuntzarekin du zerikusia, eta honako hau adierazten da: *“ikastetxe eraginkorretan parte-hartze handia hauteman da ikastetxeetako zuzendaritzek bultzatu ohi dituzten prestakuntza-jardueretan, eta horiek erraztasunak ematen dituzte irakasleek horietan parte har dezaten”*. Eraginkorrak ez diren ikastetxeak deskribatzen direnean, prestakuntza-jarduerak ere egiten diren arren, hau adierazten da: *“jarduera horiek ez dirudi ikastetxearen premia bat edo plan jakin bat hautematearen ondorio direnik, eta, beraz, ez dute eraginik ikastetxearen hobekuntzan”*.

Hezkuntza Sailak, aipatutako *Hezkuntza-sistema Hobetzeko Planaren* 1. ildo estrategikoan, honako hau adierazten du: *“Oinarrizko Hezkuntzako Dekretuan ezarritako irteera-profila ikasleek lor dezaten, irakasleen konpetentzia-profila eguneratzera eta egiaztatzerako bideratzea etengabeko prestakuntza”*. Hurrengo orrialdean, unibertsitatez kanpoko etapa guztietako euskal irakasleei zuzendutako etengabeko prestakuntza-planaren estrategia eta programa garrantzitsuenak jasotzen dituen taula bat dago, Prest_Gara Plana.

Plan osoa hiru estrategia handiren bitartez bideratzen da:

- a) Eduki, iraupen eta formatu edo modalitate desberdineko **banakako ikastaroen** bidez egituratuta dago, eta derrigorrezko etapetako eta nahitaezkoak ez diren etapetako irakasleei zuzenduta dago, bai ikastetxe publikoetakoei, bai itunpeko ikastetxe pribatuetakoei.
- b) **Irakasleei laguntzeko zerbitzuen bidezko prestakuntza** (*Berritzegune Nagusia* eta *eskualdeko 18 berritzegune*). Zerbitzu horiek ikastaro espezifikoak edo monografikoak eskaini eta mintegiak antolatzen dituzte, eskualdeko ikastetxeetako irakasleek beren irakasuntza-jardunari buruz gogoeta egiteko eta esperientziak trukatzeko ikasturte batean. Era berean, Hezkuntza Sailaren proiektu estrategiko batzuk eta ikastetxeko prestakuntza-deialdiak garatzen eta gainbegiratzen dituzte beren eskualdeko ikastetxeetan. Beren eskualdeko ikastetxe guztiak artatzen dituzte, publikoak zein pribatuak.
- c) **Prestakuntza ikastetxean**: soil-soilik indibidual izatetik ikastetxean finkatutakoa izatera igarotzen da prestakuntza, hezkuntza-komunitate bakoitzaren premietara egokitutako proiektuen bidezkoa (hobekuntza-planetatik eta proiektu estrategikoetatik eratorriak). *Berritzegune*etako langileek aholkularitza eta laguntza ematen dute ikastetxeko prestakuntza-proiektuak prestatzeko eta abian jartzeko. Deialdiak sare bakoitzerako bereizirik dira. “Partekatuz ikasi” esperientziak irakasleak bikaintasunerako prestatzeko modalitate bat dira: ikastetxe batek beste ikastetxe tutore bati prozesuan laguntza eta orientazioa eska diezaioke, bikaintasunezko zat jotzen diren eta jarraitu beharreko eredu diren errealizazio pedagogikoak ezagutzeko eta abian jartzeko lehen urratsak emateko.

a) Irakasleen etengabeko prestakuntzako banakako ikastaroak

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak diseinatu eta deitutako banakako ikastaroak dira, eta hainbat erakunde, antolakunde eta taldek ematen dituzte¹⁰⁵. Ikastaroen erdiak baino gehiago irakasleei, oro har, zuzenduta daude, zein mailatan lan egiten duten alde batera utzita, eta interes komuneko gaiak jorratzen dituzte. Gainerakoa maila bakoitzeko irakasle espezifikoentzat da (Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak, Bigarren Hezkuntzakoak eta beste batzuk, hizkuntza-eskola ofizialetako, musika-eskoletako eta kontserbatorioetako eta Helduen Hezkuntzako irakasleak barne).

¹⁰⁵ <https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-prest-gara-prestakuntza/web01-a3htreba/eu/>

HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PRESTAKUNTZA (L1. Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana)	Banakako ikastaroak Irakasleak etengabe prestatzeko plana		NORENTZAT: - Atzerriko hizkuntzak - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - DBH - Beste batzuk (HEO, HHE...) - Orokorra
	LAGUNTZA-ZERBITZUAK BERRITZEGUNEA	IKASTAROA	Lehentasunezko esparruak: <i>Eleaniztasuna:</i> hizkuntza-prozesuak, eleaniztasuna, normalizazioa, t. integratua <i>Aniztasuna:</i> guztiontzako eskola, HPB, aniztasuna <i>Konpetentziak:</i> oinarritzkoak, Haur Hezkuntza, LHko eta DBHko arloak, Zientziak <i>Ingurune digitala:</i> IKT eta 2.0 Eskola <i>Ikastetxeak:</i> lidergoa, sareak, bizikidetza, HHE...
		MINTEGIAK	
		PRESTAKUNTZA-EKIMEN GLOBALA	
	PRESTAKUNTZA IKASTETXEAN	ELEANIZTASUNERANTZ	A modalitatea: ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzea, Irakurketa Plana lehentasun gisa hartuta eta hizkuntzen tratamendu integralaren ikuspegitik garatuta (modalitate hori 2018-19 ikasturtean sartu zen). B modalitatea: ikastetxeko hizkuntza-proiektu elaniztasuna garatzea, euskara ardatz hartuta, eta arlo edo irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematean oinarrituta.
		BIKAITASUNERANTZ	Berrikuntza-proiektu integralak Ikastetxeak bultzatu nahi duen hezkuntza-ereduaren inguruan gogoeta sakona egitea.
			Curriculuma aberasteko proiektuak Ikasgelan metodologia aktiboak ezartzea eta ikasle guztiak detektatzeko, artatzeko eta aberasteko jarduerak programak garatzea.
			Hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektua Ikastetxeko hezkuntza-jardueraren esparruren batean ikasturte bakar batean ekitea eta esku hartzea.
		STEAM PROIEKTUAK (Zientzia Hezkuntza)	Partekatuz ikasi Bikaintasun-esperientziak ikastetxeen artean partekatzea.
			2017-18 ikasturtean <i>Zientzia Hezkuntza</i> izena hartu zuen, eta 2018-19 ikasturtean, berriz, <i>Steam proiektuak</i> (Science, Technology, Engineering, Arts & Maths). Ikastetxe publikoetako hezkuntza-etapa guztietara zuzendua. STEAM irakaskuntzan oinarritutako berrikuntza-proiektu diziplina anitzekoak garatzea, irakaskuntza kooperatiboa eta arazoan ebazpena txertatuta. Gutxienez, oinarritzko bi konpetentzia landu behar ditu, eta egoera arazotsuetan oinarritu. Eskualdeko <i>Berritzegunearen</i> eta <i>Ingurugelaren</i> aholkularitza.-


2018-19 Planeko prestakuntza-jarduerak guztiak hiru multzotan banatzen dira:

- a) Atzerriko hizkuntzetako prestakuntza-jarduerak (ikasturtean edo udan egiteko).
- b) Irakasleen lanbide-konpetentziak eta curriculumak garatzeko prestakuntza-jarduerak.
- c) Erakundeek proposatutako prestakuntza-jarduerak.

Prest_Gara programaren deialdiak berak, gainera, lehentasunezko 5 prestakuntza-ildo ezartzen ditu: 1. Eleaniztasunerantz; 2. Aniztasunean elkarrekin bizitzeko ikasi; 3. *Sare_Hezkuntza*; 4. *Oinarrizko konpetentzien garapena*; 5. Bikaintasunerantz praktika onen bidetik.

Ikastaroetara joaten direnen kopurua aldakorra da, baita iraupen-orduak ere. Eskuragarri dauden datuen arabera, gehienak 30 ordu ingurukoak izan ziren, atzerriko hizkuntzakoak izan ezik, horiek 75 orduko iraupena izan baitzuten. 3.2.2.2.a grafikoan ikus daitekeenez (2014tik 2018ra bitarteko bilakaera erakusten du), egonkortasun handia dago bai programatutako eta emandako ikastaroen kopuruan (230 inguru), bai prestakuntza-jarduerak horietara joan diren irakasleen kopuruan, baina ez ikastaro horien guztizko ordu-kopuruan (2016tik 2018ra bitartean 1.587 ordu murritzitu dira).

3.2.2.2.a grafiko. Ikastaroen, parte hartutako irakasleen eta orduen kopuruak izandako bilakaera *Prest_Gara* deialdian 2014tik 2018ra.



Iturria: geuk egina, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren datuetan oinarrituta.

Kontuan hartzen badugu Hezkuntza Saileko Estatistikak argitaratutako azken datuen arabera 2017-18 ikasturtean 37.227 irakasle zeudela euskal hezkuntza-sisteman lanean, eta aintzat hartuko bagenu prestakuntza-ekintza horietara joaten diren irakasleak errepikatzen ez direnaren hipotesia, ondoriozta genezake *Prest_Gara* programako banakako ikastaroen modalitateak EAEko irakasle guztien % 12 baino zertxobait gutxiago hartzen dituela. 2017-18an, eskainitako 250 ikastaroetatik 21 baliogabetu zituzten, aurreikusitako plazen % 40 ez betetzeagatik. 2018-19an, halaber, 19 ikastaro baliogabetu zituzten, behar adina eskaera ez izateagatik.

Ez dago informaziorik bertaratutakoen eta prestakuntza ematen duten erakundeen ebaluazioari buruz, baina, deialdiaren arabera, kontratatutako erakundeak behartuta daude balorazio orokorra jasoko duen akta bat aurkeztera, eta Administrazioak berak izango du ikastaroak ebaluatzeko aukera. Ebaluazio horiek ezagutu behar dira, baliabide publikoak behar bezala erabiltzeko eta prestakuntza-jarduerak eraginkorrak izan daitezen.


Azkenik, Plana garatzeko deialdian bertan esplizituki konpromisoa eta ardura hartzeko eskatzen die prestakuntza hartu behar duten irakasleei, *“eskuratutako jakintza horiek ikasgelako eguneroko lanean isla daitezen, eta ikastetxean inaktua sor dezaten”*. Eragin hori eta balizko hobekuntzak ezagutzeko, ikastetxeak beharrezko erreferentzia dira, eta prestakuntza-jardueren ebaluazioak horiek hartu behar ditu ardatz.

b) Irakasleei laguntzeko zerbitzuen bidezko prestakuntza – *Berritzegune*

Euskal geografia osoan banatutako eskualdeko 18 *berritzegune*ek aholkularitza eta laguntza ematen dute ikastetxeko prestakuntza-proiektuak egiteko eta abian jartzeko. Era berean, Hezkuntza Sailak unean-unean sustatzen dituen proiektu estrategikoak ezartzeko oinarria dira, eta beste erakunde eta instituzio batzuekin lankidetzan aritzen dira proiektu ugari garatzeko.

Hurrengo grafikoan, azken sei ikasturteetan egindako prestakuntza-ekintzen (ikastaroak eta mintegiak baino ez dira sartzen) eta horietan parte hartu duten irakasleen kopuruaren bilakaera aurkezten da.

3.2.2.2.b grafikoa. Berritzeguneek antolatutako ikastaro eta mintegien kopuruak izandako bilakaera, parte hartutako irakasleak, 2013-2018.



Iturria: geuk egina, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren datuetan oinarrituta.

2014-15 ikasturtetik joan den ikasturtera 194 prestakuntza-ekintza gutxiago antolatu zituzten, hau da, 2014an antolatutakoen aldean mota horretako jardueren % 25. Murrizketa hori, ordea, ez da hain biziki islatu irakasleen parte-hartzean (% 7 txikiagoa). Prestakuntza Ekimen Globalak eragin argia du ikastaroen jaitsieran.

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2018-19 ikasturtean, *berritzegune*ek antolatutako ikastaro eta mintegien esparruak eta gaiak taula honetan jasotakoak dira:

ESPARRUAK	GAIA	Ikastaroak eta mintegiak	Parte- hartzaileak	Orduak
ELEANIZTASUNA	Hizkuntza-prozesuak	29	1.194	233
	Eleaniztasuna	13	151	189
	Hizkuntza-normalizazioa	41	638	587,5
	Hizkuntzen tratamendu integratua	7	228	108
ANIZTASUNA	Guztientzako eskola	20	550	215,5
	Hezkuntza Premia Bereziak	69	2.425	695
	Aniztasunaren trataera	43	1.910	485
KONPETENTZIAK	Oinarrizko konpetentziak	45	1.953	395
	Curriculumaren garapena	35	976	431
	Haur Hezkuntza	22	918	361,5
	LHko eta DBHko arloak	13	234	276
	Zientzia Hezkuntza	32	875	353
INGURUNE DIGITALA	IKT eta Eskola 2.0	80	1.434	1.027,5
IKASTETXEA	Eskolako lidergo eta zuzendaritzako irakasleak	38	1.123	541
	Irakaskuntza-sareak eta proiektu globalak	14	414	222
	Bizikidetza	46	1.453	456,5
	HHE	8	261	88,5
	Bestelakoak	32	1.163	385
GUZTIZKOAK 2018-19		588	17.915	7.066

Hona irakasle gehienek parte hartu duten gaiak: hezkuntza-premia bereziei erantzutea eta aniztasunari arreta ematea, oinarrizko konpetentzien inguruko prestakuntza eta hizkuntza-prozesuak.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, irakasleek mintegien eskaintzan eta *berritzeguneen* aholkularitzaren barruan parte hartu nahi duten prestakuntza-jarduerak aukeratzen dituzte.

Jarduera horien ebaluazioaren emaitzak ezinbesteko erreferentzia izan beharko luke, nolana ere, planak eta lehentasunak ezartzeko.

c) Prestakuntza ikastetxean

Estrategia honen bidez, funtsean ikastetxean bertan garatzen diren prestakuntza-prozesuak bultzatzen ditu Hezkuntza Sailak, ikastetxe publiko eta pribatuetakoa irakasle taldeek beraiek egindako proiektuen bidez, berdin arteko prestakuntzan oinarrituta. Proiektu horiek ikasgeletan praktika mugiarazi behar dituzte.

3.2.2.2.a taulan ikusi dugunez, lau prestakuntza-ildo nagusi daude ikastetxean:

Prestakuntza-ekimen globala

Txosten honetan aztertzen ari garen aldiari abian jarri den jardueraren berritzailetako bat **prestakuntza-ekimen globala** (PEG)¹⁰⁶ izeneko da. Ekimen horren helburua *“ikasleen gaitasunen garapen-maila eta, bide batez, emaitzak hobetzea da, bai eta ikastetxe guztietan gaitasunen garapenean eta ebaluazioan oinarritutako irakaste- eta ikaste-prozesuak gauzatzeko beharrezkoak diren eskola-giroa eta baldintzak bermatzea ere”*. Nahitaezko prestakuntza-proiektua da, Haur Hezkuntzara eta Oinarrizko Hezkuntzara zuzendua, eta ikastetxe publiko bakoitzari eskaintzen zaio oinarrizko konpetentziekin lotutako hainbat arlo hurrenez hurren jorratzeko, hiru ikasturteko aldiari, 2017-18tik 2019-20ra. Informazio ofizialak adierazten du prestakuntza hori testuinguruan kokatu behar dela, ikastetxe bakoitzaren errealitatea, beharrak eta bilakaera kontuan hartuta, eta irakasle-talde osoari zuzenduta dagoela.

Prestakuntza-ekimen hau garatzeak ikastetxeetako irakasle taldeak inplikatzeko, eta eskualdeko *berritzegune*etako erreferentziazko aholkularitzak inplikatzeko, *Berritzegune Nagusiaren* laguntzarekin eta Hezkuntza Ikuskaritzaren jarraipenarekin. Oinarrizko 6 prestakuntza-moduluren bidez antolatzen da. Modulu horiek, gutxienez, hiru saio presentzialetan egin behar dira. Ondoren, irakasleek, aholkulariek gainbegirata, modulu bakoitzari lotutako hezkuntza-jardunbidea aplikatu behar dute beren ikasgeletan.

Hezkuntza Ikuskaritzak emandako datuen arabera, 2017-18 ikasturtean honako modulu hauek landu ziren:

- Konpetentzien arabera irakaskuntza-lanerako esparru orokorra: % 46
- Elkarbizitzarako konpetentzia (*Bizikasi*): % 39
- Hitzek, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia: % 38
- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia: % 23
- Zientziarako konpetentzia: % 8
- Matematikarako konpetentzia: % 6
- Bestelakoak edo bat ere ez: % 4

Ikuskaritzak egindako balorazioaren arabera, kasuen % 59tan lagundu egin da Ikastetxearen Urteko Planaren finkatutako helburuak lortzen, eta % 40tan ekimena ikasgelan ezarri da prestakuntza eman den ikasturtean. Lehen aipatutako *Hobetzeko Planaren 2016-18ko berrikuspenean* adierazten denez, 2019-20 ikasturterako helburua da ikastetxe publikoetako irakasleen % 95 ekimen honen bidez prestatzea. Programaren ebaluazioa amaitu ez denez, ez dago inaktuaren ebaluaziorik, nahiz eta ikasturtez ikasturte egin den haren jarraipena.

Bizikasi ekimena, bizikidetza positiborako eta eskola-jazarpenaren aurka

Nabarmentzekoa da, halaber, abian jarri diren prestakuntza-ekintzen artean, *Bizikasi* izeneko ekimena, bizikidetza positiborako eta eskola-jazarpenaren aurka. Ekimena ikuspegi sistemiko eta integral batetik jorratzen da, eta ikasleen gaitasun prosozialak garatzera bideratuta dago.

¹⁰⁶ <https://www.euskadi.eus/informazioa/programak-planak-eta-lehentasunezko-ekimenak-prestakuntza-ekimen-globala/web01-a3htreba/eu/>


Ekimenaren gakoa da ikastetxeetan gerta daitezkeen jazarpen-kasuak garaiz prebenitzea eta hautematea, baita kaltetutako harremanak berrezartzea ere.

Ekimen honek mailaka prestatu ditu hezkuntza-eragile guztiak (irakasleak, familiak, irakasle ez diren langileak, laguntza- eta ikuskaritza-zerbitzuetarako aholkularitzako langileak). 2017-18 ikasturtean, *Berritzeguneko* 320 aholkulariri, Ikuskaritzako 80 laguni eta 451 ikastetxetako BAT taldeetako 1.036 irakasleri eman zaie prestakuntza. Hobekuntza-plana berrikusteko dokumentuak adierazten duenez, prestakuntza honetan lortutako batez besteko balorazioa 10etik 9,2 puntukoa izan da.

ELEANIZTASUNERANTZ. Hizkuntza propioen eta atzerrikoen tratamendu integraturako proiektuak (Hobetzeko Planaren 3. ildo estrategikoa. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan). Helburua da hezkuntza-komunitate bakoitzak, bere ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta testuinguru soziolinguistikoa ezagututa, berariazko prestakuntza batetik abiatuta, bere Irakurketa Plana (A modalitatea) edo proiektu eleaniztun bat diseinatzea eta garatzea, bi kasuetan, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua garatzeari lotuta. Proiektuan parte hartzen duten irakasleen % 80k parte hartzea eskatzen da, gutxienez bi ikasturtez, beste bitara luzatzeko aukerarekin. Onartutako proiektu bakoitzak dagokion *berritzeguneko* aholkulari bat izango du, proiektuaren jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratuko dena ikastetxean koordinatzen duen pertsonarekin batera.

2017ko eta 2018ko deialdietan parte hartu duten ikastetxe publiko eta pribatuen kopurua hurrengo grafikoan agertzen da. Sare publikoan, 2017-18 ikasturtean 1.406 irakasleri eman zitzairen ziurtapena. 2018-19 ikasturtean, berriz, kopurua bikoiztu egin zen, eta 2.965era iritsi zen (2.310 A modalitatean eta 655 B modalitatean). Ikastetxe pribatuen kasuan ez dago parte hartu zuten irakasleei buruzko datu fidagarririk, deialdia ez baitago ikastetxeei zuzenduta, federazioei eta elkarteei baizik.

3.2.2.2.c grafikoa. Ikastetxe publiko eta pribatuetako prestakuntza-proiektuak. Eleaniztasunerantz.



Iturria: geuk egina, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren datuetan oinarrituta.


BIKAINTRASUNERANTZ. Bikaintasunerako prestakuntza-proiektuak. Deialdi honek, halaber, ikastetxeen testuingurutik eta beharretatik abiatuta, ikastetxean bertan aplika daitezkeen irtenbide praktiko egingarriak bila daitezen bultzatu nahi du. Horiek inpaktu kuantifikagarria sortu behar dute, eta bidea eman behar dute praktika profesionalak partekatzeke, bai ikastetxean, bai beste ikastetxe batzuekin, parekoen arteko prestakuntzari balioa emanda.

Lau prestakuntza modalitatetan antolatzen da:

Berrikuntza-proiektu integralak	Ikastetxeak bultzatu nahi duen hezkuntza-ereduari buruz gogoeta sakona egitea dute helburu, esku hartu nahi den hezkuntza-jardueraren zeharkako alderdi garrantzitsuei heltzeko. Alderdi horiek, duten garrantziagatik, ikasturte bat baino gehiago behar dute, baita dagokion hezkuntza-komunitatearen akordioa ere. Gutxienez bi ikasturte iraungo dute, eta gehienez hiru. Proiektuaren urteak amaituta, ikastetxeak bere esperientzia aurkeztu ahal izango die gainerako ikastetxeei, «Partekatuz ikasi» modalitatearen bidez, ikastetxe tutore gisa.
Curriculuma aberasteko proiektuak	Helburu dute ikasgelan metodologia aktiboak ezartzea eta jarduera-programak garatzea, parte hartzen duten ikasle guztiak detektatzeko, artatzeko eta aberasteko, ikasle horiek gaitasun handiak, gaitasun bikainak edo talentu espezifikoak izan ala ez, ikasteko eta lorpen pertsonal eta kolektiborako haien motibazioa sustatzearen. Proiektuak eskolaz kanpoko jarduerak egitea ere jaso ahal izango du, baldin eta egiten diren jardueren % 25 baino gehiago ez badira. Curriculuma aberasteko proiektuak hiru ikasturtetan egingo dira. Proiektuaren urteak amaituta, ikastetxeak bere esperientzia aurkeztu ahal izango die gainerako ikastetxeei, «Partekatuz ikasi» modalitatearen bidez, ikastetxe tutore gisa.
Hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak	Proiektu hauek ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta ebaluazio diagnostikoaren ondoriozko Hobetzeko Plana hartu beharko dituzte erreferentzia gisa. Plan hori Hezkuntza Sailak zehaztutako oinarritzko gaitasunetako batean eta/edo lehentasunezko ildo batean edo batzuetan oinarrituko da. Proiektu bakoitzak, oro har, bere edukiagatik eragiten dien irakasleen % 80 gutxienez inplikatu beharko ditu, eta gutxienez 30 ordu izango ditu berori garatzeko eta gauzatzeko.
«Partekatuz ikasi» esperientziak	Esperientzia hau ikastetxe publikoentzat baino ez da, eta honetan datza: ikastetxe batek prozesuan laguntza eta orientazioa eskatu ahal izatea beste hezkuntza-zentro tutore bati, bikaintasunezkoztat jotzen diren eta jarraitu beharreko eredu diren errealizazio pedagogikoak ezagutzeko eta abian jartzeko lehen urratsak emateko. Proiektuak berori garatzeko beharrezkoak diren prestakuntzako eta/edo berrikuntzako ekintza eta jardura guztiak jasoko ditu: bisitak (gutxienez hiru bisita ikastetxe eskatzailera eta bat ikastetxe tutorera), bilerak, ikasgelan sartzea, materialak eskuratzea edo prestakuntza-saioak. Ikastetxe eskatzaileak eta ikastetxe tutoreak akordio batean sinatuko dute esperientzia gauzatzeko laneko plana. «Partekatuz ikasi» esperientzia bakoitzak gutxienez 15 ordu ditu berori garatzeko eta gauzatzeko.

Hurrengo grafikoan eta taulan, azken hiru ikasturteetan bikaintasunerako prestakuntza-proiektuak dituzten ikastetxe publiko eta pribatuen kopurua agertzen da. Ikus daitekeenez, oso partaidetza handiko deialdiak dira (382 ikastetxe 2016an edo 298 2018an). Berezik parte-hartzailea da *Berrikuntzarako prestakuntzako* proiektuetarako deialdia, 2016an eta 2017an 250 ikastetxe inguruk parte hartu baitute.

3.2.2.2.d grafikoa. Bikaintasunerantz. Ikastetxe publiko eta pribatuetako prestakuntza-proiektuak .




	Ikastetxe publikoak			Ikastetxe pribatuak		
	16-17	17-18	18-19	16-17	17-18	18-19
Proiektu integralak	36	25	22	32	34	21
Curriculumak aberastea		5	10		5	10
Berrikuntzarako prestakuntza	167	161	141	79	82	57
Partekatuz ikasi	60	75	71	9	12	

Iturria: geuk egina, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren datuetan oinarrituta.

Bereziki nabarmentzekoa da proiektu horiek garatzen parte hartu duten irakasleen kopurua: 2017-18an, sare publikoko 5.537k eta sare pribatuko 2.648k; 2018-19 ikasturtean, berri, sektore publikoko 4.6644k, eta ia erdira murrizten da pribatuko irakasleen kopurua, 1.432. Datu horien arabera, sare publikoko irakasleen 2017-18ko kopurua kontuan hartzen badugu (23.039), deialdi hauetan sare horretako irakasleen % 25 inguruk hartu dute parte, eta sare pribatuko irakasleen % 18k (14.677 irakasle guztira).

3.2.2.2.e grafikoa. Bikaintasunerantz programaren deialdietan parte hartutako irakasleen kopurua. 2017-2018.



Iturria: geuk egina, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren datuetan oinarrituta.

Deialdi hauetan guztietan jarraipen- eta ebaluazio-prozesu bat ezartzeko betebeharra badago ere, ez dago datu horien berri, eta, horrenbestez, ezin da baloratu parte hartu duten irakasleen gogobetetasuna, ezta proiektu horien kalitatea eta irakatsi eta ikasteko praktikan aldaketa sustatzeko duten inpaktua ere.

ZIENTZIA HEZKUNTZA ETA STEAM PROIEKTUAK. Berrikuntza zientifiko eta teknologikorako prestakuntza-proiektuak. Esparru horiei lotutako prestakuntza-proposamenak Hobetzeko Planaren 4. ildo estrategikoa garatzearekin lotuta daude. 2017-18 ikasturtera arte, prestakuntza-proiektuak *Zientzia Hezkuntzaren* bidez bideratzen ziren. 2018tik aurrera, proiektu guztiak Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoetarako abian jarritako STEAM¹⁰⁷ estrategiaren barruan sartzen dira.

Estrategia horrek Unescoren *Science Education* programak bultzatutako ildoari jarraitzen dio. Programa horrek hezkuntza-maila guztietan zientzian eta teknologian trebatzea sustatzen du, eta gazteak, bereziki neskak, ezagutza-esparru horietan karrera profesionalak egitera animatzen ditu. STEAM hezkuntza-estrategia 2018ko ekainean aurkeztu zuten. Diziplinen arteko hurbilketa ez-bakartua bilatzen du haien tratamenduan, jakintzagaien kontzeptuak aldi berean eta modu integratuan ikastea ahalbidetzeko, testuinguru praktiko eta aktibo batean.

Ikastetxe bakoitzak deialdi honetan aurkeztutako proiektuak gutxienez oinarritzko bi gaitasun landu behar ditu modu integratuan, eta arazo-egoeretan edo ikerketa-prozesuetan oinarrituta egon behar du, baita sexuen arteko berdintasuna sustatu eta genero-ikuspegia ikasgeletara eraman ere. Aurreko gainerako proiektuetan bezala, eskualdeko *berritzeguneak* aholkularitza eman behar die proiektua koordinatzen duen ikastetxeko pertsonari eta ikastetxeko irakasleei, *Ingurugelaren* laguntzarekin. 2018-19ko deialdian 139 ikastetxe publikok eta 1.124 irakaslek parte hartu zuten.

Ikastetxeko gainerako prestakuntza-proiektuetan bezala, ez dago irakasleen balorazioarekin eta ikastetxean duten eraginarekin lotutako daturik.

Hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko proiektuak

Hezkuntza Sailak, “2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta” ildo estrategikoa garatzeko, ikastetxe publiko eta pribatuei dei egin zien **hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari** buruzko prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak aurkez zitzaten gehienez 3 ikasturterako. Ikastetxe publikoetarako lehen deialdiak 2017tik 2019ra bitarteko aldia hartzen zuen, bigarrenak 2018tik 2021era bitartekoa eta hirugarrenak (orain arteko azkenak) 2019-20 eta 2020-21 ikasturteak soilik hartzen ditu. Itunpeko ikastetxe pribatueterako deialdiek hiru ikasturteko iraupena dute, eta azken deialdia agindu batean argitaratu zen 2019an; kasu horretan, bi ikasturteko iraupenerako.

Ikastetxe publikoetan, inplikaturako irakasleei ordu-liberazioa eman zitzaien, eta itunpeko ikastetxeei, berriz, proiektuak gauzatzeko diru-laguntzak.

Ikastetxeko prestakuntza-proiektuak, ikusi dugunez, prestakuntza-jardunaren ildo garrantzitsua bat dira, eta, gainera, Europar Batasuneko, ELGAko eta hainbat ikerketa eta azterlanetako dokumentu guztietan proposatutako irakaskuntzako prestakuntza- eta hobekuntza-proposamenen ildoan daude.

Ikusi dugu proiektu hauen deialdiek maila publiko eta pribatu guztietako ikastetxe eta irakasle ugari erakartzen dituztela. 2017-18an ikastetxeko proiektu horietan parte hartu zuten sare publikoko irakasleak ez direla errepikatzen dioten hipotesia onartuko bagenu —ez dugu datu hori ezagutzen—, horrek esan nahiko luke irakasle guztien % 36k baino gehiagok parte hartu dutela eta hurrengo ikasturtean % 38 izango direla.

¹⁰⁷ STEAM Euskadi: <http://steam.eus/>

3.2.3. Zuzendaritza-taldeak prestatzeko euskal eredua

Dagoeneko aipatutako *Hobetzeko Plan*ean adierazten den bezala, nazioarteko hainbat txostenek (McKinsey & Company, ELGA) ondorioztatzen dutenez, “ikastetxeko zuzendaritza-taldea ikaskuntzaren lorpenetan eragin handiena duen bigarren barne-faktorea da, irakaskuntza-ekintzaren ondoren. Hainbat autorek egindako ikerketa ugarik erakusten dute, halaber, zuzendariaren rola, zehazki, eragin handia duela ikastetxearen kalitatean”.

Lehenago aipatu den euskal zentro eraginkorren ezaugarriei buruzko ikerketak honako hau dio: *“Ikastetxe eraginkorretan, zuzendaritza aukeratua edo izendatua izan ala ez, lidergo irmoa ikusten da, estilo askotakoa izan daitekeena, eta talde-lanerako dinamika ona ikusten da. Ikastetxe horietan argi eta garbi zehaztutako ikuspegi eta filosofia bat dago, helburu partekatuekin”*.

Euskal Autonomia Erkidegoan zuzendaritza-taldeak prestatzeko garatu den ereduaren egokitasuna eta eraginkortasuna aztertzeko, hiru alderdi aztertuko ditugu: lehenik eta behin, zuzendariak deitzeko, hautatzeko eta izendatzeko prozesua; bigarrenik, hasierako prestakuntza-programa; eta, azkenik, zuzendaritza-eginkizuna ebaluatzeko programa.

3.2.3.1. Zuzendariak hautatzeko eta izendatzeko prozesua

Ikastetxe publikoetan zuzendaritza-taldeak hornitzeko metodoa kargurako hautagai diren irakasleen artean merezimendu-lehiaketa bidez hautatzea da, otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren arabera, honako dekretu hauen bidez egindako aldaketekin: maiatzaren 8ko 61/2012 Dekretua, apirilaren 1eko 46/2014 Dekretua, abenduaren 5eko 262/2017 Dekretua eta ekainaren 19ko 93/2018 Dekretuaren azken xedapenetatik lehenena. Horietan ezartzen da hautagaiek 4 urterako Zuzendaritza Plan bat aurkeztu behar dutela eta zuzendaritza-eginkizunaren jardunari buruzko ebaluazioaren mende jarri behar dutela.

Hurrengo taulan, hautaketa-prozesuen historiko osoa agertzen da: lehenengo zutabea, merezimendu-lehiaketaren deialdia zein ikasturtetan argitaratu zen adierazten da. Bigarrenak adierazten du zein ikasturtetan hasi ziren zuzendaritza-proiektuak garatzen aurreko urtean hautatuak izan zirenak (atzeko kolore bereko laukiak). Hirugarren zutabea agertzen da proiektua duten eta ebaluatu ziren zuzendaritzen ehunekoa sare publikoko zuzendaritza guztiekiko. Hala, 2009-10 ikasturtea izan zen 2008-09ko deialdian hautatutako zuzendaritzek proiektuarekin jardun zuten lehenengoa. Ikastetxe publikoetako zuzendaritza guztien % 30,2 ziren.

3.2.3.1.a. taula. Hautaketa-prozesuei, proiektuaren hasierari eta zuzendaritzen ebaluazioari buruzko historikoa

DEIALDIA	ZUZENDARITZA-PROIEKTUAREN HASIERA	EBALUATUTAKO ZUZENDARITZEN %
2008-2009	2008-2009	-----
2009-2010	2009-2010 (2012-13 arte)	30,2
	2010-2011 (2013-14 arte)	49,3
	2011-2012	47,6
2012-2013	2012-2013	43,3
2013-2014	2013-2014 (2016-17 arte)	51,7
	2014-2015 (2017-18 arte)	58,7
	2015-2016	52,3
	2016-2017	49,4
2017-2018	2017-2018	28,2
2018-2019	2018-2019 (2021-22 arte)	-

Zuzendariak hautatzeko azken deialdia 2018ko urtarrilaren 10eko Aginduari zegokion, eta 2017-18 ikasturtean egin zen kargu hori hutsik geratzen zen ikastetxeetan.

Kargua hutsik duten ikastetxe guztietatik, denera, etapa eta ikastetxe mota guztietako 273 zuzendari hautatu zituzten (HLHI, BHI, IPI, HEO, HHI...) 2018-2022 aldirako: 42 Araban, 137 Bizkaian eta 94 Gipuzkoan. Proiektuak Hezkuntza Ikuskaritzak aztertu zituen, eta, gainera, hautaketa-batzordeak eratu eta zuzendu zituen, eta dokumentazio guztia kudeatu. Hautatutako zuzendari guztiek izendapena jaso zuten. 224 ikastetxetan proiekturik gabe izendatu zuten zuzendaria.

Hezkuntza Ikuskaritzak hautaketa-prozesu horri buruz egindako balorazioak bi hobekuntza-proposamen aipatzen ditu: batetik, hautaketa-batzordeak eratzekeo prozesua hobetzea (bereziki, ikastetxe publiko batean zuzendaritzan diharduten bi pertsonen dagokienez), eta, bestetik, agintaldien iraupena homogeneizatzea proiekturik ez duten zuzendaritzak izendatuz gero.

3.2.3.2. Merezimendu-lehiaketa bidez hautatutako zuzendarien hasierako prestakuntza-programa

Hautaketa-prozedurari buruzko otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren 14. artikulua Hasierako Prestakuntza Programa garatzeko baldintzak zehazten ditu. Programa hori ikastetxe publikoetan zuzendaritza-kargua betetzeko hautagaiek gainditu behar dute. Programa horretatik salbuesita daude, soilik, zuzendaritza-eginkizunari buruzko prestakuntza-ikastaro bat gainditu dutela egiaztatzen dutenak edo zuzendaritza-karguan gutxienez 2 urteko esperientzia dutenak.

Berritzegune Nagusiak antolatutako programaren iraupena 35 ordukoa da (30 ordu presentzial goizeko ordutegian, astebeteko ikastaro batean, eta lan pertsonaleko 5 ordu prestakuntza-programaren memoria egiteko eta aurkeztutako zuzendaritza-proiektuan duen eragina aztertzekeo). 2018ko deialdiaren arabera, edukiak ardatz hauek izan zituzten: 1. Helburu eta esku-hartze estrategikoak zehaztea; 2. Ikastetxearen zuzendaritza, antolaketa eta funtzionamendua; 3. Lidergo pedagogikoa; 4. Barneko eta kanpoko eragileen parte-hartzea eta lankidetzak; eta 5. Aldaketaren ebaluazioa eta kudeaketa bultzatzea.

2017-18 ikasturtean¹⁰⁸, *Berritzegune Nagusiak* guztira 240 orduko 14 ikastaro eskaini zituen, eta horietan zuzendaritza-taldeetako 671 kidek parte hartu zuten (gehienak zuzendariak). Ikasturte horren hasieran, hasierako oinarritzko 3 prestakuntza-ikastaro eskaini ziren, 40 ordukoak guztira, eta ikastaro horretarako salbuespen gisa izendatutako 106 zuzendarik parte hartu zuten ikastaro horietan. Era berean, Hezkuntza Ikuskaritzarekin lankidetzan, alderdi juridikoei buruzko 10 orduko 3 prestakuntza-ikastaro egin ziren, eta ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeetako 247 kidek parte hartu zuten ikastaro horietan.

Hasierako oinarritzko prestakuntza-ikastaro horrekin batera, Hezkuntza Sailak, bere laguntza-zerbitzuen bidez, prestakuntza-jardura teoriko-praktikoen eskaintza zabala du. Horien artean, jarduerarik garrantzitsuenak eskualdeko *berritzeguneetan* mintegi iraunkorrak antolatzea da. Mintegi horietan ikastetxe publiko eta pribatu ugari parte hartzen dute, eta aldizkakotasun desberdinez biltzen dira garapen profesionala sustatzeko, ikastetxeetako zuzendaritza-lana errazteko, ikastetxeen arteko lankidetzak bultzatzeko eta eskualdean estrategia eta proiektu komunak adosteko. Mintegi horiek zuzendariak zuzenduta daude funtsean, nahiz eta kasu batzuetan eskaintza ikasketak burutzetara eta idazkaritzara zabaltzen den.

¹⁰⁸ EAEko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana. Berrikuspena (2016-18) dokumentutik (7. or.) hartutako datuak.

Ez dago bi prestakuntza- eta aholkularitza-jarduerei buruzko balorazio-daturik. Hasierako prestakuntza-ikastaroaren kasuan, ikusten da haren egitura eta gaia koherenteak direla zuzendaritza-ariketa ebaluatzeko prozesuan baloratzen diren atalekin. Eskualdeko mintegiei dagokienez, ez dakigu zer eragin duen ikastetxeen dinamikan, ezta parte-hartzaileen balorazioa zein den ere.

3.2.3.3. Zuzendaritza-eginkizunaren ebaluazioa

Prozesu horren helburua, deialdiak berak eskatzen duen ziurtapena lortzen laguntzeaz gainera, ikastetxearen egoera, beharrak eta aukerak aztertzeko gaitasun handiagoa izango duen zuzendaritza lortzen laguntzea da, plangintzaren, kudeaketaren eta ebaluazioaren arloetako konpetentzia hobeak izango dituen, baita beste eragile batzuen parte-hartzea bultzatzeko eta berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko gaitasun handiagoa ere.

Deialdi honi atxikitzen zaion zuzendariak nahitaez aurkeztu behar duen zuzendaritza-proiektua da ebaluazioaren oinarritzko xedea. Proiektu horretan jasotzen dira, hain zuzen, ondoren ebaluatuko diren alderdiak. Ebaluazio hori argi eta garbi prestakuntzakoa da, eta ebaluazioa gainditzeak oinarri izan behar ditu prozesuan zehar jasotako ebidentziak.

Ebaluazio-prozesu horretan, 2 ikuskari osatutako talde batek esku hartzen du. Ebaluatzen diren dimentsioak hasierako prestakuntza-programan adierazitako berberak dira, eta 2012ko maiatzaren 25eko Agindua eranskinean jasotako 18 irizpideetan zehazten dira. 18 irizpide horiek hainbat adierazletan zehazten dira, eta horietatik funtsezkotzat jotzen diren 10 lehenesten dira. Adierazle horiek lau garapen-maila progresibo dituzte, eta bigarren maila da prozesuaren amaieran gai izatea lortzeko eskatzen den gutxienekoa.

Ebaluazioak prozesu espiral bati jarraitzen dio lau ikasturteetan zehar. Hala, horietako bakoitza amaitzean ebaluazio-txosten bat egiten da, eta haren balorazioak positiboa izan behar du hurrengo aldiari jarraitu ahal izateko. Ikasturte bakoitzean, dokumentuak aztertzen dira, zuzendaritza-taldeari elkarrizketa egiten zaio eta balorazioaren eta hobetzeko proposamenen berri ematen zaio, horiek partekatu eta beren gain har ditzaten.

2014-15 deialdiaren ebaluazioa

Aukeratutako zuzendaritza guztiek 4 ikasturtez garatzen dute beren proiektua, eta horien amaieran, 2012ko maiatzaren 25eko Agindua arabera, Gai / Ez-gai balorazioa ematen da.

Zuzendaritza-jarduneko lau urteak amaitu dituzten zuzendarien taldea azken 2014-15 ikasturtean hasi zenez, 2017-18 ikasturtean amaitu zuen bere lehen ebaluazio-aldia hautaketa-prozesuan aurkeztutako zuzendaritza-proiektuaren gauzatze-mailaren gainean.

Hezkuntza Ikuskaritzak 66 ikastetxeri buruz egindako balorazioaren arabera, 15 ikastetxetan (% 23) erabat garatu da proiektua, eta zatirik handienean beste 46 zentrotan (% 70). Beraz, % 93tan behar bezala garatu da zuzendaritza-proiektua betetzeko prozesu hori. Datu hori aurreko aldietan lortutakoa baino pixka bat baxuagoa da, hurrengo taulan ikus daitekeenez.

1. ebaluazio-urtearen ikasturtea	4. ebaluazio-urtearen ikasturtea (aldiaren amaiera)	Positiboki ebaluatutako zuzendaritzen %
2009-10	2012-13	99,3
2010-11	2013-14	100
2013-14	2016-17	95,1
2014-15	2017-18	93

Hobekuntzarik nabarmenena izan duen proiektuaren zatia arlo hauekin lotutakoa da: *zuzendaritzaren antolaketa eta funtzionamendua* (41 ikastetxetan), *eta lidergo pedagogikoa eta helburu eta interes estrategikoen definizioa* (25 ikastetxetan). Bestalde, *barneko eta kanpoko eragileen parte-hartzea eta aldaketaren ebaluazioa eta kudeaketa* arloetan hauteman da hobekuntzarik txikiena.

Zuzendaritzek egindako memorian jasotakoaren arabera, lau urteko prozesu horretan izandako zailtasun garrantzitsuenek zerikusia izan dute bat-batean sortutako egoerekin (ikastetxeen % 39k aipatu dute), Administrazioarekin baliabideak kudeatzearekin (% 38k) eta, neurri txikiagoan, klustroaren eta familien lankidetzaren faltarekin, baita ikasleek sortutako egoerei ekitearekin ere (ikastetxeen % 17k aipatu dute).

3.2.4 Ondorio orokorrak eta hobetzeko proposamenak

XXI. mendean munduak aurre egin beharreko aldaketa sozialek, zientifiko-teknologikoei eta erronka berriek zuzenean eragiten diote hezkuntza-sistemari, eta zalantzan jartzen dituzte haren forma eta modu profesional asko. Hortaz, aldaketa sakonak eskatzen dituzte hura osatzen duten esparru guztietan. Ikerketa batzuek adierazten dute, aldaketa-garai batean ez ezik, garai-aldaketa batean ere bizi garela.

Bizi garen mundu aldakor, zalantzarik, konplexu eta anbiguo honek irakaskuntza-lanbidea gero eta konplexuagoa eta zorrotzagoa izatea eragiten du, eta konpetentzia pertsonal eta sozialak barne hartzen dituen irakaskuntza-kualifikazio handiko pertsonak eskatzen dituen lanbidea izatea. Horregatik, etengabeko ikaskuntza behar da, gero eta gehiago lankidetzan, gogoetan, sareko lanean eta etengabeko prestakuntzan oinarritu beharko duen zeregin profesionalean jarduteko.

Erronka horri hezkuntza-sistema guztiek egin behar diote aurre, eta horietako bate ere ez ditu aurkitu erronka berriei aurre egiteko irtenbide guztiak edo ez da gai izan horretarako mekanismo guztiak sendotzeko. Erronka horien artean daude ikasleen aniztasuna, konpetentzien araberrako irakaskuntza, goi-mailako ikaskuntza-estandarrik, teknologiarik presentzia ikasgeletan, eskura dagoen informazio kantitate handia, ikasteko proposamen berriak...

Gaur egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko beharrezkoak diren irakaskuntza-konpetentziak identifikatzeko kezka dago mundu osoan, eta, hain zuzen, erronka horietan oinarritu behar da irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza diseinatzeko.

EAEko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana. Bikaintasunerantz ekitatean oinarrituta (2016-2020) planaren lehen ildo estrategikoa *hezkuntza-komunitatearen prestakuntza* jorratzen du, eta lau esparru garatzen ditu: irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza, zuzendaritza-taldeena eta berdinen artean ematen dena, jardunbide egokien trukean oinarrituta.

3.2.4.1. Irakaskuntza-ekintza eta horrek ikasleen eskola-errendimenduan duen eragina

Askok dira irakaskuntza-ekintzak ikasleen ikaskuntzan duen eragina bermatzen eta berresten duten ikerketak, azterlanak eta ebaluazioak. Europako Batzordearen eta ELGaren txosten eta gomendioetan¹⁰⁹ analisiak eta datuak eskaintzen dira, eta horietan uste dute irakasleen prestakuntzaren kalitatea hezkuntza-sistemak hobetzeko zutabeetako bat dela, baita irakasleen

¹⁰⁹ Ikus *Teachers matter: attracting, developing and retaining effective teachers* (<https://www.oecd.org/edu/school/34990905.pdf>)

hautaketako, laguntzako eta garapen profesionaleko prozesuak zuzentzen dituzten politikak ere.

Egia da ez dagoela ulerkera bakarra zein diren ikasleen emaitzetan eragiteko gaitasun handiena duten irakaskuntza-jardunaren ezaugarriak eta moduak, baina edonola ere, ez dago zalantzarik lotura horretaz.

Nazioarteko ebaluazio garrantzitsuenetan parte hartzearen ondorioz, baita ebaluazio propioak bultzatzearen eta esparru horietan zenbait ikerketa garatzearen ondorioz ere, euskal hezkuntza-sistemak aldagai horri buruzko datu eta emaitza ugari ditu. Askotan, horiek ez dira, agian, behar bezala aztertu eta ustiatu, eta, hala egin denean, ez da lortu ondorioen sakabanatze emankor eta sinesgarriak.

Ez dugu oinarritzko informaziorik euskal irakasleei buruz, besteak beste, haien beharrak ulertzeko eta horiei erantzuteko funtsezkoak diren lau aldagairen inguruan: ikasgelan irakasteko denbora nola erabiltzen duten; materialak eta baliabideak nola erabiltzen dituzten, IKTak barne; irakasleek irakatsi eta ikasteko prozesuetan zein oinarritzko jardunbide dituzten, eta ikasgelaren kudeaketa egokirako zein gaitasun eta baliabide erabiltzen dituzten, eta askenik, partaidetza eta ikasleekiko harremana. Irakaskuntzaren dinamikan hain estrategikoak diren alderdiak ezagutzen ez ditugunez, ziurrenik zaila izango da irakasleen benetako beharrei eta praktikei erantzungo dien irakaskuntza-jardunbidea hobetzeko proposamenak identifikatzea.


Horregatik, Kontseilu honek hau proposatzen du:

- Irakaskuntza-jardueraren azterketa egitea: estrategia eta jardunbide nagusiak, irakasle-ikasle harremanen ezaugarriak, metodologiak, talde-lana...
- Irakasleen irakaskuntza-ekintzak ikasleen emaitzetan duen eragina eta eskolak haien bizi-kalitatean duen eragina aztertzea.
- Irakaskuntza-jardunbideak eta -estrategiak esplizituki sartzea, aztertzeko eta datuak biltzeko elementu gisa, etaparen erdiko eta amaierako diagnostiko-ebaluazioetan, informazio-corpus koherente bat eskura izateko, eta, horri esker, berme handiagoz bereizteko irakatsi eta ikasteko estrategien egokitasuna eta sendotasuna.

3.2.4.2. Euskal irakasleen garapen profesionala eta haientzako laguntza

Zalantzarik gabe, irakasleen prestakuntza eta garapen profesionala koherenteagoak, sendoagoak eta emankorragoak izango dira, baldin eta koordinazio eta lotura koherentea badago irakaskuntzan inplikaturako instituzio, erakunde, talde eta zerbitzuek kudeatzen dituzten prestakuntza-prozesuen artean. Horregatik da hain garrantzitsua etengabeko prestakuntza-jarraitutasuna ezartzea, honako hauek modu sistematikoan barne hartuko dituenak: irakasleen hasierako prestakuntza, lanbiderako hastapenak eta etengabeko lanbide-garapena ibilbide osoan zehar, bakarka eta taldean ikasteko aukerak bilduko dituenak.

Irakasleen prestakuntza prozesu jarraitutzat, sistematikotzat eta antolatutzat jotzeak esan nahi du ulertzea prestakuntza horrek irakaskuntza-ibilbide osoa hartzen duela, eta onartzea irakasleek eskakizun pertsonal, profesional, antolamenduko eta, are, psikologiko espezifiko eta bereziak adierazten dituzten etapak dituztela.



Irakasleei prestakuntza eta laguntza emateko etengabeko prozesu hori ez da soilik prestakuntza-eskaintzen eraginkortasuna eta baliozkotasuna bermatzen dituzten ebidentzia eta esperientzia egiaztatuetan oinarritu behar, baizik eta irakasleen beharrezko lankidetzat bilatu behar da haien behar eta kezka profesionalak jasotzeko, eta ezinbestekoa da datuak eskura izatea prestakuntza-prozesuen eraginkortasunari, egokitasunari eta benetako eraginari buruzko ebaluazio-prozesuetatik abiatuta. Eguneroko hezkuntza-errealitatean eta ikastetxeko proiektuetan oinarritutako lanak funtsezko erreferentzia izan behar du prestakuntza-prozesuetan.

a) **Laguntza eta babesak ikastetxeko jardun profesionalaren hasieran**

Irakaskuntza-jardueran hastea, hasierako prestakuntzaren ondoren, eta ikastetxe batek dakarren lan-dinamikan eta lanbide-harremanean sartzeko funtsezko aldietako bat da hezkuntzaren esparruan identitate profesionala prestatzeko eta eraikitzeko. Hala, dagoeneko aipatu diren ikerketa, instituzio eta erakunde ugari adierazten dute ikaste-prozesu handia dagoela lehen jardun-urteetan, eta, horregatik, gomendatzen dute hasierako aldi hori baliatzea irakasleen garapen profesionala bultzatzeko, haien irakaskuntza-jardunean aurrerapena eta eraginkortasuna maximizatzearen. Gure kasuan, oso garrantzitsua da kontuan hartzea, kasu askotan, bitarteko irakasle gisa hasten direla.

Hala ere, gure hezkuntza-sisteman, lan-eskaintza publikoa gainditu ondoren praktiketako funtzionarioen ebaluazioa baino ez da hurbiltzen lanbide-jardunaren hasierako laguntza eta jarraipen gisa ulertzen dene horretara. Ebaluazio hori modu gutxi-asko egituratuta dago eta nahitaezkoa da.

Praktikak ebaluatzekeko prozesu horretan, edizio guztietan ohikoa da ebaluatzen diren guztiek tramite hori gainditzea eta hezkuntza-sisteman jarraitzeko gaitzat jotzea.

Bestalde, eskura dauden datuen arabera, ezin esan daiteke jarraipen bizia eta garapenari eta ezaugarriei dagokienez egituratua egiten denik, nahiz eta azkenaldian gomendatzen ari diren tutore dihardutenek tutoretza jasotzen duena ikasgelan hilerok behatzea. Izan ere, gomendio hori ez da betetzen datuen erdietan ere.

Azkenik, Ikuskaritzako langileen esku geratzen denez haien erantzukizun nagusia, tutoreen esku hartzea eskasa da (puntuale ez denean), eta nolabaiteko profil burokratiko eta ziurtatze hutsekoa du.

Agerian da praktiketako funtzionarioen ebaluazio-lan horrek ez dituela estaltzen sisteman sartu berri diren irakasleen laguntza- eta babes-beharrak, eta, batez ere, ezin dela *irakaskuntzara bultzatzeko programatzat* hartu, nazioartean ulertzen den bezala: irakasleek, fase egituratu eta nahitaezko baten barruan, prestakuntza gehigarria, laguntza pertsonalizatua eta aholkularitza jasotzen dituzten programatzat, alegia. Irakasle berri horien prestakuntzan, jarraipenean eta babesean ahalegintzeak onura handiak ekar diezazkioke hezkuntza-sistemari epe luzera. Horregatik, ezinbestekoa da euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe publikoetan irakasle berriak sartzen ari diren une garrantzitsua hau baliatzea.

Irakaskuntzara bultzatzeko programak izenekoak irakasleei laguntzeko programa sistemiko batean zehazten dira, eta helburu dute haiek lanbidean sartzea, autonomia profesionala indartzeko moduan arazoei aurre egiten laguntzea eta etengabeko garapen profesionala erraztea. Zalantzarik gabe, jarduera horretan eskolak funtsezko eginkizuna betetzen du irakasle hasiberriei laguntzeko, “errealitatearen shock” izeneko gaingintu ahal izan dezaten. Alabaina, beste estamentu batzuek ere —hala nola hezkuntza-administrazioak eta haren zerbitzuek— oso inplikaturik egon behar dute horretan.

Horregatik, Kontseilu honek hau proposatzen du:

- Praktiketako funtzionarioen ebaluazio-prozesua aztertzea, gaur egun abian den protokoloaren balizko hobekuntzak identifikatzeko eta ebaluazio-programa berri bat proposatzeko. Programa horrek berekin ekarri behar du jarraipen biziagoa egitea eta praktiketako tutoreen aldetik harreman- eta laguntza-maiztasun handiagoa eta, horretarako, figura hori egokitu beharra dago, eta berariazko laguntza, prestakuntza eta aholkularitza eman behar zaizkio.
- Hasieran, modu esperimentalean, *irakaskuntzara bultzatzeko programa* bat abian jartzeko aukera aztertzea, hiru arlo hauek kontuan hartuta: tutoretza- edo aholkularitza-sistema bat, bere eginkizunak aitortuta eta baldintza eta konpromiso espezifikoak finkatuta; bilerak eta lan programatua zuzendaritza-taldearekin eta beste kide batzuekin; autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategiak eta tresnak; eta prestakuntza-programa espezifiko bat, taldeko irakaskuntza eta sozializazio-sareak eta parekoen arteko berrikuspena ekarriko dituzten jardurekin.
- Bitarteko langile gisa irakaskuntzan hasten den pertsonalarekin zer ekintza eta proposamen egin daitezkeen aztertzea, betetzen duen lanbide-jardunean hobeto integratzeko eta irakaskuntzako lanbide-ikaskuntzako prozesu honetan laguntzeko helburuarekin.

b) Irakasleen garapen profesionala

Administrazioak euskal irakaslearen garapen profesionalerako duen eskaintzari buruzko ataletan emandako datuek itxuraz argi eta garbi adierazten dituzte bi ondorio positibo: lehenik eta behin, prestakuntza-proposamenen eskaintza zabala eta aberatsa dugula, formatuetan eta edukietan askotarikoa eta, oro har, aholkularitzaren eta prestakuntzaren arloko ondorio eta gomendio berrienekin koherentea den prestakuntza-ereduaren alde egiten duena. Bigarrenik, irakasleen eta ikastetxeen parte-hartzea eta inplikazioa, oro har, behar adina handia eta etengabea da, eta horrek pentsarazten du, orokorrean, prestakuntza-eskaintzak, batez ere ikastetxeko prestakuntzari lotutakoak, beharrak asetzen dituela eta ikastetxeetan hautemandako arazoetara hurbiltzen dela.

Hala ere, irakasleak etengabe prestatzeko sistema zabal eta konplexuaren gabezia nagusia da, zentzu hertsian, ez daukagula daturik eta informaziorik, prestakuntza-tresna horrek guztiak ez irakaskuntza-jardunean, ezta ikastetxeen hobekuntzan ere duen egokitasuna, eraginkortasuna eta eragina baloratu ahal izateko.

Beharrezkoa eta premiazkoa da irakasle-lanbidearen ikuspegi sistemikoa, eredu integral eta koherente bat diseinatzeko oinarri izango dena. Eredu horretan lotu beharko dira hasierako prestakuntza, irakaskuntza-eginkizunerako sarbidea eta bizitza osoko garapen profesionala.

Horretarako, etengabe birziklatzeko ibilbideak sor daitezke, euskal hezkuntza-administrazioaren eta unibertsitateen zerbitzuak baliatuta.

Azkenik, laguntza-zerbitzu guztiak berrikusi behar dira, horiek optimizatzeko.

Horregatik, Kontseilu honek hau proposatzen du:

- Balorazio positiboa duten hasitako programekin jarraitzea eta ikastetxeak parte hartzera animatzen segitzea.
Prestakuntzak duen eraginaren ebaluazio zorrotza egitea, estrategikoentzat eta lehentasun handienekotzat jotzen diren proposamen batzuetan behinik behin. Horrela, irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko datu eta informazio fidagarriagoak eta sendagoak eduki ahal izango dira. Horrela sakonago aztertu ahal izango dira haren egokitasuna eta baliozkotasuna, beharretarako egokitzapena eta irakaskuntzako eta ikastetxeko praktiken gaineko eragina.
- Ikastetxeek prestakuntza-jardueren ebaluazioan parte hartu beharko lukete, eskola-jardueraren hobekuntzan eta ikasleengan zer-nolako eragina duten, hala badagokio, baloratuta.
- Aztertzea irakasleek zein irizpide erabiltzen dituzten mintegien eskaintzaren eta *berritzeguneen* aholkularitzaren barruan parte hartu nahi duten prestakuntza-jarduerak hautatzeko. Helburua da prestakuntza-eskaintza eta -proposamenak egokitzea irakasleen behar eta kezketara eta ikastetxeek planteatutako premietara.
- Irakasleen lagin zabal bati inkesta bat egitea, honako hauek jasotzeko: beharrezkoagotzat jotzen dituzten benetako prestakuntza-premiak, beharrezkoagotzat jotzen dituzten prestakuntza-estrategiak eta hezkuntza-aldaketa sustatzeko prestakuntza-prozesuaren ezaugarriak.
- Plantillen egonkortasuna sustatzen jarraitzea, baita ikastetxeen autonomia zabaltzeko eta indartzeko ahaleginak egitea ere, beren hezkuntza- eta curriculum-proiektua garatzeko beharrezkotzat eta egokitza jotzen dituzten lanbide-profilak pixkanaka ezarri ahal izateko.
- Irakaslearen figura babestea, sozialki bere lana eta behar den hezkuntza-aldaketan duen funtsezko eginkizuna duinduko duten kanpainen bidez. Horietan, zeregin horretan familien eta gizartearen lankidetzak eskatu behar da. Halaber, bere lana aintzatesteko ekintzak bultzatu behar dira, hezkuntza-sarien bidez, irakasle berriei harrera eginez eta lagunduz, erretiratzen diren irakasleei agur publikoa eginez edo irakasleen kolektiboaren ongizatea lortzen lagunduko duten bestelako proposamenen bidez.
- Berritzeguneen egungo egoera sakon aztertzea.
- Irakaskuntza-jarduna ebaluatzeko ereduak proposatzea eta ikasleen ikaskuntzarekin horiek duten lotura ikertzea.
- Diagnostiko-ebaluazioetan, arian-arian, irakaskuntza-jardunari buruzko galdetegiak sartzea, ikasleen emaitzei buruzko azalpenen maila handitzeko eta hobekuntza-arloak identifikatzeko irakaskuntza-funtziorako sarbidean, irakasleen etengabeko prestakuntzan eta horien maila-igoeran.

3.2.4.3 Zuzendaritza-taldeak hautatzeko, prestatzeko eta ebaluatzeko euskal eredua

Oro har, adostasuna dago zuzendaritza egoki baten garrantziaren eta eraginaren inguruan, baita hezkuntza-lidergo baten beharrari dagokionez ere, ikasleen ikaskuntza hobetzeko, irakasleen ongizatea eta eraginkortasuna handitzeko eta, ondorioz, ikastetxearen hezkuntza-kalitatea areagotzeko.

Gure testuinguruan, 2009an, ikastetxeko zuzendaritzak hautatzeko, haien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko prozesu bat jarri zen abian. Prozesu horren helburua zen zuzendaritza-taldean funtzionamenduan zeuden gabeziei erantzutea, zuzendaritza egonkor eta proiektudun gehiago lortzea, eta aholkularitza- eta prestakuntza-prozesu bat garatzea, hautatutako pertsonen zuzendaritza-kompetentziak handitu ahal izateko. Programa horrek orain arte funtzionatzen jarraitzen du, Europa-mailan ere positiboki baloratu dute eta Hezkuntza Ikuskaritzaren aldetik inplikazio eta dedikazio handia du.

Eskura ditugun datuen arabera, badirudi eskola-zuzendaritzak hautatzeko prozesuak behar bezala funtzionatzen duela, baina, oraindik ere, ikastetxe askotan ez da lortzen hautagaitza aurkeztuko duen talderik egotea eta proiekturik gabeko zuzendaritza izendatu behar da. *Berritzegune Nagusiak* kudeatu eta zuzendutako hasierako prestakuntza-programak eta eskualdeko *berritzegunee*k bultzatutako zuzendaritza-mintegiei, oro har, harrera ona dute, baina ez dago parte-hartzaileen balorazioari buruzko daturik.

Ikuskaritzako langileek egindako lanak, baita zuzendaritza-taldeei jarraipena egiteko eta ebaluatzeko prozesuan erabilitako protokolo, tresna eta prozedurek ere, badirudi irizpide koherentei erantzuten dietela. Irizpide horiek ondo oinarrituta eta hezkuntza-lidergoari buruzko korrante berrienekin lotuta daude, eta bidea ematen dute hautatutako zuzendariak jarraitutako prozesua zabal ezagutzeko. Ebaluatutako zuzendaritza gehienek balorazio positiboa jaso dute.

Horregatik, Kontseilu honek hau proposatzen du:

- Zuzendaritza-taldean prestakuntza-programa indartzen, berriro zehazten eta eguneratzen jarraitzea, ebidentzia eta esperientzia egiaztatuetan oinarritutako prestakuntza-estrategia eta -ikuspegi berriak txertatuz, prozesu horretan inplikaturako pertsonen jarraipena zabalduz eta lankidetzak eta truke-sareak sor daitezela sustatuz. Horretarako, beharrezkoa da programan parte hartzen dutenen iritzia, balorazioak eta iradokizunak kontuan hartzea.
- Ikastetxe publikoek zuzendaritza egonkorak eta zuzendaritza-proiektudunak izan ditzaten lagunduko duten prozesu guztiak abian jartzea, besteak beste, irakasleak kudeaketa- eta lidergo-prozesuan presta daitezela bultzatuz eta animatuz, ikastetxean zuzendaritza-kompetentziak eta hezkuntza-lidergoa izango dituzten profesional guztiak identifikatuz, etab.
- Zuzendaritza-eginkizunen irudia hobetzea, zuzendaritza-taldeetan lidergoa bultzatzea, egonkortasuna sustatzea eta prestakuntza areagotzea ikastetxeen eta pertsona taldeen kudeaketarekin eta antolamenduarekin lotutako alderdietan.
- Kontuan hartzea ikasleen irteera-profila eta irakasleen kompetentzia-profila prestakuntza-jarduerak diseinatzeko eta antolatzeke, bai irakasleentzat, bai zuzendaritza-taldeentzat, prestakuntzak eragina izan dezan ikasgeletan eta ikastetxeetan.

- Ikastetxe publikoetako zuzendaritzak hobetzea, zuzendaritza-eginkizunaren esparru berri batekin. Esparru horrek argi eta garbi zehaztu behar ditu zuzendaritzen eginkizunak, eskumenak eta erantzukizunak, karguan sartzeko behar duten prestakuntza, beren zeregina egiteko baliabideak eta pizgarriak ere (ekonomikoak eta irakasle-karrerakoak).
- Zuzendariak Hezkuntza Sailaren osagai estrategikotzat hartzea eta, hortaz, Administrazioak abian jarri nahi dituen funtsezko neurri, programa eta proposamenetan kontsultatuak izateko duten eskubidea aintzatestea.
- Ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeen arteko lankidetzak bultzatzea, esperientziak partekatzeko, elkarrekin gogoeta egiteko eta hezkuntza-kudeaketaren hainbat arlotan proposamenak egiteko topaketa-esparruekin.

ERANSKINAK.

2019ko azaroaren 14ko Osoko Bilkuran, txosten berriaren aurkibidea aurkeztu zen, aurreko txostenen egitura berri batekin; horregatik, datuen eta zifren eranskin bat egitea erabaki zen, txostenaren eranskin gisa, aurreko txostenetan jasotzen ziren grafikoei eta serieei jarraipena emateko; hau da, datuak eguneratzea zen helburua, baloraziorik eta proposamenik egin gabe.

Lehenengo eranskinean, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleen jaiotzasaren bilakaerari buruzko datuak eguneratzen dira, etapa, sare eta ereduaren arabera, bai eta zenbait adierazle ere, hala nola ikasle atzerritarrak eta ikasle bekadunak; bigarren eranskinean, hezkuntza-sistemaren finantzaketari eta baliabideei buruzko datuak jasotzen dira: hezkuntzaren adierazle ekonomiko nagusiak, Hezkuntza Sailaren aurrekontuen analisia eta irakasleen plantillei buruzko datuak.

Gainerako datu gehienak txosteneko kapitulu gehienetan daude jasota, irakasleen prestakuntzari buruzkoetan eta emaitza akademikoei buruzkoetan, kontuan hartuta, gainera, oraindik ez direla argitaratu Euskadiko PISAren txostenak, ez eta 2019ko ebaluazio diagnostikoari dagozkionak ere.

Datu guztien iturria, adierazi ezean, Hezkuntza Sailari dagokio.


Aurreko txostenetan bezala, pribatua izena mantendu da, gehienak itunpeko sare pribatukoak direla ulertuta.

1. Eranskina. HEZKUNTZA-SISTEMAREN PLANGINTZA

1.1.JAIOTZA-TASAREN BILAKAERA

Jaiotze-tasak etengabe egin du behera Euskadin 2008tik 1996ko mailetara arte; beherakada hori orokorrean gertatzen da hiru lurraldeetan eta hiriburuetan, baita biztanle gehien dituzten udalerrietan ere, intentsitate desberdinarekin bada ere.

1.1.1 Jaiotze-tasaren bilakaera Euskadin, 2002 eta 2018 atean




Iturria: EUSTAT. 2019.


1.1.2.- Jaiotze-tasaren bilakaera Euskadin, lurraldeka, 2016 eta 2018 artean

	2016	2018	Azken 2 urteak
Araba	3.074	2.682	-12,8%
Bizkaia	9.151	7.941	-13,2%
Gipuzkoa	6.015	5.467	-9,1%
Euskadi	18.240	16.090	-11,8%

1.1.3.- Jaiotze-tasaren bilakaera Euskadiko hiru hiriburuetan




1.1.4 40.000 biztanle baino gehiago dituzten munizipioetan jaiotze-tasaren bilakaera



1.2 IKASLEAK ETA HAIEN ESKOLATZEA, ETAPEN ARABERA.


1.2.1 Hezkuntza -etapa guztiak

1.2.1.1.- Haur Hezkuntzatik DBHra eskolatutako ikasleak, mailaren arabera. 2018-19 ikasturtea.




Etapeta guztietan eskolatutako ikasleak, Haur Hezkuntzatik Batxilergora eta erdi-mailako eta goi-mailako LHtara, ez dira ia hazi azken urteetan, jaiotze-tasak behera egin duelako. Sareen arabera banaketa mantendu egin da, eta alde txiki bat dago sare publikoaren alde.

1.2.1.2 Hezkuntza-etapetako ikasleen bilakaera azken hamar urtekoan.



*Ez dira sartzen Hezkuntza Bereziko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako daturik, seriea mantentzeko..


1.2.1.3 Ikasleen ehunekoaren bilakaera sareen arabera, azken hamarkadan



	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
Pub.	166.324	170.810	176.520	179.891	182.400	186.129	186.927	187.981	188.361	188.399
Prib	165.895	168.134	171.136	174.079	175.526	177.459	178.386	179.564	180.935	181.532


1.2.2 Haur Hezkuntza

1.2.2.1.- Haur Hezkuntzako ikasleen bilakaera azken hamarkadan




Haur Hezkuntzaren kasuan, jaiotze-tasaren beherakada handiagoa izan da; sareen arabera, ikasleen% 51,1 sare publikoan eskolatuta daude. Ereduen arabera, ikasleen % 80,1 D eremuan dago, nahiz eta Araban% 66,2 izatetik, Gipuzkoan% 95 izatera igaro, non A eredia sare pribatuan baino ez baitago.

1.2.1.2 Haur Hezkuntzako zikloetako ikasleen bilakaera azken hamarkadan




	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
1. ZIKLOA										
Pub	17.149	17.042	18.198	17.886	16.804	16.000	15.596	15.447	15.753	15.484
Prib	14.511	14.800	15.198	15.288	14.852	14.373	13.919	13.822	13.710	13.495
2. ZIKLOA										
Pub	30.742	31.559	32.694	33.066	33.315	33.116	32.802	31.673	30.791	30.106
Prib	30.398	30.348	30.487	30.473	30.512	30.316	30.284	29.307	28.769	28.175

1.2.2.3 Haur Hezkuntzako ikasleen ehunekoaren bilakaera ereduaren arabera



1.2.2.4.- Haur Hezkuntzako ikasleen ehunekoaren bilakaera, lurraldeen eta ereduaren arabera. 2018-19 ikasturtea




1.2.2.5 Haur Hezkuntzako ikasleak, lurraldeen, sareen eta ereduaren arabera. 2018-19

	Ikastetxe publikoak				Ikastetxe pribatuak				Ikastetxe guztiak				
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	GUZTIRA	
Araba	1,9	7,7	90,4	19,4	4,7	65,7	29,6	13,7	3,0	30,5	66,5	16,7	14.553
Bizkaia	0,1	0,2	99,6	47,0	4,4	38,7	53,7	52,7	4,4	20,7	74,9	49,7	43.382
Gipuzkoa	0,0	2,6	96,5	33,6	6,1	5,7	89,9	33,6	2,2	2,8	95,0	33,6	29.325
Euskadi	0,9	2,6	96,5	100,0	6,1	31,3	62,6	100,0	3,4	16,3	80,3	100,0	87.260
	403	1.186	41.186	44.553	2.496	13.005	25.904	41.405	2.899	14.191	68.868		


1.2.3 Lehen Hezkuntza

1.2.3.1.- Lehen Hezkuntzako ikasleen bilakaera azken hamar urtekoan.





Lehen Hezkuntzako ikasleen kopurua. % 1,2 baino ez da igo azken ikasturteetan. Sareen arabera, ehunekoak ia berdin mantendu dira, nahiz eta 10 urtetan gehiago hazi den sare publikora jotzen duten ikasleen kopurua. Ereduen arabera, D ereduaren gorakadak jarraitzen du, batez ere B ereduaren kaltetan, eta A eredu gutxieneko maila% 4,5ekoa mantentzen da, nahiz eta sare publikoan% 1,7ra baino ez den iristen eta Gipuzkoan A eredu publikorik. ez egon.

1.2.3.2 Lehen Hezkuntzako ikasleen bilakaera sareetan, azken hamar urtekoan




	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
Pub	56.511	58.672	60.345	61.493	63.003	64.983	65.897	66.883	67.712	67.887
Prib	56.824	58.369	59.943	60.646	61.273	62.196	62.549	62.549	62.913	63.170

1.2.3.3 Lehen Hezkuntzako ikasleen bilakaera ereduaren arabera,, de 2016-17tik 2018-19ra**1.2.3.4 Lehen Hezkuntzako ikasleen bilakaera lurraldeen eta ereduaren arabera. 2018-19****1.2.3.5 Lehen Hezkuntzako ikasleen bilakaera lurraldeen , sareen eta ereduaren arabera**

	Ikastetxe publikoak				Ikastetxe pribatuak				Ikastetxe guztiak				
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	GUZTIRA	
Araba	4,3	17,2	78,5	18,9	6,6	67,1	26,3	13,0	5,2	36,7	58,2	16,1	21.038
Bizkaia	1,8	4,7	93,6	47,5	9,6	43,8	46,7	52,7	5,7	24,5	69,7	50,0	65.525
Gipuzkoa	0,0	1,4	98,6	33,6	5,1	13,2	81,7	34,3	2,5	7,2	90,4	34,0	44.494
Euskadi	1,7	5,9	92,4	100,0	7,6	36,3	56,1	100,0	4,5	20,6	74,9	100,0	131.057
	1.126	4.035	62.726	67.887	4.826	22.932	35.412	63.170	5.952	26.967	98.138		


1.2.4 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1.2.4.1 DBHko ikasleen bilakaera azken hamar urtekoen





Bigarren Hezkuntza% 4,6 igo da bi urtetan, eta datozen urteetan hazten jarraituko duela aurreikusten da, 2008 eta 2011 urteen artean jaiotakoak etortzen hasi baitira, jaiotza-indize handiagoekin. Sareen arabera, aldaketa gutxiarekin mantentzen da irakaskuntza pribatuaren aldeko aldea. Ereduen arabera, D ereduaren gorakadak eta A eta B ereduaren beherakadak jarraitzen dute. Kasu horretan, lurraldeen arteko aldeak nabarmenagoak dira, Araban 51,3tik Gipuzkoan 83,9ra bitartekoak dira, eta sare publikoan are handiagoa da, Gipuzkoan eta Bizkaian D ereduaren% 90etik gorakoa baita. Gipuzkoaren kasuan ez dago publiko eredurik.

1.2.4.2 DBHko ikasleen bilakaera sareetan, azken hamar urtekoen



	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
Pub	31.324	32.054	33.202	34.022	34.741	35.860	36.896	37.799	38.474	39.193
Prib	38.140	38.462	38.942	39.918	40.420	41.333	42.590	43.602	44.751	45.949

1.2.4.3.- DBHko ikasleak ereduen arabera. 2016- 2017tik 2018-19ra**1.2.4.4 DBHko ikasleak ereduen, lurraldeen eta sareen arabera. 2018-19****1.2.3.5 DBHko ikasleak, lurraldeen, sareen eta ereduen arabera. 2018-19**

	Ikastetxe publikoak				Ikastetxe pribatuak				Ikastetxe guztiak				
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	GUZTIRA	
Araba	10,3	12,3	77,4	16,3	18,3	55,5	26,2	14,4	14,4	34,3	51,3	15,3	13.010
Bizkaia	4,7	4,8	90,5	48,0	13,1	45,0	41,9	51,8	9,4	27,3	63,3	50,0	42.611
Gipuzkoa	0,0	4,1	95,9	35,7	5,1	22,0	72,9	33,8	2,7	13,5	83,9	34,7	29.521
Euskadi	3,9	5,8	90,3	100,0	11,1	38,8	50,1	100,0	7,8	23,6	68,6	100,0	85.142
	1.543	2.255	35.395	39.193	5.117	17.814	23.018	45.949	6.660	20.069	58.413		

1.2.4.6. DBHko ikasleak curriculum aniztasunean, lurraldeen eta sareen arabera. 2016tik 2019ra

	2016-17		2017-18		2018-19	
	Pub.	Priv.	Pub.	Priv.	Pub.	Priv.
Araba	231	104	239	116	264	142
Bizkaia	642	261	623	250	654	299
Gipuzkoa	479	196	477	156	533	169
Guztira	1.352	561	1.339	522	1.451	610
	1.913		1.861		2.061	

Curriculumaren aniztasuna Bigarren Hezkuntzako graduatua lortu ez duten 16 urtetik gorako ikasleentzat da. Bi ikasturtetan (DBHko 3. eta 4. mailai dagozkienak) edo 4. mailan egin daiteke. Bi ikasturtetan% 7,7 igo da, publikoan% 7,7 eta pribatuan% 8,7.


DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen% 5ek curriculum-aniztasunari heldu zioten,% 8k ikastetxe publikoetan eta% 2,87k ikastetxe pribatuetan, 2016-17 ikasturtean bezala ia.

1.2.4.7 Curriculum aniztasunean dauden DBHko ikasleen ehunekoa , moten eta a sareen arabera. 2018-19 ikastaroa

	Ikastetxe publikoak				Ikastetxe pribatuak				Ikastetxe guztiak			
	Ikas	Guztira	%	Talde	Ikas	Guztira	%	Talde	Ikas	Guztira	%	Talde
2 urte(3º)	679	9.612	7,1	64	251	11.399	2,2	24	930	21.011	4,4	88
2 urte (4º)	732	8.565	9,0	58	294	10.373	3,3	25	1.026	19.302	5,9	83
Urte 1 (4º)	40			3	65			5	105			8
Guztira 2018-19	1.451	18.177	8,0	125	610	22.136	2,8	54	2.061	40.313	5,1	179
Guztira 2016-17	1.352	16.900	8,0	116	561	20.778	2,7	52	1.913	37.510	5,1	168

1.2.5 Batxilergoa


1.2.5.1.- Batxilergoko ikasleen bilakaera azken hamar urtekoan





*Goizeko, gaueko eta distantziako Batxilergoko ikasleak biltzen dira

Batzilergoko ikasleak egonkor mantendu dira azken ikasturteetan. Sareen arabera, 10 urtean alderantzikatu egin da egoera, eta 2016-17 ikasturtetik aurrera handiagoa da ikasleen ehunekoa irakaskuntza pribatuan. Ereduen arabera, D ereduaren beste etapa batzuetan baino motelago hazten da, eta B ereduaren A ereduaren kontura handitzen da; lurraldez lurralde, Gipuzkoak Arabarekin eta Bizkaiarekin alderatuta dituen aldeak mantendu egiten dira.

1.2.5.2. Batxilergoko ikasleen bilakaera sareen arabera, azken hamar urtekoan



	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
Pub	15.182	15.080	15.128	15.129	15.051	15.371	15.310	14.972	14.734	14.544
Prib	13.791	13.689	13.840	14.315	14.556	14.872	14.858	15.276	15.664	15.728


1.2.5.3.- Batxilergoko ikaslearen bilakaera ereduaren arabera. 2016tik 2019ra**1.2.5.4. Batxilergoko ikaslearen bilakaera ereduaren eta lurraldeen arabera. 2018-19****1.2.5.5. Batxilergoko ikaslearen bilakaera lurraldeen, sareen eta ereduaren arabera. 2018-19**

	Ikastetxe publikoak				Ikastetxe pribatuak				Ikastetxe guztiak				
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	GUZTIRA	
Araba	42,1	0,6	57,2	17,3	44,6	16,2	39,2	14,9	43,3	8,1	48,5	16,1	4.873
Bizkaia	14,5	1,4	84,1	48,4	54,6	6,7	38,6	51,4	35,9	4,2	59,8	49,9	15.116
Gipuzkoa	14,1	1,5	84,3	34,3	21,8	7,9	70,3	33,7	18,1	4,8	77,1	34,0	10.283
Euskadi	19,2	1,3	79,5	100,0	42,1	8,6	49,4	100,0	31,1	5,1	63,9	100%	30.272
	2.786	190	11.568	14.544	6.616	1.346	7.766	15.728	9.402	1.536	19.334		

1.2.6 Lanbide Heziketa


1.2.6.1.- Erdi mailako Lanbide Heziketa

1.2.6.1.1. Erdi mailako LHko ikasleen bilakaera azken hamar urtekoan





Erdi-mailako LHko ikasleak egonkor mantendu dira azken hiru ikasturteetan. Sareen arabera, aldaketa gutxirekin mantentzen da sare publikoaren alde. Ereduen arabera, A ereduak jarraitzen du nagusi izaten, baina ia 10 puntu egin du behera bi ikasturtetan, batez ere B ereduak Gipuzkoan izan duen hazkundeagatik. B eta D ereduak, oro har, A ereduak gainditzen dute.

1.2.6.1.2 Erdi mailako LHko ikasleen bilakaera , sareen arabera.




	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
Pub.	6.662	7.076	7.389	7.837	8.384	8.971	9.034	9.252	9.019	9.190
Prib.	4.406	4.392	4.601	4.881	5.058	5.217	5.270	5.461	5.501	5.542

1.2.6.1.3. Erdi mailako LHko ikasleen bilakaera, ereduaren arabera, 2016tik 2019ra**1.2.6.1.4 Erdi mailako LHko ikasleen bilakaera lurraldeen eta ereduaren arabera. 2018-19****1.2.6.1.5. Erdi mailako LHko ikasleen bilakaera lurraldeen, sareen eta ereduaren arabera. 2018-19**

	Ikastetxe publikoak				Ikastetxe privatuak				Ikastetxe guztiak				
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	GUZTIRA	
Araba	64,6	27,5	7,9	16,6	82,6	15,3	2,1	14,6	70,8	23,3	5,9	15,9	2.337
Bizkaia	63,0	18,9	18,0	41,1	80,3	14,9	4,8	55,8	70,8	17,1	12,1	46,6	6.871
Gipuzkoa	38,9	17,1	44,0	42,3	45,5	32,1	22,4	29,6	40,9	21,5	37,6	37,5	5.524
Euskadi	53,1	19,6	27,3	100,0	70,3	20,0	9,6	100,0	59,6	19,8	20,7	100,0	14.732
	4.879	1.799	2.512	9.190	3.898	1.111	533	5.542	8.777	2.910	3.045		


1.2.6.2.- Goi mailako Lanbide Heziketa

1.2.6.2.1 Goi mailako LHko ikasleen bilakaera azken hamar urtekoan





Lanbide Heziketako Goi-mailako ikasleen kopurua% 30 inguru handitu da azken 10 urteetan. Sareen arabera, nahiz eta sare publikoari dagokion ehunekoa handitu den, itunpeko sarearen parte-hartzea maila ertainetan baino handiagoa da. Ereduen arabera ere, A ereduak da nagusi, nahiz eta D eta B ereduak areagotzen ari diren. Gipuzkoan, B eta D ereduak nabarmen gaitzen dute A ereduak.

1.2.6.2.2.- Goi mailako LHko ikasleen bilakaera , sareen arabera.




	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-	2016-17	2017-18	2018-19
Pub.	8.754	9.327	9.564	10.458	11.102	11.828	11.392	11.955	11.878	11.995
Prib.	7.825	8.074	8.125	8.558	8.855	9.152	8.916	9.547	9.627	9.473

1.2.6.2.3 Goi mailako LHko ikasleen bilakaera , sareen arabera. 2016tik 2019ra**1.2.6.2.4 Goi mailako LHko ikasleen bilakaera , lurraldeen eta sareen arabera. 2018-19****1.2.5.2.5 Goi mailako LHko ikasleen bilakaera , lurraldeen, eredu eta sareen arabera. 2018-19 ikasturtea**

	Centros públicos				Centros privados				Todos los centros				
	A	B	D	Total	A	B	D	Total	A	B	D	TOTAL	
Araba	70,9	13,3	15,8	14,4	86,8	8,4	4,8	16,3	78,4	11,0	10,6	15,2	3.271
Bizkaia	64,3	17,5	18,3	41,5	71,9	18,9	9,2	50,9	68,0	18,2	13,8	45,6	9.793
Gipuzkoa	40,6	15,1	44,3	44,2	49,7	14,9	35,4	32,8	44,0	15,0	41,0	39,1	8.404
Euskadi	54,8	15,8	29,4	100,0	67,1	15,9	17,1	100,0	60,2	15,8	24,0	100,0	21.468
	6.571	1.898	3.526	11.995	6.354	1.503	1.616	9.473	12.925	3.401	5.142		


1.2.6.3.- Oinarrizko Lanbide Heziketa

1.2.6.3.1.- Oinarrizko LHko ikasleen bilakaera azken hamar urtekoan




Oinarrizko LH 2015/16 ikasturtean ezarri zen, eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak ordeztu zituen. Oinarrizko LHko ikasleen kopurua antzekoa da, 4.000 ikasle baino gehiago azken 10 urteetan; sare pribatua da nagusi. Ereduen arabera, A da gehiengoa, baina B eredia sartzen ari da, eta Gipuzkoan dagoeneko% 17,3ra iristen da.

1.2.6.3.2 Oinarrizko LHko ikasleen bilakaera, sareen arabera. 2016- 2019




1.2.6.3.3 Oinarrizko LHko ikasleen bilakaera, lurraldeen eta sareen arabera. 2018-19 ikasturtea




1.2.7. Helduen Hezkuntza

1.2.7.1 HHE arautuko ikasleen bilakaera azken hamar urtekoan



Azken urteetan, HHE arautuko ikasleen kopuruak nabarmen egin du behera, batez ere Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzera bideratutako III. graduan. HHE arautua 34 ikastetxetan ikasten da, 30 publikotan eta 4 pribatutan. HHEn, aurrez aurre ikasten da, goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetan, eta urrutitik. Ikasleen% 91k aurrez aurreko ikasketak jarraitzen ditu,% 43,3k goizeko txandan,% 37,8k arratsaldean eta% 10ek gauetz. Urrutiko modalitatea ikasleen% 8,9k ikasten du.

1.2.7.2 HHE arautuko ikasleen bilakaera graduen arabera, 2016tik 2019ra



1.2.7.3 HHE arautuko ikasleen bilakaera, lurraldeen sarean eta graduen arabera, 2018-19 ikasturtea

	Ikastetxe publikoak				Ikas. Pribatuak		Guztira
	I Gradua	II Gradua	III Gradua	Guztira	III Gradua	Total	
Araba	499	716	1.411	2.626	-	-	2.626
Bizkaia	1.744	1.571	1.517	4.832	200	200	5.032
Gipuzkoa	1.177	758	948	2.883	13	13	2.896
Euskadi	3.420	3.045	3.876	10.341	213	213	10.554

Arautu gabeko HHEn helduentzako interesgarriak diren hainbat azterlan egiten dira. Hezkuntza Sailak bederatzi eremutako taldeak baimendu ditu. 2016-17 ikasturteari dagokionez, 798 ikasle gehiago daude.

1.2.7.4.- HHE ez arautuko ikasleak eta taldeak, gaien arabera, 2018-19 ikasturtea

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak	Taldeak
Informatika	213	14	1.125	66	463	27	1.801	107
Espainera atzerritarentzat	715	36	1.057	58	703	32	2.475	126
Euskara	74	4	835	47	436	25	1.345	76
Tailerrak	14	1	891	40	317	16	1.222	57
GMLHrako sarbidea	40	4	247	12	127	5	414	21
Unibertsitaterako sarbidea	64	8	276	8	191	8	531	24
Ingelesa	227	10	1.604	72	1.113	51	2.944	133
Frantsesa	51	3	410	20	394	25	855	48
Giza Kultura	477	18	974	47	385	15	1.836	80
GUZTIRA	1.875	98	7.419	370	4.129	204	13.423	672

1.3 ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK

1.3.1 Ikasleen bilakaera Araubide bereziko irakaskuntzeetako ikasleen bilakaera, 2016tik-17ra

	2016-17	2017-18	2018-19 ikasturtea			
			Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
HIZKUNTZAK	28.579	37.231	35.813	5.338	21.020	9.455
A2: Oinarrizko maila (1º y 2º)	8.966	9.117	8.751	1.324	4832	2.595
B1:Erdi maila (3º eta 4º)	9.102	10.673	10.109	1.564	5.995	2.550
B2:Maila aurreratua (5º)	6.187	11.490	11.211	1.659	6.704	2.848
C1:gaitasun maila	4.324	5.951	5.742	791	3.489	1.462
MUSIKA	2.715	2.694	2.676	465	1.416	795
Oinarrizko maila	1.041	1.010	1.011	227	640	144
Erdi mailako gradua	1.362	1.342	1.305	238	743	324
Goi mailako gradua	312	316	327	-	-	327
Lutheria	30	26	33	-	33	-
DANTZA	110	115	119	95	24	-
Oinarrizko maila	53	51	58	58	-	-
Erdi mailako gradua	37	42	37	37	-	-
Goi mailako gradua	20	22	24	-	24	-
ARTE DRAMATIKOA	30	39	47	-	47	-
ARTE PLASTIKOAK ETA DISEINUA	255	240	248	75	102	71
DISEINUKO GOI MAILAKOAK	257	290	287	250	-	37
KIROL JARDUERA	773	653	859	-	859	-
Erdi mailako gradua	672	564	792	-	792	-
Goi mailako gradua	101	89	67	-	67	-


Kirol-jardueretako ikasleak% 11 ugaritu dira bi ikasturtetan; gainerako irakaskuntzetan, ikasleak aldaketa handirik gabe mantendu dira edo jaitsi egin dira, musika-irakaskuntza arautuetan eta musika-eskoletakoetan bezala.

1.3.2 Musika Eskoletako ikasleen bilakaera, lurraldeen eta sareen arabera.

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua
2015-16	2.007	741	9.714	2.733	12.246	10.546	23.967	14.020
2016-17	1.996	763	9.554	2.810	12.115	10.557	23.665	14.139
2017-18	2.021	751	9.784	2.775	12.039	10.610	23.844	14.136
2018-19	2.158	443	9.981	2.840	12.063	10.439	24.202	13.722

1.4. HEZKUNTZA LAGUNTZAREKIN LOTUTAKO PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK

1.4.1 Hezkuntza-premia berezietako hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen bilakaera, 2016tik 2019ra



	2016-17	2017-18	2018-19	Δ19/17
HBP dituzten ikasleak	8.019	8.498	8.979	12,0
HPBE dituzten ikasleak	11.133	11.869	13.835	24,3
Zehaztu gabe	488	730	598	110
IKALE GUZTIAK	19.640	21.097	23.412	19,2

Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleak honela sailkatzen dira: hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eta hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleak. Bi kasuetan, ikasle horiek asko handitu dira azken ikasturteetan.

Hezkuntza-premia bereziak desgaitasunaren edo desgaitasunaren ondoriozko nahasmenduaren arabera sailkatzen dira. Azken urteotan tipologia guztiek egin dute gora.

1.4.2.- Ikasleen bilakaera hezkuntza-premia berezi motaren arabera, 2016etik 2019ra

	2016-17	2017-18	2018-19	$\Delta 19/16$
Entzumen Urritasuna	408	425	442	8,3
Mugimendu Urritasuna	787	832	884	12,3
Urritasun Intelektuala	2.126	2.162	2.053	-3,4
Ikusmen Urritasuna	240	240	260	8,3
Garapenaren erabateko nahastea	2.545	2.796	3.173	24,7
Jokabidearen nahaste larria	1.608	1.699	1.832	13,9
Askotariko urritasuna	305	344	335	9,8
HPB DITUZTEN IKASLEAK	8.019	8.498	8.979	12,0

Hezkuntza-laguntzako berariazko hezkuntza-premie eragina dute ikasleen garapenean, ikaskuntzan eta jokabidean, eta% 24,3 baino gehiago hazi dira 2 urtean. Sareen arabera, publikoaren ehunekoa% 60koa da, ia aldatarik gabe azken urteetan, nahiz eta Araban% 64,3raino igo den; etapaka, bi urte horietako hazkunde handiena DBHn eta DBHOn gertatu da,% 33koa eta% 27,8koa, hurrenez hurren. Haur eta Lehen Hezkuntzan handiagoa da sare publikoan eskolatutako ikasleen ehunekoa; DBHn, berriz, aldea oso txikia da, eta DBHOn handiagoa da pribatuan eskolatutako ikasleen ehunekoa. Gela egonkorretako ikasleen kopuruak ere% 15 egin du gora.


1.4.3. Ikasleen bilakaera hezkuntza-premia berezietako hezkuntza-laguntza motaren arabera, 2017-2019

	2016-17	2017-18	2018-19	$\Delta 19/17$
Mintzairaren eta Komunikazioaren Nahasteak	1.983	2.179	2.574	12,0
Ikaskuntzako zailtasun espezifikoak	1.802	2.097	2.543	29,8
Heltzeko moteltasuna	1.531	1.753	2.105	41,1
Arreta-nahasteak eta hiperaktibitatea	1.136	1.129	1.274	37,5
Mugako Adimen Gaitasuna	3.468	3.440	3.796	12,1
Adimen Gaitasun Handia I	647	685	857	32,5
HPBE IKASLEAK	11.133	11.869	13.835	24,3

1.4.4 Hezkuntza-premia berezietako hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen bilakaera etapan arabera, sareetan, 2016tik 2019ra

		H H.	L H.	AB ¹¹⁰ HH-LH	DBH	AB DBH	DBHO	AAT ¹¹¹	GUZTIRA	% sarea
2016-17	Publikoa	1.961	6.010	133	2.729	177	1.031	326	11.731	59,7%
	Pribatua	1.119	3.463	308	2.178	137	1.149	203	7.909	40,3%
	GUZTIRA	3.080	9.473	441	4.907	314	2.180	529	19.640	
2017-18	Publikoa	2.224	6.413	144	2.968	202	1.013	347	12.618	59,8%
	Pribatua	1.233	3.698	342	2.439	168	1.109	219	8.497	40,3%
	GUZTIRA	3.457	10.111	486	5.407	370	2.122	566	21.097	
2018-19	Publikoa	2.309	6.993	160	3.271	229	1.386	361	13.959	59,6%
	Pribatua	1.311	3.975	324	2.767	187	1.400	217	9.453	40,4%
	GUZTIRA	3.620	10.968	484	6.038	416	2.786	578	23.412	59,7%
Aldaera		17,5%	15,8%	9,8%	23,0%	32,5%	27,8%	9,3%	19,2%	

1.4.5.- HPBE dituzten ikasleen bilakaera, sareen eta etapan arabera, 2018tik-2019ra



	Haur H.	Lehen H	DBH	ESPO	Guztira
Publikoa	2.309	6.993	3.271	1.386	13.959
Pribatua	1.311	3.975	2.767	1.400	9.453

¹¹⁰ Gela egonkorak

¹¹¹ Zereginen ikaskuntzarako gelak

1.4.6 Gela egonkorren eta zereginen ikaskuntzarako gelen ikasleak, ikaskuntza motaren eta sareen arabera. 2016-17 ikasturtetik 2018-19 ikasturtera

		16/17		17/18		18/19	
		Pub.	Prib.	Pub.	Prib.	Pub.	Prib.
Gela egonkorrak	Hasierako irakaskuntzak	133	308	144	342	160	324
	DBH+DBHO	177	137	202	168	229	187
Zereginen ikaskuntzarako gelak		326	203	347	219	361	217
Guztira		636	648	693	729	750	728
		1.284		1.422		1.478	

1.4.7 HPBE dituzten ikasleak, lurraldeen eta sareen arabera. 2018-19 ikasturtea


	Ikasleak	Publikoa	Pribatua
Araba	4.944	64,1%	35,9%
Bizkaia	11.067	59,4%	40,6%
Gipuzkoa	7.401	56,9%	43,1%
GUZTIRA	23.412	59,6%	40,4%

1.4.8.- HPBE ikasleen ehunekoa matrikulatutako ikasleen guztizkoarekin alderatuta (gela egonkorrik gabe). 2018-19

		Ikasleak	HPBE	%
Haur Hezkuntza	Publikoa	45.590	2.149	4,71
	Pribatua	41.670	987	2,37
Lehen Hezkuntza	Publikoa	67.887	6.764	9,96
	Pribatua	63.170	3.788	6,00
DBH	Publikoa	39.193	2.910	7,42
	Pribatua	45.949	2.550	5,55
DBHO	Publikoa	37.010	1.386	3,74
	Pribatua	34.032	1.400	4,11
GUZTIRA	Publikoa	189.680	13.209	6,96
	Pribatua	184.821	8.725	4,72
		374.501	21.934	5,86

1.5 ATZERRIKO IKASLEAK

1.5.1.-Ama atzerritarra duten ikasleen ehunekoa. Eustat 2019



1.5.2 Atzerriko ikasleak irakaskuntza moten eta mailen arabera. 2018-19

Oinarrizko irakaskuntzak	Infantil	Primaria	HB2P	DBH	HBP2S	Guztira
	7.681	10.437	78	5.751	52	23.999
Derrigorrezko ondorengo irakaskuntzak	Batxilergoa	EMLH	GMLH	OLH	ZI	Guztira
	1.244	1.468	1.378	1.128	54	5.272



Hezkuntza Sailaren estatistika serbitzuak atzerritartzat hartzen ditu Espainiako naziotasuna ez duten ikasleak

Ikasle atzerritarrak% 9,5 hazi dira bi urtean; lurraldeen arabera, proportzioan handiagoa da Araban. Sareen arabera, gehienak sare publikoko ikastetxeetan eskolatzen dira, Oinarrizko Lanbide Heziketan izan ezik; DBHn txikiagoa da bi sareen arteko aldea.



Ereduen arabera, ehunekoak ez dira oso desberdinak bertako biztanleen ehunekoekin alderatuta: ondoko derrigorrezko hezkuntzan, gehienak B eta D ereduetan daude; derrigorrezko hezkuntzaren ostekoan, berriz, A eredia nagusitzen da. Nazionalitateen arabera:% 33 Hego Amerikatik datoz, eta% 23,9 Afrika iparraldetik. Bi urtetan apenas igo den ikasle etorkinen ehunekoa etapa bakoitzeko guztizkoarekin alderatuta.



1.5.3 Atzerriko ikasleak lurraldeen eta sareen arabera. 2018-19

	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	5.023	1.229	6.252
Bizkaia	7.926	5.174	13.100
Gipuzkoa	6.647	3.272	9.919
Euskadi	19.596	9.675	29.271

1.5.4 Atzerriko ikasleak lurraldeen eta sareen arabera. 2018-19**1.5.5 Atzerriko ikasleak lurraldeen arabera. 2018-19****1.5.6. Atzerriko ikasleen bilakaera etapen eta sareen arabera 2016tik 2019ra(HBrik gabe)**

		HH.	LH	DBH	Batx.	EMLH	GMLH	OLH	Guztira	Ikasle guztiak	% Red
2016-17	Publikoa	5.434	6.669	2.994	938	975	732	332	18.074	187.981	9,6%
	Pribatua	1.451	2.342	2.424	521	469	419	856	8.482	179.564	4,7%
	GUZTIRA	6.885	9.011	5.418	1.459	1.444	1.151	1.188	26.556	367.545	7,2%
2017-18	Publikoa	5.505	7.225	2.929	946	1.088	885	359	18.937	189.663	10,0%
	Pribatua	1.579	2.500	2.445	509	607	535	891	9.066	184.240	4,9%
	GUZTIRA	7.084	9.725	5.374	1.455	1.695	1.420	1.250	28.003	373.903	7,5%
2018-19	Publikoa	5.864	7.649	3.043	779	946	882	319	19.482	189.680	10,3
	Pribatua	1.817	2.788	2.708	465	522	496	809	9.605	184.821	5,2
	GUZTIRA	7.681	10.437	5.751	1.244	1.468	1.378	1.128	29.087	374.501	7,8

1.5.7 Atzerriko ikasleen ehunekoa , etapan eta sareen arabera. 2018-19**1.5.8 Atzerriko ikasleen banaketa nazionalitateen arabera. 2018-19**

1.5.9 Atzerritar ikasleen ehunekoa etapen eta ereduaren arabera. 2018-19 ikasturtea**1.5.1.0 Atzerritar ikasleen ehunekoa eta ikasleen guztizkoarekin alderatuta, etapa bakoitzean. 2016tik 2019ra****1.5.1.1 Atzerriko ikasleak eta ikasle guztiak etapen arabera. 2018-19**

	Inf.	Prim.	ESO	Bach.	FPGM	FPGS	FPB	Total
Guztira	87.260	131.057	85.142	30.271	14.732	21.468	4.570	374.501
Atzerritarra	7.681	10.437	5.751	1.244	1.468	1.378	1.128	29.087

1.6. IKASLE BEKADUNAK


2018-19 ikasturtean, ikasleen% 36,2k (3-19) eskola-materialaren beka jaso zuen, eta 2-16 urteko ikasleen% 19,5ek jangelako beka jaso zuen. Baldintzak, errenta-mailak bezala, desberdinak dira beka-mota bakoitzerako, eta murriztaileagoak jangela-beketarako.

1.6. 1.- Bekadunen ehunekoa, moten, lurraldeen eta sareen arabera


		Eskola-materialaren bekadunak			Jangelako bekadunak		
		2016-17	2017-18	2018-19	2016-17	2017-18	2018-19
Araba	Pub.	46,6	47,3	48,0	28,9	28,8	27,6
	Prib.	27,2	27,7	27,2	6,4	6,4	5,6
Bizkaia	Pub.	46,3	46,8	46,4	33,5	32,9	31,2
	Prib.	33,8	29,2	28,6	14,0	13,5	12,8
Gipuzkoa	Pub.	38,5	39,2	39,0	24,6	24,6	24,0
	Prib.	27,2	27,7	27,8	9,9	9,8	9,8
Euskadi	Pub.	43,7	44,6	44,1	29,6	29,3	28,1
	Prib.	27,7	28,7	28,1	11,6	11,3	10,8
Guztira		35,8	36,8	36,2	20,7	20,4	19,5
		123.319	125.400	123.893	60.222	59.661	56.771

Eskola-materialaren kasuan, bekadunen kopuruak bere horretan jarraitzen du, baina jantokiko bekadunen kopuruak behera egin du. Sareen arabera, ehuneko handiagoa dago sare publikoan, eta aldea handiagoa da jangelako-beken kasuan, bereziki Araban. Etapen arabera, jangelako bekadunen intzidentzia handiena Lehen Hezkuntzan dago, publikoan (% 34,5) pribatutik oso urrun (% 12,5).

1.6.2 Eskola-materialaren ikasle bekadunen kopurua lurraldeen eta sareen arabera




1.6.3 Jangelako ikasle bekadunen kopurua lurraldeen eta sareen arabera



1.6.4.- Jangelako ikasle bekadunen ehunekoa ikasle guztizkoarekin alderatuta , etapen eta sareen arabera. 2018-19 ikastaroa (HBrik gabe, 2 urtetik aurrera)

	Haur Hezkuntza			Lehen Hezkuntza			DBH		
	Bekadunak	Guztira*	%	Bekadunak	Guztira	%	Bekadunak	Guztira	%
Publikoa	11.082	39.465	28,1	23.442	67.887	34,5	6.600	39.193	16,8
Pribatua	3.696	36.067	10,2	7.882	63.170	12,5	4069	45.949	8,9
Guztira	14.778	75.532	19,6	31.324	131.057	23,9	10.669	85.142	12,5

*2 urte eta 6 urte bitarteko ikasleak



Etapen eta sareen arabera, eskola-materialeko bekadunen ehuneko handiena Oinarrizko Lanbide Heziketan gertatzen da, bi sareen arteko alderik txikiena bertan gertatzen baita; Lanbide Heziketako graduatan, itunpeko bekadunen ehunekoa handiagoa da. Derrigorrezko hezkuntzan, aldiz, bekadunen ehunekoa askoz handiagoa da irakaskuntza publikoan, batez ere lehen hezkuntzan, non aldea nabarmenagoa baita.

1.6.5 Eskola-materialen ikasle bekadunen ehunekoa, etapen eta sareen arabera¹¹²

	Publikoa			Pribatua			Aldea
	Bekadunak	Guztira	%	Bekadunak	Guztira	%	
Haur H. 2.	11.050	30.043	36,8%	4.211	28.069	15,0%	21,8
Lehen H.	36.017	67.969	53,0%	18.606	62.963	29,6%	23,4
DBH	17.799	39.311	45,3%	15.155	45.850	33,1%	12,2
Batzilergoa	5.048	14.627	34,5%	3.997	15.798	25,3%	9,2%
EMLH	1.958	9.453	20,7%	1.672	5.602	29,8%	-9,1%
GMLH	2.143	12.388	17,3%	2.210	9.713	22,8%	-5,5%
OLH	592	1.294	45,7%	1.435	3.315	43,3%	2,5%
Guztira	76.607	175.085	42,6%	47.286	171.310	27,6%	15,0%

¹¹² HBrik gabe

2 Eranskina. HEZKUNTZA-SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

2.1. HEZKUNTZAREN ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK

Ondoren adierazten diren adierazleen arloan, kontuan izan behar da hezkuntzaren arloko gastu publikoak —barne-produktu gordinaren ehuneko gisa— zein gastu pribatuek askotariko esparruetan eragina dutela, hots, Kontseilu honen eskumeneko unibertsitateaz bestelako tarteaz harantzago doazen esparruetan eragina dutela. Nolanahi ere, bi adierazle horiek nazioarteko analisietan eta, berariaz, Europako esparruan erabili ohi direnez gero, interesgarriak dira “esparru-informazio” gisa. Adierazle hauek analizatu dira:

- Gastu osoa, BPGaren ehuneko gisa
- Gastu publikoa, gastu publiko osoaren ehuneko gisa
- Hezkuntzako gastu pribatua
- Ikasle bakoitzeko gastua

2.1.1. Gastu osoa, BPGaren ehuneko gisa

Hezkuntzako gastu osoak, BPGd-aren ehuneko gisa, hezkuntza-erakundeetan nahiz edozein zentro edo enpresatan egin diren eta iturri publiko edo pribatuek finantzatu dituzten hezkuntza-jarduera guztietan - Arautuak zein arautu gabeak - Egindako gastua neurtzen du.

Education at a Glance (2019) azterketako 2016eko datuen arabera, Europako estatuek haien BPGaren % 4,5 bideratzen dute hezkuntzako gastura, eta EUSTATEk Euskal Autonomia Erkidegoan % 5,3 dela kalkulatu du. Hezkuntzarren Kontuan, 2017rako Euskadiko datua (5,24) eta 2018ko aurrerapena (5,14) ere eman ditu. 2016koa gainerako herrialdeekin alderatzen jarraitzeko erabiltzen dugu. Aurreko txostenean emandako 2015eko datuei dagokienez, Espainia izan ezik, mantendu egin baita, aztertutako herrialde guztiek atzera egin dute.

2.1.1.1 Hezkuntzako gastu osoa, BPGaren ehuneko gisa, Europar Batasuneko zenbait herrialdetan, 2016.

Irakaskuntza guztiak

	Hezkuntza-erakundeetako gastu osoa		Hezkuntza-erakundeetako gastu publikoa		Hezkuntza-erakundeetako gastu pribatua	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Finlandia	5,7	5,5	5,6	5,4	0,1	0,1
Holanda	5,4	4,6	4,5	4,2	0,9	0,9
Frantzia	5,3	5,2	4,8	4,5	0,5	0,7
Euskadi	5,45	5,31	4,2*	4,1*	1,3*	1,2*
EB23, batez best.	4,9	4,5	4,4	3,9	0,5	0,6
Alemania	4,3	4,2	3,7	3,6	0,6	0,6
Espania	4,3	4,3	3,5	3,5	0,8	0,8
Italia	4,0	3,6	3,6	3,1	0,4	0,5

Iturria: Education at a Glance (OECD, 2019), C2.2 taula eta EUSTATEN Hezkuntzaren kontua (2018)

*Datu horiek EUSTATEk ezarritako % 5,3a abiapuntu izanik egindako kalkulu batetik datoz

2.1.2 Hezkuntzako Gastu publikoa , BPGaren ehuneko gisa

Indize horrek erakunde publiko guztiek zentro eta zerbitzu mota guztietan egiten duten inbertsioa jasotzen du, betiere barne-produktu gordinaren ehuneko gisa.

2.1.2.1 Hezkuntzako gastu publikoa, hezkuntzako gastu publiko osoaren ehuneko gisa, Lehen Hezkuntzatik Hirugarren Hezkuntzara.

	2014	2016	2016-2014
Holanda	11,2	11,8	0,6
Finlandia	10,4	10,4	0
EE23 batez bestekoa	9,9	9,6	-0,3
Euskadi	9,7	9,6	-0,1
Alemania	9,4	9,1	-0,3
Frantzia	8,4	8,4	0
Espania	8,2	8,6	0,4
Italia	7,1	6,9	-0,2

. Iturria: Education at a Glance (OECD, 2019), C4.1 taula eta EUSTATen) Hezkuntzaren kontua (2018)

Beste analisi osagarri bat da autonomia-erkidegoen arteko gastuaren datu konparatzaileak behatzea

2.1.2.1 Autonomia-erkidegoek hezkuntzan egindako gastuaren aurrekontua, 2016-2018

	2016	2016	2018	2018	Aldea 2018- 2019 (%)
	Miloi €s	Gastu osoaren %	Miloi €s	Gastu osoaren %	
Andaluzia	6.809.279	25,2	7.330.829	23,9	-1,3
Aragoi	970.194	20,7	1.106.320	19,3	-1,4
Asturias	721.190	18,4	757.053	18,2	-0,2
Balearrak	817.214	19,4	935.008	18,7	-0,7
Kanariak	1.516.035	20,9	1.659.718	20,1	-0,8
Kantabria	527.428	21,4	556.754	20,4	-1
Gaztela eta Leon	1.875.966	21,3	2.001.252	20,4	-0,9
Gaztela-Mantxa	1.512.178	20,0	1.656.323	19,7	-0,3
Katalunia	5.087.716	17,3	5.726.642	18,7	1,4
Valentzia erk.	4.183.283	24,4	4.549.746	22,5	-1,9
Extremadura	1.016.192	22,1	1.041.323	21,5	-0,6
Galizia	2.148.156	21,0	2.280.679	21,3	0,3
Madril	4.326.260	21,5	4.560.557	21,1	-0,4
Murtzia	1.296.591	26,4	1.376.823	25,0	-1,4
Nafarroa	601.570	15,1	655.260	15,7	0,6
Euskadi	2.530.071	23,2	2.772.475	24	0,8
Errioxa	245.883	18,6	271.675	18	-0,6
Guztira	36.185.196	21,5	39.238.438	21,1	-0,4

Estatuko Eskola Kontseiluaren txostena 2017 eta 2019

2.1.3. Hezkuntzako gastu pribatua

Bestalde, hezkuntzako gastu pribatuaren datuek —hezkuntzako gastu osoaren ehuneko gisa— islatzen dute zer ekarpen egiten dioten erakunde pribatu guztiek, funtsean erabiltzaileek edo haien familiek, orotariko ikastetxeen eta hezkuntza-zerbitzuen finantzaketari.

2.1.3 Hezkuntzako gastu pribatua, hezkuntzako gastu osoaren ehuneko gisa, Europar Batasuneko herrialdeetan, 2016. Irakaskuntza guztiak

	Lehen eta Bigarren Hezkuntza eta ondorengoa (ez Hirugarren Hezkuntza 2014)	2016
Euskadi	23,2	23,4
Alemania	12,7	13
Espania	12,4	14
Holanda	12,4	12
Frantzia	9,7	9
EE23 batez best.	6,8	10
Italia	6,8	5
Finlandia	0,7	1

*Iturria: Education at a Glance (OECD, 2019), B3.1 taula eta EUSTATen Hezkuntzaren kontua (2018)
C3.1 taula. Gastu pribatua*

2.1.4. Ikasle bakoitzeko gastua

EUSTATen 2018ko hezkuntzaren kontuan —2016ko datuekin osatua —, ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoak finantzaketa-tasa absolutu handiak dituela, gainerako herrialdeen antzekoak. Zenbatekoak dolarretan daude, eta barnean hartzen dituzte hezkuntzako oinarritzko zerbitzuak zein zerbitzu osagarriak eta ikerketakoak eta garapenekoak.

2.1.4.1 Ikasleko gastua, hezkuntza-instituzioetan, oinarrizko zerbitzuetan, osagarrietan eta I+Gn (PPC \$). 2016¹¹³

	Lehen eta Bigarren H. eta Ondorengo	Hirugarren H. + I+G	Lehen Hezkuntzatik, haurugarrenera + I+G
Finlandia	10.045	17.541	11.531
Frantzia	10.186	16.173	11.364
Alemania	11.294	17.429	12.583
Italia	8.736	11.589	9.298
Holanda	11.121	19.513	12.926
Euskadi	11.439	15.753	12.333
Espania	8.594	12.614	9.464
EE23 batez best.	9.649	15.863	10.688

EUSTATen Hezkuntzaren kontua eta OCDE. Education at a Glance. 2019 Adierazler C1.2)

Autonomia-erkidegoen arteko konparazioari dagokionez, Estatuko Eskola Kontseiluak landu duen estatistika batek unibertsitateaz bestelako irakaskuntzetako ikasle bakoitzeko gastua neurtzen du, zentroaren titulartasunaren arabera eta 2016-2017ko datuekin. Estatistika horri erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoa lehen posizioan dago bi adierazle horietan, eta ondoren Nafarroa.


¹¹³ Adierazlea ikasle bakoitzeko hezkuntza-establezimenduetan egindako gastuari dagokio, denbora baliokidean; EAErako, Hezkuntzaren kontuko emaitzak doitu ondoren lortzen da.

2.1.4.2 Ikasle bakoitzeko gastu publikoa, unibertsitateaz bestelako hezkuntza-erakundeetan, zentroaren titulartasunaren eta autonomia-erkidegoaren arabera,

	GASTU PUBLIKOA	
	Ikastetxe publ. ikasleak, 2015-16	Ikastetxe guztien ikasleak,
Andaluzia	4.943	4.419
Aragoi	5.917	5.131
Asturias	6.785	5.814
Balearrak	6.379	5.328
Kanariak	5.514	4.991
Kantabria	6.917	5.934
Gaztela eta Leon	6.538	5.529
Gaztela-Mantxa	4.988	4.619
Katalunia	5.386	4.721
Valentzia erk.	5.510	4.819
Extremadura	6.341	5.678
Galizia	6.598	5.699
Madril	4.593	3.946
Murtzia	5.159	4.613
Nafarroa	7.128	5.829
Euskadi	9.054	6.502
Errioxa	6.052	5.149
Espania	5.607	4.879

Dena dela, konparazio zorrotzagoa egiteko, beste faktore batzuk ere hartu beharko lirateke aintzat. Irakasle bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua oso argigarria da ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasle bakoitzeko gastu publikoaren zenbatekoak ulertzeko (adierazle horretako gastu publikoko aldagarritasunaren % 65 ikasle/irakasle ratioaren ($R=0,65$) bidez argitzen da). Euskal Autonomia Erkidegoak du gastu publikorik handiena eta ratorik txikiena, hurrengo grafikoan agertzen den moduan.

2.1.4.3 Ikasle bakoitzeko gastu publikoa, unibertsitateaz bestelako irakaskuntzako ikastetxe publikoetako irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko kopuruari dagokionez eta autonomia-erkidegoen arabera. 2016-17 ikasturtea




	Gastua/ikasle	Ratioa irakasle/ikasle
Andaluzia	4.943	12,2
Aragoi	5.917	10,5
Asturias	6.785	9,7
Balearrak	6.379	10,4
Kanariak	5.514	12,2
Kantabria	6.917	10,1
Gaztela eta Leon	6.538	9,6
Gaztela-Mantxa	4.988	11,2
Katalunia	5.386	12,5
Valentzia Erk.	5.510	11,5
Extremadura	6.341	9,6
Galizia	6.598	9,4
Madril	4.593	13,6
Murtzia	5.159	11,6
Nafarroa	7.128	9,7
Euskal Aut. Erk. ¹¹⁴	9.054	9,41
Errioxa	6.052	11,0
Guztira	5.607	11,5

- ¹¹⁴ Euskadin, irakasleen datuak aurrerapen-datuak dira, eta kalkuluan ez dira atzerriko zentroetako datuak sartzen, ezta hezkuntza-heziketako zentro pribatuetakoak ere.

Bestalde, biztanleriaren sakabanatze-maila da irakasle/ikasle ratioan eraginik handiena duen faktorea. Ildo horretan, gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan ikasten duten ikasleen ehunekoa ez da handia (% 20,6), oso urrun dago Galiziako (% 46,9), Nafarroako (% 34,2) edo Asturiasko (% 32,2) ehunekoetatik, baina ikasle/irakasle ratioa txikia da, eta horrek gastua handitzen du..

Duela gutxi egindako azterlan batek ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleentzako gastu publikoaren azterketa xehatua lantzen du.¹¹⁵

Alde handiak daude ikasle bakoitzeko gastu publikoan, titulartasunaren, hezkuntza-mailaren edo ikastetxearen tamainaren arabera; azken aldagai hori bereziki lotuta dago gastuarekin; ikastetxe txikienetan handienetan baino bi aldiz handiagoa da, gutxienez. Etapaka, gastua handiagoa da bigarren hezkuntzan, eta sareka, ikastetxe publikoetan.



Iturria. "Euskal hezkuntza-sistemaren diagnostikoa" txostenetik hartua

¹¹⁵ Análisis del gasto y servicio público para el aprendizaje” Sara de la Rica, Fernando Fernández Monge, Lucas Gortazar, Ainhoa Vega Bayo. UPV/EHU 2019.

2.2. HEZKUNTZA SAILAREN AURREKONTUEN ANALISIA

Txostenaren atal honetan, gastu publikoa berrikusten da, betiere hezkuntza-politikak — besteak beste irakasleen ordainsariak eta ingurune berezietako ikasleen finantzaketa — islatzen dituzten Hezkuntza Sailaren aurrekontuen bitartez. Epigrafe honetan, zehazten dira Hezkuntza Sailak gauzatutako aurrekontuak.

2017ko eta 2018ko ekitaldiak eta 2016ko ekitaldiarekiko konparazioa hartuko dira aintzat, baita datuak kapituluaren, programen eta azpiprogramen arabera xehatuta ere. Gainera, zehatz-mehatz aztertuko dira pertsonal-gastuen 1. kapitulua eta ikastetxe publikoetako inbertsioen 6. kapitulua. Azkenik, itunei buruzko datuak gehitu dira.

2.2.1. Hasierako aurrekontua eta gauzatutako aurrekontua

2.2.1.1 Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak (milioi €) eta, 2016 eta , 2018 arteko gehikuntza

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
Hasierako aurrekontua	10.933	11.060	11.486	1,2	3,9%	5,1%
Aurrekontu gauzatua	10.365	10.824	11.318	4,40%	4,6%	9,2%
Gauzatze-ehunekoa	94,8	97,8	98,5			

2.2.1.2 Hezkuntza Sailaren aurrekontua (milioi €) eta urte arteko gehikuntza, 2016 eta 2018 artean¹¹⁶


	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
Hasierako aurrekontua	2.608	2.665	2.723	2,2%	2,2%	4,4%
Aurrekontu gauzatua	2.681	2.789	2.798	4%	0,3%	4,4%
Gauzatze-ehunekoa	103%	104,7%	102,8%			

Hortik aurrera, datu guztiak gauzatutako aurrekontuei buruzkoak dira, Ogasun eta Ekonomia Sailaren dagozkion likidazioetan adierazten den bezala. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuari dagokionez, Hezkuntzakoa laurdena baino zertxobait gutxiago da. Zorren ordainketa kenduta, ehuneko hori% 27,4raino igotzen da. Gauzatutako aurrekontua% 4,4 handitu da aztertutako bi urteetan.

¹¹⁶ 2016an, Hezkuntza saila, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin elkartu zen; 2017an berriro Hezkuntza saila berriro deitzen da; aurreko txostenetan egin dugun moduan soilik jaso dira 2016ko hezkuntzaren arloari berariaz dagozkion datuak, konparazioa mantentzeko.

2.2.1.3 Sailaren aurrekontu gauzatua, Eusko Jaurlaritzak guztira gauzatutakoari dagokionez (milioi €)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Hezkuntza-arloa	2.625	2.462	2.578	2.625	2.681	2.789	2.799
Eusko Jaurlaritza	10.246	9.579	10.053	10.161	10.365	10.824	11.318
Zorren ordainketa kenduta	9.881	9.166	9.329	9.250	9.592	9.985	9.923

2.2.1.4 Sailaren aurrekontu gauzatua, Eusko Jaurlaritzak guztira gauzatutakoari dagokionez**2.2.2. Aurrekontuaren banaketa kapituluaren arabera**


Aurrekontua kapituluak gauzatzeari dagokionez, hezkuntza-administrazioa eta ikastetxe publikoetako langileen gastuei buruzko 1. kapituluak gastu osoaren ia% 46,5 da, eta% 5,9 handitu da 2016 eta 2018 artean. Gastu-bolumenari dagokionez, hezkuntza-administrazioa eta ikastetxe publikoak mantentzeko gastuei buruzko 2. kapituluak jarraitzen dio. Kapitulu hori da bi urtean% 0,7 murriztu den bakarra. Diru-laguntzen 4. kapituluak% 42,3 da, eta% 2,9 handitu da. Kapitulu honen zati handi bat itunpeko ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzetara bideratzen da. 7. kapituluak ere gora egin du,% 10,7, baina aurrekontu osoaren% 2 baino ez da. Kapitulu horretan itunpeko ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzak ere jasotzen dira. Ikastetxe publikoetako inbertsioei buruzko 6. kapituluak% 27,7 handitu da.

1. kapituluak, 2. kapituluak eta 4. kapituluak batera, 2018ko ekitaldiko gastu osoaren ia% 97 osatzen dute.

2.2.2.1 Hezkuntza Sailak hezkuntza-arloan gauzatutako aurrekontuaren urte arteko bilakaera, kapituluaren arabera (mila €).

Kapituluak		2016	2017	2018	Δ17/16	Δ18/17	Δ18/16
1	Pertsonal-gastuak	1.228.332	1.271.350	1.300.236	3,5%	2,3%	5,9%
2	Funtzionamendu-gastuak	214.111	208.578	212.635	-2,6%	1,9%	-0,7%
3	Finantza-gastuak	402	212	55	-47,3%	-74,1%	-86,3%
4	Diru-laguntza arruntak	1.150.647	1.214.846	1.183.503	5,6%	-2,6%	2,9%
6	Ikastetxe publikoetako inbertsioak	37.526	41.076	47.910	9,5%	16,6%	27,7%
7	Kapitaleko diru-laguntzak	48.284	51.270	53.429	6,2%	4,2%	10,7%
8	Finantza-aktiboen gehikuntza	1.141	1.089	831	-4,6%	-23,7%	-27,2%
9	Finantza pasiboen murrizketa	331	335	340	1,2%	1,5%	2,7%
Guztira		2.680.773	2.788.757	2.798.940	100,0%	4,0%	

2.2.2.2 Hezkuntza, Sailak hezkuntza-arloan gauzatutako aurrekontuaren sailkapena kapituluaren arabera, 2018(mila €).




2.2.3. Aurrekontuaren banaketa, programen arabera

“Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza” programak eta . “Bigarren Hezkuntza, Osabidezko Hezkuntza eta LH” programak dute zuzkidura ekonomikorik handiena, eta bien artean aurrekontu osoaren % 72,5 hartzen dute. Programa guztiak hazten dute bi urtetan , “hezkuntza sustapena” eta “sistema euskalduntzea” izan ezik.

2.2.3.1 Urte arteko bilakaera, programa gauzatuen arabera, ekitaldiaren itxieran (mila €)

Programa	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
Egitura eta laguntza	36.255	36.575	37.042	0,9%	1,3%	2,2%
Haur Hezk. eta Lehen Hezk.	938.651	963.660	991.021	2,7%	2,8%	5,6%
Bigarren Hezk., Osabidezko Hezk. eta LH	980.260	1.010.580	1.039.127	3,1%	2,8%	6,0%
Unibertsitate-irakaskuntza	313.716	339.223	326.284	8,1%	-3,8%	4,0%
Araubide bereziko irakaskuntza	60.287	59.227	61.130	-1,8%	3,2%	1,4%
Hezk. berriztatzea eta irakasleen prest.	31.330	32.448	31.800	3,6%	-2,0%	1,5%
Etengabeko ikask. eta Helduen Hezk.	35.137	35.678	35.770	1,5%	0,3%	1,8%
Hezkuntza-sustapena	220.144	245.435	207.039	11,5%	-15,6%	-6,0%
Sistema euskalduntzea	16.831	16.042	15.908	-4,7%	-0,8%	-5,5%
Ikerketa	32.256	43.565	46.337	35,1%	6,4%	43,7%
Berrikuntza-funtsa	15.906	6.325	7.480	-60,2%	18,3%	-53,0%
Guztira	2.680.773	2.788.757	2.798.940	4,0%	0,4%	4,4%

2.2.3.2 Osotasunaren ehunekoa, programa bakoitzari dagokiona.2018



Ondoren, sakontasun handiagoz aztertuko dira programa horien aurrekontuak.

2.2.4. Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzen programak eta azpiprogramak

2.2.4.1 Egitura eta laguntzako programa

Hezkuntza-administrazioaren egitura eta funtzionamendu arrunta finantzatzera zuzentzen da. Pertsonal-gastuei buruzko 1. kapituluak guztizkoaren % 81 da eta funtzionamendu-gastuei buruzko 2. Kapituluak berriz, % 16,3.

2.2.4.1 Egitura eta laguntzako programa gauzatzea (mila €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
1. Pertsonala	29.301	29.347	30.110	0,2%	2,6%	2,8%
2. Funtzionamendua	5.449	6.040	6.055	10,8%	0,2%	11,1%
3. Finantza-gastuak	353	76	15	-78,5%	-80,3%	-95,8%
6. Ikast. publ. inberts.	11	22	32	100,0%	45,5%	190,9%
8. Fin. jard. gehikuntza	1.141	1.089	831	-4,6%	-23,7%	-27,2%
Gauzatutakoa guztira	36.255	36.575	37.042	3,6%	-2,0%	2,2%
Hasierako aurrekontua	64.571	64.531	65.017	-0,1%	0,8%	0,7%
Gauzatze-ehunekoa	56,1%	56,68%	57,0%			

2.2.4.2 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako programa

Programa garrantzitsuenetako bat da, Bigarren Hezkuntzako programarekin batera, hezkuntza-arloko aurrekontu osoaren % 35 da. % 56,4 langileen kapituluari dagokio, eta % 38,4 diru-laguntzen kapituluari.

% 5,6 gehitu da bi urtetan, 1. kapituluaren gehikuntzaren ondorioz, (%6,5%) ..Ikastetxe publikoetan inbertsioei buruzko 6. Kapituluak bi urtetan bikoiztu egin da..


7. kapituluak udal-titulartasuneko ikastetxeak konpontzeko obretara zuzentzen da (horien barruan Gobernuaren mendeko ikastetxeak daude) eta, gainerakoa, kooperatiba-titulartasuneko itunpeko ikastetxeetarako diru-laguntzetara. hau Kapitulu hau % 11 jaitsi da aztertutako bi urteetan

4. kapituluak % 2,9 handitu da. Kapitulu horren zatirik handiena (% 88 2018an) hezkuntza-itunetara eta itunpeko ikastetxeentzako beste diru-laguntza batzuetara bideratzen da. Kapitulu honetan, halaber, Haurreskolak partzuergoa (43,6 mill) eta Udal Haur-eskolak (3,5 mill) finantzatzeko dira.

2.2.6 epigrafean zentro pribatuen kapitulu horren banaketari buruzko informazio gehiago dago.

2.2.4.2.1 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako programa gauzatzea (mila €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/17
1. Pertsonala	524.659	544.381	559.011	3,8%	2,7%	6,5%
2. Funtzionamendua	26.568	24.529	24.932	-7,7%	1,6%	-6,2%
4. Diru-laguntza arruntak	370.090	375.872	380.749	1,6%	1,3%	2,9%
6. Ikast. publ. inberts.	9.255	11.178	19.687	20,8%	76,1%	112,7%
7. Kapitaleko diru-l.	8.079	7.697	7.182	-4,7%	-6,7%	-11,1%
Gauzatutakoa guztira	938.651	963.660	991.021	2,7%	2,8%	5,6%
Hasierako aurrekontua	902.992	927.686	958.957	2,7%	3,4%	6,2%
Gauzatze-ehunekoa	103,9%	103,9%	103,3%			

2.2.4.2.2 Gauzatutako aurrekontua kapituluaren arabera.2018**2.2.4.3 Bigarren Hezkuntzako, Osabidezko Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako programa**


Programa hau gauzatzean, kapitulu guztiak gehitu dira . Bi urtetan gehikuntzarik handiena batik bat 1. kapituluarekin lotzen da (programaren osotasunaren % 57 hartzen du) eta, hein txikiagoan, 4. kapituluarekin (programa osoaren % 33,3 hartzen du).

4. kapituluaren, DBHra, Batxilergo eta LHra zuzentzen diren itunak osotasunaren % 96 dira, Alderdi hori zehatzago aztertu da 2.2.6. epigrafean.

Azpiprogramen arabera, nabarmen hazi da Batxilergoa (% 25,2) eta, neurri txikiagoan, Lanbide Heziketako (2,6), eta jaitsi egin dira bai DBHra bai Konpentsazio Hezkuntzara bideratutakoak

2.2.4.3.1 Bigarren Hezkuntzako, Osabidezko Hezkuntzako eta LHko programa gauzatzea (mila €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/17
1. Pertsonala	555.100	576.868	590.627	3,9%	2,4%	6,4%
2. Funtzionamendua	67.946	67.909	73.242	-0,1%	7,9%	7,8%
4. Diru-laguntza arruntak	330.366	335.695	346.117	1,6%	3,1%	4,8%
6. Kapital publ. inbertsioak	26.101	29.342	27.741	12,4%	-5,5%	6,3%
7. Kapitaleko diru-laguntzak	747	766	1.399	2,5%	82,6%	87,3%
DBH	287.956	257.311	239.290	-10,6%	-7,0%	-16,9%
Batxilergoa	397.431	458.734	497.409	15,4%	8,4%	25,2%
Lanbide Heziketa	293.349	292.902	301.074	-0,2%	2,8%	2,6%
Osabidezko Hezk. eta HLKP	1.524	1.631	1.353	7,0%	-17,0%	-11,2%
Gauzatutakoa guztira	980.260	1.010.579	1.039.127	3,1%	2,8%	6,0%
Hasierako aurrekontua	934.330	959.455	969.792	2,7%	1,1%	3,8%
Gauzatze-ehunekoa	104,9%	105,33%	107,15%			

2.2.4.3.2 Gauzatutako aurrekontua kapituluaren arabera. 2018**2.2.4.5 Araubide bereziko irakaskuntzen programa**

Gora egin du pertsonalaren 1. kapituluak, funtzionamendu -gastuenak eta 4. kapituluak, batez ere udal-musika eskolentzako diru-laguntzetarako. Pertsonalarengastuak guztizkoaren% 61,3 dira.

Jaitsi egin dira ikastetxe publikoetan (6. kapitulua) eta itunpekoetan (7. kapitulua) inbertsioak egiteko kapituluak.

Azpiprogrametan, arte-irakaskuntzetara zuzendutako aurrekontuak bereziki gora egin du (%17,2), berriz hizkuntzen irakaskuntzaren aurrekontuenak (%3,2) eta irakaskuntza teknikoen eta kirolletako aurrekontua jaitsi egin da.

2.2.4.5 Araubide bereziko irakaskuntzen programa gauzatzea (milioi €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
1. Pertsonala	35.228	36.975	37.493	5,0%	1,4%	6,4%
2. Funtzionamendua	3.496	3.595	3.651	2,8%	1,6%	4,4%
4. Diru-laguntza arruntak	18.263	18.360	19.611	0,5%	6,8%	7,4%
6. Ikast. publikoetako inbertsioak	1.869	207	201	-88,9%	-2,9%	-89,2%
7. Kapitaleko diru-laguntzak	1.431	91	172	-93,6%	89,0%	-88,0%
Arte-irakaskuntzak (arte, musika)	30.059	33.324	35.241	10,9%	5,8%	17,2%
Hizkuntzen irakaskuntza	23.779	24.481	24.536	3,0%	0,2%	3,2%
Irakaskuntza teknikoak, kiroltakoak	1.449	1.421	1.352	-1,9%	-4,9%	-6,7%
Gauzatutakoa guztira	60.287	59.227	61.130	-1,8%	3,2%	1,4%
Hasierako aurrekontua	52.793	54.672	55.759	3,6%	2,0%	5,6%
Gauzatze-ehunekoa	114,2%	108,3%	109,6%			

2.2.4.6 Hezkuntza berriztatzeko eta irakasleen etengabeko prestakuntzako programa

1 kapituluaren programa osoaren% 82,4 da 2018an. Bi urtean, kapitulu guztiek egin dute gora, batez ere 2. eta 6. kapituluak, nahiz eta% 100 baino gehiago hazi den, guztizkoaren% 0,1 baino ez da. 4. kapituluaren zati handiena itunpeko irakaskuntzarako laguntzak dira, prestakuntza-planetarako eta ikastetxeetako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuetarako.

Azpiprogramen arabera, laguntza-zerbitzuen aurrekontua baino ez da hazi, eta aurrekontu osoaren% 88,5 da. Azkenik, ikusi da gauzatze-maila aurrekontuan jasotakoaren azpitik dagoela

2.2.4.6 Hezk. berriztatzeko eta irakasleen etengabeko prestakuntzako programa gauzatzea (mila €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
1. Pertsonala	26.001	26.717	26.210	2,8%	-1,9%	0,8%
2. Funtzionamendua	2.212	2.574	2.381	16,4%	-7,5%	7,6%
4. Diru-laguntza arruntak	3.104	3.129	3.178	0,8%	1,6%	2,4%
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak	13	28	30	115,4%	7,1%	130,8%
Irakasleen prestakuntza	3.152	3.060	3.057	-2,9%	-0,1%	-3,0%
Laguntza-zerbitzuak (ISEI-IVEI, Berritzeguneak)	27.509	28.658	28.146	4,2%	-1,8%	2,3%
Berrikuntza eta kalitatea sustatzea	669	731	598	9,3%	-18,2%	-10,6%
Gauzatutakoa guztira	31.330	32.448	31.800	3,6%	-2,0%	1,5%
Hasierako aurrekontua	45.173	46.071	47.329	-1,8%	3,2%	1,4%
Gauzatze-ehunekoa	69,4%	70,43%	67,19%			

2.2.4.7 Etengabeko Ikaskuntzako eta Helduen Hezkuntzako Programa

4. kapituluak % 13 handitu da bi urtean, eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuetara bideratzen da gehienbat, hainbat kontzepturi diru-laguntzak emanez, hala nola sare pribatuko irakasleen prestakuntzari. Inbertsioen 6. kapituluak % 44,6 jaitsi da.

Nabarmentzekoa da programa honen aurrekontuaren % 91 pertsonal-gastuetarako erabiltzen dela.

Azpiprogramei dagokienez, etengabeko ikaskuntzako kopuruak gora egiten du, eta helduen kopuruak, berriz, bere horretan jarraitzen du, hau da, programa osoaren % 93.

2.2.4.7 Etengabeko Ikaskuntzako eta Helduen Hezkuntzako programa gauzatzea (mila €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
1. Pertsonala	32.024	32.631	32.475	1,9%	-0,5%	1,4%
2. Funtzionamendua	1.080	1.119	1.092	3,6%	-2,4%	1,1%
4. Diru-laguntza arruntak	1.865	1.765	2.110	-5,4%	19,5%	13,1%
6. Ikast. publikoetako inberts.	168	163	93	-3,0%	-42,9%	-44,6%
Etengabeko ikaskuntza	2.215	2.106	2.522	-4,9%	19,8%	13,9%
Helduen Hezkuntza	32.921	33.572	33.247	2,0%	-1,0%	1,0%
Gauzatutakoa guztira	35.137	35.678	35.770	1,5%	0,3%	1,8%
Hasierako aurrekontua	35.685	35.482	35.994	-0,6%	1,4%	0,9%
Gauzatze-ehunekoa	98,5%	100,55%	99,38%			

2.2.4.8. Hezkuntza-sustapeneko programa

Behera egin dute kapitulu guztiek, zentro publikoetako inbertsioei buruzko 6. kapituluak eta familiei gailu digitalak erosteko laguntzak emateko 7. kapituluak izan ezik. Beherapen horren arrazoiak da bekek ekitaldi horietan izan duten egozpen desberdina, jarraian adierazten den bezala.

Eskola-jangelaetarako aurrekontua ikastetxe publikoetara baino ez da bideratzen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatzen da. Familiek zati bat ematen dute kuoten bidez, eta, gainera, zati bat jangelako beken bidez laguntzen da diruz.

2.2.4.8.1 Hezkuntza Sustapeneko programa gauzatzea (mila €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
1. Pertsonala	14.631	13.560	13.813	-7,3%	1,9%	-5,6%
2. Funtzionamendua	105.370	101.001	99.846	-4,1%	-1,1%	-5,2%
4. Diru-laguntza arruntak	99.347	129.524	91.838	30,4%	-29,1%	-7,6%
6. Ikast. publikoetako inberts.	79	94	90	19,0%	-4,3%	13,9%
7. Kapitaleko diru-laguntzak	717	1256	1.451	75,2%	15,5%	102,4%
Garraioa eta jantokia	124.419	117.827	117.248	-5,3%	-0,5%	-5,8%
Bekak eta laguntzak	93.814	126.506	88.210	34,8%	-30,3%	-6,0%
Jardueretarako babesa (ikasleen gurasoen elkartea)	1.912	1.101	1.582	-42,4%	43,7%	-17,3%
Gauzatutakoa guztira	220.144	245.435	207.040	11,5%	-15,6%	-6,0%
Hasierako aurrekontua	181.239	173.916	176.020	-4,0%	1,2%	-2,9%
Gauzatze-ehunekoa	121,5%	141,12%	117,6%			

Bekei eta laguntzei dagokienez, aldaketak kontabilitate-arloko gaien ondoriozkoak dira, bekak ikasturte baterako ematen baitira eta Sailak ikasturteko lehen hiruhilekoan edo bigarrenean ordain baititzake, hurrengo taulan ikus daitekeen bezalaxe.

2.2.4.8.2 Ikasturteen arabera emandako beken zenbatekoa (mila €)

Bekak eta laguntzak	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
2015	6.470			
2016	48.530	12.538		
2017	7	40.997	43.211	10.384
2018		38	10.384	40.187
Guztira	55.470	53.573	53.595	50.571

Gurasoen elkarten eskolaz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak handitu dira

2.2.4.8.3 Ikasleen gurasoen elkarteei emandako laguntzak (mila €)

	2016	2017	2018	Δ18/16
Elkarten federazioak eta konfeder. (publikoak eta itunduak)	350	350	350	0%
Elkarten eskolaz kanpoko jarduerak (publikoak eta itunduak)	500	500	780	56%
Irakaskuntza-kooperatiben eskolaz kanpoko jarduerak	33	33	33	0%

2.2.4.9 Euskalduntze-programa

Programa honek % 5,5 egin du behera bi urtetan.

Bereziki adierazgarria da 1. kapituluak % 7,8 egin duela behera eta kapitulu hori dela aurrekontuaren % 66.

Azpiprogramei erreparatuta, guztiek egin dute behera, Glotodidaktika/EGARA zuzendutakoa izan ezik; aurrekontuaren %2,3 hartzen baitu.

2.2.4.9 Hezkuntza-sistema euskalduntzeko programa gauzatzea (mila €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
1. Pertsonala	11.388	10.870	10.496	-4,5%	-3,4%	-7,8%
2. Funtzionamendua	1.662	1.575	1.831	-5,2%	16,3%	10,2%
4. Diru-laguntza arruntak	3.772	3.573	3.563	-5,3%	-0,3%	-5,5%
6. Ikast. publikoetako inberts.	9	23	17	155,6%	-26,1%	88,9%
IRALE	12.494	12.145	11.910	-2,8%	-1,9%	-4,7%
EIMA	840	616	601	-26,7%	-2,4%	-28,5%
NOLEGA	3.147	2.884	3.036	-8,4%	5,3%	-3,5%
Glotodidáctica/EGA	349	396	361	13,5%	-8,8%	3,4%
Gauzatutakoa guztira	16.831	16.042	15.908	-4,7%	-0,8%	-5,5%
Hasierako aurrekontua	42.646	42.368	42.590	-0,7%	0,5%	-0,1%
Gauzatze-ehunekoa	39,5%	37,86%	37,35%			

2.2.5. "1. Pertsonal-gastuak" eta "6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak" kapituluaren analisia

Jarraian aurkezten den taulan, sei kontzeptutan multzokatzen dira hamabi kontzeptuak, eta pertsonal-gastuen 1. kapituluaren bilakaera banakatzen da, programa guztietarako.

2018ko ekitaldian, 2014tik izoztuta zeuden sistema osagarrietarako ekarpenak berreskuratu dira.

Pertsonal gastuak igo egin dira azken bi ekitaldietan kontzeptu guztietan, "Aldi baterako, aldi baterako edo bitarteko langileen" kasuan izan ezik.

2.2.5.1 Aurrekontuaren 1. kapituluaren banaketa, kontzeptuen arabera 2016 eta 2018 arteko bilakaera (mila €)

	2016	2017	2018	Δ 17/16	Δ 18/17	Δ 18/16
Langile finkoak: funtzionarioak, lan-legepekoak edo goi-karguak	910.751	936.146	934.682	2,8	-0,2	2,6
Behin-behineko, aldi baterako edo bitarteko langileak	11.702	11.172	10.090	-4,5	-9,7	-13,8
Ordezkapenak	79.446	83.245	90.335	4,8	8,5	13,7
Kalte-ordainak	1.969	2.197	2.254	11,6	926,2	1045,0
Pentsioen sistema osagarriko ekarpenak eta beste gizarte-gastu batzuk	1.436	1.901	8.017	32,4	321,7	458,3
Gizarte-kotizazioak	223.028	236.689	254.858	6,1	7,7	14,3
1. kapituluaren osotasuna	1.228.332	1.271.350	1.300.236	3,5	2,3	5,9

6. kapituluaren, Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikuntzetan eta ekipamenduetan egindako inbertsioak nabarmen igo dira, eta Bigarren Hezkuntzan igoera txikiagoa izan da.

2.2.5.2 Ikastetxe publikoetako inbertsioei buruzko 6. kapituluaren banaketa, bi kontzeptuen eta bi programa nagusien arabera (mila €)

		2016	2017	2018	Δ17/16	Δ18/17	Δ18/16
Eraikuntzak	Haur Hezk. eta Lehen Hezk.	5.764	7.268	14.449	26,1%	98,8%	150,7%
	Bigarren H., Osabidezko H., LH	17.791	21.313	18.231	19,8%	-14,5%	2,5%
	Araubide bereziko irakaskuntzak	1.591	4		-99,7%	-100,0%	-100,0%
	Eraikuntzak guztira	25.147	28.585	32.680	13,7%	14,3%	30,0%
Ekipamenduak	Haur Hezk. eta Lehen Hezk.	3.491	3.911	5.238	12,0%	33,9%	50,0%
	Bigarren H., Osabidezko H., LH	8.310	8.029	9.510	-3,4%	18,4%	14,4%
	Beste programa batzuk	289	552	483	91,0%	-12,5%	67,1%
	Ekipamenduak guztira	12.379	12.492	15.231	0,9%	21,9%	23,0%
Gauzatutakoa guztira		37.526	41.076	47.910	9,5%	16,6%	27,7%
Hasierako aurrekontua			60.524	64.883	91,0%	9,6%	
Gauzatze-ehunekoa			67,9%	73,8%			

Erakunde arteko lankidetzaren esparruan, udal-jabetzakoak diren eta hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak kokatzen diren eraikinetan obrak egiteko linea bat dago.

Laguntzen ohiko deialdietan, Sailak % 60ra arte finantzatzen ditu laguntzak; inbertsioaren gainerako gastua udalek hartzen dute beren gain.

2.2.5.3 Sailarekin eta udalekin partekatutako obra txikiak

<i>Ebazpenaren data, EHAA</i>	2016	2017	2018	$\Delta 17/16$	$\Delta 18/17$
	27/04/17	19/04/18	10/06/19		
Udalak	99	87	99	-12,1%	13,8%
Ikastetxeak	168	154	172	-8,3%	11,7%
Obrak	298	260	325	-12,8%	25,0%
Sailaren ekarpena	6.000	5.998	5.998	0,0%	0,0%
Udalen ekarpena	4.000	3.999	3.999	0,0%	0,0%

2.2.6 . Ikastetxeen itunak

Sare pribatuaren finantzaketa hezkuntza-itunen bidez egiten da, batik bat. Nolanahi ere, kontzeptu batzuk laguntzen edo beste diru-laguntzen bidez bideratzen dira, hurrengo tauletan ikusiko dugun bezalaxe.

- Itun-modulua**

Eusko Jaurlaritzak Aurrekontu Orokorretan urtero onartzen du itunpeko ikastetxeak mantentzeko ekonomia-modulu osoaren zenbatekoa. Dena dela, 2016eko ekitaldian aldatu egin dira, *itunpeko ikastetxeak mantentzeko ekonomia-moduluak eguneratzeko 2016ko irailaren 21eko Agindua*ren arabera, *betiere ordezkapenen kontzeptuari dagokionez (% 0,5 gehiago)*. Bestalde, azken bi urteetan ere aholkulariak eta orientatzaileak txertatu dira itunaren modulan. (EHAA 16/10/13)

Hauek dira moduluaren osagaiak: irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak, barnean direla Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotaren ondoriozko kotizazioak; funtzionamendu gastuak; mantentzeko eta kontserbatzeko gastu arruntak; eta inbertsio errealeen birjarpena.

Kontzeptu nagusietan urteko zenbateko osoak % 1 inguru gehitu dira hezkuntza-maila guztietan, Batxilergoan eta Zereginen Ikaskuntzan izan ezik, % 2 inguru handitu baitira.

2.2.6.1.1. Itunpeko ikastetxeen modulu ekonomiko osoa, unitateen arabera (€)

	2016	2017	2018	$\Delta 17/16$	$\Delta 18/17$	$\Delta 18/16$
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	64.742	64.742	65.330	0,0%	0,9%	0,9%
Lehen Hezkuntza	67.810	67.810	68.415	0,0%	0,9%	0,9%
Hezkuntza Berezi irekia, Lehen Hezk.	54.935	54.935	55.417	0,0%	0,9%	0,9%
DBH (lehen zikloa)	87.059	87.059	87.840	0,0%	0,9%	0,9%
DBH (bigarren zikloa)	105.595	105.595	106.546	0,0%	0,9%	0,9%
LOGSE Batxilergoa	105.286	106.748	107.703	1,4%	0,9%	2,3%
Zereginen Ikaskuntza (ikast. arruntak)	109.386	110.410	111.446	0,9%	0,9%	1,9%

Ondoren, “Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza” programa eta “Bigarren Hezkuntza, Osabidezko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa” programa diruz laguntzen dituzten kontu-sail nagusien (4. eta 7. kapitulu) datuak aurkeztuko dira.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako programan, kontzertuen zenbateko globala% 2,7 igo da aztertutako bi urteetan. Kapitulua% 77 dira

2.2.6.1.2 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako itunpeko ikastetxeentzako diru-laguntzen bilakaera (mila €)

Ikastetxe pribatuak (Haur eta Lehen Hezkuntza)	2016	2017	2018	Δ17/16	Δ18/17	Δ18/16
4.kapitulua						
Itunak, Haur H. eta Lehen H.	286.292	289.515	294.020	1,1%	1,6%	2,7%
Sindikatuetao liberatuak	945	954	962	1,0%	0,8%	1,8%
Krisialdian dauden ikast.	93	61	236	-34,4%	286,9%	153,8%
Immigratzaileak diru-lag	778	919	804	18,1%	-12,5%	3,3%
Irakasle aholkulariak diru-lag.	11.244	11.663	11.720	3,7%	0,5%	4,2%
Haurreskola prib. laguntzak	24.390	24.390	26.627	0,0%	9,2%	9,2%
7. Kapitulua						
Kooperatibak diru-lag	2.804	2.135	2.013	-23,9%	-5,7%	-28,2%

Bigarren Hezkuntzan, itunek 4. kapituluaren osotasunaren % 96 hartzen dute. Etapa guztietan gehitu dira, baina batez ere Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.

2.2.6.1.3 Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeentzako diru-laguntzen bilakaera (mila €)

Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe pribatuak	2016	2017	2018	Δ17/16	Δ18/17	Δ18/16
4 kapitulua						
DBH itunak	184.312	188.555	193.285	2,3%	2,5%	4,9%
Batxilergoa itunak	55.245	57.981	60.049	5,0%	3,6%	8,7%
LH itunak	68.830	76.327	79.271	10,9%	3,9%	15,2%
Sindikatuetao liberatuak		954			-100,0%	
Krisialdian dauden ikast.		61	65		6,6%	
Immigratzaileak	782	881	906	12,7%	2,8%	15,9%
7 kapitulua						
Ekipamenduak/obrak LH	747	766	1.399	2,5%	82,6%	87,3%

2.2.6.2 Itunpeko ikasgela kopuruaren bilakaera

95 ikasgela gehiagok izan zuten itun osoa eta 15 gehiagok izan zuten itun partziala. Igoera batez ere DBHko lehen eta bigarren zikloetan oinarritu da, 41 ikasgela gehiagorekin. Halaber, 22 gehitu dira Batxilergoan, 15 erdi-mailako Lanbide Heziketan, 4 goi-mailako Lanbide Heziketan eta 9 Oinarrizko Lanbide Heziketan. 22 gutxitu dira Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako.

2.2.6.2 itunpeko gelen bilakaera 2016-17tik 2018-19ra (modulu osoa edo partziala)

	2016-17		2017-18		2018-19		Δ 2curso	
	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	1.260		1.249		1.238		-22	
Lehen Hezkuntza	2.554		2.548		2.547		-7	
Hezkuntza Berezia (Lehen Hezkuntza, irekiak)	227		245		262		35	
Hezkuntza Berezia (Lehen Hezkuntza, itxiak)	111		115		116		5	
DBH (lehen zikloa)	858		872		883		25	
DBH (bigarren zikloa)	837				853		16	
Hezkuntza Berezia (Bigarren Hezkuntza, irekiak)	211		842		219		8	
Hezk. Berezia (Zereginen Ikaskuntza, itxiak)	23		23		23		0	
Batxilergoa	529		546		551		22	
LH, erdi-mailakoa	51	199	52	210	53	212	2	13
LH, goi-mailakoa	141	284	144	286	143	286	2	2
Guztira	232		236		241		9	
Guztira (osoa+partziala)	7.034	483	6.872	496	7.129	498	95	15
Oinarritzko LH*	7.517		7.368		7.627		110	
Hezk-proi. bereziak 1 eta 2	109		107		108			
Curriculum-dibertsifikazioa	52		48		55			
Itunpeko ikasgelak guztira	7.678		7.523		7.790			

2.2.6.3 Modulu osoa/partziala duten itunpeko ikasgelen kopurua, 2018-2019, herrialdeen arabera

	MAILA	ITUNA	2018-2019			
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
112	Haur Hezkuntza (2. zikloa)	Osoa	168	630	440	1.238
120	Lehen Hezkuntza	Osoa	325	1.299	923	2.547
141	Hezkuntza Berezia 1 B	Osoa	40	141	81	262
142	Hezkuntza Berezia 2 B	Osoa	130	53	56	116
261	DBH 1. zikloa	Osoa	126	445	308	883
261	Hezk. Proiektu Espezifikoa	Osoa	8	24	7	39
261	Hezk. Proiektu Espezif. 1/2	Osoa	9	30	30	69
262	DBH 2. zikloa	Osoa	126	431	296	853
262	Curriculum-dibertsifikaz.	Osoa	12	27	16	55
270	Batxilergoa	Osoa	80	281	190	551
280	Hezk. Ber. 2 LH	Osoa	5	12	6	23
310	Hezik. Zikloa, erdi-mailakoa	Partziala	32	114	66	212
310	Hezik. Zikloa, erdi-mailakoa	Osoa	6	32	15	53
320	Hezik. Zikloa, goi-mailakoa	Partziala	37	160	89	286
320	Hezik. Zikloa, goi-mailakoa	Osoa	38	54	51	143
331	Hezkuntza Berezia, 1 G	Osoa	33	112	74	219
550	Lanbide Heziketa	Osoa	30	142	69	241
			1.086	3.987	2.717	7.790

2.3. IRAKASLEEN PLANTILLEN ANALISIA

2.3.1. Irakasleak Euskadiko ikastetxetan

2.3.1.1 Ikasleen kopurua, mailaren, sexuaren eta titulartasunaren arabera. 2016-17 eta 2017-18


		Publikoaa		Pribatua		Guztira
		2016-17	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	
Haur eta Lehen Hezkuntza	18.343	1.530	9.953	1.204	5.911	18.598
Bigarren Hezkuntza	16.183	3.849	6.040	2.876	4.156	16.921
Helduen Hezkuntza	625	189	426	12	11	638
Irakaskuntza-funtziorik gabe	1.467	337	760	194	313	1.604
Guztira	36.039	5.901	17.163	4.106	10.057	37.227
		23.064		14.163		

2.3.1.2 Irakasleen kopurua mailaren eta titulartasunaren arabera. 2016-17ko eta 2017-18ko ikasturteak.

	2016-17			2017-18			Δ18/17		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Haur eta Lehen Hezkuntza	11.479	6.864	18.343	11.483	7.115	18.598	0,0%	3,7%	1,4%
Bigarren Hezkuntza	9.537	6.646	16.183	8.889	7.032	16.921	-6,8%	5,8%	4,6%
Helduen Hezkuntza	603	22	625	615	23	638	2,0%	4,5%	2,1%
Irakaskuntza-funtziorik gabe	1.089	378	1.467	1.097	507	1.604	0,7%	34,1%	9,3%
Guztira	22.692	13.347	36.039	23.064	14.163	37.227	1,6%	6,1%	3,3%

Irakasleak% 3,3 hazi dira ikasturte batean,% 4,6 Bigarren Hezkuntzan eta% 1,4 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan; publikoan ez da aldaketarik izan, baina pribatuan% 3,7 hazi da.

Irakaskuntza publikoko irakasleak% 1,6 hazi dira, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan mantendu dira, Bigarren Hezkuntzan jaitsi egin dira (% 6,8), eta helduen hezkuntzan hazi egin dira. Itunpeko sare pribatuko irakasleen kopurua% 6,1 hazi da, batez ere Bigarren Hezkuntzan (% 4,6) eta irakaskuntzarik gabeko langileen artean (% 9,3)


3.1.3 Irakasleen kopurua sarearen, etaparen eta sexuaren arabera. 2017-18 ikasturtea.

Sexuen arabera, emakumeen ehunekoa da nagusi bi sareetan eta bi etapetan

2.3.1.4 Irakasleen ehunekoa sare- etapa eta eta adina-tarteen arabera. 2017-18

	Publikoa		Pribatua	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Haur eta Lehen Hezkuntza	13,3%	86,7%	16,9%	83,1%
Bigarren Hezkuntza	38,9%	61,1%	40,9%	59,1%

Adinaren arabera, irakaskuntza publikoko irakasleek adin handiagoa dute,% 47k 50 urte baino gehiago dituzte, eta itunpeko ikastetxe pribatukoek, berriz, 36,6.


2.3.1.5 Irakasleen ehunekoa sare- eta adina-tarteen arabera. 2017-18

Geuk egina, MECen datuetan oinarrituta

2.3.1.6 Batez besteko ikasle-kopurua unitateko, ikastetxearen titulartasunaren eta irakaskuntza-etaparen arabera.


Irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua handiagoa da etapa guztietan itunpeko ikastetxe pribatuetan, baina aldeak handiagoak dira derrigorrezko etapetan eta Batxilergoan. Lanbide-heziketako zikloetan eta hezkuntza-heziketako lehen zikloan. Haurrengan aldeak txikiak dira.

2.3.1.6.1. Batez besteko ikasle-kopurua unitateko, ikastetxearen titulartasunaren eta irakaskuntza-etaparen arabera



Geuk egina, MECen datuetan oinarrituta

2.3.1.6.2 Batez besteko ikasle-kopurua irakasle bakoitzeko, lanaldi osoko baliokideetan (1), ikastetxe-motaren eta titulartasunaren arabera. Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak



Araubide Orokorreko irakaskuntza-zentroetako ikasleen eta irakasleen zifren arteko zatidura gisa kalkulaturia, lanaldi partzialeko ikasleen eta irakasleen datuak lanaldi osoaren baliokide bihurtuz

Euskal Autonomia Erkidegoan ez dira sartzen atzerriko zentroen datuak.

2.3.2. Ikastetxe publikoen plantillen bilakaera, eta irakasle/ikasgela, ikasle/ikasgela eta ikasle/irakasle ratioak

Atal honetan, lanpostuen zerrendei (LPZ) buruzko irizpenak egitean Sailak emandako ikastetxe publikoetako irakasle-plantillari buruzko informazioa ematen da, bai plantilla organikoari buruzkoa, bai funtzionamenduari buruzkoa. 2017-18 eta 19-20 ikasturteetako datu berriak sartu dira, eta 2016-17koak utzi dira, alderaketa egiteko

Irakasle-ratioa ikasgelako, hezkuntza-laguntzako ikastetxe publikoetan. Haur eta Lehen Hezkuntzako egozkorra da azken hiru ikasturteetan, 1,70 ingurukoa. Ratio horretan sartzen dira, halaber, zuzendaritza-lanak eta administrazio-lanak egiten dituzten irakasleak (zuzendaritza-taldea, administrazio-laguntza eta jantokiko arduraduna).

Gela bakoitzeko ikasleen ratioa hamarren bat jaitsi da, 18,77ra arte. Ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua 25 da. Lehen Hezkuntza, 23, Hezkuntzako 2. zikloan. Haurrak, eta 18 bi urteko mailan. Ikasle irakasle ratioa bi hamarren igo da.

2.3.2.1 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen plantilla osoaren bilakaera, 2016-17, 2017-18 eta 2018-19 ikasturteak

	2016-17	2017-18	2018-19
Lanp. zerrendako irak.	8.880	8.898	8.881
Plantilla osagarria	816	870	1.051
Plantilla osoa	9.696	9.768	9.932
Unitate kopurua	5.760	5.780	5.691
Ikasleak	108.094	107.845	106.820
Irakasle/ikasgela ratioa	1,68	1,69	1,75
Ikasle/ikasgela ratioa	18,77	18,66	18,77
Ikasle/irakasle ratioa	11,15	11,04	10,76

“Plantilla osagarria” sartzen dira lanpostuen zerrendako dekretuan ikastetxe jakin bati esleitzen ez zaizkion plazak. Plaza horiek ikastetxeetan irakaskuntza berezi hori behar duten ikasleen matrikulazioaren mende daude, eta izan daitezke hizkuntza-indargarriko irakasleak (166 plaza) edo erlijio katolikoko plazak (74). Beste bi talde garrantzitsu ere badago: jantokiko arduradunak (228 plaza) eta eskolaz kanpoko jardueretakoak (61), batez ere liburutegiko arduradunak.

2.3.2.2 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan maisu-maistren plantilla osagarriaren banaketa. 2016-17, 2017-18 eta 2018-19 ikasturteak

Irakasle kopurua	2016-17	2017-18	2018-19
Jantokiko arduradunak	213	218	228
Hizkuntza-indargarrikoak (lanp.-zerr.)	129	153	166
Eskolaz kanpoko jarduerak	96	78	61
Erljio katolikoa		65	78
Bestelakoak	298	421	596
Plantilla osagarria guztira	816	870	1.051
Jantokiko arduradunak	80	77	74

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, ikasgela bakoitzeko irakasleen ratioa egonkorra da, eta ikasgelako ikasleen ratioak zertxobait egin du gora, baita irakasle bakoitzeko ikasleen ratioak ere. Bigarren Hezkuntzako ikastetxe horien kasuan, berariazko plantilla baten kargura zuzkitzen dira administrazio postuak.

2.3.2.3 Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen plantilla osoaren bilakaera a entre los cursos . 2016-17, 2017-18 eta 2018-19 ikasturteak

	2016-17	2017-18	2018-19
Bigarren Hezkuntzako kidegoak	8.107	8.372	8.651
Maisu-maistra kidegoak	1.071	994	932
Plantilla osoa	9.178	9.366	9.583
Unitate kopurua	3.525	3.655	3.704
Ikasleak	75.239	76.914	77.502
Irakasle/ikasgela ratioa	2,60	2,6	2,6
Ikasle/ikasgela ratioa	21,34	21,0	20,9
Ikasle/irakasle ratioa	8,2	8,2	9,1

2.3.3. Plantillen bilakaera, irakaskuntza publikoko irakasleen tipologiaren arabera

Plantilla osoa kontuan hartuta, irakasleak % 6 igo dira bi ikasturtetan. Erretiroen ondorioz, karrerako funtzionarioen kopuruak behera egin du 2018an, baina errekupearatu egin da 2018ko EPEko karrerako funtzionarioen izendapenagatik.

Bitarteko funtzionario guztien artean mota guztietako lanaldiak sartzen dira, eta horietatik 4.406k% 100ean betetzen dituzte lanpostu hutsak.

Ordezten diren bitarteko funtzionarioek plaza jabetzan duten karrerako funtzionarioak ordezkatzen dituzte; horien kopurua egunero aldatzen da, eta ezin dira zenbatu bitarteko funtzionarioen ondorioetarako, lanpostua erreserbatuta duten funtzionarioak baitaude.

2.3.3.1 Plantillaren bilakaera 2016-17, 2017-18 eta 2018-19

	2017	2018	2019
Karrerako funtzionarioak	13.740	13.497	13.721
Praktiketako funtzionarioak	731	1.079	1.875
Bitarteko funtzionarioak	7.069	7.628	6.419
Ordezkapenean dauden bitarteko funtzionarioak	2.269	2.465	3.416
Laboralak finkoak	646	612	533
Aldi baterako tenporalak	161	162	199
Guztira	24.616	25.443	26.163


2017an, birjarpen-tasak (erretiroengatiko, heriotzengatiko eta eszedentziengatiko eta lanean hasteagatiko kargu-uzteen arteko aldea) 845 plazakoa izan da, 2018an 937koa eta 2019an 871koa.

2.3.3.2 Sistema osoko lanaldiaren% 100ean hutsik dauden lanpostuen benetako okupazioaren gaineko bitartekotasun-ehunekoa.

		Funtzionarioak/laboralak/praktikak	Bitartekoak	Guztira	%bitartekotasuna
2017	Lehen Hezkuntza	8.271	2.143	10.414	20,58
	Gainontzeko mailak	6.846	3.446	10.292	33,48
	Guztira	15.117	5.589	20.706	26,9
2018	Lehen Hezkuntza	7.776	2.800	10.576	26,48
	Gainontzeko mailak	7.502	3.070	21.148	27,76
	Guztira	15.278	5.870	21.148	27,76
2019	Lehen Hezkuntza	9.906	1.035	10.941	9,45
	Gainontzeko mailak	6.223	3.142	9.365	33,5
	Guztira	16.129	4.177	20.306	20,57

Lehen Hezkuntzan, maisu guztiak sartzen dira. Haur eta Lehen Hezkuntzakoa eta Helduen Hezkuntzakoa.

Gainerako mailetan irakasle guztiak sartzen dira, laguntza-zentroetako eta Hezkuntzako Ikuskaritzako langileak barne.

2.3.3.3 Azken bost urteetako bitartekoen plantillaren bilakaera

KRISTAU ESKOLAREN BOTO PARTIKULARRA

Mikel Ormazabal Loinaz Kristau Eskolaren zuzendari nagusiak, aurkeztuta, 2017-2019 Euskal Hezkuntza Sistemaren egoerari buruzko txostenari, 2020ko irailaren 24ko Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuran onartua izan dena.

Osoko Bilkuraren Erabakiaren aurka eta desados gaudela adierazten dugu, gogoeta eta oinarri hauen arabera:

Aurreko egoera-txostenetan finantzaketaren gaia hemen jaso da: Kapitulu propioa, HEZKUNTZA SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK izenburupean.

2017-2019 aldiari buruzko txostenean, FINANTZAKETAren gaia izenburu berarekin agertzen da, baina ERANSKIN gisa, hain zuzen 2. Eranskina. Hasteko, ez da tratamendurik egokiena gai nuklear baterako euskal hezkuntza-sistemaren egoerari heldzerakoan.

Finantzaketari buruzko ERANSKIN horretan, hezkuntzaren "adierazle" ekonomiko gisa, hezkuntzako gastuari buruzko koadro batzuk jasotzen dira, eta, ondoren, Hezkuntza Sailaren aurrekontuak eta irakasleen plantillak aztertzen dira

Baina ez da jasotzen, itun-moduluaren benetako estaldura ezagutzeko beharrezkoa den sare publikoko eta itunpeko hezkuntza-etapa eta -maila bakoitzean ikasgelak duen kostuaren datua. Oso datu esanguratsuak alde batera uzten dira, hala nola sare batean finantzatzen diren kontzeptuak eta zenbatekoak, eta ez bestean.

Eta azken batean, ez dira sartzen nahitaezko taula konparatibo publiko-itunduak, batari eta besteari zuzendutako baliabide ekonomikoen erabileraren eraginkortasunaren adierazleak, honako hauek kontuan hartuta: gelaren benetako kostua, ikaslearena, ratioak (irakaslea/ikasgela eta irakaslea/ikaslea), ikasle bakoitzeko erabilitako baliabideak, (publikoa eta itundua).

Gainera, FINANTZAKETAri buruzko atalean, eranskin gisa erantsi den bezala, ez dira ONDORIORIK atera, ezinbestekoak direnak egoerari buruzko txosten baterako.

Ikastetxe guztiak dira egokiak hezkuntza-sistemaren helburuak lortzeko, haien titularra eta izaera juridikoa edozein izanda ere.

Finantzaketa publikoaren araubidearen oinarri eta helburu izan behar da itunpeko ikastetxeek egonkortasuna eta segurtasun juridikoa izatea, beren eginkizunak eta erantzukizunak modu egokian egin ahal izan ditzaten.

Horretarako, finantzaketa publikoak irizpide objektiboetan oinarritu behar du, eta irizpide horien aplikazioa egoera objektibo eta neurgarrietan gauzatzen da.

Itunpeko ikastetxeen hezkuntza-jarduerak ere benetako gardentasun eraginkorrari erantzun beharko dio.